

EGAN



1-6
1983

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

LIZARDI ETA LIZARDIREN INGURUAN: Juan San Martín.	5
XABIER LIZARDI, poeta: Karlos Otegi	11
ARESTI ETA TAUER-en ARTEKO HARREMANAK: Jose M. Satrustegi	23
ERA ZAHARREKO SANTA AGERA KANTA, JULIO URKI-JOK MARKINAN JASOA	49
CHRISTMAK (Bitoriano Gandiaga): Otsalar	51
UMA-ONCITIC NEGARRA	59
1. Edocein gailegok eguinen luqueen negarra	61
2. Ikus-vistaren mina	62
3. Lurra eta campaiac	64
4. Han urrunean... ..	65
5. Hire patua	66
6. Itzulico haicenean... ..	67
NERE IZATEAZ: Bello Ferran	69
ZEZEN LARRUA (S. Espriu-ren «La pell de bau» Otsalarrren euskaratua)	71
JUAN SAN MARTIN'eri: Santiago Aizarna	77
JOAN INAZIO GOIKOETXEA «GAZTELU» OLERKARIAZ ZENBAIT ABURU; Otsalar	79
UZTAPIDERI AZKEN AGURREZ: Juan San Martín	89
KONTU KONTARI	
SUGEAK TXORIARI BEGIRATZEN DIONEAN: Bernardo Atxaga	95
GOTZONEN IRRATIA: Jesus Maria Olaizola	117
KIRTER URDINETAKO ARMAIRU ROXA: Mertxe Ezelza	133
ZINEA GUSTATZEN ZITZAIEN TXITOEN ISTORIAO: Bernardo Atxaga	143
GURE BANDERAREN ALEGIA: Mayie Elissagaray	151
GIZONA ETA LURRA: Koro Iratzoki	161
BARATZURI-SALDA: Etxeberria'tarr P. s. j.	165
IXTOAN BIURRI: Etxeberria'tarr P. s. j.	179
ADABAKIAK: Juan San Martín	
Vascongado	197
Mendi tar Baten Kantua	198
Baigorriko Baxerak	199
Lapitzaren Arauak?	200
Manueltxo	200
Etxeparen Garaiko Poesiak	202
Broussain Apeza?	204
Azkenez, hara emen, sukaldaritzako hastapenak ematen digu pena	205
LIBURUAK	
MAIATZ: Juan San Martín	211
FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU «Bordari»: J. S. M. ...	213
PETER FREY - GUNTER BRETTSCHENEIDER: J. S. M. ...	219
ARANTXA URRETAVIZCAYA: Otsalar	220
ION GOIKOETXEA MAIZA: J. S. M.	221
KOLDO IZAGIRRE: Otsalar	223
ANTZERKIA	
BAI ala EZ: Daniel Landart	227
EUSKAL IKASTOLA (jaialdiak osotzeko antzerki laburra): Egilea: Xabier Gereño - Abestiaren egilea: Sabin Gereño - Hizkuntzaren zuzenketa: Imanol Berriatua ...	273

EGAN

EGAN

SANZ-ENEA UDAL LIBURUTEGIA



1018556

891.69 EGA

1983 1-6

M

LIZARDI ETA LIZARDIREN INGURUAN

EGAN

Agur, jaun-andreak:

Guare mende honen hasieran, uraindik erromantiko kutsu nabarmen zebilen euskal literaturan eta horren ondasun askarain aurkitu ziren Lizardi zeuaren garaikoak. Kultur ekintzak ezin izaten ditutze berrin modak eta horrekia batean sorketarako bai bere baitan aldakuntzen beharra. Sorketaren bidez erortzen egungora aldatu beharra bere baitan bai du kultur ekintzak. Belaunaldi bakoitzean, zientzia eta teknikak bezala, kultur ekintzak ere gara: bakoitzeko gizarteari moldatu eta lotu beharra dutenez.

Hortan ohartuak ziren Euskaltzaleak zeritzan ekartearen mugak hura asmatu zituenek. Era berriarekin egosiko zuten zuzen erabiltzea edo mantentzea beharrezko zen; eta horrek ekintza berriak sortera.

Aldakuntza Arkadia bereziren bat izan genuen ustea, euskal literaturaren erromantikoko maila erabiltzen zuten ideia zen, oraindik erromantikoki sasi-tilura hortan amets egiten zutelarik. Hor

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: Luis Michelena y Juan San Martín

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

EGAN

SURLENTAMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGA DE AMIGOS DEL PAIS
-Direccion y Redacción: Luis Michelena y Juan San Martín

ISSN 0422-7328. Título Clave: EGAN
Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

LIZARDI ETA LIZARDIREN INGURUAN

*(1983ko martxoaren 13an
Tolosan Lizardiren omenezko
ospakizunetan irakurria).*

Agur, jaun-andreok:

Gure mende honen hasieran, oraindik erromantiko kutsu gehiegi zebilen euskal literaturan eta horren ondasun kaskarrakin aurkitu ziren Lizardi zenaren garaikoak. Kultur ekintzak ere izaten ditutze beren modak eta horrekin batean sorketak ere bai bere baitan aldakuntzen beharra. Sorketaren bidez egunean egungora aldatu beharra bere baitan bai du kultur ekintzak. Belaunaldi bakoitzean, zientzia eta teknikak bezala, kultur ekintzak ere garai bakoitzeko gizarteari moldatu eta lotu beharra dutenez.

Hortan ohartuak ziren Euskaltzaleak zeritzan elkartearen mugimendu hura asmatu zutenek. Era berritzea egosiko zuen salda egokitzea edo maniatzea beharrezko zen eta horrek ekarri zuen elkartearen sorrera.

Aintzina Arkadia bereziren bat izan genuen ustea, euskaldun erromantikoek maizenik erabiltzen zuten ideia zen, orduko olerkariak sasi-lilura hortan amets egiten zutelarik. Hargatik nahi izan zuten Euskaltzaleak elkartekoek literaturaren eraberritzea eta bide berrietatik bizkortzea, euskaldun gazteria lozorrotik atereaz.

1926 eta 1927. urteetan egosi zen «Euskeraren Eguna» ospatzeko ideia, zenbait jaialdirekin batean literatura lehiaketak eta

bertsolari saioak antolatuz. Horren ondorioz, 1930. urteko martxoaren 9an, Zumaian bildurik, «Euskeraren Eguna»-ren antolatzaileek, orduan ehun pertsona soil soilik taldea osatzen zutenek, Euskaltzaleak deitu elkarteari eman zioten hasiera. Beren deiak erantzun ona izan zuen eta bat batean bi mila bazkideren kopurura hurbildu: Olerki, Antzerki eta Eleberri lehiaketak eratzeaz gainera euskara eskoletara eroateko ekin-tzak bideratzea hartu zuten helburutzat. Urte bereko irailean Bergaran eratu ziren Eusko Ikaskuntzaren batzarretan parte hartu zuen lehen aldiz bere egiturazko nortasun osoan. Baina aurkezpen hontan olerkiari soilik lotuko natzaio, Lizardiren garaiko giroaren adierazgarri.

Erakundeek izaten dute gizon eragilerik eta Euskaltzaleak zeritzanean Jose Ariztimuño «Aitzol» nabarmendu zen gehinik. Kulturaz jantzia zen eta ondotox zekien literaturak gizartean duen garrantziaz eta literaturgintzaren barnean olerkariak zer nolako balioa zuen. Ikusi besterik ez dugu 1930. urtean Errenderian eratu zuten olerki sariketaren bildumari egin zion hitzaurrean ziona: «Oraingoan, euskalduna, gure izkera apaindu eta aberastu bearrean gera. Eusko-elertia oparotsuenetakoa ez bada ere, ez da askok uste lezateken bezin argal eta makala. Euskaltzaleak, alaz guztiz, gure elertiari mendu gazteak txertatuz sendotu nai lukete. Ortarako biderik egokiena ordea, elerti gaiari eragitea zaigu. Goitar indar meea, almen-biotzetan, darabilkiten gazte azkarrak bai bai-ditugu». Eta, esaldi horren ondorean holako ideiak agertuko zituen: «Olerki opari-ugaritsu gabe euskera ez da ernaituko, iñungo izkerarik poesi-neurtitzik gabe garatu eta sendotu ez dan bezela... Izkera-langille bearrerekoak, olerkariak dira...». Eta aurrerago ere jarraituko du esanaz: «Izkera guzieren lurraldeetan sasi eta larrak garbitu dituztenak, soroetan azia lendabizi erain dutenak olerkariak izan dira».

Horregatik, nere aldetik, behin eta berriz errepikatuko dut: literatura lantzen ez duen herriaren hizkuntzak, ez duela etorkizunik.

Baina, zenbait ahalmen lortu dugun garaian, gure kultur ahulezia nabarmen ageri da. Hizkuntza baten ondasuna literatura izanik ere, euskal idazleei laguntza emateko plangintzak,

nonbait gerorako utziak ditugu. Zeren, oroi Lizardi berak hortaz ziona: «Euskerak eman digu erri-izena. Euskera da gure bereiz-alderik (*hecho diferencial-ik*) nabariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok: euskera-gabetzeak arrotu».

Eta euskararen ondasun gordailua, behar orduetan elikadura eskainiko digun gordailua, literatura lantzean dugu. Gure irrati, zinema eta telebista nahi baldin baditugu, ezina iduritzen zaigu itzulpen hutsez ibiltzea, arrotz kulturaren menpe erortzerik nahi ez badugu. Beraz, gure literatura indartu, ondasunnez gaurkotu eta aberastuz, bertan aurkituko dugu euskaldun senetikako kulturgintza, beti hartzaile eta zordun izan gabe, guretik besteengana emanaz eta hizkuntzaren altxorra zainduz.

Garai hartan ere halako asmoak bultzatzeko asmatua zen Euskaltzaleak elkarte, eta oso ongi hornitu zituzten olerki lehiaketa haiek, egitura egoki baten barnean. Zazpi urtez egin ziren eta uzta aberats jasotzen ari zirelarik gerra zibilak eten zuen ekintza bikain hura. Ospatzen zen hiri bakoitzean idazlearen baten gorazarrez prestatzen zen, hitzaldiekin eta jolasekin herriari parte harreraziz. Hots handia izaten zuten eta euskaldunagan literatur irakurketarako egarria sartuz. Lehen lehiaketa, esan bezala, Errenderian ospatu zen Luis Jauregi «Jautarkol» zenaren *Biozkadak* liburua aurkeztuz. Aitzol bera izan zen hizlari, liburu aurkeztuaren aburuz. Eta, urte hartako saria Esteban Urkiaga «Lauaxeta»k irabazi zuen «Maitale kutuna»-rekin. Lizardi ere partaide izan zen, lehenari zorrik gabeko hiru olerki laburrekin: «Agur!» (*Maitea* zeritzan poemaren zati bat), «Paris'ko txolarrea» eta «Otartxo utsa» aurkeztuz. Partaidetza haregatik hara zer zion Aitzolek: «Euskerari bide berriak idekitzearren, bide xiurrak utzita zabaleera jo dezan, almen bikañeko olerkariak agertu zaizkigu, Agirre jauna, Lizardi izenordez, eta Tapia'tar Alexander, Iruña'koa».

Lauaxeta, garai hartako olerkaririk ikasienetako bat izan zen. Bere gogo guztia irauli zuen olerkaritza berritzez eta indartzez. Olerkari ikasitza jotzen zuen Aitzolek ere, aipatu dudana hitzaurre hortan ez ezik *Bide barridak* (1931) zeritzan liburuari egin zionean ere bai. Hortarako, modan jarriak ziren frantsez poeten jarraitzaile jartzten zuen: nola Jammes hala

parnasisten eskolaren sortzaile zen Baudelaire. Baina, egia esan, Aitzolek aipatzen ez bazuen ere, Espanian bertan piztu zen beste modako batzuri ere jarraitzen ziela esango nuke, 27. balaunaldikoeri (*Generación del 27*). Arrats-Beran liburuko «Langille eraildu bati», gaia bestelakoa bada ere, García Lorca-ren *Antonio de los Camborios*-en egiturazkoa bait da. Gaia ordea, langileria arazoko olerki sozial horietakoa zen Lauaxetarena, Espainiako Miguel Hernandez-i aurea hartuaz. Hori bedori dugu Lauaxetagan gai berritze kezkaeren adierazgarri.

Urrengo urteko olerki lehiaketa, 1931koa, Tolosan bertan ospatu zen, Emeterio Arreseren omenez. Bonifazio Etxegaray izan zen hizlari, Arreseren obra kritikatu, eta urte hortako olerki saria Lizardik jaso zuen «Baso-Itzal» zeritzan olerkiarekin. (*Urte giroak ene begian* poema hunkigarriaren zati bat zen).

Handik laster agertu zen *Biotz-begietan* liburua. Orixe zenak izan zuen Lizardigan zer ikusirik, euskarazko orraztape-nez gainera lehiaketa haietan parte har zezan eta liburu hori argitaratzen, bere hitzaurre jakintsuz. Hala aitortzen zuen *Itz-lauz* liburuaren hitzaurrean jasotzen den esaldi hartan: «Ni izan ez banintza, oraindik argitara gabe zegoan Lizardiren liburu txoragarri ori. Egia esan, ni izan ez banintza Yainkoak besteren bat sortuko zun; baña ni izan naizelako ez al daukat pozbiderik? «Etxeak bear ta bideak ekarri», dio esan zaarrak. Arentzat ontan ni ekarri nindun...».

Lizardiren olerkari balioak ez dira erraz neurtzekoak. Hala ere, Karlos Otegik lan ederra burutu du, euskarak inoiz eman duen olerkaririk handienetakoaren azterketaz. Aitzolen gidaritzapean mugitu zen Euskaltzealeak elkartearen ekintza inguruan loratu zen Lizardi ere; han nabarmendu zirenetatik ere aski olerkari berezia. Bere gogotik sortzen zitzaizkion olerkiok, gogamen aberatsa zuen eta ekarria ere halakoa; sorke-tarako ahalmen berezia, irudimentsua, ikuspegi berezia zuena eta txukun adierazten zekiena. Hizkuntza bera, labur esaldiz, idea osatuak, edertasunez jabeturik, hizkuntza poetikoan ino-ri zorrik gabea.

Lehiaketa haiek berritasuna, bizkortasuna eta bizitasuna ekarri zioten euskarari. Partaideen arteko ziren, besteak beste,

Orixe bera, Tapia-Perurena, Txomin Jakakortajarena, Jautarkol, Imanol Enbeita (Urretxindorraren anaia), A. Ezenarro, A. Zugasti eta abar. Baina, lehiaketa haiek bultzaturik, izen handia hartzera heldu ziren olerkari gazteagorik ere bazen; horien artean: Loramendi, Zaitegi, P. Etxeberria, S. Onaindia, Bingen Ametzaga, E. Erkiaga eta galdu berri dugun J. I. Goi-coetxea «Gaztelu».

Ekintzaren zuzpertzaille zen Aitzolentzat ohorerik handienetakoia izanen zen, neurri handi batean behintzat, zuzpertzear-tatik agertu zirela olerkari berri on asko eta beren artean ez ezik euskal literaturaren historian ere gailur erpinean jartzea merezi duen Lizardi ospetsua.

Juan SAN MARTIN

Jain-ganduek:

Euskal literaturatik Lizardi ezakal munduari eskaintzen duen garaikaldi onartekor hantzen, beharrezkua da bere lan literari-koak aipatzea eta gaitiruki behintik behin ostertzen.

Alfabeto batzuen eraginez estatuaren berruzan ezin da Lizardiaren lanak liburu baima onartzen ezakal arakitu, baina, eta horien beharrezko arakuzte sakonagatzen ezin da horien gaitiruki ohar bereziki handik aurrerantzen mugatuko gara, gure idazlearen eraginez tartu Nazional eskaini, bera baita, eta ez gu, gaueko olin-koaren ardura.

Argi-argurako «Zaitegi»

Lizardiaren lanak munduari eskaintzen duen garaikaldi onartekor hantzen, beharrezkua da bere lan literari-koak aipatzea eta gaitiruki behintik behin ostertzen.

Lizardiaren lanak munduari eskaintzen duen garaikaldi onartekor hantzen, beharrezkua da bere lan literari-koak aipatzea eta gaitiruki behintik behin ostertzen.

XABIER LIZARDI, poeta

(1983ko martxoaren 13an Tolosan Lizardiren omenezko ospakizunetan irakurria).

Jaun-andreok:

Euskaltzaindiak Lizardi euskal idazleari eskaintzen dion omenaldi maitekor honetan, beharrezkoa da bere lan literarioa aipatzea eta gaingiroki behinik behin azterteza.

Minutu batzuen muga estuaren barruan ezin da Lizardiren lan laburra baina mamitsua osoki azaldu, beraz, itz hauen helburua arakatze sakona egitea ez denez gero, oinarrizko ohar literario batzuk aurkeztera mugatuko gara, gure idazlearen hitzari tarte zabal eskainiz, bera baita, eta ez gu, gaurko ekin-tzaren ardatza.

Poesigintzarako ikuspegia

Lizardik hiru idazmota landu zuen bereziki: prosaz moldatutako artikulua, teatroa eta poesia. Artikulu sailean, hortxe dugu «Itz-lauz» liburua, egunkari, aldizkari eta hitzaldietarako prestatutako zenbait artikuluren bilduma. Teatro arloan, bi idazlan asmatu («Laño» ta «Izar», Ezkondu ezin ziteken mutilla), eta beste bat frantsesetik itzulia (Bi aizpak).

Guk ordea, orain, teatroa eta prosa utzirik, «Biotz-begietan» eta «Umezurtz olerkiak» liburuetan jasotako poesiari lotuko

gatzazkio, hauxe baita Lizardiren idazlanik ezagunena eta osoena. Eta hasteko, Lizardik poesigintzaz duen ikuspegia azalduko dugu.

—Zer da poesia? Zein da poesiaren muina edo izaera gure poetarentzat? Lehenengo galdera hori erantzuna emateko, «Biotz-begietan» poesi bildumaren hasieran egileak ezarri duen olerki laburra har dezakegu abiapuntutzat:

«Biotz-begietan zatzaidate sortu:
biotzeanago batzuk; bestek
betsein-betseñotan... Biotz-gabe ta itsu,
nork, izan ere, bil olerti-loreak?».

Poesigintza zer den adierazteko Lizardik «sortu» aditza darabil. Poesia, beraz, harentzat, sorketa ekintza da, sortu egiten den izakia. Batzutan poesia inspirazio berezi, argitze misterioitsu, barne eraginaren ondorioztat ulertu ohi da; bes-tetan, berriz, teknika estu, lan disziplinatua fruitu gisa. Lizardik arduraz eta kontzienteki jorratu zituen bere olerkiak, hala ere, ikusten dugunez, poesiaren izaera zertan datzan azal-terakoan sorketa alderdia, ezinbestekotasunaren ezaugarria az-pimarratzen du.

Antzeko ikuspegia somatzen dugu «Itz-lauz» saileko bi artikulutan. Izenburuak guztiz adierazgarriak dira: «Erdibearra», «Olermen-irakite». Lehenengoan, Lizardik bere esperientzi poetikoa kanporatzen du eta honela dio: «Irudimena asi zitzaidan bazter guztietatik izeki eta suak artzen (...) Otzikarak astintzen ninduan; sukar larri batek menderatzen (...) Erditu-bear estua zetorkidala antz-emanik...». Poesigintza, beraz, ezinbestean datorren erditze larri eta irakite gartsuarekin parekatzen du, Hemen ere, berriro, poesiaren alderdi espontaneo, sortzaile aurkitzen dugu.

Bestalde, poesiari berari sujetotasun berezia ematen dio: zuek «zatzaidate sortu». Badirudi olerkiak berez, beraien eragin propioz ernetzen direla, poeta, nolabait esateko, pasiboki, hartzaile jasankor baten modura, ezinbesteko erditze edo sortze ekintzan aurkitzen delarik.

—Poesia sortu egiten da. Non? «Biotz-begietan» dio Lizardik. Bihotz-begiak dira poesi loreak ematen dituen lur emanorra. Ikusiz eta barnean egosiz sortzen da poesia. Biotz gabe eta itsu ezin poesia burutu. Hain zuzen, «begia» da Lizardiren «Biotz-begietan» maizen agertzen den izena. «Gaua», «eguzkia», «eguna», «bizia», «lurra», «argia», «biotza»..., izenak adibidez, sarritan azaltzen dira, baina ez «begia» izena hainbat. «Begia» izena gainera, «begiratu» eta «ikus» aditzez osatu beharko litzateke berorren eremu semantikoa osokiago jasotzeko. Lizardirentzat, beraz, begia da nagusiki poesiari sortzeko aukera eskaintzen diona. «Neskatx urdin-yantzia» olerkian egiazta dezakegu:

«Begi eder-goseok
ase zakidate!
iñon ezpaitake
ederrik, au beste».

—Zer da poeta orduan? Lizardik ez da definizio zehatz bat ematera ausartzen eta gutxi gora beherako hurbilketa proposatzen du: poeta ikuspegi bereziaz jantzitako pertsona da, biziaren osakaia prisma sublimagarri baten bidez begiztatu eta harrigarritzko moduan aurkezten dituena.

Poetaren «ni»a

Abiapuntutzat hartu dugun «Biotz-begietan zatzaidate sortu» bertso-aberatsean, Lizardiren poesiaren oinarritzko ezauzgarri bat aurkitzen dugu: poetaren hurbiltasuna, olerkariaren presentzia. Lizardiren poesian poetaren «ni»a ia etengabeki agertzen da, poeta presente dago bere olerkietan.

«Biotz-begietan» eta «Umezurtz-olerkiak» bildumetan hogeitahiru olerki eta bi poema luze, edota, beste modu batera zenbatuz, hogeitamasei olerki jasotzen dira. Hogeitamasei horietatik hogeitazortzitan argi eta garbi azaltzen da poetaren «ni» hori, zenbaitetan zuzenki lehen pertsonaren izenordearen bidez, besteetan zeharka, aditz forma pertsonalez:

- «Nik amestan bezala / ote-aiz mendi-gaña?» (Mendigaña).
- «Baña nik, izkuntza larreakoa / nai aunat ere noranaikoa» (Eusko-bidaztiarena).
- «Beetik nator, ibarrak / izoztuta utziak» (Izotzondoko iguzki).
- «Amonatxo bat nun: gaur, enarak / etorri-garaiez, aldegiña» (Biotzean min dut).

Etabar, «Ni» hori, oro har, Lizardi bera da, gure poeta hustu egiten baita bere olerkietan. Ez da fikziozko «ni» poetiko bat, ez eta itxura joko hutsa. Poetaren txertatze pertsonala baizik. «Ni» hori batzutan lekuko da soilik: «Ondaurtz / Beean dut agiri» (Ondaurtz-abestia); bestetan sujeto eragilea: «Maite ditut gallurak / argiak ez beste» (Mendi-gaña); zenbaitetan poesiaren objetoarekin bat egitera iristen da: «Oi, ene lur ne-rea!» (Bultzi-leiotik), «Berriro igo nauzu ene mendira» (Ondar gorri).

—«Ni» iraunkor horren bidez lortzen den poetaren hurbiltasuna, beste baliabide nagusi batez sendotzen da; aditzak adierazten duen orain aldiaren nagusitasunaz. Lizardiren poesia, orain aldiaren maiztasuna nabarmena da.

Zenbait kasutan, aditzaren aspektua burutua delarik, orain aldi apala:

- «Aingura bota dut Arratsaldean!» (Ondar gorri).
- «burruka sortu zait / eztia, barnean» (Egamin).

Baina aditz sintetiko puntuala erabiltzean orain aldi bizia lortzen da:

- «Yoka nagokik atea» (Asaba zaarren baratza).
- «Lurra naigabez zegok, aizea zinkuruz» (Zuaitz etzana).
- «Badator bera Gazte / goiko sukalderi muzin» (Amona).

- «Aizea dabil, busti setatia: / lurrari daragio ots negartia» (Ondar gorri).

Orainaldi nabarmena ere «gaur» adberbioa erasten de-
nean:

- «Gure sukalde zarra / etxe pizgarria / bart, lagun arte goxo / gaur, bakar gorria» (Euskal-pizkun-dea).
- «Arru beetik ez dator gaur ur-otsik» (Baso itzal).
- «Gaur, orra agiri, tarteka, urdiña...» (Sagar lore).

Eta zer esan bertso-lerro honi darion lehen aldiaren orainaldiaz?: «Maiteñoa zait il atzo / aretoan gorputz dago» (Etxeko keea).

Gaur, oraindik, Lizardiren poesia irakurtzerakoan poetaren hurbiltasuna sentitzen dugu «ni» eta orainaldi horien bidez.

Apostrofea eta pertsonifikazioa

Lizardiren olerkietan, maiz, poetarenaz gain bada bigarren presentzia bat: bere olerkietan txertatzen diren gauza, animalia eta pertsonak, hitz batez, poetaren «ni» az gainera, agertzen diren izaki bizidun eta ez-bizidunak. Izaki hauek, gutxitan, beraien artean sortutako elkarriketa zuzenaren bidez moldatzen dira, sujeto gisa hitzeginez: ama eta haurra (Zeru-azpia), senar-emazteak (Xabiartxoren eriotza), txoriak (Aldakeri...)

Baina orain azpimarratu nahi duguna zera da: lehen seinlatu dugun poetaren «ni» ari parekatzen edo lotzen zaizkion «zu» edo «hi» berezien presentzia. Poetak, olerki askotan, izenordez edo aditz forma pertsonalen bidez espresatzen diren bigarren pertsona horiei apostrofe modura hitzegiten die. Poetak begizatzen dituen «zu» edo «hi» hauek ez dute erantzunik ematen, zenbaitetan hitzegiteko ahalmenik ez dutelako, bestetan poetarengandik urrun daudelako. Horrela, Lizardi hizketan jartzen da inguruarekin eta izakiei mintzo zaie, ez elkarriketa sortuz, itzuliko ez zaion bere hitza zuzenduz baizik.

Olerkariak objetoei, izaki ez-bizidunei mintzo zaie:

- ohea: «aita gure bat ere /biyoa, zu asmatu zinduanarentzat» (oia).
- otartxoa: «noizdanik, gaxoa / ez duzu lorerik?» (Otartxo utsa).
- sukaldea: «Amonarekin batez / duzu utzi bizia» (Euskal-pizkundera).
- sukaldeko aulkia: «Amonaren alxia / ago sutondoan» (Euskal-pizkundera).
- loa: «Oi, zein aizen eder loa! / eriotzaren anaitzakoa» (Bizia lo).
- euskara: «Ez adi beldur, nere Maiteder» (Euskobidaztiarena).

Bai eta gizakiei ere:

- maitea: «Zerk goibeltzen zaitu, maitea, arratsero / aizea ta txoriak atertuz-gero?» (Arrats gorri).
- amona hila: «aur-yolasik ez dago / gaur zure kailean» (Biotzean min dut).
- Onuzki: «Adiskide kuttun, lagun zorigabe (...), atorki, Onuzki, gaur oroimenera» (Agur!).
- semetxoa: «Ez il, ez /arren, txikia!» (Xabiartxoren eriotza).
- nekazaria: «Nekazari / gizandi bat iduri / so-roan zut: / beyondeizula zuri...!» (Bultzileiotik).

—Baina objetoak eta gizakiak baino areago izadia da Lizardiren apostrofearen mintza-lagunik aukeratuena, solaskiderik sutsuena:

- sagastia: «bide ertz onetan, nadin eseri, / iri begira, sagastia» (Sagar lore).
- txoriak: «ioil txoriak, ta kanta alaiki» (Sagar lore).

- Txindoki: «Txindoki, orain agokit aurrean / go-riak astundu-tantai arrizko» (Baso itzal).

Izadiarekin harremanetan jartzerakoan, «zu» eta «hi» horiek jadanik, berez, suposatzen duten pertsonifikazioari poetak beste pertsonifikazio berezia erasten dio, izakiak gizakumearen ezaugarriaz jantziz:

- udaberria: «neskatx urdin-yantzia» (Neskatx urdin-yantzia).
- negua. «negu agurea» (Sagar lore).
- eguzkia: «yaun orail eder, legorteen aita» (Sagar lore).
- izotz-ondoko eguzki: «neguaren parre» (Izotz-ondoko iguzki).
- gaua: «ama Gau beltxeran» (Ama Gau beltxeran...).
- lurra: «andre lurra» (Ondar gorri).
- zuhaitza: «arbaso pakezale agurgarri» (Zuhaitz etzana).
- mendia: «adiskide urruna» (Mendi-gaña).
- kea: «mutil alai» (Gazteren esnatzea).
- itzala: «andereño otzan» (Baso itzal).
- kilkerra: «olerkari arlotea» (Sagar lore).
- txitxarra: «alper eder» (Ondar gorri).

Poetak izadia, alde batetik, izate mailari dagokion pertsonifikazioaz, tasun estatikoaz, izen kategoriaz alegia, jazen du (ama, aita, ume, andre, adiskide, mutil...), baina bestetik, aurrekoa aberastuz, pertsonaren iharduera aktiboari dagozkion ekintzez, aditzak adierazten duen ekiteaz osatzen: zuhaitzak esku sendoaz idazten du enborretako biribilkietan, otalorak dei egiten dio udaberriari karraxika, udalehenak irri zoro ozena du, soroa maldan etzanik dago, egunak arrausi egin nahi du, egunak bekaitz sentitzen du, goiza jaio egiten da, haizea

haserre dabil, eguzkiak basoari eta mendiari mun egiten dio, basoa orritz jazten da, izarrak gauaren sabelean argitzen du, eguzkiak bere besoa sartzen du goizez etxeko leihotik, baratza eguzkiz jazten da, euriak eguzkia giltzapean sartzen du eta hodeien sabelean katez loturik dago, lurra eta zuhaitza elkarri munda daude, etabar.

Horrela, Lizardik inguruko izadia antzaldatu egiten du, soineko berriz jazten, poesia bihurtzen.

Hizkera poetiko trinkoa

Poetaren «ni»aren eta inguruko «zu-hi» artean sortzen den harremana hizkera poetiko mamitsu eta trinkoz gauzatzen da.

Lizardiren lexikoa oparora da, aberatsa, landua, euskalki desberdinetatik aukeratua, zenbaitetan garbizale kutsukoa. Esaldia ordea laburra eta trinkoa. Hori lortzeko poetak ezabaketa edo elisio estuez baliatzen da, harentzat beharrezkoak ez diren zenbait atal inausiz, olerkia hizkera poetiko bilduaren galbahetik iragaziz. Hauek dira iragazketa honen ondorio batzuk:

- aditz laguntzailearen ezabaketa: «Amaika aldiz lurpera gizonak gizonak» (Zuaitz etzana).
- aditzaren ezabaketa: «Errezka bi gizonak / argizari oriak; / gorputza lau billobok; / atzetik andreak» (Biotzean min dut).
- aditz sintetikoaren erabilpena: «Mendia yaiez dago / urrezko yantziaz / aren parrea dadat / irrika biziaz» (Izotz-ondoko iguzki).
- Izen sintagma soilez osatutako bertso-lerroak: «Neke-sendalaria, / buru-argitzallea, / lanaren saria... / Amestegi guria, / naigabien azkaia, / nagiengien nausia» (Oia).
- Artikulurik gabeko sintagma mugagabeak: «gaur poz, biar oñaze / noiz burni, noiz zillar» (Biotzean min dut).

- Hitz konposaketan, erlazio atzizkien elisioa: leen oiartzuna, ille-urdintze, aizezotin..., negar-aran, elur-malutak, lur-ontzitxo, zillar-begiak, ezegai-tttanto...,
- konposaketa bereziak: «maitasun-edermen-zitu» (Eusko-bidaztiarena), «Poz-oñaze-kateak» (Biotzean min dut).
- Jarraian datorrena bi puntuz irekitzea: «Baibaitatza eria / ogean: erio / atzapar itsusia / luzatzen ario» (Izotz-ondoko iguzki).
- Hiru puntuz sujeritza: «Arrats gorria il da...» (Arrats gorri).
- Harridura trinkoak: «Agur!» (Biotzean min dut), «Amets!» (Etxeko keea), «Noizbait!» (Oia).
- Galdera bilduak: «Biar?» (Oia), «Eskatu?» (Zuaitz etzana).

Lizardiren poesian, trinkotasuna hizkera poetikoaren osagai oinarrizkoa da, baina ez bakarra. Poetaren «ni»a, apostrofearen erabilpena, naturaren pertsonifikazioa ere garrantzitsuak dira. Orobat imajina edergarriak («Untzi lirain (...) Txindoki»), hots sabaikari bigunak (otarño, loreño... xaar, oxkiro, bixkortu..., muttiko, ttanto, kuttun..., errotxoak, amonaxo...), etabar.

Hizkera poetiko hau da Lizardik bere poesigintzarako aurkeratu duen jantzia.

Biziaren ametsa

Lizardirengan sortu den poesiaren hondoraino jaisten bagara, hizkera poetiko horren bidez mamitzen den mezu, amets nagusia aurki dezakegu.

Lizardik ametsa hiru zentzu desberdinez darabil:

- lotan sortutako ametsa: «Amets dagit nautela / tximirritak eortzi» (Oia).

- esna, irudipenak eragindako ametsa, lilura alegia: «ustez ur orlegiak / nituen oñean (...) / Gezur amesgarria / lillurak sortua» (Neskatx urdinyantzia).
- esna, barne nahiak pizten duen helburua, jomuga: «aurtzaroan yolasti; mutilletan amets-bera» (Zuaitz etzana); «igan ipinitako / amesak» (Xabiartxoren eriotza).

Azken zentzu honetan hartuz, zein da gure poetaren amets, helburu nagusia?: bizia da poetaren desioa, biziaren irrikaz dabil, baina heriotzarekin egiten du topo nonahi; hala ere, biziarekiko ametsa ateratzen da gailen: «Nik ez nai eguna / biurtzerik gau» (Ondar gorri).

Lizardiren poesian gizakia, natura eta aberria dira gai edo sujeto berezienak. Poetak hiruei opa die bizia, hirurak biziaren ardatzaren inguruan txirikordatzen dira. Bizia-heriotza borroka poetarekin harremanetan agertzen diren gizakiengan: heriotzak haurra kolpatzen du (Xabiartxoren eriotza), amona (Biotzean min dut), Onuzki laguna (Agur!), maitea (Etxeko kea)... Batzutan, maitearen kasuan adibidez, poeta ez da heriotzaren zulo beltzetik ateratzen; baina gehienetan bizia nagusitzen da: amona «Egun Aundirarte!» agurtzen du. Onuzki lagunari egoitza ederrago bat opa dio...

Bizia-heriotza naturan ere. Izadiaren edertasuna dario Lizardiren poesiari, baina heriotza ere bertan da: neguan txoria hiltzen da, zuhaitz ebakia lurrean datza, eguna hil egiten da, ke beltzak maitearen heriotza iragartzen du... Hala ere, berriro, bizia gailen: gaua ama da eta egun berria erdituko du, zuhaitz eroria eramango dute eta mendia edertasunez berragertuko da...

Eta bizia-heriotza kontrastea aberri gaietan. Aberria, Euskal Herria, hizkuntza, euskara, ez dira heriotzaren arriskutik libratzen. Poetarengan zalantza sakona sortzen da: «zu're, il ote zara?» (Euskal-pizkundera). Baina ez, aberria «il ez da ta ez da ilko / guk ez badegu nai» (Euskal-pizkundera), euskarak «soña zaar, berri gogo» (Eusko bidaztiarena) izango du.

Bizia-heriotza dikotomia beste zenbaitetan hedatzen da Lizardiren poesian: aurkakotze nagusi horren oiartzunak beste kontraste batzutan ageri da: eguna-gaua, goia-behea, argia-itzala, urdina-beltza, etabar. Baina guztietan poeta biziaren alde jartzen da, Lizardirentzat «ederra baita bizia» (Ondar gorri).

Bukatu beharrean gaude.

Idazlan literarioa agortezinezkoa da, irakurleak beti aurki dezake lehen somatu ez duen alderdi berriren bat eta irakurketa desberdina, aberatsagoa lortu. Guk orain, adibidez, egin dugun irakurketa oso mugatua izan da. Lizardiren poesigintza-zenbait ezaugarri ikutu ditugu soilik. Ez dugu ezer esan eta irakurketa oso batek kontutan eduki beharko luke, Lizardiren metrikaz, koloreen konnotazioaz, adjetibazioaz, simetriaz, sinbologiaz, etabar. Lizardiren poesiaren balio literarioari buruz ere ez dugu ezer esan, horrek, gure ustez, azterketa sakonagoa eskatzen baitu. Halare, ez genuke bukatu nahi ohar batzu egin gabe.

Lizardiren poesia baloratzerakoan ez da neurri berdinez epaitu behar 1916an egindako poesia, «Jaun errukiorra» adibidez, eta 1931ean egindakoa, «Eusko-bidaztiarena» esate baterako. Hamabost urtetako aldea dago eta Lizardik poesi lanean izan zuen bilakaera nabarmena da.

Bestalde, Lizardiren ekarpen edo aportazioa neurtzeko gerra aurreko poeten belaunaldian kokatu behar da eta Lauxeta, Orixe eta Loramendirekin batik bat lotu. Ez nor den poetarik onena erabakitzeko, taldearen ekarpena agirian jartzeko bai-zik, euskal poesiaren berpizkunde hura belaunaldi osoari zor baitzaio, ez poeta bati bakarrik, nahiz eta bakoitzak bere nor-tasun berezia ezarri.

Aupa dezagun Lizardi, merezi du eta, baina berak dituen alderdi baliotsuetan oinarrituz, eta ez beste idazleak beheratuz, horrelako goresmenak ez baitio ez Lizardi ez beste edozein

idazleri inolako mesederik egiten. Eta kritikatu behar dela uste badugu, literarioki ari naiz orain, kritika dezagun azterketa sakon eta orekatu baten ondoren eta ez bizpahiru akatsetan oinarrituta, bere poesiaren osotasuna kontutan eduki gabe.

Gabriel Aresti zanaren hitz batzu aipatuz bukatuko dut. Batzuek Lizardiren poesiari zenbait alderditan erdal kutsua somatzen ziotela eta, honela zioen poeta bilbotarrak: «Eztakit. Eztit inporta. Eztut hori kontutan edukiko. Lizardiren poesiaren barreneko muina erderazkoa ala euskarazkoa denik; bakarrik edukiko dut kontuan munduak sortu dituen poeten artean maitagarrienetako bat dela».

Eta beste behin aitormen hau egiten zuen, agian sutsuegia, baina aproposa omenaldi honetarako: «Lizardi gure artean bizi da, gurekin bizi da. Gure ariman, gure izaeran, gure gutzietan hartzen du parte. Gizonek egunero arrazoiaren alde egiten duen burrukaldian, lagun indartsu bat da. Okerbideak txarki tratatzen nauenean haren abaropean ezkutatzen naiz. Haur txarki alimentatu bat ikusten dudanean, bide ertzeko belar gizenaren azpian hartzen dut babesa. Nire arima deseo gaizto batek hartzen duenean, amonaren hiletaz gogoratzen naiz. Lizardi nirea da, nire esku biak, nire poesia, eta nire herria nireak diren bezala».

Eta hala da. Lizardi, Lizardiren izpiritua, Lizardik sinbolizatzen edo adierazten duenak bizirik dirau gaur ere. Haren poesia orain, alderdi askotan gaurkoa da. Sagasti zuriak, pago pertxentak, arto muskerrak, txori alaiak... gutxitzen doaz, zoritxarrez, baina oraindik egunak begi urdinak ditu, bizia udaberrian zuhaitzen adarretan lehertzen da, Aralar haundia da, Txindokik lurrean errotua dirau, eta euskara «aberriaren abots ezitia» da.

Karlos OTEGI

ARESTI ETA TAUER-en ARTEKO HARREMANAK

Jose M. SATRUSTEGI

Orain dela urte asko, 1957.eko otsailean, hasi nituen nik Praha-ko Norbert Tauer euskalzale ezagunarekin, idazkiz, lehen harremanak. Neure adiskide baten aholkuak bultzatu ninduen horretara. 1956.eko *Luzaide* aldizkaritxoaren ale bat bialdua nion, ordurako, Eguberri onak opatuz. Hogeita sei urte nituen, eta urte t'erdi meza emanik. Handik laster, 56 urte zituela berak esanez, erantzun zidan Tauer-ek. Urte hartan bertan, maiatzaren azken egunean, hogeitabi urte zituen olerkari gazte Gabriel Arestik harremanetan sartzeko eskaria egina zion, bere aldetik, Bohemia hiriburuko euskaldunon adiskideari. Bi lagunak itzali zaizkigularik, Norberto-ren gutun eta eskuizkribu guziak jasotzen izan naiz Praha-ko bere etxean, eta bi lagun ospetsu hauen eskutitzen zabalkundearekin hasten dut altxor honen berri emateko lana. Bedi bien oroigarritzat.

Zer dela-eta jo zuen Arestik Tauer-engana? Europa Erdialdeko eta, batez ere, Sobiet Batasuneko idazle batzuren ondotik hizkuntza berriak ikasi nahian zebilen gure olerkari gaztea: «Bedorren ama-hizkuntza ikasi nahi nuke eta hemen Espainian ezin topatu dezaket metodo apropos bat», esaten dio. Denbora berean, «Posible balitz, hungarozko bat nahi nuke, Lajos Zilahyn hizkuntza ikasteko» (1).

Hogei bat egunen buruan eman zion Tauer-ek erantzun baikorra, eskatutako liburuak igortzen zizkiola esanez. Bide

(1) Euskaltzaindiak 1983.eko ekainaren 24ean egindako batzarrean eman nuen gutun honen berri. Iruñeko txosten horretan hitzez-hit hartua da lehen gutuna eta Tauer-ek emandako erantzuna. Ikus, *Euskera* 1983.2.

batez, Menendez Pidal-ek argitaratu berri zuen zerbait eska-
tzen zion. Horrela sortu zen bien arteko lokarria, nahiz aditzez
ez arrotz izan: «Zure izena, euskal-idazle eta olerkari ospetsua-
rena bezela, aspalditik ezagutzen dut, esaten dio bilbotarrari.
Zure olerki eder-ederrak Euzko-Gogoa-n irakurri ditut asko gus-
tatu zaizkit».

Bien arteko izkribu kopurua ez da hain haundi-haundia,
baina oso jakingarria. Dozena bana gutun besterik ez. Itxuraz,
Tauer-ek luma giderrari lotzeko nagitasunik ez bazuen ere,
Gabrieli gehiago gostatzen zitzaion erantzuna ematea. Horre-
lako zerbait sumatzen da bien arteko joan-etorrietan. Hona
zer zioen bere gutun batean Tauer-ek:

Praga'tik 1956'gko Dagonillaren 27'ean.

Idazkilaria naiz

idazki au 319'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari
Bilbo'n.

Nere adiskide maitea:

Orrillaren 31'gko zure idazkian eskatu dizkidazun liburuak
Garagarriaren 21'ean bialdu nizkizun. Bialdu dizkizudan libu-
ruak oiexek ziran:

1/ Sedláček: Lehrbuch der tschechischen Sprache, eta

2/ Boronkay: Einführung in das Ungarische.

Zoritzarrez, gaurdaño ez dut zure berririk izan, eia nik
bialdutako liburuak artu dituzun ala ez. Ez ba-dituzu artu,
emengo idazketxean «erreklamatu» bear dut.

Zure berrien zai nago.

Nere lan-artetik txartel bat bialdu dizut eta uste dut bere
egunean artuko zinduela.

Onar itzazu, adiskide maitea, nere agurrik beroenak eta
agindu nai duzun guzia zure:

Tauer'tar Norberta'k.

Laudioko bidea ikasten hasia zen Aresti eta «kanpoko mundutik ezelango barririk errezibidu barik» egon zela, esaten, dio erantzunean. Bi hilabete egin zituen, une honetan, Arabako lurraldean. Nola nahi ere, barkamen eskatzen dio.

Bilbon, 1956-VIII-29an.

Norbert Tauerreri, Prahan.

Nire iaun agurgarria:

Ezer ez baino leen, parkaziñoa eskatu biotsut, ainbeste denporaz zuri zor zatsun erantzuna emon ezneutsulako. Baiña itzistazu, mesedez, atxakiren bat opatzea, bada azkenaldi ontan eztut izan bear neban denpora guztia. Bear egiten doten fabrikan, sukursal batera bialdu ninduen, eta Arabako erri koxkor baten egon naz bi ilebete, kanpoko mundutik ezelango barririk errezibidu barik. Etxera hiurtu nasenean, an arkitu ditudaz zure liburuak, zure karta eta tarjetea.

Zuk eskatzen dostazun librua zein zan jaikitoko, emoten zeunstazan oarpenakaz, gatx zan. Baiña azkenean topau dot, ori dala dirudien bat: R. Menéndez Pidal: *Toponimia hispánica prerrománica*. Nire libreruari emon neutsan erosteko kargua, eta orain esku artean daukat zuri bialtzeko prest.

Obe da berandu sekula ez baño, Gaztelako errefrauak diñoan lez, eta neuk eztadukadalako erru guztia, parkatuko dostazula pentsan dot.

Beste barik, urrengo arte,

G. Aresti.

Menendez Pidalen liburua igortzen diolako berria daraman gutuntxo batek, ez eguna eta ez urtea ipintzeko astirik gabe egina dela dirudi. Une honetan egin zukeen, eta aurreko izkribuan azaldutako kezka bera datorkio gogora *baldrestasun* hitza aipatzerakoan. Liburuaren bilduma berean sartutako papertxoa edo izan daiteke (2).

Nire iauna:

Hemen doatzu Pidalek argitaratu duen azken liburua, zenean zer-edo-zer euskerari buruz baitakar.

Zure bigarren letra ere errezebitu nuen, eta ikusten dut nire baldrestasunak arteak eragin dizkizula, eta horregatik damu dut, sakonki.

Sinets ezazu, arren, zure menpekoetarik apalena geratzen natzaitzula.

G. Aresti.

(2) *Sin fecha.* 1956? Ohar hau ipinia du arkatzez goi aldean. Abuztuaren 24ean liburua eskuratua zuela jakinerazi zion Tauer-ek, beraz, bi gutunak egun gutxiren barnean bidaliko zituen Arestik.

Praga'tik 1956'gko Agorrillaren 24'ean.

Idazkilaria naiz
idazki au 339 garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari
Bilbo'n.

Nere adiskide maitea:

Zuk bialdutako «Toponimia prerromanica hispana» ize-
neko liburua oraintxe artu dut. Euskerari buruzko gai jakin-
garriak dakarzki eta neretzat garrantzi aundikoa da. Bialtzea-
rengatik eskerrik onenak ematen dizkizut.

Liburuaren saneurria aundiagoa da bialdu dizkizudan libu-
ruena baño; zure zorduna gelditzen naiz. Pozik zerbait geia-
go bialduko dizut nere zorra garbitzeko.

Mingarri zait nere azkeneko idazkia ez duzula ongi kom-
prenitu. Azkeneko denboran emendik orra eta ortik ona bial-
dutako liburu ta idazki batzuek galtzera zijoazen eta orre-
gati bildur izan naiz eia nik ala zuk bialdutakoa etzan gal-
duko bidean. Nere idazkian eskatu dizut orko idazketxean
galde bat egiteko.

Zure lerroetatik ikusten dut zure lantokian lan asko egin
bear duzula. Lan ontaz gaiñera denborarik al duzu izkuntzak
ikasteko? Ni ere egunez lanean nago eta euskerari arratsalde
ta gauak ematen dizkiot.

Onar itzazu, adiskide maitea, nere agurrik beroenak eta
agindu nai duzun guzia zure:

Tauer'tar Norbertari.

(3) Batek.

(4) Diru.

Idazle baten emaitza literarioa aztertzerakoan, bere lorpen, asmo, kezka eta aldaketa nagusien zergatia argitzen duen guzia garrantzitsutzat hartzen da. Lan horretarako argibide onik bada gutun hauetan. Literatur-sari bana jaso zuten biek 1959.-ean: Loramendiren goratarrez Euskaltzaindiak eratua eman zitzaion Arestiri, eta *Euzko Gogo*a aldizkarian argitaratutako lan bat saritu zioten Tauer-i. Hori dela-eta, zintzoki goresmenak ematen dizkio atzerritarrak Arestiri.

Loramendiren goratarre eguna ez zitzaion arras zoriontsua gertatu irabazleari. Eskuratutako lore sortak sortu zion bere arantza, eta gertakizunaren berri ematen dio berean adiskideari. Bihotza ukitu zion eztabaida mingarri batek.

Maldan behera izeneko olerkia izan zen lehen saria eraman zuena. Lan haundiago baten lehen zatia dela esan ondoren, beste bi parteak zer diren agertzen du. Esku artean dituen lanak ere aipu ditu. *Euskera garbia* delakoaren asmoa agertzean, ohar hau egiten du: «Niretzako beste askorentzako bezala, euskeraren garbitasuna ez tatz hitzen etimologian, ezpada jatortasunean eta dotorezian. Askok euskera mordollo deitzen dutena, euskera garbiz euskalgaiztokoa deitzen da».

Gutun honetan datorren agerpenik garrantzitsuen, halare bere olerkigintzari dagokiona dela uste dut. Arestiren bertsotan bada, une batez, aldakuntza nabaria. Noiz eta zergatik gertatu zen hori, aipatzen dio urrutiko adiskideari: «Badakizu lehen poesiak idazten nituela, esaten dio. Lizardiri eta gaurko beste olerkariari imitatzen nien, baina egun batean haien idaztan-kera etzitzaidan jatorra iruditu, eta bertsolariak nola egiten duten, eta nola egin zuten behinolako poetek estudiatzen paratu nintzen. Handik beste bat atera nintzen. Ikusi dut euskaldun poesi jator eta usariodun bat dagoela, eta hari lotu natzaio». Kontutan hartzekoa da, beraz, bere sentipenen agerpen hau olerkariaren joerak aztertzerakoan.

Praga'tik 1959'gko Lotazillaren 4'ean.

Idazki au 1280'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari.

Bilbo'n.

Nere adiskide maitea:

«Loramendi» Fr. Joakin Bedoña-koaren Gorazarrez Euskaltzaindiak antolatutako literatura-sariketaren erabakia irakurri det «Anaitasuna» izeneko illerokoan. Atseginez beterik ikusten det lenbiziko saria irabazi duzula, «Maldan behera» izeneko zure poemarekin. Ar itzazu, adiskide maite orrek, nere zorionak. Jarrai, etengabe, bide ontatik, gure euskera maitearen onerako. Gaurko egunean artu ditut argazki batzuek Loramendi'ren gorazarrezari buruz. Ayen artean bat da, zu, zure aldamenean Berazibar'tar jauna eta euskaldun neskatillak aurkeztatzen dituen. Poztutzen naiz zure poema laister euskal-aldizkari batean irakurriko degula. Orain aldizkari berri bat, «Olerti» izenkoa argitaratzen asi da, euskal-olerkiak argitara emateko.

Eibar'ko nere adiskide Laspiur'tar Imanol'ek berriak eman dizkit ango batzarrari buruz. Uste det zu ere an egon zerala. Nik ere, programa artu bezin laister, euskerazko diosala bat bialdu diot ango Udaletxeari batzarrean irakurtzeko. Tamalez, berandu eldu zan. Ala ere «arriturik izan ziran Txeko'tar batek orrela eta ain urrutitik orren bikain eta biotzez idazten; asko egin duzu gure alde gutun orrekin», auxe idazten dit nere adiskideak.

Mexiko'ko «Euzko-Deya» izeneko illerokoan agertu den nere euskerazko artikulu bat (3) «Euskeraren pizkundea» izenekoak saria irabazi du. Irabazitako diruaz baliatu nai det Euskalerrian liburu batzuek erosteko.

Naparroa'n «Umien-Deya» izeneko aldizkaritxoaren bidez aurrak eragin nai dute euskerazko kartatxoak idazten. Pozik irakurtzen det aldizkaritxo au eta Gabonerako zenbakian euskerazko lerro batzuek idatzi nai ditut, Holmer jaunak egin duen bezela.

Zure berrien zai nago batez ere zure lanari buruz. Badakit euskaltzale sutsua zerala. Zu bezelako idazle gazteak bear du (4) gure Euskalerrriak.

Gabon-jaiak eta urte berri bat ate-aurrean dauzkagu. Orre-gatik Gabon alaia ta urte berri on bat opa dizkizut.

Ar itzazu, adiskide maite orrek, nere agurrik beroenak.

Zure menpeko:

(3) Batek.

(4) Ditu.

Bertsogintzari ekin zion, halako batez, Bohemiako euskaltzaleak ere. Bat-batean, Euskal Herrian egiten ziren omenaldi eta euskal-festa guzietara Tauer-en bertsoak iristen hasi ziren. Euskerarenganako maitasuna eta euskaltzaleen goratarrea errepikatu ohi zituen gehienik. Harriturik gelditu izan da euskaldun bat baino gehiago hain urruneko jaun arrotz batek egin-dako bertsoak zirela jakitean. Bide berri honetan emandako lehen urratsen aipamena egiten dio, datozen lerroetan, Bilboko olerkariari. Arestik ez zion, noski, nik dakidan beste jaun batek bota zion ur hotzik bota buru gainera, «bertsoei lagata» hitz-lauz idazten jarraitzeko aholku gordina emanaz. Ez zuen pasaizoa inoiz ahaztu eta, hil baino hiru hilabete lehenago, azken asmoen kutxatilla irekitzean, ez dakit ongi lotsaren hitz apalez zen hala etsipenaren totelduraz, ia ez ulertzeko moduan atera zitzaion euskaldun baten aburu mingarria.

Tauer-ek bazekien, noski, ez zirela goi-mailakoak udazkenean bere musa prestuek argitzen zizkioten zirriborroak. Ez zituen Parnasoko urrezko liburuan bere izena sartzeko egiten bertsoak, euskaldunen bihotzetan euskararenganako maitasuna piztu nahian baizik. Hain helburu jatorrez egindako lanek euskaldun guzior begiramendu eta estimurik hoberena, gutxienez, merezi dute. Beste nunbait dioen bezala, euskaldunberri eta arrotza izanez, ez zitzaion erraza gertatu zahartzaroan hasitako lana. Euskaldun askoren mundua, ordea, oso txikia da, eta uste askoren fantesia, haundia.

Bilbon, 1959, Abenduaren 14an.
Norbert Tauer jaunari, Pragan.

Nire jaun agurgarri hori:

Bere garaiz errezibitu nuen zure karta. Eskerrik asko eman dizkidazun zorionakatik. Beste horrenbeste eskeintzen dizut zuk irabazitako sariagatik. Aurrera zure lanarekin, zure kartekin eta artikuluekin. On haundia egiten duzu euskaldun epelen artean.

Nire poema eztaikit oraindik nun argitaratuko dudana. Behar bada, Eganen, baina oraingoz eztit ajola. Saritzat eman zizkidaten birmila pesetak ederki etorri zitzaizkidan, eta egun polita iragan genuen Mondragoen, Loramendiri opetsitako gorasarrean. Arrosa guztiek beren arantzeak eduki behar, eta egun zoragarri haretan ere nire arantzetzua geratu zitzaidan bihotzean josita, bada Bordari jauna nirekin hasarratu zen bizi, eztaikit oraindik seguritik zergatik. Aita Zaitegi eta Aita Igorrekoa presente egon ziren, eta Zaitegik esan zidan munduko bekaizteria gustiak gora behera, aurrera segitu behar dudala nire lanarekin, hari beste horrenbeste pasatu zaiola beti, eta horregatik eztela sekula etsitu.

Badakizu lehen poesiak idazten nituela. Lizardiri eta gaurko beste olerkariari imitatzen nien, baina egun batean haien idaztanka etzitzaidan jatorra iruditu, eta bertsolariak nola egiten duten, eta nola egin zuten behinolako poetek estudiatzen paratu nintzen. Handik beste bat atera nintzen. Ikusi dut euskaldun poesi jator eta usariodun bat dagoela, eta hari lotu naitaio.

Horregatik hasi nintzen poema luze bat idazten, «Joane eta Miren» izenekoa. «Maldan behera» poema horretako lehen-dabiziko parte. Hirugarrena badaukat amaiturik, «Azkenengo Besarkada», eta bigarrena garai honetan egiten hari naiz: «Mirenen koplategia». Hiru zatiak luzeera berdinekoak dira, 677 puntu bakoitzak. Amorio baten historia da, hobeki esanik, amorioaren historia eta arrazoia. Lehendabiziko partean mutilaren sentimentuak adierazten dira, Miren ezagutu eta hil arte. Hirugarrenean hil eta amorioa bete arte. Bigarrenean neskatilaren sentimentuak adierazten dira. Akabatzen dudanean liburu batean argitaratuko dut, norbaitek laguntasuna eskeintzen badit hala egiten.

«Miren eta Joane» buka dezadaneko, badaukat beste bat pentsatuta. Euskerari eskeinutako poema luze bat. «Euskera garbia» edukiko du izena, naiz eta ni ez omen naiz euskera-garbizalea. Baina niretzako beste askorentzako bezala, euskeraren garbitasuna ezatza hitzen etimologian, ezpada jator-tasunean eta dotorezian. Askok euskera mordollo deitzen dutena, euskera garbiz euskalgaitza deitzen da.

Beste gabe, naiko da gaurkoz/ Errezibi bitza nire karta honekin, Eguberrirako nire diosalik zintzoenak, eta Urte Berrian zorion dizula, nire jauna. Har bitza nire goraintzirik segurenak.

Aresti'tar Gabirel jaunari.
Bilbo'n.

Nere adiskide maitea:

Zure euskerazko lan bikainak sarritan arkitzen ditut euskal aldizkarietan, batez ere Egan'en Olerti'n eta Euskera'n. Eta irakurtzean zutzaz oroitzen naiz. Zure lan merezigarria euskeraren onerako estimu aundian daukat, eta uste dut beste euskaltzaleak ere. Eta zure azkenekotik badakit beste euskerazko lan asko prestatzen ari zerala argitaratzeko. Apika laister irakurriko dugu zure euskerazko liburu berri bat.

Nik ere jarraitzen dut nere lanean. Nere artikulu batzuek «Euzko Gogoa»-n eta «El Bidasoa»-n agertu dira. Azkeneko denboran asi naiz euskal-olerkian ondutzen, lenengo irurak «Olerti»-n arkitzen dira, ta beste bat Arantzazu'ko Birjinari eskeinia, «Aranzazu» izeneko illerokoan agertu da. Beste batzuek berrikitan Jesus'en Biotzaren Deya'ri, «Karmel»-i eta «Olerti»-ri bialdu dizkiet eta uste dut urrengo zenbakietan argitaratuko dituztela. Ongi badakit nere olerki guziak garrantzi gutxikoak dirala bainan, nere ustez, irakurleak gogotan artu bear du ni ez naizela euskalduna sortzez, eta nerretzat zaillago dela euskal-olerki bat egitea euskaldumentzat baiño.

Atzo artu nuen Buenos Aires'tik ango euskaltzaleak ateratzen duten «Euskaltzaleak» izeneko aldizkaritxoaren lenengo zenbakia. Multikopistaz egina da ta dana euskeraz.

Arretaz irakurri ditut «Umien-Deya» izeneko aldizkaritxoan aurren euskerazko kartatxoak. Nere artikulu bi ere an agertu dira. Enbeita seme Jontxu'k kartatxo bi eskeini dizkit, biak bertsoetan egiñak. Aiton eta aitaren jarraitzalle bikaina da 12 urtedun olerkari gazte au! Euskalerriko aur guziak Jon bezelakoak ba-lira, beste kuku batek joko lioke euskerari!

Gabon-jaiak eta Urte berri ate-aurrean dauzkagu. Orra zergatik gaurko okazioneaz baliatzen naizen zuri Gabon alaia ta Urteberri zoriontsu bat, Jaungoikoaren bedeinkapenez bete, opatzeko. Jarrai ezazu, etengabe, zure lanean gure euskera maitearen onerako!

Zure berrien zai nago. Zure aldetik Gabon karietara euskerazko idazki bat artzea, poz aundi-aundia izango da nerretzat.

Bitartean, ar itzazu, adiskide maite ori, nere agurrik be-roenak eta agindu nai duzun guzia zure:

Tauer'tar Norberta'ri.

1961. urtea

Bi idazle hauen arteko harremanik emankorrenak 1961-ekoak dira, inolako zalantzarik gabe. Emaidza hauek orduan iristen dira gailurrera. Sei gutunek markaturik daramate urtea, eta zazpigarren bat ere urte horretakoa dela esan daiteke. Arestik bere ezkontzaren berri ematen duen eskutitza, hain zuzen ere, 1960.enekoa bezala emana du eta urte baten buruan dator Tauer-en erantzuna. Ez dut uste inola ere jaun honek hama-hiru hilabete berandutuko zuenik Arestiren izkribuari erantzuten, eta hainbat gutxiago ezkontzaren garrantziko albistea tartean zegoelarik. Batak ala besteak urte kontuan huts egin zuela, lehen begiratuan esan dezakegu. Baina, hori argitzeko biderik bada, bestalde, Tauer jaunak bere gutun gehienak zebatu egiten bait zituen une horretan. Idazkiaren zenbakia urteari dagokiona den ikustea aski da, zuzen emana den jakiteko. Praha-n 1961.eko apirilean Arestiri emandako erantzuna 1566.na da, eta hilabete bat lehenago neuri idatzi zidanak 1562 daramanez, bai urtea eta bai zenbakia ongi ezarriak zituela atzerriko euskalzaleak, garbi ikusten da. Otsaileko bere izkribuan, batzutan gertatu ohi denez, urte zaharra zuela buruan Arestik, esango nuke nik.

Eskuratuez landa, beste gutunik ere bazen urte honetan. Ekainean beste tarjetaren bat jaso zuelako berria aipatzen du Arestik, gero ikusiko den bezala. Zortzigarren gutuna, beraz. Azkenekoz, bidean galdutako bederatzigarren bat idatzi omen zuen Gabrielelek eta horren aztarnarik ez da gelditu. Jasotako izkribu guzien hirutatik bat 1961.ekoa dela esan nahi du horrek.

Idazkera aldetik ere ikustekorik badago. Kunplimenduzko esamesen kutsua ia erabat galdurik, aspaldiko ezaupide jatorraren heldutasunera iristen da bien adiskidantza. Gabrielen-tzat, eguneroko arazoan upeleko etorki goxo bihurtu ziren Tauer-i idatzitako eskutitzak. Pilsen, Norbertoren sort-herriko garagardo hoberenak bezala, gaineko apar eta pitsa guzien azpitik, berezko sentipen eta borroka latzaren zurrupa bizia ematen dute.

Ezkontza aipu du oraiakoan. Bere biziko pasarte garrantzitsu honek burutapen sakonak dakartzkio idazleari gogora: «Orain

ez naiz lehengo mutil itsutua», —dio berak. Eguneroko bizia-
ren borrokak eta familia aurrera ateratzeko erantzunkizunak,
olerkariaren irudimen joriak sortutako zabaltsun askatzalea
eta haize guzien eragin hezikaitza mugatzen dituela, esango
nuke nik. «Ikusten dut nire ogia ez dela ez poesian ez euskaran
aurkitzen, fabrika honetako kontu-eramaeran baizikan». Lan
arrunta. Bizi berriaren goxotasunak, gainera, kezka berriak sor-
tu zizkion. Aitagarrebaren eritasuna, alde batetik, eta anaia
zaharrenaren zoramenak bestetik, joan-etorri asko eta diru-
xahubide gehiago sortu zizkieten. Izarrik gabeko gau beltzean
idatzitako lerroak ditugu hauek. Etengo ote dio idazteari?

Izpirituaren arnasak eraginik, orduan, itsas olatu haserreen
burrumba gaindituz, aurrera egiten du, eta astirik gabeko ogi-
bide estu-zimurrak uzten dion zirritutik sortu behar ditu bere
idazlanak. Eta sortzen ere ditu: «Komedia bat akabatu dut...
nobela bat egin nahiko nuke... beste bat erdira allegatua...».
Sorketaren hondartza izkutueta bultzatzen zuen barnetik ze-
torkion berezko indarrak, eta sosegurik gabeko erdiminetan
ekarri zituen, une hartan, paperezko oihal zurietara garratzasu-
na zerioten musa txintxoen umeak.

Horrenbeste neke aski ez zuela urrutiago begiratu, nun-
baiteko haize berrien hondartza ez-ezagunak zituen gogoan.
Ikas-nahiaren gose-egarria darie izkribu hauei: *Aragon-en Poe-
tak* liburu berrian, V. Nezval txekoaren aipamena aurkitu du,
eta lurralde hartako adiskide minari idazle horren berri es-
katzera ausartzen da.

Poema garratz baten atal bizia gertatu da bere egoeraren
aurkezpena. Apainketa arrotz eta itxurakeriarik gabe ikusten
da olerkariaren bihotz zartatua. Familiaren ogia eta artista-
ren ardo mozgorgarria, fabrikako lana eta bere kasako zeruen
erakarpen astintzalea, dabilta bere barnean borrokan. Ho-
rrengatik da gizaseme konformagaitza. Sartaldeko filmetan be-
zala garailea zein den esatekotan, eguneroko ogibide latzak
ez ziola sorketaren ezti-lorea agortu, esan beharko genuke.
Bizi beharraren lurrez oraturik edo, poetaren ekarria ez zen
azken arnaseraino amaitu.

Ikus beza bakoitzak lerro hauen barnean datzan borroka
izkutua:

Arabako Llaudion, 1960, Otsailak 20,an.

Norbert Tauer jaunari, Prahara:

Nire jauna:

Barkatuko didazu lehenago eskribitu ezpadizut, baina beti nabil oso larri denporarekin eta denpora-eskasia honek lagunen eta adiskideen hasarrea erakarten dit. Eztakit zembat gutun zor dudan, Miranderi, Peilneni, Zelaiari, Arrizubietari, eta ehun hola. Orain hartzen dut luma zuri eskribitzeko ikusten dudalako oraindik dadukadala zure Bazkoarako diosala ihardetsi gabe; hemengo mekanografek euskeraz balekitez ezlitzake problema, zerren erderazko gutun-har-emanetan oso egunean nabilen.

Itxadoten dut gutun honen errezibieran osagarri onarekin egonen zarela, eta betiko adorearekin. Berant bai baina deseozintzoarekin esperatzen dizut urte honetan sarrera zoriontsu bat; bentura ederra dizula betiko. Ni, joan diren Urrietako hamarrean esposatu nintzen nere Melitxu Basurtukorekin, eta haur bati igurikitzen diogu, Pariseko zinkunia medio delarikan. Orain eznaiz lehengo mutil itsutua, baizikan-eta gizon ezkondu bat, bere familiaren etorkizunaz arduratu behar dena. Ikusten dut nire ogia eztela ez poesian ez euskeran aurkitzen, fabrika honetako kontu-eramaeran baizikan. Oporretan naikoa lan dadukat familia-problemeekin, nire anaia zaharren zoramentuarekin (diru polita kostatzen zait), aitagihara baren eritasunarekin.

Orain gutxi eskribitzen dut. Nere poema berria (Zuzenbide debeketua — Miren eta Joaneren historiaren hasiera), bere erdian dago, eta uste dut aurtengo urrietarako akabatuko dudala. Komedia bat akabatu dut: Mugaldeko herrian eginikako Tobera, Euskaltzaindiko sarietara presentatuko dudana. Nobela bat ere egin nahiko nuke, baina denpora guztietan suspirioetan doakit. Bat badadukat erdira allegatua, Kibernia eta Jesus izenekoa, baina eztut akabatzeko paradarikan ikusten.

Lehengo egunean irakurri nuen Aragonen liburu berria «Poetak» izenekoa. Oso ona da, eta bertan aipatzen du Pra-

hako poeta bat, zeinaren berria (berria bakarrikan, ez ezagutarrikan), banendukan lehendikan: VITEZSLAV NEZVAL.

Dio Aragonek:

Dans le Hradschin désert...

*...la radio ce soir a parlé de Nezval
pour dire qu'il s'est tu.*

Eta:

Il est entré vivant dans le ciel du folk-lore.

Nezvalen ezagutza oso bat eduki nahiko nuke. Nun sor, nola bizi, zergatik hil. Nolako izaerakoa izan zen, zer eskribitu zuen, ze ideietakoa, eta gainerakoa. Zure notizia guztiak poz-pozik hartu (5) nituzke. Haren gaineko edo harek eskribiturikako liburuxkaren bat-ere, pozkida haundiarekin estimatuko nizuke. Badakit ezen ori zuretzako neke xamarra izanen dela, baina nolako estimazio eta borondate onean eduki nauzun konsideraturikan ez tut batere dudatzen, nere pauso hau ematen.

Beste gaberikan, betiko onerizkoa ohituarekin zure menpeko eta zerbitzaria geratzen naiz agintzen duzun edozertarako.

Garesti.

(5) *Hartuko.* Eskutitz hau, benetan eskuz idatzi zuen Arestik. Tinta urdina erabili zuen eta *Garesti* izenpetzen du, hemendik aurrera gehiengan agertuko den eran.

Praga'tik 1961'gko Jorraitaren 15'ean
Eskutitz au 1566'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari
Lludio'n.

Nere adiskide maitea:

Garaiez eskuratu nuen zure eskutitz maitekorra /Otsaillaren 20'gkoa/ arretaz irakurri dut. Ezkondu zeralako berriak asko poztutzen nau; ar itzazue, zu ta zure emaztea, nere zorionik bizienak; segur nago zuen pamily berrian gure euskera maite-maitea beti biziko dela.

Zure anaiaren eta aitagarrebaren eritasunak asko illundu du nere gogoia, ala ere uste dut bitartean obeagotuko zirala.

Txit txalogarria da, pamilyako arrangura asko euki arren, euskeraren aldezko zure lan merezigarrian jarraitzen dezula, eta bertsoak ez bakarrik, baiñan komedia ta nobelak era idazten ari zerala!

Nezval izeneko emengo olerkariari dagozkion berriak euki nai zenituke. Orra zergatik orain bertan, «impreso certificado» bezela, emengo liburutegi baten bitartez, «Poésie contemporaine en Tchécoslovaquie» izeneko liburua bialtzen dizudan. Bertan beste olerkari batzuen ondoan, Nezval'ez ere itzegiten da. Liburu onek bere olerki batzuen itzulpenak dakarzki. Uste dut liburu ori gustatuko zaitzula.

Otsaillaren 21'garrenetik 24'gareneraiño Paris'ko «Gernika» izeneko euskal-kantari ta dantzarien taldea emen, Praga'n, egon zan. Emengo ikusleei biziki gustatu zaizkie. Buenos Aires'ko «Euskaltzaleak» izeneko Bazkunak antolatutako «Idazki-norgeiagoketa»-n herriz txapelduna izan naiz. Joan den urtean 224 euskal-eskutitz idatzi ditut. Sei urtetan 1465.

Nere adiskideak bialtzen dizkidaten euskal-aldizkari ta liburu berrien bidez ongi badakit, nolako lan txalogarria egiten ari diran euskaltzaleak euskeraren onerako. Emen dauzkat: Olerkiak /Loramendi/, «artaun Eguzki-Semea, Nere izena zen Plorentzi eta azkeneko denboran agertzen diren beste euskal-liburuak».

Eta auxe da guzia gaurkoz. Ar itzazu, adiskide on ori, nere agurrik beroenak eta agertu, otoi, nere goraintziak zure emazteari.

Urrengo arte, gelditzen naiz zure:

Tauer'tar Norberta.

Llaudion, 1961, Bagilaren 20,an.
Norbert Tauer jaunari, Prahara.

Nire jaun oso estimatua:

Gaur bertan errezibitu dut hemen Llaudion zure tarjeta. Milesker. Bere garaiz errezibitu zuk Bidalitako Txesko Poesiaren Antolojia, eta biharamunean bidali nizun errezibi-akusoa eta nire eskerrona. Eztut konprenitzen nola eztuzun nire karta hura hartu. Egia da ezen azken aspaldi honetan nire karta asko galtzen direla bidean. Karta haretan galdetu nizun hea zer nahi zenuen trukean, eta pozik ikusi dut Txillardegiren Peru Leartzako nahi duzula. Gaur Bilbora allegatzen nizen bezain laster, libreria batean erosiko dut, eta bihar bidaliko dizut, falta gabe. Nahi duzuna eska zazu, edozein euskal edo erdal liburu bidaliko dizut, niretzat plazer haundi bat izanen baita, orain arte nire eskaera guztiak hain gizalegez bete dizkidazulako.

Hemen berriak emanen nizkizu oso pozik, baina egia esan behar banu, hain nago Arabako herrixka honetan ahatzirik, ezen euskal arlotik oso aparte bizi naizen, eta eztudan sobera har-eman euskeraren munduarekin. Nire poema bat akabatu dut, Zuzenbide Debekatua izenekoa, baina eztu Espainian argitaraziorik ukanen, zuzenbidea debekaturik dagoelako, noski. Gaur hasten dugu udako lana hemen fabrikari, eta nola arratsaldeak libre edukiko ditudan, nobela luze bat eskribituko dut, Zuzenbide Debekatuaren nobela alegia.

Beste gabe, eta betiko grado onarekin, agur egiten dizut,

Garesti (6).

(6) Firma ez beste guziaz idazmakinaz egina da. Papertxoa berea da, noski.

Praga'tik 1961'gko Uztaillaren 28'ean

Eskutitz au 1605'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari
Lludio'n.

Nere adiskide maitea:

Zure azkenekoa/Bagillaren 20'gkoa/bere egunean neregana eldu zan. Bainan zure eskutitzean aipatzen duzun zure aurrekoa ez dut gaurdaño artu.

Asko eskartzen dizut zure onginaia Txillardegiren «Peru Leartzako» niri bialtzea, eta uste dut laister elduko dela nere eskuetara. Bialtzearengatik aurrez eskerrik asko ematen dizkizut.

Zure eskutizetik ikusten dut etengabe euskal-literaturaren soroan lan-egiten ari zerala ta lan eder-ederrak prestatzen dituzula argitaratzeko.

Datorren illaren asieran nere udara-tokira joango naiz eta andik berriz idatziko dizut. Bainan, idatzi ezaidazu, otoi, nere Praga'ko zuzenbidera. Emendik ara eskutitz guziak bialduko dizkidate.

Ager zaizkiozu, otoi nere goraintziak zure emazteari, eta ar itzazu, adiskide maite ori, nere agurrik bizenak.

Zure:

Tauer'tar Norberta.

Praga'tik 1961'gko Lotazillaren 3'ean.

Eskutitz au 1661'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari

Llaudio'n.

Nere adiskide maitea:

Urrillaren 26'gko nere eskutitza bere egunean zuregana elduko zala uste dut. Azkeneko egunetan berri txit jakingarri bi nere belarrietara eldu ziran. Euskaltzaindiaren urgazle izendatu zaituztela bata, ta Toribio Alzaga teatro-saria irabazi duzuela bestea. Berri biak asko poztutzen naute ta nere zorianik bizienak bialtzen dizkizut. «Mugaldeko herrian eginkako tobera» izeneko zure antzerki saritatua laister irakurriko dugula poztutzen naiz.

Nere adiskide Ugarte'tar Martin'ek Larrea'n egin zan «Oler-ti-Eguna»-n sari bat irabazi zuen «Aizkorri» izena duen bere poemarentzat. «Oler-ti-Eguna»-ren okazionean nik ere Larrea'ra agur bat, bertsoetan egina, bialdu nuen.

Holanda'tarren artean euskaltzale berri bat sortu zaigu. Aren izena Rodolfo Rijk da, Ongi itzegin eta idazten ikasi du euskera ta orain Gipuzkoa'ko Gabiria'n bizi da.

Nere bilduma osatzeko eskatzen dizut orko argazki-txartel batzuek niri bialtzeko.

Gaurko okazioneaz baliatzen naiz zuri ta zure emazteari Gabon paketsua ta Urteberri zoriontsu bat opatzeko. Uste dut, zu, zure emaztea ta Nerea txikia, denak osasun onean arkitzen zeratela.

Ar itzazu, adiskide maite ori, nere agurrik bizienak eta agindu nai dezuna zure:

Tauer'tar Norbertari.

1962.etik aurrera

Arestiren gutun jarioa bat-batean agortzen da Praha-ri buruz. Tauer jaunak idatzi eta erantzunik gabe gelditutako izkribu baten urteburuan, bigarren bat igortzen dio. 1962. urtea, beraz, antzua izan zen bildumarentzat eta, hemendik aurrera, ez du inolako ugaritasunik ikusiko. «Badakizu atseginez beterik irakurtzen ditudala zure berri guziak», esaten dio amaieran.

Gutuna hartu bezain laster, biharamunean berean, erantzun zion olerkariak. Egosceta larrian aurkitzen zen, orain ere, bere izpiritua eta oso jakingarriak dira bere zehaztasun gordinak. Trumoi askoren oihartzun samina da bere izkribua. Bilboko egunkari batean idazten hasi zen eta, betiko iskanbilengatik, atzera bota zizkioten bere artikuluak. Agintarien mahaiz-mahai ibilia zela bere izena esan ondoren, zenbait euskaldunen aldera zuzentzen du salaketa, Kristorik gabeko kristau katolikoek erreakzioa arbuiatuz. Oso mingarria izan zitzaion oztopoa eta euskararenganako amodioa hain sakon eta sendo sartua izan ez balu «dударik gabe eta erremediorik gabe» euskal alorra oraingoan abandonatuko zuela, aitortzen du.

Gerra-ondoko egoera zirtzilaren berri, bizi zuenak bakarrik daki. Euskaldunen artean ere baziren, noski, zapalduak eta ga-raileak, gorriak eta zuriak, gaiztoak eta onak. Esan beharrik ez dago zein aldetara makurtzen zen Bilboko olerkari trebearen izarra.

Gau beltzean ageri da argi izpi bat, bigarren alabatxoaren jaiotza aipatzean. Bi lerro besterik ez berri honentzat, ekaitz gogorraren baretasunik gabe: «Bigarren alaba bat izan dut. Badakizu lehenbizikoari izena NEREA jarri niola. Bigarren honeri GURIA jarri diot, elizan eta juzgatuan». Besterik ez.

Gutun hau ere eskuz idatzirik dago eta izen-lotuaz, *garesti* izenpetu zuen.

Praga'tik 1962'gko Lotazillaren 4'ean.
Eskutitz au 1834'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari
Lludio'n.

Nere adiskide maitea:

Aurtengo urtearen bidean ez det zure berririk izan eta nere azkenekoa/igazko Lotazillaren 3'gko/ erantzpenik gabe gelditu da, ala ere uste det ongi zerala zu ta zure etxeko guziak. Aurtengo urtea ez det igarotzen utzi nai, zuri euskal lerro batzuek idatzi gabe.

Egan'en irakurri det zure antzerki berri bat «Mugaldeko herrian eginikako Tobera» izenekoa, «Toribio Alzaga» teatro-saria irabazi duena ta asko gustatu zait. Ikusten det euskal-idazle trebea zerala eta azkarki lan-egiten duzula euskal-literaturaren soroan.

Etxaide'tar Ignazio jaunaren eriotzaren berriak /G.B./ asko illundu du nere biotza. Euskaltzaindiak galdu du bere buruzagi argia, eta Euskalerrriak seme famatu bat, euskal-jakintza ta literaturan etengabe lan egiten zuena.

Villasante'ren Historia de la Literatura'ri buruz liburutxo bat argitaratu omen dezu. Pozik irakurri nai nuke zure iritzia, orra zergatik eskatzen dizudan niri bialtzeko. Villasante Aitak orain beste liburu bat argitaratu du: «Kristau Fedearen Sustraiak», lenengo zatia: «Jainkoa» izenekoa. Emen daukat ale bat eta uste det ongi idatzita dagola. Erkiaga'tar Eusebi jaunak eskeini dit bere lan berri bat «Araibar Zalduna» izenekoa, Domingo Agirre —Nobela saria— 1959 irabazi duena. Guatemala'tik artu det Zaitegi'tar Aitaren alde-tik bere olerki-bilduma berri bat «Berriz ere goldeketan» izena duena. Ikusiko degu, eia Guatemala'n «Euzko-Gogoa» (7) argitaratuko duen. Importantzi aundikoa izan da aldizkari ori euskal-literaturarentzat.

Zure berrien zai nago. Badakizu atseginez beterik irakurtzen ditut zure berri guziak.

Gabon paketsua ta Urteberri zoriontsu bat, Jaungoikoaren bedeinkapenez betea, opa dizkizut, zuri eta zure etxeko guziei.

Ar itzazu, adiskide maite ori, nere agurrik beroenak eta agindu nai guzia zure:

(7) Euzko-Gogoa.

Arabako Llaudion, 1962 urteko Abenduaren hamaikan.
Norbert Tauer jaun agurgarriari, Prahan.

Nire jaun askotan estimatua:

Zure gutun atsegina heldu zitzaidan atzo, eta zuri zor dizudan adiskidantza eta errespeto guztiarekin arrapostua ematera prestatzen naiz. Zuri eskribitu nizun nire azken gutunetik franko ur pasatu da Aita San Antongo zubiaren azpitik. Eskarmintu gehiago errizibitu dut denpora honetan, nire adin guztian baino eta Yratiko oihanean dauden arbola guztietako orri guztiak baino. Jesukristoren esana da inor ez tela bere herrialdean profeta. Horregatik nahiago nuke nik nere etxean sartu eta bertan betiko isildu, gure herriaren asturu eta egoera gaitzak pausu berrietara bultzatuko ezpanindu. Nere herrikideen pentsamentu meharra zabaltzeko asmoarekin hamalau artikulu eskribitu nituen hemengo falanjist eguneroko batean, bertatik despedida eman zidaten arte. Nere aburuak eta iritziak deklaritzen nituen bertan, xeheki eta ximpleki, nik beti egin dudana bezala, inor mindu gabe asmoa gabe, baina inor mintzearen bildurra gabe. Hango iskanbilak, istiluak, erriertak eta sesioak. Bilboko erreazio guztia nirekin sartu zen, buru-belarri; Diputazioko batzar batean nire izena entzun zen batere amiorikan gabe eta asuntua azkenean gobernadorearen despatxuan erabaki zen, zorionez nere kalterik gabe. Erdal erreazioak txarki tratatu ninduen, baina are txarkiago euskal erreazioak. Gure lege zaharren kontrako jeltkideen eta euskotar Kristorik gabeko kristau katolikoen deiadarrak fuerte altxatu ziren, nere belarriak eta zentzu ona gortu arte. Eskerrak ematen dizkiot Jaunari neregana euskerarenganako amodio hain sakon eta bortitz sartu zuelako, osterantzean nere baitan epeltasunik apurrena egon balitz, dudarik gabe eta erremediorik (8) nuen euskal alorra oraringoz arbuioz abandonatuko. Baina... euskaldunek dute errua eta ez euskerak.

Beste gauza batez mintzatzearren, Auspoa liburutegiaren libururik eztuzu irakurri. Bertan agertzen dira Larzabalen komedia bi, onak, oso onak, eta batez ere herriko bertsoak; azken liburu batean agertzen dira «Ezkontza galdutako bertsoak», niri zazpigarren paradisura eragin didatenak.

Bigarren alaba bat izan dut. Badakizu lehenbizikoari izena NEREA jarri niola. Bigarren honeri GURIA jarri diot, elizan eta juzgatuan.

Deseo dizut Gabon zoriontsu batekin Urteberri benturosoago bat, eta honekin dijoakitzu nere diosalik kartsuena.

Garesti.

Ondoko urteetan, Arestiren berri gutxi aurkitzen da guntun-degi honetan. Eguberriz idatzi ohi zion, beti bezala, Tauer-ek, baina bilbotarraren erantzunik gabe. Praha-n eskuratu dudan bilduman, azken aldiko lau izkribu besterik ez dut aurkitu.

Horietatik, hiru Tauer-ek idatziak eta bat baizik ez Arestirena. Tarjetaren bat edo beste ere bialduko zion Norbertok, tarteka, azkeneko urteetan ohi zuenez; baina kopia gabeko izkribuak dira eta ez dugu inolako aztarnarik ikusi.

Tauer-ek aipaturiko berrien artean, *Goizaldi* dantzari taldea Praha-ra joatekoa zela, esaten dio bere adiskideari. Une horretako oroigarri bat ikusi daiteke Garaipenetako Andra Mariren elizatzxoan. Saihets batean dagoen *Prahako Jesus Haurraren* al-dare aurrean, hamabost hizkuntzetan agertzen da bere ototza eta, hain zuzen, gure dantzariak han izan zirelarik Tauer-ek egindako itzulpena da haietako bat.

Zazpi urteko isilunearen atzetik dator Gabriel Arestiren bilduma honetako azken gutuna. Eskuzkoa da, eta Espainiako literaturari buruz Txekoslovakian agertutako liburu baten itzulpena egitea komeni litzakeela, esaten dio. Euskarari dagokion atala, gutxienez, egin baleza Tauer edo beste norbaitek, *Kriselu* bilduman argitara lezakeela berak, itzultzaileen eskubideak ordainduz. Ez dakit proposamena nola hartu zukeen Norbertok. Ez dut bere gutunik ikusi.

Praga'tik 1963'gko Lotazillaren 12'ean.

Eskutitz au 2.044'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari.

Llaudio'n.

Nere adiskide maitea:

Begi-aurrean daukadan zure azkenekoa igazko Abendua-
ren 11'gko da, beti bezela, bai zuri bai euskerari dagozkien
berri jakingarriak dakarzkidana. Eskatzen dizut niri barka-
tzeko ez dizudala gaurdaño idatzi, bainan denbora laister
igarotzen da ta berriz urte berri bat atetan daukagu. Baiñan
ez uste, zutzaz aztuta nagoela; askotan zutzaz oroitzen naiz
batez ere zure euskal-lanak irakurtzean. Eta norgeiagoketan
sariak irabazi dituztenen artean zure izena ere ikusi det.
Nere zorionak! Zure euskal-lan guziak beti pozik irakurtzen
ditut.

Aurtengo urtearen gertakizunik nagusia izan da, nere
iritziz, «Zeruko Argia» astekari bat bezela agertzen dela.
Etxaide'tar jaunari esker artzen det aldizkari eder au ta
atseginenez beterik irakurtzen. Nik ere noizean-bein zerbait ber-
tan argitaratzen det.

«Auspoa» izeneko liburutegiaren arpideduna naiz eta orre-
gatik emen daukat sail osoa.

Argitaratzen duten (9) liburutxo guziak niri ere asko gus-
tatzen zaizkit. Orain bertan artu ditut bi zenbaki: Bizenta
Mogel'en «Ipui onak» eta Alzaga'ren «Burruntzi» eta gaurko
arratsaldean asiko naiz irakurtzen. Eta egun batzuek dirala
On-bidea izeneko itzulpena ta Eguneroko Meza artu nituen
egilleek berek bialduta.

Eta zu, zertan ari zera orain? Zure berrien zai nago.

Gabon paketsu ta Urte-berri zoriontsu bat Jaungoikoaren
bedeinkapenez betea, opa dizkizuet zuri ta zure etxeko guziei.

Ar itzazu, adiskide maite ori, nere agurr bizienak eta
agindu nai guzia.

Zure:

Tauer'tar Norberta'ri.

Nere zuzenbide berria:

Norbert Tauer
Vinohradská 126, Prague-3
Tchécoslovaquie.

Praga'tik 1964'gko Garagarrillaren 22'ean
Eskutitz au 2002'garrena da.

Aresti'tar Gabirel jaunari
Lludio'n.

Nere adiskide maitea:

«Zeruko Argia»-n arkitu du (10) artikulu jakingarri bat, Etxaniz Nemesi jaunak egina, zure euskerazko itzaldi bati buruz. Aspalditik ba-dakit euskal-idazle aundia zerala ta zuk idatzitako guzia beti arretaz eta atseginez beterik irakurtzen det. Baiona'n agertzen den «HERRIA» izeneko astekarian artikulu eder bat irakurri det «Harri eta Herri» izeneko zure liburu berriari buruz. Zure liburu berri au pozik irakurri eta nere liburutegian euki nai nuke. Orra zergatik eskatzen dizudan niri ijeki bat eskeintzeko. Aurrez eskerrik asko ematen dizkizut eta zure zorduna geldituko naiz.

«Umeen-Deya» izena duen aldizkaritxoaren azkeneko zenbakian nere euskal-olerkitxo bat dakar. «Arantzazu»-n ere nere poema bat Praga'ko Jesus Aurtxoaren omenez agertuko da.

Biar «Goizaldi» izeneko dantzari-taldea Praga'ra etorriko da. Strážnice izeneko urian egingo den «festival»-ean parte artuko du.

Zure berrien zai nago. Ar itzazu, adiskide maite ori, nere agurrik beroenak eta agindu nai dezuna zure menpeko:

Bilbaon, 1969. Martxoak 20.

Norbert Tauer jaunari, Prahara.

Nere jaun agurgarri eta adiskide on:

Denbora asko da bakarrik urteberrietan elkarren berri eduki ez dugula. Ni ez naiz oso gabon-zalea eta gehienetan ahatztu egiten zait eguberrikoa.

Baina gaurko honetan kortesiatik kanpoko zer-egin batekin natorkizu. Zuk zerbait esan zenidan zure azken gutunen batean, nola gertatzen zenuten Pirinioz honandiko literaturaz liburu bat, eta euskerazko zatia zure gain zegoela.

Azkenengo Zeruko Argia batean Juan San Martinen artikulua bat irakurri dut horretaz. Ikusten dudanez liburua errealidade bihurtu da, eta Juanitoren esanagatik ikus dezakedanez, oso liburu inportantea da. Gehiegi ezagutzen dut nere lagun eta adiskide mamia Juanito, eta ederki dakit txantzetan ez dela ibiltzekoa.

Zure liburua oso ongi letorke honerako, bizi gare (11) gizarte aldrebestu honetarako. Gaztelaniara bihurtzeko modurik ez zenukete hor edukiko? Hemen ez dakigu txekoz, eta itzuliera egitekotan hor egin beharko litzake. Hala eginen bazenukete, hitza ematen dizut hemengo argitaldari batek argitaratuko zuela. Pauso guztiak emanen nituzke nik hemen argitaratzeko zuentzat komunzkiko 100 % hamar ohitua gordeaz, halegia. Lau argitaldari ezagutzen ditut hori argitaratzeko prest leudekenak, eta hori Euzkaditik kanpora irten gabe.

Beste gauza bat: Euskal literaturazko partea zergatik ez duzu zuk euskerara bihurtzen? Nik argitaratuko nizuke. Aspaldi honetan editore bihurtu naiz, eta bost euskal liburu argitaratu ditut nere poltxikotik. Beste bi ditut moldiztegiari, Txillardegiren nobela sariztatua, eta Euskal literaturaren bilduma bat (saiaera bat, nobela bat, hiru antzerki, bi olerki-lan, eta dozenaldi bat ipui). Jean Miranderekin ere har-emanetan nago beraren lanak argitaratzeko. Nere argitaldariari Kriselu deritza.

Zuk euskerazko literaturaz egindako lana oso ongi letorke nere argitaldarirako. Euskeratzen baldin baduzu, nik hartu eta biharamunean moldiztegiari bidalduko nuke beste gabe.

Beste gauzatxo bat. Txekozko liburu horretaz ez zenidake ale bat igorriko; trukean nere liburu guztiak bidaliko nizkizu, orain artekoak eta geroztikakoak, eta betiko estimazioa gordeko nizuke.

Beste gabe har zazu nere goraintzirik segurena.

Garesti.

Halako batez, *Nork dio gezurra* izenburuarekin idazlan bat argitaratu zuen Arestik, Bilboko egunkarietan agertutako berrietan Tauer-en aipamen ez hain egokia egin zutelakoan. «Orrialde hauetatik atera nahi dut gure urrutiko lagunaren aldetan», zioen Arestik (12).

Larritu zen Tauer bere izena haizatzen zutela ikustean. «Neronek Talon jaunaren artikuluak ez ditut irakurri eta horregatik ez dakit zertan *apurtu dudan* nere zina. Ikusten duzunez euskera batuan *Batasunaren Kutxa*-ren arauera idazten saiatzen naiz eta euskera batuaren alde ahal dudan guztia egiten dut», esaten zion Arestiri. Eta denbora berean kazetari horren artikuluak bialtzeko eskatzen zion. Gutun hau lehen aipaturiko nere txostenean argitara emana denez, ez dugu berriaz hemen ipiniko (13).

Gertakizun honetaz ere ez zuen Tauer-ek oroitzapen onik. Hainbeste euskaldunekin harremanetan zegoelarik, gutun bakoitza egiterakoan batasunaren aldekoa zen ala ez, ikusi behar izaten zuela lehenik, aitortu zidan berak. Batua behar-beharrezkoa ikusten zuen euskararen iraupenerako, eta ezin zuen ulertu H-ren auziari emandako garrantzia. Beti jator jokatu zuen, halare, euskaldun bakoitzaren eritziak aintzat harturik, elkarren arteko ikusmolde ezberdinak baztertuz. Ez zekien, beraz, zertara heldu ziren gauza horiek. Esan dudana, aipamen laburra egin zidan berak eta neuk ere ez nion jarraitu.

Arestik ez zion, dirudienez, erantzunik eman eta horretan amaitu zen bien arteko izkribuen segida. Estimatu haundian zeukan Tauer-ek Aresti eta bere lana.

Jose M. SATRUSTEGI

Urdiain, 1983.IX.10

G. Aresti jaio zeneko 50. urte-buruan.

(12) 1971.ean Vicente Talon Ortiz kazetariak *El Correo Español* egunkarian argitaratutako lanei erantzun nahi zion G. Arestik. Ikus, *Vasconiana a los cuatro vientos* (Bilbao, 1975) «Periplo por la Europa del Este. Checoslovaquia» 169-176.orrietan.

Arestiar. *Nork dio gezurra?* Anaitasuna, 218, 1971.9.15.

(13) J. M. Satrustegi. *Batasunaren aldeko Arestiren gutunak*: Euskera, 1983.2.

ERA ZAHARREKO SANTA AGERA KANTA, JULIO URKIJOK MARKINAN JASOA

Era zaharreko Santa Ageda koplak zahar hauek Julio Urkijok Markinan jasoak dira 1913. urtean, Joaquín Arrietak ahok kantatu zionaren arabera.

*Santa (i) Agera (1), Agera
Bixar da Sant (i) Agera;
Bixar da Sant (i) Agera baña
Gaur aren bespera gaba.*

(Baztarrak lotsadutzera)

*Ondo lotsaz ta bildurrez gatoz
Jauna beorren atera.*

(Jauna beoren atera)

Bi bertso pagadutzera (2)

Bi bertso pagadutzeko

Lizenziari(k) badago.

Lizenziarik ezpada

Joan eingo garade atzera.

Geu bialtzeko atzera

aiñ gizon txarra etzera.

Kanta mutillak gogotik

Bakotxa(k) bere aldetik

Limosna parez espero dogu

Etxe ondrau onetatik.

.....

.....

.....

uifi, arriliufi! (sic).

(1) Markina inguruetan berezkoa da doinuak eskatzen duenaren arabera, bi hitzen artean *i* letraz luzatzea. Gaur oraindik *Santa (i) Ageda* esaten bait da.

(2) *Pagadutzera* jartzen baldin badu ere, *paratutzera* dela iduritzen zaigu. Horrez gainera, esan beharra dugu, bertsoak bereizteko eran, Urkixok bere zalantzak zituela, nonbait ez baizen ohartu gure koplak zaharretan, pareado gisakoetan, «ritornello» asko erabiltzen zela.

Santi Agera, Agera bitorde Santi Agera
Bitor da Sauti Agera haue gaurpau verzena
gaba

(Baskariak lotadutera)

Ondo lotoz ta bilduz Gaboz,
Jama beoim alera.

(Jama beoim atera)

Bi bertio kiindurakotan pagadutgera

Bi bertio pagadutgera

Lizeziari badago.

Lizeziarik erpada

Joan eingo gerate atzera.

Gu bialtzerko atzera

ain gizon tsara etzera.

Kanta mutilak gosotik

Bariotza bere aldetik

Limosna narey esera dogu

Etre ondren ondatik


.

.


.

niñi niñik!


Hara hor Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako agiritegian
aurkitzen den Urkixo zenaren esku-izkribua.



CHRISTMAK



Bitoriano GANDIAGA



OHARRA:

Iragan Gabon-jaietan **christmas** modura lagunei banatzeko idatzi zituen honako hauek B. Gandiagak.

Doinu pentagramaz doaz horietarik hiru; letren deklamaziorako lagungarri jarriak. Peillo Zaballak itxuratu zizkion melodiok.

Gandiaga adiskideak, lumaberrituarteko mika aldia duela dirudi; baina, norbaiten urtebetetze, zerbaiten ospatze eta halakotsuko kasuetarako baizik ez bada ere, EGAN-en eskarira, diharduenaren ageria eskaintzen digu. Eskerrikasko.

OTS.

I

Maitasunak egin zuen
maitagarri
Belen

Aitaren
maitasunak egin zuen
maitasunaren aska
Belenen

Belen
Belenen
Belengo
Belen
Espiritu Santuaren
egitez
urez eta odolez
Belengo Aska Birjina

bizitza betikoaren
iturri egina
Belen


maitasuna dariola
behin eta betiko
Jesukristo
Salbatzailez

270


1982.azaroak 17

Hara hor Euskaltzaindiko Azken Bibliotekako egutegian
aurrez aurre den Urteko beraren esku-izena.


II



Gabon haurtxo bat jaio da bere etxetik kanpo-ra



ama pobre batengandik ai, ai, ai, ai, ai, eta ai



eta aitak ez du lanik.

Gabon, haurtxo bat jaio da
bere etxetik kanpora
ama pobre batengandik
ai, ai, ai, ai, ai eta ai
eta aitak ez du lanik.

Hainbat gauzaren beharrez
ezbeharraren gogorrez
pobreak hala beharrik
ai, ai, ai, ai, ai eta ai
eta hain daude bakarrik.

Aitak ez du lanik eta
herbestean aurkitzen da,
latza da halabeharra
ai, ai, ai, ai, ai eta ai
eta haurraren negarra.

Historia berria da
noiznahi berritzen da-eta
pobreen anparurik eza
ai, ai, ai, ai, ai eta ai
eta bajuen tristeza.

Inork ez ditu onartu,
preminak ditu behartu,
nonbaitera behar-eta
ai, ai, ai, ai, ai eta ai
eta koba baten dira.

Eta bajuen tristeza,
bakardade ta bajeza
zenbatek duen sufritzen
ai, ai, ai, ai, ai eta ai
eta gaua ez da ontzen.

1982.azaroak 18

III

Gabongo ilu-nabarra, izotza eta ifa-rra;

asto gainean. andre gaztea trailatik tiran senarra -

GARTE BIKOTE A PA-LA, HAURRA JAI OZ ZE-RA-MA-LA,

GOGOR DU JAURTI JENTE ONDRAUAK, SARRI OHI DUEN BEZALA -

GAZTE BIKOTE APALA,

HAURRA JAI OZ ZERAMALA,

GOGOR DU JAURTI JENTE ONDRAUAK,

SARRI OHI DUEN BEZALA.

Gabongo ilunabarra,
izotza eta ifarra;
asto gainean andre gaztea
trailatik tiran senarra.

Gaixo senar-emazteak,
maitasun gozoz beteak,
noraezeko bideak zehar
hor daramatza haizeak.

Oi, sentimendu mendiak
bi gazte bien sentiak,
gozo ta larri presatzen ditu
haur baten eguntsentiak!

Arre, txiko, bizkorrago,
aterpe bat hantxe dago
Belengo herriz kanpora eta
sakana baino asago.

GAZTE BIKOTE...

Berandu, baina puntuan
han daude koba barruan.
Andre gazteak egin du haurra,
hantxe du altzo santuan.

Jose gaztea geldida,
Maria bezain pozik da:
zein handia den bi gazte haien
haurrganako kupida!


Han daude biak zurturik
haurrarenana bildurik
maitasunaren hain hurbileko
zorionetan urturik.

Sarri ohi duen bezala,
gazte bikote apala,
gogor du jaurti jente ondruak
haurra jaioz zeramala.


GAZTE BIKOTE...

1982.azaroak 19


VI



apaltasun ederrak
Belen du izen,
zer sentzilotasuna
Belenen.



maitasun gozoak
Belen du izen,
zer elkartasuna
Belenen.



eraman onak
Belen du izen,
zer poztasuna
Belenen.

bizimodu pobreak
Belen du izen,
zer esperantza
Belenen.

bihotzen ontasunak
Belen du izen,
zer maitasuna
Belenen.

bake berriak
Belen du izen,
zer zoriona
Belenen.

marjinatuen zoriak
Belen du izen,
zer justizia gosea
Belenen.

Jaungoikoaren ahuleriak
Belen du izen,
zer samurtasuna
Belenen.

CEURE NEGARRA EGUIGU LURRA

UMA-ONCITIC NEGARRA

V. Paz-Andrade zenaren PRANTO MATRICIAL, G. Arestik itzulia

G. Aresti zenaren jaiotzatik 50 urte betetzean EGAN aldizkari honek nolabait oroitu nahi du bere lankide eta poeta ospetsu zenaren izena. Horregatik argitaratzen dugu hemen Valentín Paz-Andrade-ren Pranto Matricial-i egin zion itzulpena, 1975ean Cruña-n galegeraz, portugaleraz, euskaraz, katalaneraz eta gazteleraz egin zen argitalpenetik hartua. Gure artean ezagutzen ez den itzulpen lana.

Gainera, Arestiren azken lanetariko dugu itzulpen hau, Euskal Harria geroztikoa; beraz, batasuna berak nahi bezain azkar ez joateak asko kezkatzen zuen, literaturagintzarako hain beharrezko iduritzen zitzaionez, eta nolabait bizkortu nahirik, protestaz, grafia berri bat proposatu zuen, batasunaren kontra ari zirenei beste mutur bat erakutsi nahirik. Horregatik, dagoen dagoenean uztea iduritu zaigu.

IV

UMA-ONCITIC NEGARRA

UMA-ONCITIC NEGARRA

In memoriam

ALFONSO DANIEL RODRIGUEZ CASTELAO,

1950-gneco urtharrilaren 7-an Buenos Airesetan hila

1982. abenduak 2

1. EDOCEIN GAILEGOC EGUINEN LUQUEEN NEGARRA

CEURE NEGARRA EGUIÇU LURRA,
uretan, celhaietan, haiceetan,
arraçaren hilauri bici cosmicoac,
lanhozco içare batetan estaliac,
gure fina gure ethorquiari lotzen deraucatenac.
Horizontearen urrhezco soloetan itzur itzaçu
oilariteetan eta ilhunabarretan landuric,
argui-princetan bihitzen direlaric,
çure minac çaurthu dituen haciac.
Corda noble eta ahaztuetaco harpa,
ceure soinua bihotz lothuan libra eçaçu,
eta taupada total batetan accordeac jo itzaçu,
arimac, xoriac, hibaiaç, vistac.

Ceure negar oparoa eguiçu, lurra,
edocein gailegoc eguinen luqueena,
isiltasun arimatsu bat
eta anhitz beguirada mindu dauden arrodan;
burruca bilucian habe bicia içan cen
gorpputz luce eroriaren gainean;
hitz inoiz lehen ederragoaren ithurri leihorrean,
ezpainenetic hurbil;
erratzen quimaeraren celatan dauden
pampatar amapolez bir-loraturic,
bulhar gurhasotarretic hurbil;
patrointza galicianoaren odoletan,
haren arteriotic udaberri emancorrac
ernatu ciren
escu eihar gelara bihurtuen ondoan.

Ceure negarra eguiçu, lurra, uma-oncitic,
edocein gailegoc eguinen luqueena,
negar ere ahal baleidi,
itsasoa negarraz estali arte.

UR DOLORATUEN NEGAR EZTIAC
 oilariteen beguitartetic laster begui
 belarren sustraietara,
 euriaren cirian distillaturic,
 eta taupa begui gau eta egun
 teiletaco cantu celhaia
 eta Jaundone Jacueco harri hilen gaineco
 gargulen erdal-responsoa
 murmuratzen duten euri othoizleetan.

Çubietaco beguiei darien
 crystalezco negarra,
 non iraunguitzen baita hibaien polsua,
 eta pilatzen baita ilhuntze-nabar isilean,
 haranetaco bakartate verdean,
 canticaric gabeco hibarraren,
 bida-gurutzen eta arguiric gabeco animen,
 gathazca nekaçaleric gabeco
 eta odol iraqunic gabeco sukaldeen min guztia:

Haice neka-ecinen negar bortitza,
 Hibaiaren gatzac elicaturic,
 eztute Rianxoco velaric jotzen,
 eta deitzen haute, Daniel, oiñu çaurthuaz,
 —lertxundi gueldietaco orratzetan,
 Salnesco choru verde harpatuae—
 edo abysmoetaco voz ilhunarequin,
 uhinetaco crater fatalean,
 Salvoraco haitzen oinetara.

Motor-ancien burdinazco auhenec,
lanhoaren eta naufragioen agoniarequin,
Maringo ahoetatic deitzen haute;
boccinetaco negar nacaratuac,
hamilteguetaco harri hautsietan,
ekaitzac appurtzen diren arroquetan,
hareatza mingotsetan deiadarrez...
marinelen bulharretatic sorthu denetan
hatsic luceen eta ocenenean.

Eta han, azquen mendietaco
gailur deselhurtuetan,
edo eremuan ahazturic dauden
basa-herrietaco stratetatic,
artzainec lantzen duten adarquiac,
sasi-arteco cornet horrec,
libratzen du, farola urdin çabalean,
mendi tristearen ondicoa,
biac desconsolamendu ber batec çaurthuac

Lurrezco oceanon,
Andetaco dike seinatutac
zoda quiscaltzailac astindua,
lenaric gabeco quilec navegatua,
bicitzac galduen xeritacorequin
azartzen den natura goizcorra;
parien içarra ere arguitzen den
munduco forua;
surrez aldetic sentitacaco libramenduaren carta,
non gaileguen odol erromeroac
bere vocacione venturaria berriatzen baitu.

3. LURRA ETA CAMPAIAC

ERAMAN CIATE LURRA,
amaren buztina hireari bildua,
ereinotz lyricoequin,
Padrongo campo-santuan Rosaliaren
amoreac eta doloreac igurcia...
negar honen lehen verso sacratua.

Besteac composatzeagatic,
gu guztiongatic jotzen duten
eñiza guztietaco campai guztieac
batera Ifarretic Hegoara cantatuac,
ilkumbear ere eñunen dituc,
gure çorigaitzaren dimensionea
eztiate broncezco choralean bilduco.
Hiregatic, Daniel, campan-dorreez gainera,
heriotze patronatuaren seinalagarri,
bicitzezco accentu berriec joco diate;
spirituen cordec joco diate;
gaucen metalec;
gaucen,
haietan uzten baitituga giçonoc çathietan
arimaren çathiac.

ENÇUN BITEZ ORAIN

han urrunean haren accentu liquidoac,
handi-itsasoco eguerdietaco sare librean
vibrante.

Eta barrentzen ditue, Daniel, negar berean,
Martitzeco nora-ez

çalançarriari cebiltzan hire arrutetaco
azquen azterrenac;

surtan tattooatutaco tropicotic

Hudson çaratara edo

Araucaniaco mendi bilucietara.

Cuban isur bitez, Cortesen

itsasoan eta paulotar bandeiranteen

oihan beroan,

eta incaren punetan,

eta gauchoac çaldiz ibilitaco pampetan,

Segundo Sombra jaunarequin hareetatic.

Lurrezco oceanoa,

Andetaco dike seismicoaren contra,

zonda quiscaltzaileac astindua,

lemaric gabeco quilec navegatua;

bicitze galduen xertoarequin

atzartzen den natura goizcorra;

parien içarra ere arguitzen den

munduco forua;

aurrez aldetic sentitutaco libramenduaren carta,

non gaileguën odol erromeroac

bere vocatione venturaria berrizatzen baitu.

5. HIRE PATUA

EREILE AHAZTUA,

Galiciaren patuei irequitzen çaitzen
bideez amoratutaco erromesa;
deserriaren mingostasun dudacorrean
çaurthutaco bicitzeen lorea:
Hire patua han hiltzea cen.
Han, itsuen çarrabiten eresiac
ençun gabe, hiregatic baicic
ecin jo ceçaqueten Propheten
harrizco symphonia ençun gabe.
Hiltzen hincen agonian sentitzen huela,
gurutzen atzeco aldean laboratutaco
Ama Doloratuen beguirada eziticurrun,
emigratuen berotasun arteriala.
Oncia ainguratu huen, velaric gabe,
handi-itsasoco caietan,
herri-minari ildo berriac irequitzen herautzala;
arimaren babilac ber-bizten hituela
Galicia migralean, hire bihurrerari oraino, Daniel,
iguriquitzen deraucan Galizian...

6. ITZULICO HAICENEAN...

UMA-ONCI BAT DEN ETA HEUREA DUEN GALICIAN
pharo bat biztuco da isla bederan,
Heraclesen dorretic Minho hibaira,
itsasotic itzulico haicenean;
erratzeco sutondo bat mendi bederan,
itsasotic itzulico haicenean;
gazteluetaco coroan çuci bat,
itsasotic itzulico haicenean;
candela hori bat lertxun bederan,
itsasotic itzulico haicenean;
arça-bereterrec cirio çorrotz bana,
itsasotic itzulico haicenean;
dirdira çurico arguiac mastel bederan,
itsasotic itzulico haicenean;
farola marinel bat xalupa bakoitzean,
itsasotic itzulico haicenean;
etsetaco leihoetan guirisailuac,
itsasotic itzulico haicenean;
eta isuritaco negar-tanten perlac
itsasotic ethorrico haicenean,
itsasotic ethorrico haicenean...

Jadanik orduren dakit
inoiz ez ilargiz eta ez beranduko oroitzapenez jakitas
eta arrazoi emango diot
inork hauteman ez zion nere izateari,
(erdi klasiko jadanik erdi erromantikoi),
jadanik nere baitan sortzen zan poeta izaten.

Bello FERRAN

UMA-ONCI BAT DEN ETA HEUREA DUEN GALICIA
 Galiclararen patua den eta Heurea duen Galician
 qharo bat dixuco da isla bedetan
 Heraclesen dorretic Minho ibisau
 itzasoie itzulico haicenean;
 eratzexco suondo bat mendih bedetan
 itzasoie itzulico haicenean;
 gaxteluctaco coroa naci bat,
 itzasoie itzulico haicenean;
 ençua gabe, hirc-guie hucie
 itzasoie itzulico haicenean;
 coia jo caçaqbeten Prophetan
 itzasoie itzulico haicenean;
 harrico symphonia eruan
 itzasoie itzulico haicenean;
 Hiltzen hincen ardean sen
 itzasoie itzulico haicenean;
 gurutzen ardeco aldean laborturac
 itzasoie itzulico haicenean;
 Ama Doloraren begirac
 itzasoie itzulico haicenean;
 emigratuon berotasun arriac
 itzasoie itzulico haicenean;
 Oncia ainguratu huen, ve
 itzasoie itzulico haicenean;
 handi-itsasoco caietan,
 itzasoie itzulico haicenean;
 herri-minari ileo herriac irequizen
 itzasoie itzulico haicenean;
 arimaren bablac ber-bixten hitz
 itzasoie itzulico haicenean;
 Gallia migralean, hire bihurtu
 itzasoie itzulico haicenean;
 iguriqizzen deracua Galizian
 itzasoie itzulico haicenean.

NERE IZATEAZ

(S. Esprioren La pell de brau
Otsalarrek euskaratuak)

Jadanik argia denboraren saldukeriz
dirdirutzen zen nigan,
nik ordea, beti bezala buru zutik esango dut:
«Bizitzarena naiz, baita ere gizonarena, orain...»
Jadanik xoriak hertsirik kantatuko dute
guziak batera malenkoniak oro
orduak ez dut izango jadanik
oroitzapena baizik.

Jadanik denboraren buruan eginikako zoldura
izanen da betiko deseginaz nere baitan,
poliki poliki baztertuz
nere egiazko izatea,
itxaropen loturak nigan utziz
jadanik gutziatsu Jainko eternalaren alde.

Jadanik orduan dakit
inoiz ez ilargiz eta ez beranduko oroitzapenez jakina
eta arrazoi emango diot
inork hauteman ez zion nere izateari,
(erdi klasiko jadanik erdi erromantiko),
jadanik nere baitan sortzen zen poeta izatea.

Bello FERRAN

(Otsalarrek Bable-tik euskarara itzulua)

NERE IZATRAZ

Jadanik argia denboraren saldukeriz
diribitazen zen nigan,
nik ordea, beti bezala buru zutik esango dut:
«Bixitzarrena naitz baita ere gizonarrena, orain...»
Jadanik kortak heretarik kantatuko date
guztiak batera maitatzen oio
orduan ez du izango jadanik
oroitzapena baxik.

Jadanik herdoitzen buruan eginkako zoldura
izanen da betiko desaginar nere baitan,
poliki poliki baxteratuz
nere egiazko izatea,
itzaropen loturak nigan utziz
jadanik gutxiarzu Jainko etemalarren alde.

Jadanik orduan dakit
indioz ez laiariz eta ez beranduko oroitzapenez jakina
eta arazozi erango diot
inork hauteman ez zion nere izateari,
(erdi klasiko jadanik erdi erromantiko),
jadanik nere baitan sortzen zen poeta izatea.

Bello FERRAN

(Otzalarrek babestuz eskerruz itzuliz)

ZEZEN LARRUA

(S. Espriu-ren *La pell de brau*
Otsalarrek euskaratua).

I

Sepharad-eko hondartzan zezenak
erasotzen du larruaren zabaleran
eta bandera altxatua bihurtu.
Haizearen kontra, zezen larru
hau, odolez estalitako zezena,
eguzki urrez gogorturiko zapi bat baizik
ez da, kasik betirako denboraren martiretzari
eskainia, gure otoitza
eta gure biraoa.
Era berean biktima eta borrero,
gorrotu eta maitatu, kexaz eta parrez,
zerupeko eternitate itxian.

II

Zezen larruaren zabalera zera,
Sepharad zaharra.
Eguzkiak ezin lehortua,
zezen larru,
denok ixuritako odola,
bihar ixuriko duguna,
zezen larru.
Itsas gainetik begiratzen badut,
kantuz urrutiruntz aldentutzen banaiz,
amesetan barneratzen banaiz,
begiratzera ausartzen naizen guztian
nere bihotzera eta bere izutasunera,
zezen larru zabalera ikusten dut,
Sepharad zaharra.

III

Larrua tanbor bat da
eskuz kolpatua
beldurrez,
zaldiaren harrapaladan
ezin
hatzemanaz azken garaipenaren
atsedena.
Sepharad eta herioa,
zaldi argala, zaldi eroa:
maiz ezin bereziz
bere izena
denboraren amets
oinazezkoan.

Zaldi argalaren harrapalada
urte tristeetan, bide latzak
Sepharad-ekoak.

Oinaze lehorrak eskatzen du
ur ongarria, gari.
Guti baldin bada, euri garbia
ez dadila bihurtu odol.

Gure gaua, izuaren
oharle ernea,
entzun nola hurbiltzen diren,
zezen-larruaren zabaleran,
ezpainik gabeko irriak,
harrapaladazko ames gaiztoa.

Zezen larruaren zabalera zera,
Sefharad zaharra.

V gurkiak ezin lehortua,
zezen larru,

VI

Lasterka barneratzen bahaiz
hire entzumenaren gauan,
Sefharad zaldi ero,
zigor eta ezpatak
governatuko haute.

Ezin du printzerik hauta
odola ixuri duenak,
saldukeria edo lapurretadunak
edo jaso ez zuenak
poliki poliki tenplua
bere lanarena.
Suarekin lehenik erretzen duk
libertatea.

Hurbildu hadi begiradaz
hizotz honetan,
ikas benetako
hire gaitzaren ezina:
idoloaren aurpegian
beha zak.

VI

Gailurreratu dukan idoloa, hire gaitzaren irudia.

Gure neguaren egun urruti batean,
jadanik zero honen babespean,
bekaizkeriaren bihotzean errotzen ikusten genuen
izu Sepharad-eko krimen handia:
pekatuaren muga gabeko tristura
anaiarteko guduaren garaipenik gabe.
Itsasoaren bestaldetik iritsiak
beti odolez beteriko alor idorretara,
lanaren oinazeak salbatzen gaitualarik,
oroipenezko elizaren argiak gidatuz,
geldiro irabaziz libertate baketsua.

Baſtan erren-errenak ere ba daki, gauz bat izaten dala
«ustez» (eta orrek erdia beintzat «ustela» izaten duala) eta
beste oso desberdina, izatea. Ez nintzan ez, ibilli nŕ, inungo
«ate paltsorik». Bera ba da, orrik ibilli zifatenak xok izango
zifarten. «Ate paltsorik» ibilli gabe, ate asko ikusi izan ditut
nora aurrean zabal-zabalik erriak, eta batzuetan surrera ego-
der, eta bestetan berriz, ez. Ori, nolako aldartea nua nŕdura,
edo ba-leike xitiŕ eŕo nor ate-atzean ikustea nŕdala.

Aguilar'ko liburu orren argitaratze-erria ba da, nŕdura izan
nŕdura —ez zuengandik, noski— eta ego-erria bera ba da, nŕdura
ba berrituta bideli nŕdura bideli nŕdura. Nŕdura argitaratze-erria
argitaratze ba daki ez nŕdura berrituta nŕdura nŕdura bideli nŕdura
argitaratze presak —beste askori gertatzen zuten ez berrituta— eta

JUAN SAN MARTIN'eri

Eskutitzen asieran jartzea oitura den bezela, ez dizut nik zuri jarriko ez Jaun eta ez Lagun, orrelakorik ez zerala garbi agertzen bai zenun azkeneko EGAN'eko alean (1982 1-6, 16'garrengo orrian).

An, eta Madrid'eko Aguilar'en argitaratutako «Poesía Hispánica 1968» dala ta, gezur aundi bat ontzaz artzen dezu, eta orretaz, gezur aundi bat esaten dezu.

Ez noa ni dudan jartzera zuri Gabriel Arestik idazi izantakoa. Eta ez nijoa itz bat bakarrik ere esatera illtakoentzat. Berak jakingo zuan zer esaten zuan orduan, eta nai zituen iritziak artzeko —naiz ta gezurrezkoak izan— bere eskubidean zegon.

Bañan eroen-eroenak ere ba daki, gauz bat izaten dala «ustea» (eta orrek erdia beintzat «ustela» izaten duala) eta beste oso desberdiña, izatea. Ez nintzan ,ez, ibilli ni, iñungo «ate paltsoetik». Bear ba da, ortik ibilli ziñatenak zeok izango ziñazten. «Ate paltsoetik» ibilli gabe, ate asko ikusi izan ditut nere aurrean zabal-zabalik erekiak, eta batzuetan aurrera egin det, eta bestetan berriz, ez. Ori, nolako aldartea nuan orduan, edo ba-leike zeñ edo nor ate-atzean ikusten nualako.

Aguilar'ko liburu orren argitaratzea zala ta dei asko izan nitun —ez zuengandik, noski— eta egia esan bear ba det nai-ko beartuta bidali nuan bidali nuana. Neri ezagutzen didan edozeñiek ba daki ez naula bururik nasten nere idazlanak argitaratzeko presak —beste askori gertatzen zaion ez bezela— eta

ara ere ez nuen bidaliko ainbeste eta ainbeste dei eta eskeintz egin ez ba zidaten. Ori «ate paltsotik» joatea ba da, nungo ate zikiñetatik ez ote zerate pasa zuek? Nik ez dut iñungo «ate paltsotik» ibilli bear izan; geienak, leen esan duten bezela, erekiak ikusi ditut eta deika bere ingurutik, eta iñoiz itxia zegoen batera joan bear izan ba det, tokatzen dan moduan, errespetu guziarekin jo izan det aldaba.

Ori bai, ez nuen jakin zuen baimena eskatu bearrean negola, or, nere idazlan ori argitaratzeko. Nere ustez, antoloji edo poema-xorta oien bereixlea L. Jimenez Martos zen, eta nik liburua argitaratua ikusi nuan arte ez nuan jakin zeintsu nituen aldamenean, sekulan orrelako galderik egiteko oiturik ez bai det izan. Jakin izan ba nu, zeñiek daki ezezko garratzagoa ez nuan emango, orrelako inguru-lagunak izatea ez bai zidan pozkida izugarririk emango, naiz ta zuk uste izan zure inguruan jartzea oso gauz amesgarria izan bearko duala.

Ez noa geiegi luzatzera, ez det zurekin denbora askorik galdu nai ta. Bakar-bakarra esan nai nizun, «ate paltsotik» ibiltzen dana zu izango zerala eta petralkeriak esaten dituana ere bai; nik zer-egin egokiagorik billatzen dut. Pozoi-ontzi ttiki bat besterik ez ba zera jakingo dezu noski nun ustu bear dituzun zure ur-zikiñ oiek iñor maxiatzera etorri gabe.

Eta jakin nai ba dezu zer agertu dezun zure idazlan orrekin, nik esango dizut orain. Zu eta zu bezelako batzuk jauntxo ibilli nai izan dezutela gure literaturako bide-ergel oietan, eta danok zueri erreberentziya egitea nai izan dezutela. Orrengatik artu zenuten miñ, ikusten dutenez, nere izena eta idaz-lana an ikusi zenutenean. Eta nola «paltsikia» zure barrenean zeramazun, andik gutxira, jende guztien aurrean, Donostiko Kultura Aretoan, nere poema ura, Aguilar'en liburu ortan argitaratutakoa, goratzen zenun zuk.

SANTIAGO AIZARNA

JOAN INAZIO GOIKOETXEA «GAZTELU» OLERKARIAZ ZENBAIT ABURU

Bizitzak ez du geldi aldirik, eten gabeko martxan doa eta ekin eta jarrai hortan mamitzen dute gizonek herri baten nortasuna. Atzokoa eta biharkoa izatean hartzen du herriaren kulturak bere dimenzioa. Ez gara ezer aintzinarik gabe, ez dugu etorkizunik gaurkorik gabe. Lantze eta erain aroak dakar uzta eta gizaldirik gizaldiko uztak ematen dio herri bati bere nortasuna.

Kezka horiek berekin zituen honako olerkiok idatzi zituenak, «Herria ibai» izen buruz:

*ez egonaldi
ez bakardi,
zati bat naun
HERRIA
kantatzen dut,
herria ez dago geldi
herria ba dabil
herria ibai da
medar
ala nasai
orain ilun
gero alai,
urrundik dator
iturri askotatik
gaur alkartu diranak
lau aldetatik,*

lehen artzai
nekazari
gaur langile
proletari
eta herri bat
EUSKAL-HERRI
odol askotako
azkari,
gaur orok ibai baten
nahasi,
joan
etorri,
herria ez dago geldi
herria ba dabil,
zati bat naun
HERRIA
kantatzen dut
herria
ibai...

Bere barnean egosten zen herri gogoaren adierazgarri ditugu poetaren bertso libre horiek. Azken batean, axola zitzaion honako hau zen:

*nor garaile azkenean?
ez dik ajola nor danik
galtzale ala irabazle
nola joka denak baizik.*

Hori bai zen bere bizitzako esperientziatik jokabidetzat hartu zuena.

Eta, Joan Inazio Goikoetxea «Gaztelu», inongo hots handirik gabe, 1983ko Erregen egunez Donostian bertan hil zen. Nere iduriz, bere balioaz ez ginen gehiegi ohartu eta bere galeraz zer esanik ere ez. Gaztelu, bere gogoz, inorekin buruabat eginik bazegoen, bere herriarekin zen eta gure nortasuna hizkuntzaren bidezko elkartasunean ikusten zuen. Axularren esaldi hura beretzat hartuz: «Mihian da ezagun nor den betbedera». Eta bere olerki batean hala azaldu ere:

*mintza, kide,
nahiz garbi
edo lizun,
nahiz gordin
edo txukun,
mintza bederen
hil ez gaitzen...*

*hitza da
elkarren
ezaugarri,
ba gerala
jakitearren...*

Apala ez ezik barnerakoiegia zen bere gogoaren garra herriaren aurrean kementsu azaltzeko eta horrek ezkututzen zuen gure uste zintzoan oso goiko mailetan jarria behar zuen olerkariaren izena.

Jakintza mailan ere ez zen nolana hikoia eta horren kezka ere bere olerkietan nabari da:

*hutsetik bizi da
nere jakin-gosea
zulo bat bezela
ondorik gabea:
ez da inñolaz betetzen
nere jakin-gurea...*

Olerkiok dira pertsona beraren iduriz eginak eta Gaztelu joanaz poeta bat gutiago euskal-arnasoan.

1908. urtean jaio zen Gazteluko Bordatxuri baserrian, Larte mendipean, Kaputxino ordenan osatu zituen bere ikastaroak, Altsasun, Hondarribian, Lizarran eta Iruinean. Gazterik hasi zen olerkigintzan eta 1934an eman zion lehenengoak *Yakintza* aldizkarian argitaratzeari. Behar bada, bere olerkaritza, Aitzol-en gidaritzapean indartu zen Euskaltzaleak deitu mugimendu haren eraginezkoa zen hastapenetan zeren Gazteluk ere sari-keta ospatu haieran parte hartu zuenez.

Gerrak barreiatu zuenetarikoa genuen Gaztelu. Herbestera-
turik, Ameriketara zenbait urtez bizia, Argentinako Llavallol,
Mar de Plata, Córdoba eta Mendozan. 1958an itzuli zen eta
geroztik, apez, Donostian. Baina, buru-belarri euskal gaiari
emana. Buenos Aires-ko *Euzko-Deia*, Guatemala eta Miarri-
tzeko *Euzko-gogoa* eta hemengo *Egan*, *Zeruko Argia* eta *Olerti*
aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak. Inoiz saritua ere
izan zen eta saririk aipagarrien arteko ditugu 1970 eta 1971.
urteko Irun sariak poesiaz.

Bere olerkirik gehienak tristeak dira, inoiz etsipenezkoa
ere bai. Bizitzako gertakariak eta harat-honat ibili beharraren
eraginak tajutu bai zuen bere izakera:

*otanik gabe
gabiltza gizonok
galdu
gordean,
norakorik gabe
ontzia bezala
jitoan.*

Baina, ez ordea bizi nahirik ez zuelako, ez. Ohartzen zen
mutur batetik bestera, ezkortasunetik baikortasunera, ez eta
bai elkarrengandik hurbil zebiltzala maizenik. Horregatik esan-
go zigun:

*alkarri musuka dabilz
gaua eta eguna
argia eta iluna.*

Gizonaren neurria, izanaren kosmos barnean txiki zela adie-
razteko. Baina, biziari ukorik egin gabe, zeren

*ona da bizia
bititik at deusik ez da
bizia du gizonak hazta ta neurri
horregatik dario alai iturria
horregatik doa kantuz txoria
horregatik da usaidun lilia...*

Ausart agertuko zigun bere sentipena. Gizonaren dimentsioa bere tokian kokatu ondorean, izatezko gutietsiaren barnean, bizitzaren zentzua edertuz. Sorketazko ahalegina zen Gazteluren gogozkoa, ideal hori zuen eder, gizonaren minak eragitzen bazion ere karraxi eta oihu.

Juan Inazio Goikoetxea «Gaztelu»-ren lanik entzutetsuena *Musika ixilla* deritzana da, 1962. urtearen azkenaldera argitaratua. Frai Luis de León eta San Juan de la Cruz-en poesi euskaratuak dira, Orixe zenaren hitzaurrez eta Gaztelu beraren zenbait oharrez, gaztelerauko autore bien bizitza eta euskal metri-kari buruzko eraskiñez. Edizio kritikoa beraz. Itzulpenean saiatu zen neurriaz gainera hitz-neurtuak azentu bidezko errimoz ematera, irakurgai aldetik hotsen doinuz jazteko, atsegina-goia izan zedin.

Gaztelu ez zegoen ados Etxeparegandik orainarte poesien metrika hertsiez jarraitu den era horrekin. Bere ustez, horrez gainera bazen beste edergarri bat ere, azentuaren erabilkerarena. Euskaltzaindiko urgazle zen aldetik, igazko ekainerako hitzaldi bat eskaini zigun gai hortaz, baina ordurako osasunez oso makalik zebilen eta agindua ezina bihurtu zitzaion, gure zoritxarrerako. Gai hortaz zituen pentsamenean zati batzu argitara bazituen ere, gehienak berakin eroan ditu hilobira.

Auñamendi argitaldariko *Español-Vasco* hiztegia, B. Estornés Lasaren eragintzaz eta zuzendaritzaz eroan bazen ere, antolaketa eta idazmoldea Gaztelurenak dira. Sei tomoak, A letratik C-ra arte, argitaratu ziren eta hil ondorean zazpigarrena. Tajuz egina da eta merezi luke lan horren jarraipenak, bereziki Gazteluk burutu zuen partearena.

Baita ere, nori berea emateko, esan beharra dugu B. Estornés Lasaren, *El cantar de Roncesvalles...* (1979) deritzan liburuan II, III eta IV parteak Gazteluk euskaratuak direla.

Hala ere, Gazteluren baliorik handiena olerkaritzan datza eta *Oleri* eta beste zenbait aldizkaritan, *Egan* barne dela, argitara zituenez gainera Irun sariko biak hautatuko genituzke, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak 1972an bi liburutan argitaratuak: *Gauean oihu* eta *Biziaren erroetan* izenburuz. Bietan bada gauza bitxirik, bai azalez eta bai mamiz. Bide berriak urratuz zetorren, hasieran esango zuen bezala: «Gauari hitzekin bultzatzetik nator».

Gizarte arazoak kezkatzen du eta hitza da erromes:

Hitza da erromes

eskale

behartsu

gogoa orora

baina

ez doa inora

nahi luke mundua besarka

nahi-ala

esan

esan-ala

egin

ogia ogi

harria harri

baina nahi izatea

ez da ahal izatea

eta nahia huts doa

luzu du hegoa

baina motz zangoa...

Hitz joko horietatik zijoan bere filosofia, eta herri minari ikutzen dionean irule fina agertuko zaigu, igarri nahi duenari keinuka:

herriaren keinu hori

haizearen azmamiiek laztantzen duten

argiaren kutxan gorderik dagoen

herriaren keinu hori.

baldin erdoirik

edo zahar-kutsurik

balinba nokurik

nahiz eta lohirik

erantsi bazaio.

herriaren keinu hori

ez baztertu

ez zapuztu

gutxiago ukatu...

herriaren keinu hori.

Lehen liburua Vietnan-go gerra hurbil zela idatzia da, eta hango gertakariak eta heriotzak ere gizonki eta ausart salatu zituen, soinekoak urratuz, bilus eta maitasunez:

maitea bilus kantatzen dut

maitea bilus

soil

tipil

bipil...

hostoa bezain has

galburuak bezain has

Kristok eskuetan

marruskatu zituenak

behin

maitea bilus

hilobi gainean zutik dagoen

vietnandar haurraren:

HEMEN DATZA ANA MARI,

HEMEN DATZA HO CHI MIN...

Port Knox-eko urregorriak

dolar beltzak ideki duen

hobi gainean dagoen

maitea bilus...

behi-begi izutueta itzuri doan

belar-izpitan dardaraz dagoen

Sapelatzen oin-azpian zapart egin duen

harmagileen zumil-artean lehertu den

Herio-tolarean maluskatu den

maitea bilus...

Era hortara, oihuak indartuz doa liburuen azkenaldera, bukaerako bertsoak esaldi gogorrez azalduz. Egia esan, bere barnerakoitasunetik inoiz ez zen agertu hain ausarti. Azaltzen digunaren arabera, badirudi, bere erraietaraino kixkaltzen zuela gerra mingarri harek.

Bigarren liburua, bere izenburuak dion bezala, *Biziaren erroetan* dabilen olerki mina da. Bere izatea bere herriko lurrarekin lotzen du, maiz panteista tajurako ideiak agertuz bere sentipenik sakonenetan lurraren barne-taupadak jasoaz:

hire muño gurien
hire baso ta oihan itsuetan
hire mendi ta arkaitz gorrietan
etzin nadi naizen hau zabal...

Bere aragia lurturik herio loa opariz. Baina esperantza eta desesperantza elkarri burrukan ageri dira liburuaren azken orrietan. Nahia eta ezina, gogoia eta etsipena elkarren aurrez aurre; hala ere:

halare
oraindik eder zera, larrosa,
atomo-bonba izan arren
umeen
gazteen
zaharren
emasabelen emaitza
duena hiltzen...

halere
oraindik eder zera, larrosa,
zure irudiaren betetasunean
zure mamiaren guritasunean
zure kolorearen zoriontasunean
zure usai onaren mozkortasunean
bai
oraindik eder zera, larrosa,
edertasun irudi panpoxa!

Ezbehar guziak gaudituz, oraindik bizitzari aurkitzen zaio ederrik eta natura bera da gizonentzat exenplu. Horregatik, Gazteluk, etsipenen barnetik ere lagun urkoaganako maitasuna bizi agertuko digu, zenbaitzuren ankerkeriak gora-behera.

Inoiz ordea, ankerkeria horiegatik etsipendurik, poeteri isilaraztea eskatuko dio, zeren onerako eginalak eginarren guzia alperrikakoa somatzen du. Alperrik,

*malko guzien pisua
nere barruan,
amets guzien errautsa
nere barruan...*

*ezer ez da iraunkor
gizonen oinazea baizik,
dena da iragankor
eta da alperrik.*

*ixil zaitzte poetak, munduak
ez du merezi zuen kanturik...*

Bizitza nekatuan, anparu bila, nolabaiteko babes behar du gizonak, nekeen ihesbide besterik ez bada ere, eta Gazteluk bere haurtzaroko oroitzapen eztiak ditu maite. Era berean, gizonon sorkundera itzuli nahia, norbere erroetara gogozko eutsigarri bila, naturalezak berak hartara bultzaraziz, eta oroitzapenak ditu gogoko. Erroetara itzuliz aurkitu nahi du bere abaroa.

Bestalde, haurtzaro eta gaztaroko zenbait gertaerak eta norbaiten edo norbaitzuen kontseilu eta eraginez hartzen bai du gizonak bere bizitza guzia markatuko duen erabakia. Gero, adinduaz, inguru eta auzo eta herbesteetatik jasoko ditu ideak, gertakari berriak, laguntzak eta oztopoak; ezagutuko ditu gizonen maitasunak eta gorrotoak, eskuzabalak eta maltzurak. Gizarte korrentak eramango du ur garbi eta zikinetan zehar, orain tira, gero bultza, era askotariko tentazio eta gogoetetatik. Hala ere, guzien gainetik, bere izateak tiratuko du eta gidatuko du barnetikako gogoen eraginez. Inoiz, naturak agintzen bai du beste ezerk baino gehiago.

Naturaren misterioak ordea, berezkoa du gizona bere sorkundera begira jartzea eta lehen ezagutu zuen argia, aintzina maitasunezko kontseiluz hezitzen ahalegindu ziren pertsonak, odolak berez tiratzen duenaz gainera, oroituko ditu eta beraietan aurkituko du nolabaiteko babes eta atsedean hori. Bizitzan zehar hainbeste aldiz ausnartutako gogoetak eta oroitzak indar handia dute edonorrengan eta Gazteluren baitan, dirudienez,

amona Gregori izan zen lehen hezkuntzan eraginik gehien izan zuena. Horregatik eskainiko dio bere hileta soinua amona Gregoriri, maitasun lokarriak heriotza bera baino haruntzago eroan nahirik, bere gogozko izatearen zordun agertuz eta esker onez sentipenik sakonenak eskaini zizkion:

*zin gogor den biziak alkartu gindunok
bereiztea alkargandik,*

Berriz elkartu nahi du bizitzan gehien maitatu zuen pertsonarekin, oroimenak doaz haurtzarora, gogoz sorkundera begira jarritz, baina badaki materialki ezinezkoa zaiola eta gogozko lotura ez zaio aski. Berbizkundeaz zalantzak ditu nonbait, edo hortaz ez du gehiegi sinesten. Egiz, lur materia aurkituko du guzcion altzo edo, gutienez ere, hori ez dio ezerk ukatuko eta gogozkoa betetzeko bide zaio. Bete nahi hori hitz hauekin agertuko du liburuaren bukaeran:

*Amona Gregori:
oraindaiño bizian lagun zindugunok
lagun gaituzu aurki hilik
lurrean
guztion altzoan...*

Pentsamenduok garrantzizkoak iduritzen zaizkit gizon gogatsu eta pentsamen ausnarkor bategandik datozenez. Gaztelugan, hitza haragi da. Bere izate guzia hor agertu bait du.

Bere alde filosofikoan azalpen horiez gainera besterik ere bada, irakurketa bareago eta sakonago baten bidez ideia, pentsamena, gogoeta eta sentipena hobeto ezagutzera iritsiko ginateke. Oraingoz, lerro ximple hauek izan bitez behar haina ezagutzera heldu ez garen poetaz.

Bestalde, esan beharra dago, bere hizkera oso aberatsa dela, ugaritasunez eta edertasunez.

OTSALAR

UZTAPIDE'ri AZKEN AGURREZ

Ekainaren zortzian hil zaigu Uztapide. Bere galera doluminezkoa izan da Euskal Herri guziarentzat, bereziki bertsoza-leentzat.

Manuel Olaizola Urbieta, Endoia (Zestoa) auzoko Uztapide baserrian jaio zen duela hirurogeta hamalau urte. Gaztetxo hasi zen bertso-gintzan eta Euskal Herriko txapel-dun izatera iritsi zen. Beraz, goren mailako bertsolaria genuen eta hori, beste gabe, gizonaren doainen erakusgarri bada ere, hortik gora edo hortik aparte, Uztapide, zerbait gehiago zen gure egungo euskaldun gizartean: bertsolari eskola zaharraren eredu eta zubi ondoko belaunaldieri begira.

Xenpelar errenderiarrak forma eman zion Gipuzkoako bertsolari eskolak izan ditu ondorengoetan jokera berezi batzuk dialektikaren aldetik eta eztenkadazko ateraldietatik, bertsoa osatzeko era ere tartean dela, Pello Errota, Txirrita eta beste zenbait bezala. Ba, era hortakoa genuen Uztapide ere. Baina, izakera horrek ez zion ezer kentzen bestelakoak egiteko ere.

Bertsolari berezia izatez aparte, bere emaitzak bazuen bes-telako doairik ere. Gerra aurreko txapelketan agertu zen bertsolari eta gerra-ondan, euskararentzat guzia hila zela uste zen garaian, Basarrik hartu zuen bere lagun bikotea eginaz Euskal Herriko plazetara gure hizkuntz zaharraren lekukota-suna agertuz. Euskararen historian oso gogoan edukitzekoa da urte ilun haietan, Basarri eta Uztapide eremuko predikuetan, mila eratako jarrereri aurpegia emanaz, umiltasunik handienez, plazarik plaza azken titiriteroak izandu balira legez.

Herririk gehienetarako egun seinlatuak zituzten eta oroitzen naiz urtez urte hutsik egin gabe nola etortzen ziren San Pedro egunez Eibarrera, Urkuzuko plazan kantatzera. Horien eragina nolakoa zen jakiteko, aski dut esatea, gaztetxotatik morrala hartu eta mendira irtetzen nintzela egunetarako San Joan jaietan, baina San Pedroetan ez ezergatik eta ez inorgatik ez nuela utziko Urkuzuko plazan bertso saiora agertzerik. Horregatik iduritzen zait ni bezalako beste asko izango zirela Euskal Herriko plazetan, euskara hain mespresiatua zen garaian, bertsolari hoiek entzuteko irrikitzen.

Bertsokeraz taxura berezia zuen Urtapidek, Basarrik Otaiñoren jokera bazuen ere, beste hau Xenpelarren satira erekoe-tan zen mutila. Baina, satirazko ateraldiak soilik ez zuten osatzen Uztapideren bertsokera. Bazuen bestelako berezitasunik ere. Eredugarri har genezazkenak dira idea bati mugaturik eta idea hori esaldi labur eta egoki batera errendituz egiten zituena. Esaldira eroateko betegarriz egingo zuena, preparazio edo inguratze hutsa izango zen eta bertsolariaren intentzio guziaz azkenerako gordeaz esaldi egoki baten bidez agertu. Bere teknika eskema gordetzen zuen, bertsoa erraz eginaz eta grazia berezia emanez. Horregatik, ofiziokoetan, elkarri erantzunezko dialektika eztenez kargaturik eramaten zekien. Hori eta bere itxura umila ziren publikoa bere alde eramateko armarik onenak. Jendea beti adi, ia Uztapidek zer nolako ateraldia zekarren. Hara honen adibide bat: Bordari zena prestua zen gaietan gatz-ozpinduzko saltsa jartzen eta ofiziokoetan jarri zituen Uztapide alkate, Lizaso sekretario, Azpillaga maisu eta Basarri apez jaun, baina gu bizi garen herria zeharo nahastua omen, eta Uztapidek karguetan lehenbizikoan lortu zuen bere burua zuritzea; hala nola:

*Dotriñarikan ez dakiena
jarri dute erretore,
maixutzat berriz hor da bestia
gure hizkuntzarik gabe,
sekretario hau eginda dago
bizio guztien jabe,
alkate onik ez da habentzat
edozein ipinita're.*

Horrelako iltziak zituen Uztapidek besteak menperatuz publikoaren gogo beraganatzeko.

Bertsogintzarako zuen erraztasunaren adierazgarri dugu behin trunpatuarazi nahirik puntu aldrebek bat eman zitzaioneko hura:

Irigoyenek:

Ikasi ahal dituzu

ROCK AND ROLL *eta* TWIST?

Uztapidek:

*ez degu izan, aizu,
guk horrenbeste bist,
galdetu behar zendula
ez liteke sinist,
naikua pena honek
neri ematen dit.*

Nekeza bai zen Uztapide tranpan hartu eta pota eragitea.

Hara beste adierazgarri bat: Behin batian, elkarri erantzunezko bertsogintzan argi zirelarik, Azpillagak zirikatatu zuen Uztapide eta laster zen honen txanda eztenkalaria:

*Gazte horrek argi dauka
bere memoria,
orain e' karga nigana
baida eroria,
hemen konpondu ezinik,
hau da komeria!
Azpillagan dotriñak du:
zu pekataria.*

Hor ikus bere erreflejoen bizkortasuna, bere etorria eta ekarria.

1962, 1965 eta 1967an Euskal Herriko txapeldun izatera iritsi zen. Baina laster izan zuen bere buruarentzat enbolia gaitza eta azken hamar urte hauetan ez zegoen kanturako.

Hala ere, lehen Auspoa Liburutegiak argitaratu zion *Noizbait* (1964) bertso liburuaz gainera bere eskuz beste bi liburu trinko idatzi zituen, argitaldari berean kaleratzeko: *Lengo egunak gogoan* (1974) bi tomotan bere oroitzapenak prosaz agertuz eta *Sasoia joan da gero* (1976) bertsoz osatua.

Gizon zuzena eta sentibera, sentiberadun guziak bezala bihotz handikoa. Joan zaigu, baina ez bere hilburukoa gure ondasunerako utzi gabe. Horregatik, gure hizkuntzaren historian eta une jakingarri batean, Basarri eta Xalbadorrekin bertsoalaritzaren zuzia pizturik gorde zuen, aintzinako belaunaldietatik zetorrena, ondoko gizaldiari eskainiz gure herri literaturaren jarraipenean argi egiteko.

Orain, aspaldi ama zenari bertsoz agertu zion nahiaren garaia heldu zaio:

*Amak eman ziraden
lenengo bularra,
handik hartu nuen
bertsotako indarra,
geroztik bihotzera
datorkit su-garra;
egunsentia joan zan,
laister illunabarra,
gero ta beherago
Uztapide zaharra.*

*Ama oraindik ere
daukat nik goguan,
pena ez egotia
gaur nere onduan,
Jaungoikuak zerura
eraman zinduan,
laister izango zera
ia saminduan,
baiña ni ere hor nazu
laistertxo zeruan.*

Juan SAN MARTIN

SUGEAK TXORIA'I BEGIRATZEN DIONEAN

Bernardo Aizaga

(1983. urtean Zarauzko Udalak eraturiko haurrentzako ipuluen «Xabier Lizardi Saria» irabazi zuen lan honek)

KONTU KONTARI

Sugeak txoriai begiratzen dion bitartean, kontu egiten da, eta ordurarte begien bistan eduki duen munduaren zati laburra —zugaitsu batzuk, bizpauru teilatu, bidea, zeruaren urdina— izkutatu egiten zela bapatean. Barraketako magoen gainehuekin gertatzen den bezala, une batez hantxe dauka gutxi: koloreak, mugimendua, argia. Hurrengoan, berriz, gutxia gertatu egiten da, ezin liteke hutsune beltz bat balizik sumatu.

Txoriai gaua etorri zaiola pentsatzen du, eta gau horren txiki izar batena dela bera hainbeste itxutzen duen dixtira txiki hori. Ez da ohartzen sugeaz, eta honek eragotzidako biziarekin. Egia litzegia litzatekeelako apika, nahiago bida du gaua xehe batean sinestea.

Txututa, txoria dantzan hasten da. Baina bere mugitzeko moduak ez du dantzari batenarekin antzarik izaten. Ostroen bitartean galdutako moskor bat dirudi aldez, hegoak zabalartan dituelako, abarrek in estrapozo eginez. Lepoa is zaratzeraino zabaltzen zaió, eta kaptatu ere traketis kantatzen du, dolatuak eginez.

SUGEAK TXORIA'ri BEGIRATZEN DIONEAN

Bernardo Atxaga

(1983. urtean Zarauzko Udalak eraturiko haurrentzako ipuien «Xabier Lizardi Saria» irabazi zuen lan honek).

Sugeak txoriari begiratzen dionean, txoria itxutu egiten da, eta ordurarte begien bistan eduki duen munduaren zati laburra —zugaitz batzuk, bizpairu teilatu, bidea, zeruaren urdina— izkutatu egiten zaio bapatean. Barraketako magoen paineluekin gertatzen den bezala, une batez hantxe dauka guztia: koloreak, mugimendua, argia. Hurrengoan, berriz, guztia joan egin da, ezin liteke hutsune beltz bat baizik sumatu.

Txoriak gaua etorri zaiola pentsatzen du, eta gau horren Erdiko izar batena dela bera hainbeste itxutzen duen iztira malizios hori. Ez da ohartzen sugeaz, eta honek eragindako hipnosiaz. Egia latzegia litzatekeelako apika, nahiago bide du gezur xehe batetan sinestea.

Itxututa, txoria dantzan hasten da. Baina bere mugitzeko moduak ez du dantzari batenarekin antzarik izaten. Ostroen artean galdutako moskor bat dirudi aldiz, hegoak zalapartan astinduz, abarrekin estrapozo eginez. Lepoa ia zartatzeraino bihurritzen zaio, eta kantatu ere trakets kantatzen du, doinurik osatu ezinez.

Sugea eta txoria, biak dira inuzenteak. Itxasoak eta mendiak baino zaharragoa den lege batek agintzen die, eta erremediorik gabekoa zaie obeditzea. Legeak hala esaten dio sugeari, saiatzeko karnabak edo txepetxak edo txantxangorriak ehizatzen, eta gordetzeko, indar berdinez, sapelaitzaren hatzaparretatik. Era berean, txoriari zizareak seinalatzen dizkio janaritzat, sugeak etsaitzat. Legea berbera baita munduan harnasa hartzen duten guztientzat.

Beraz, sugeak txoriari begiratzen dionean borroka eternal baten episodio nimino bat baino ez da gertatzen. Nekazariak, edo bidez bide ibiltzeko ohitura duten paseatzaile bakartiek, sarritan ikusten dituzte borroka horren eszenak, eta ez dira harritzen. Begiratu aldi batez, eta aurrera segitzen dute bere zereginen atzetik.

Sebastian Bera ez zen, ordea, nekazari artekoa, eta ez zeukan, bere hamairu urtetan, bideetatik bakarrik paseatzeko ohi-turarik. Bere bizitza guztia hurian iragana zuen, eta oporretako hiru egun baino ez zeramatzan Obaba herriko mendietan. Sagarondoari erreparatu zionean, eta arbolaren sagar aleen artean erotuta zebilen txoriaz ohartu zenean, bihotza larritu egin zitzaion. Harritu egin zen.

—Zer gertatzen zaio txori horri, aitona Martin?

Aitona zaharra zen, zaharregia behinik behin bere anka eta bernen poderioz ibiltzeko, eta leku batetik bestera garraiatzen zuen Fangio izeneko astoaren gainetik erantzun zion.

—Bota egiok harri bat azkar!

Sebastianek ez zuen aitonaren mandatua behingoan bete. Jende gazteak pistiari izaten dion maitasun naturala sentitzen zuen txori baldar harekiko ere, eta harria eskuan zuela gelditu zen, botatzera erabaki ezinez. Ez zeukan konfiantza haundirik hiru egun lehenago, Obabara etortzean, ezagututako aitona Martin hartan. Bere aitak esaten zuenez, burutik nahastuta zegoen.

—Odolak ez dio ondo erregaitzen burmuina. Kontatzen zuen aitak bazkalondokoa amaren famelia obabatarraren gorabeheretara irristatzen zen bakoitzean. Ama aitona Martinen defentsan ateratzen zen, eta aitak arrazoi berbera botatzen zion beti.

—Zure aita ez dabil burutik zuzen, emakumea! Bestela, nola esplikatzen duzu Terranova-ra joateko daukan mania hori!

—Denok dauzkagu geure ametsak —suspiriatzen zuen amak.

—Baina hain eroak ez, aizu! —haserretzen zen aita— Terranovara joatea, eta dauzkan urteekin!

Tamaina horretakoa zen Sebastian gazteak aitona Martinen gainean zeukan informazioa. Eta horregatik, hain zuzen, egiten zuen duda txoriari harrika egiteko eskatu zionean. Sebastian nekatuta sentitzen zen: herrira helduz geroz, leku batetik bestera ibiltzea besterik ez zuen egin, aitonaren astoari segika beti. Mira sentitzen zuen, jadanik, hurian utzitako bizimoduaz; bizimodu hartako loaldietaz, batez ere, zeren eta izebak goizeko bederatzietan jaiki erazten baitzuen egunero.

Arratsaldeko seirak izan behar zutela kalkulatu zuen eguzkiari zelata eginez. Oporrak hurian pasa izan balitu, non egongo ote zen? Apika zinean apika etxeko siloian etzanda.

—Harria botatzeko!

Aitona txit flakoa zen, eta lepo are eta flakoago batek batzen zizkion burua eta soina. Lepo hori —ondo ebaki gabeko bizar batek zuritzen zuena— tentsioan zegoen Sebastian oihua entzun eta izutu zenean.

Sebastianek hiru pauso eman zituen aurrera, eta aitona zutitu egin zen Fangioren belarri gainera. Harriak, parabola bat egin ondoren, txoriaren gaikaldeko ostro bat jo zuenean, aitona txaloka hasi zen.

—Alde txoria! alde hortik berehala!

—Ez diot eman —esan zuen Sebastianek.

—Eman?, eman beharrik ba al zegoan-ba! Begira egiok txoriari!

Intxaurren baten gailurretik, txantxangorri batek begirada luze bat botatzen zion munduari. Hantxe zeuzkan, berriro ere, teilatuak, eta hantxe zeruaren urdina, hantxe bidea, hantxe Sebastian, aitona Martin eta Fangio. Bapatean eroritako

gau hura, eta gau hartako izar diztiratzailea, joanak ziruditen betirako.

—Suge batek sorginduta zeukan!

—Suge batek? —harritu zen Sebastian.

—Suge batek, ba! Sugeak txoriari begiratzen dionean, txoria lela lela gelditzen duk!

Sebastian bere harrikadaren bitartez lortutako salbamen-duaz galdetzera zihoan, baina aitona aurreratu egin zitzaion.

—Hire harriak ostroan jo eta hotsa atera duenean, sugea aztoratu egin duk, eta begia kendu zioke txantxangorriari. Horregatik salbatu duk!

Sebastiani galdera gehio gelditzen zitzaizkion golkoan. Txoriari jo izan bazion? Nola zekien aitonak harriarekin asmatuko ez zuela? Baina aitona beste eginkizunetan sartua zegoen jandak: txistuka ari zen.

—Hemen zetorrek txantxangorria!

Txoriak, zerurantz zihoanekoa egin ondoren, lurraldera hegaldatzen zuen zerkulu geroz laburragoak osatuz. Bere bidaia aitona Martinen sorbaldan amaitu zen.

Handik aurrera, eta ia ordu laurden batez, Sebastianek honoko eszena hau ikusi zuen: aitonak erdi hitz erdi txistu ziren hots batzuk egiten zizkion txantxangorriari; honek kantatu egiten zion aitonaren belarriari. Bi aspaldiko lagun ziruditen, elkarri kontu ttikiak esanez.

—Habil hemendik mainatsu alena! habil hemendik!

Esan zuen aitonak laudoriozko hitz batzutatik defendatzen denaren tonuarekin. Txoriak Fangioren buru gainera saltatu zuen, eta aidetara abiatu zen handik. Apurka, bere mantxa ezabatuz joan zen zeruaren urdinean. Aitonak kopeta zimurtuz begiratu zion zer esan asmatu ezinez zebilen Sebastiani.

—Eta hik, zer egiten duk hemen! ?

Sebastian ez zegoen bere eguneroko kaleetan, edo bere eguneroko lagunekin. Ezagutu berria zuen herri batean zegoen,

eta aiton ia ezezagun batekin. Bere abotsa kraskatu egin zitzaion erantzuterakoan.

—Zurekin etorri naiz.

—Bai? Eta nor haiz-ba hi?

—Ni?

—Bai, hi!

Aitonak keinu serioz erreparatzen zion Fangioren alturatik.

—Ni zure... zure iloba naiz. Izebak niri herria erakusteko esan dizu, eta horregatik nago hemen.

Aitona erreflexio sakonetan sartuta bezala gelditu zen, eta Sebastiani bere aitaren uste hura etorri zitzaion gogora: nola odolak ez zizkion burmuinak ondo erregaitzen.

—Aa, bai! —ta irrifarra gaineratu zen aitonaren ezpainetara—. Hi oporrak pasatzera etorri den iloba haiz!

—Bai-ba!

—Ondo! Ondo! Barka ezak, Sebastian, batzutan ahaztu egiten zaizkidak gauzak! —ta suspiriatuz: zahartzea bezalako galerarik ez zeok!

—Ez dio ardura, aitona Martin. Zer egingo dugu, orain?

—Etxera joateko gogoia daukak, ezta?

Sebastiani joanak zitzaizkion lehengo neke eta asperraldi guztiak, eta une hartan zeukan gogo bakarra jakitekoa zen. Txantxangorriarekin gertatutako azken eszena haren berri jakin nahi zuen.

—Txantxangorriarekin, zer egiten zenuen; hitzegin?

—Txantxangorria? Zein txantxangorri...? a, bai, txantxangorria!

Aitonak txoria dantzan ibilitako arbolari begiratu zion, eta ahaztuta zeukan zerbaitetaz akordatu denaren keinua dibujatu zitzaion aurpegian.

—Segituan joango gaituk etxera, iloba, baina gauza bat egin beharra zeukat aurrena. Itxadon egiak hemen!

Astoari eragin, eta sagastian barneratu zeu. Handik piska batera, oihu egiten zuen bere lepoko zain guztiak dardarrean jarritz. Sebastiani esaldi solteak baino ez zitzaizkion ailegutzen.

—Gutizia eta bizioa besterik ez daukak! Litxarrero bat haiz!

Aitona benetan haserretua zegoen, eta amenazuz astintzen zuen normalki Fangioarentzat bakarrik izaten zen makila. Sebastianek sagasti guztia begiz kurritu zuen arren, lehen bezala zegoen belardi sagarrez alfonbratua baino ez zuen antzeman. Nori egiten zion buila aitonak? Txantxangorria jan nahi zuen sugeari? Kezkatuta, aitona zegoen tokirantza hurbildu zen. Eta orduan bai, orduan ikusi zuen sugea; zutituta, burua makurturik, lurrean landatutako bastoi berdeska bat zirudien.

—Penatuta hagoela! penatuta hagoela! aitzekiak! gula daukak hik galanta! Horixe duk hemen pasatzen dena!

Sebastiani pilatuz zihoazkion galderak. Ez al zuen aitonak txantxangorriarekin hitzegin? Eta sugea, ez al zegoen humil humil bere erritaren aurrean. Zein tratu zeukan aitona Martinek animaliekin? Orduan, eta bigarren aldiz aitonaren begirada zorrotzarekin egin zuen topo.

—Eta hik, zer egiten duk hemen?

Sebastianek gertatzen zenaren teoria bat inprobisatu zuen: aitonak animaliekin hitzegiten zuen bakoitzean, ahaztu egiten zuen jendea, hala bertakoa nola urrutikoa. Eta jendearekin ari zenean, berriz, animaliak izaten ziren burutik joaten zitzaizkionak.

—Ostera esan behar al dizut, aitona Martin? Ni Sebastian naiz, zure iloba!

—Ez egiak esan! —zinez harrituta zegoen aitona.

—Noski baietz!

Geldiro geldiro, argia eginez zihoan aitonaren memorian.

—Hurikoa, ezta?

—Bai, aitona, bai!

—Ondo! ondo! Penatuta hagoela esan didak, ezta?

—Penatuta?

Sebastianek ezetz esateko gogoia izan zuen, penatuta sugea zegoela eta ez bera, baina holako pentsamendu zelebrea gordean edukitzea zuhurragoa iruditu zitzaion.

—Goazen herrira! —animatu zen aitona— Penatuta baldin ba hago, ostatura joan beharra daukak!

Arratsaldeko zazpiak ziren. Nahiz eta eguzkia munduaren parterik haundienaren jabe izan, itzalak hasia zuen handik ordu batzutara, gauarekin, erabatekoa izango zen konkista. Erreka ilun zegoen, eta ilun, halaber, pinudiz basitutako mendi zokoak. Ekialdeko zeruak galdua zuen, ordurako, goizaldeko kolore bizitasuna, eta urdin lotsatu batek jarraitzen zion mendien berdetasunari.

Itzalaren amenazuari jaramon egin gabe, jendea lanean ari zen: emakume batzuk belar ziztrinak kentzen zituzten al-papa sailetatik; haruntzago, zelaiez zelai zabaltzen zen paisaian, segalariak makurtu egiten ziren guztion sortzaile eta jabe den lurraren aurrean. Zakurrak eta enarak norgehiagoka batetan sartuta zeuden, zaunkak intziriei jarraitzen zitzaizkien. Basoetatik garo jaio berriaren usaina zabaltzen zen aidentara.

Aitonak elizako salmo baten antza zeukan doinu bat xuxurlatzen zuen Fangiok eskaintzen zion alturatik, eta Sebastianek marrubiak bilatzen ari zeneko itxura egiten zuen. Itxura bakarririk, ezen ezinezkoa baitzitzaion bilketa horrek —marrubia fruitu gordea denez— eskatzen duen arreta jartzea. Bere pentsamenduak beste leku batetan zeuden: aitonak —txoriarekin aurrena, sugearekin gero— erakutsitako joera hartan, hain zuzen ere.

Eta gainera, Sebastián beste xehetasun batetaz ohartu zen herrira zihoalarik. Etxe ataritatik pasatzerakoan, katiatutako txakurrak utzi egiten zioten zaunka egiteari, eta —ezagun baten aurrean dauden guztietan bezalaxe— isatsak astintzen zituzten. Beraz pentsatu zuen Sebastianek— Obabako zakur guztiak ezagutzen diate aitona Martin.

Baina oraingoan ere ixildu egin zen. Nahiago izan zuen marrubi bilketaren itxura eginez segitzea.

Ostatuto argi guztiak piztuta zeuden berak Obabako plazara heldu zirenerako. Sebastian pentsamendu ilun batez kutsatu zen aitonari astotik jaisten laguntzen zion bitartean: Nola egon zitekeen bizirik hain gutxi pisatzen zuen gizona...? Zeren eta paperezkoa zeneko inpresioa ematen baitzuen gorputza ihartu hark. Baina aitonak —*penatuta hago, orduan* esan bitartean— parra egiten zuen lasai, eta bere lasaitasuna erantsi egin zitzaion pentsamendu iluna borobiltzeko denbora izan baino lehen.

—Goazen iloba! goazen penak kentzera!

Ostatuaren mostradorean hamar gizon zeuden hileran. Beste lau kartetan ari ziren marmorezkoak ziruditen mahaietan. Batzuk aitonari begiratu zioten; besteak, gehienak Sebastiani. Huritik etorri berria zen gazteak inbidia edo mirespena bezalako zerbait sumatu zuen mundua apenas ezagutzen zuten gizon ixil haien begiradetan, eta inportantea sentitu zen. Sentimentu hori, hain zorrotza, bihotzaren erdi erdiraino joan zitzaion, eta aurretik entsaiatuta eduki balu bezala egin zuen mostradorearen bestalderainorako bidea.

—Atera egiozu ardoa! —eskatu zuen aitonak.

—Ardoa? —galdetu zion mostradore atzeko emakumeak.

—Penak kentzeko, emakumea, penak kentzeko! —argudiatu zuen aitonak.

—Penak?, holako mutil gazte batek zein pena dauzka-ba!

—Zuk atera ezazu ardoa! —moztu zuen Sebastianek.

Nolabait, misteriotsua sentitzen zen, edo misteriotsua izan nahi zuen behintzat. Azken finean, leku ezezagun batetan suertatzen den edonoren tentazioa zeukan: nortasun berri bat es-treinatu nahi zuen. Hura zen taberna batean sartzen zen aurreneko aldia. Zurrutada bakar batez irentsi zuen lehenengo basoerdia.

—Oso ondo, iloba! Etxekoandrea, uztazu hemen botila osoa!

—Botila osoa! ?

Sebastianek amorrazioa hartu zion aitonak esandakoa erretitzea besterik ez zekien andre hari. Mostradoreko gizonen begiak sentitzen zituen bere azalean. Botila hartu eta goraino bete zuen ontzia.

—Ondo, Sebastian! Kendu penak! penak ez diate ezertarako balio!

Hirugarren aldiz edan ondoren, Sebastianek begiak altxa zituen, eta mostradorean hileran zeuden beste gizoni begiratu zien. Sinpatia antzeman zuen beren aurpegiatan. Ordurako, nagusi sentitzen zen, tabernako jende guztiaren pareko; jadanik ez zeuzkan hamalau urte, baizik eta hogeitik hogeitamarrera arteko adin definitu gabe bat. Mostradorean apoiatu eta hirugarren ardoa edaten hasi zen.

—Hau dugu iloba berria, orduan? —esan zuen emakumeak.

Sebastianen begirada abots hura zetorren tokiraino joan zen. Emakumeak ontziak garbitzen zituen ur kanilan; kristalari ihurtzialdiak ematen zizkionean, bere besotako muskuuloak kolunpiatu egiten ziren biguinki. Emakumeak irrifar egin zion, eta Sebastianek aurpegi berri bat sumatu zuen arestiko bekoskoaren orde. Oraingoa askozaz ere finagoa zen: garai batean, ostatuan urteak urteak mostradorean zutik pasa aurretik, emakume hura neska polita izana zen.

—Oso gizondua dago iloba hau, aitona Martin.

Gehitu zuen emakumeak, eta bere ezpainak mitxeletak bairaren mugitu ziren. Sebastianek ardoaren zapore garratza dasatzen zuen ahoan, baina garraztasun hori ez zitzaion eransten munduari; alderantziz, mundua gero eta gozoagoa zen. Aitonak alaitu kantatzen zuen; mostradoreko gizonen konfiantza osoan hitzegiten zioten; emakumea —aspaldiko neska polit hura— arinki mugitzen zen mostradore atzekaldean, eta areagotu egiten zion irrifarra bere aurretik pasatzen zen bakoitzean.

—Aitona Martinek animaliekin hitzegiten daki.

Kolpetik esan zuen, harira ez zetorrela. Hitzak, zotina bezala igo ondoren, burbuilen modura lehertu zitzaizkion ahoan.

Hitzegitearekin batera damutu zen: moŕtadoreko hamar gizonek traidore bati bezala begiratzen zioten orain, komenentzikoa ez zen gauza bat esan duen bisitalari bati bezala. Kantak ihes egina zuen aitonaren ezpainetatik, eta emakumearen irrifarr berriak errukia edo pena bezalako zerbait erakusten zion. Mahaian kartetan ari zen lodikote batek apurtu zuen ixiltasuna:

—Ni bezalako animaliekin, bai... nirekin hitzegiten dik bazutan! Ostatu guztia algara batean zegoen. Emakumeak berak ere algara egiten zuen Sebastiani urrezko hagin bat erakutsiz. Lehen nagusi bezala, orain haur sentitzen zen; hamalau urtetatik seira jaitsita.

—Egia da, aitonak...

Aitonak txantxangorriari esandako kontu ttikiak, sugeari egindako erritak, mila gauza adierazi nahi zizkien Sebastianek. Baina esplikazioa oso konplikatua iruditzen zitzaion. Eta gainera, mihina trabatua zeukan, ezin zuen mugitu ia.

—Eraman ezazu etxera, Martin.

Esan zuen emakumeak. Aitonaren erantzunaren zai gelditu gabe, gizon batek aulkietatik jaisten lagundu zien, eta kanpoan behin ere patxadatsuago zegoen Fangiorengana eram zituen. Astoaren gainean jarrita heldu ziren biak izebaren etxera.

Sebastianen izebak anka bat bestea baino pittin bat ttikiagoa zuen jaiotzatik, eta hori zela eta erren arin bat sumatzen zitzaion presaka ibiltzen zenetan. Baina —Sebastianen aitak esana— errena zen gutxienekoa: okerrera emakume hark bere errenarekin zeukan obsesioa zen. Sebastianek hori zeukan gogoan izeba eskilaretatik korrika jaisten ikusi zuenean.

—Izeba! errenak ez dizu inporta behar!

Baina izebak ez zion kontsolamendu hari batere jaramonik egin. Aitonagana joan zen zuzen zuzenean.

—Jakin al liteke zertan zebilen! Umea moskortu egin du!

Aitonak burua makurtu zuen, kokotza bularreraino jaitsi zitzaion. Eta hantxe segitzen zuen osabak izebaren erritak

berritu eta gehitu zituenean ere. Silan eserita, mutu, norbait-
tek edozein modutan botata utzitako arropa zarpildu bat zirudien. Sukaldeko azuleio zuriak, euli kakaz zipriztinatuak, areagotu egiten zuten aitona Martinen erorketa.

Sebastiani kosta egiten zitzaion sukalde hartakoa konprenitza. Igartzen zion, halere, egoeraren gogortasunari: izeba harnaska mintzatzen zen, osabak imentzioak egiten zituen hormak errainu ilunekin betez; aitonaren ixiltasunak laguntza eskatzen zuen.

—Aitonak animaliekin hitzegiten daki!

—Ai gaxua! —negartu zen izeba.

—Martin, berorri ez dago umeak zaintzeko ere! —egiten zuen oihu osabak— Ikusten al du zein peskiza daukagun orain!

—Jauna, jauna! —suspiriatzen zuen izebak—. Nire ahizpa enteratzen bada!

—Baina egia da! —saiatu zen Sebastian— Aitonak animaliekin hitzegiten daki! —abotsa urrun sentitzen zuen, berea ez balitz bezala.

—Eraman ezazu umea ohera! —erabaki zuen osabak.

Aitonak, burua altxa eta sukaldean zintzilikatua zegoen egutegiko neska ijito baterantz zuzendu zituen begiak. Baina begirada ez zen estampa hartaraino iritxi; lehenago, mahaiaren parean, galdu zitzaion.

—Zaudete lasai! laster joango naiz Terranovara, eta bakea emango dizuet.

—Ai aita! ez bedi Terranovako kontu horrekin hasi berriro!

—Laster joango naiz, bai!

—Badaki berorri nora joango den? Ba ohera! —agindu zuen osabak.

—Baina aitonak animaliekin hitzegiten daki!

—Eta zu ere bai, Sebastian, zatoz nirekin ohera!

Sebastianek azken begirada bota zionean, errezoan bezala mugitzen ziren aitonaren ezpainak. Hitz bat bakarrik harra-
patu zion: Terranova.

Egun hartan bukatu ziren biak elkarrekin ematen zituzten paseoak. Handik aurrera Sebastianek bakarrik atera behar izan zuen Obabako plazara.

Zerua ia hamabost orduz betez, Abuztuko eguzki puztuak menderatzen zuen herri guztia. Jendeari ilunera bultzatzen zion, eta barne geletako freskura altxor bat bezala gordetzen zen etxeetan. Soilik bi izaki moetek etsitzen zuten etxetik kanpo: katuak eta neska mutil gazteak. Itzal pusketak ia milimetroraino profitatuz, katuak lotara jartzen ziren; litxarrerogoak, neska eta mutil gazteak ostatuak zabaldutako toldo txuriurdinaren babesa bilatzen zuten, eta zerbezarekin nahastutako limonada hotzaz baliatzen ziren hainbeste izerdi kostatzen zitzairen konpainia apur bat xuabetzeko.

Sebastiani ere erremediorik gabekoa izan zitzaion portu hura; plazako petrilak kiskali egiten zuten, eta han hemenka barreiatutako platanondoak ez ziren, bere ostro zabal eta guzti, eguzkiaren erasoari aurre egiteko gauza sentitzen. Toldopean bakarrik egon zitekeen. Eta Sebastian zerbezarekin nahastutako limonada hotza edaten hasi zen Obabako gaztedi arrotzaren aldamenean.

Arratsa heldu eta temperatura jaisten zenean, neska eta mutil haik —geldirik egotearekin aspertuta— Sebastiani ezezagunak zitzaizkion jostaketa batzuri ekiten zioten.

—Goazen fuegotara jokatzera!

Fuegotara jokatzeko bi talde egiten ziren toldopean zeudenen artean. Talde bakoitzak plazaren petril bat hartzen zuen, eta jokuak petril bateko guztiak kontrarioarenera pasatzea lortzen zuten arte irauten zuen.

Ez zen lan erraza, zeren eta bere partea utzi eta bestaldera joaten ahalegintzen zena preso erortzeko harriskuan jartzen baitzen. Norbait preso egiterakoan, harrapalariak *ble* esaten zion, eta bere petrileraino eramaten zuen bertan gurutze egirik utziz.

Sebastian ez zuten inoiz konbidatzen jokura, eta bere edariaren konpainia bakarrarekin joaten zitzaion arratsaldea. Eta halere, ez zuen toldo txuriurdi haren itzala uzten: plazako bataila hari begira pasatzen zituen orduak.

Nahiz eta bakardadea nozitu behar izan, ez zituen faltan aurkitzen aitona Martinen laguntzaz emandako paseoak, eta astebete bat nahikoa izan zitzaion moskortu zen eguneko sugearen eta txantxangorriaren arazo hura memoriatik ia erabat apartatzeko.

Baina Sebastian Bera-ren jokaera hori ulertzeko, maitasunari buruzko hitz batzuk esan beharra dago aurretik.

Gizon edota emakume batek hamalau urte betetzen ditueanean, edo apur bat lehenago, edo apur bat beranduago, aldaketa izugarri bat sumatzen du bere baitan. Ordurarte ia ez du izenik eduki, edo eduki du baina ez da konturatu izen horrek seinalatzen duen diferentziaz, eta nahastuta bizi da, eta bere ingurukoekin ahalik eta berdintasun gehien edukitzea desio du. Sofrimendua dator, esate baterako, eskolako kideak bakarrik uzten badute, edo ez bazaio, hauzoan bizi direnen artean, lagunik azaltzen.

Baina egun batean, bere gogo eta nahiak ehun eta larogei gradutako jira ematen dute: bapatean bere izenaz ohartzten da, nola partikularra eta berezia den, nola berdinek ez daukan. Bapatean, bere izena idazteko modu baten bila hasten da. Bere sinadura —garabato hori— bere bizitzako eginbeharririk printzipalena bihurtzen zaio. Sinadura edonolakoa izan daiteke, baldin eta munduko beste sinadura guztiakin antzarik ez badauka. Izan ere, bera bakarra da, eta lumarekin egiten dituen arrastoei bakartasun horren lekuko eta espilu behar dute izan.

Behin sinadura aurkituta, hamalau urtetako gizon edota emakume hori Robinson Crusoe bezala sentitzen da: Zer da mundua?, bada irla huts bat, eta berak antolatu egin beharra dauka bizitza gauza ttikienetatik hasi eta haundienekin bukatu arte. Eta hori bere indarren poderio hutsez, berak bakarrik. Proiektuak egiten ditu, beraz, eta —koaderno baten laguntzaz sarritan— bere etorkizun guztia planeiatzen hasten da:

nolakoa izango den, zein lan izango dituen, non bizitzea gustatuko litzaiokeen.

Baina hala eta guztiz ere, hamalau urtetako gizon edo emakume horren apartamendua ilusio bat besterik ez da, iluntasunean piztu bezala itzali egiten den argi dardarti bat. Azken finean ez da bakardaderako jai; azken finean, denok berdin xamarrek gara. Eta horregatik, apartamendu hori ilusio bat delako, hamalau urtetako gizon edo emakumea enamoratu egiten da.

Eguntto batez, neska edo mutil bat ezagutu eta esplosio bat sentitzen du bere barruan. Handik aurrera, eta Napolezen esaten den bezala, *il primo amore*-k forma asko hartzen ditu. Batzuentzat barru guztiak blai jartzen dituen ardo epel bat bezalakoa da. Beste batzuentzat belar edo lore baten usaina dakarren sentimendu bat. Eta badira, baita ere, enamoratu orduko kolore berri batzuk ikusten hasten direnak: zeru grisa morea iruditzen zaie; basoa, berriz, marmore beltzekoa; bidea erdi hori erdi laranja.

Sebastian Bera-k sentsazio guzti hoiengatik nahasketa bat sentitzen zuen fuegotara jokatzeko zuten neska luzeska batek begiratu zion egunetik. Obaba herria kolorez bete zitzaion: lehen kale arrunt bat ikusten zuten tokian, orain su eta urrezko teiatu hilerak batzuk aurkitzen zituen; zerbezaz nahastutako limonadari marrubiaren gustua hartzen zion. Eta horretaz gain, tomate ostroen usain mikatza sentitzen zuten etengabe, hala toldoan —nola ordu batzuk geroago— ohean etzaten zenean.

Sebastianek bere zumitzezko silatik altxa gabe pasatzen zuten arratsalde osoa. Gero bere koadernoan apuntatuko zituen begiradak kontatzera mugatzen zen bere aktibitatea. Abuztuak 9. Gaur hamairu aldiz begiratu dit. Abuztuak 13. Gaur lau aldiz bakarrik. Bere begiak grisak dira. Abuztuak 20. Hogei aldiz! Abuztuak 22. Ezin konta izan ditut. Beste era batean orraztuta etorri da. Abuztuak 24. Ezin konta izan ditut. Bere izena Mariatxo da. Bere belaunak borobilak dira. Obaban tomate ostroen usaia dago.

Sebastianek gelditzen zitzaizkion opor egun guztiak planeiatuta zeuzkan bere koadernoan. Goizetik kalera atera, ia Maria-

txo ikusten zuen. Arratsaldean Mariatxori begiratu, eta bere begiradak jaso; gauean Mariatxorengan pentsatu, bere belaun borobiletan, eta bere ezpain apur bat erori haietan.

Aitona Martin eguerditan bakarrik ikusten zuen, baina ia ez zeukan berarekin hitzegiterik. Izeba eta osaba haserre zeuden beti: aitona, zergatik jaten du hoinbeste; aitona, zergatik jaten du horren gutxi. Aitonak burua makurtu eta bere betiko amenazua botatzen zien:

—Zaudete lasai! laster joango naiz Terranovara!

—Aita! ez bedi kontu horrekin hasi!

Sebastianek min hartzen zuen orain bera baino askozaz ere umeagoa iruditzen zitzaion aitona haren egoera gaitik, eta zerbait goxo esaten saiatzen zen aldian behin.

—Baina aitona! zergatik joan nahi duzu Terranovara? Han jela eta hotza besterik ez dago!

—Eta hemen? Hemen ez al dago jela eta hotzik?

Erantzuten zuen aitonak, eta orduan bera mututu egiten zen, eta izebak negarrari ematen zion. Osaba, bere golkorako bezala, zeukaten suerte txarraz kejaratzen zen, eta Sebastiani begiratzen zion. Begiradak honoko hau esan nahi zuen: Zergatik eduki behar dugu guk aitona zaharra? Zergatik ez zuek, huriko senideak? Ez al da hire amaren aita?

Sebastianek ixiltzea deliberatu zuen, eta bazkaldu bitartean ere Mariatxorengan pentsatzera jartzen zen. Bazkaldu eta handik piska batera, bere koadernoko letra guztiak inpiratzen zituen neska luzeska hura aurkituko zuen plazan. Eta horrekin nahikoa zitzaion.

Obaban hilabetea zeramanean, Abuztuaren azken egunean, Mariatxo toldope txuriurdinera etorri zitzaion.

—Fuegotara jokatu nahi al duzu? Bat falta zaigu taldean.

Sebastianek fidelki transkribitu zuen gertaera bere koadernoan. Abuztuak 31. Mariatxo etorri zait eta berarekin jokatzera konbidatu nau. Oso ondo dena. Bi aldiz libratu dut

beste petrileko presondegitik. Guk irabazi dugu. Mariatxo, maite zaitut. Uste dut berak ere berdin sentitzen duela, baina ez nago seguru.

Hurrengo apunteak, Irailaren hirukoak, nobetate bat adierazten zuen. Irailak 3. Gaur ez gara plazan gelditu, eta kalegoiko iturrira joan gara. Mariatxok tomate ostroen usaina dauka. Etxera idatzi dut beste hilabete bat egongo naizela hemen esanez.

Irailaren bostekoa, berriz, oso lakonikoa zen, baina garrantzitsua. Irailak 5. Gaur Mariatxok musu bat eman dit. Mariatxo, maite zaitut.

Irailaren bigarren astean hasi zen Mariatxorekin enamoratu obligazioak konplitzen: sekretuak kontatzen hasi zitzaion. Hainbeste hitzegi zuen non zer konta ez zekiela gelditu zen zazpigarren egunerako. Mariatxok lurrera begiratzen zuen, eta bere bernak —galtzerdi txuridunez ukituak— jirabirak ematen zituen erdigune imaginario baten inguruan. Enamoratu guztiei noizbait gertatzen zaien bezala, Sebastianek Mariatxo aspertzen ari zeneko beldurra zeukan, eta izerdi oparo batek bustitzen zizkion eskuak. Memorian sekretu bila zebilela, aitona Martin aurkitu zuen.

—Nire aitona Martinek animaliekin hitzegiten daki, benetan, Oraingo honetan, Mariatxok mesfidantzaz begiratu zion. Ez zuen par egin, ostatuko gizon haik bezala, ez zen erritaka hasi. Baina beste sekretuekin ez bezalako desgogo bat erakutsi zion.

—Ez al didazu sinesten?

—Bai baina...

Sebastianek adore guztiaz argudiatu zion: nola etorri zen txantxangorria zeruan zerkuluak eginez, nola makurtu zen sugea, nola ixiltzen ziren ataritako zakur salatariak.

—Baina zure aitona, ez dago oso ondo, etza?

—Zer ba?

—Terranovara joateko kontuarekin ibiltzen omen da beti.

Antza zenez, Obabako jende guztiak zeukan aitonaren ideia haren berri. Sebastian artean umea izan balitz, ez zatekeen errebelatu izango; baina Obaban zeramatzan ia berrogei egun haietan zeharkatua zuen umearen eta gizonaren artean dagoen arrasto ikustezin hori, eta aitonaren alde apustu egitea erabaki zuen:

—Ba joango dela esaten badu, joan egingo da!

—Igual bai —esan zion Mariatxok bere begien grisa serio-tuz— Gainera, jendea oso tontoa da eta par egiten dio konprenitzen ez duen gauzari. Obabako jende gehienak Terranova non dagoen ere ez daki!

Sebastianek inoiz baino sarkorrago sentitu zuen tomate ostroen usaina. Zeruari kirika egitean kardenalen mantuen koloreak aurkitu zituen: urrea eta morea. Eta Mariatxori poema bat egingo ziola pentsatu zuen.

Gau hartan bertan jarri zen lanera. Poeman gauza asko sartu nahi zituen, halanola Mariatxoren begi grisak Mariatxoren belaun borobilak, Mariatxoren galtzerdi txuriak, bere abotsa, krabelinaren usaina —tomate ostroei traizio eginez, noski—, iturriaren hotsa, udara, plazako jokua, eta maitasunarekin zerikusia izaten duten beste gauzen etcetera luze bat.

Nola laburra egin nahi zuen —tarjeta batean bidali nahi baitzion Mariatxori— asko kosta zitzaion gauza guzti haik poeman sartzea. Ordubiak arte ihardun zuen lanean. Orduntxe —orduntxe bakarrik— abiatu zen hortzak garbitzera.

—Eta hik, zer egiten duk hemen?

Aitona Martinek serio serio begiratzen zion pasiluaren bes-taldetik.

—Aitona, nondik zatoz?

—Nor haiz hi?

—Ni?

—Bai, hi!

Sebastianek aitona animaliekin hitzegitetik zetorrela konprenitu zuen. Obabara etorri eta handik hiru egunetara bezala, ezezagun bat iruditzen zitzaion bere iloba.

—Ohera lagunduko dizut aitona Martin.

Gau osoa lo ezin hartuz pasa zuen; nahiko lan zeukan hurrengo egunean Mariatxoren aurrean edukiko zuen arrakastan pentsatzearekin.

—Harrigarria da, Sebastian —esan zion Mariatxok— Niri beldur piska bat ere ematen dit.

—Gaur gauean esna geldituko naiz, eta aitona etxetik ateratzen bada segitu egingo diot.

—Baina kontuz ibili, Sebastian.

—Hala ibiliko naiz, Mariatxo.

Sebastianek uste bezala, egun hartako hamabiak aldera aitona Fangion gainean jarri eta mendiko bide batetik abiatu zen. Hilargi betea zegoen, eta Obabako etxeak erdi eginda abandonatutako konstrukzioak ziruditen: bati teilatua falta zitzaion, beste bati ezkerretako alde osoa. Banaka batzuk aidean eraikitako ate eta leiho argidun bihurtzen ziren.

Sebastian aitonaren atzetik atera eta handik ordu laurden batera erabat ixila zen gaua, intziri arinez betez zihoan, eta kraskaduraz, eta garraisi urrunez. Zakurren batek zaunka egiten zuenean, Sebastian poztu egiten zen: hots hura ezaguna zitzaion behinik behin. Bidean orduerdi bat zeramanean —altura asko irabazia zuen ordurako, eta herriko argiak amets batekoak ziruditen— aitona Martinen bidaia bukatua zela jakin zuen: Fangio utzi eta oinez abiatzen zen buketa erraldoi baten antza zeukan baso batera.

Basoak harkaitzezko munto bat zeukan bidea bukatzen zen partean, eta hantxe gelditu zen Sebastian. Aitona —salmoa zirudien doinu hura ezpainetan zuela— lan haunditan sartua zegoen: su ttikiak egiten zituen, pospoiloarenak bezalakoak. Gero ikusi zuena holaxe laburtu zuen bere koadernoan: Irailak 17. Bart aitonaren atzetik joan naiz baso batera. Aitonak su batzuk egin ditu hara ailegatzean, eta handikan gutxira basur-

de bat azaldu da, eta gero beste bi, eta gero beste lau edo bost, eta horrela baso guztia basurdez beteta egon den arte. Basurde guztiak aitonagana joaten ziren, baina ez zuen ematen basurdeak zirenik, zakurrak baizik. Zakurrak bezala portatzen ziren, isatsak astinduz eta aitonaren eskua mihizkatuz. Aitonak sermoi bat bota die, eta gero basurdeak marruka hasi dira, eta trumoi bat ematen zuen, eta nik ez dakit nola ez duten herrian aditu. Baina trumoi hori entzutean niri zerbait trabatu zait eztarrrian, eta negar egiteko izugarritzko gogoak sartu zaizkit. Ematen zuen basurdeak kantatu egiten zutela eta kantua elizakoak bezalakoak zen. Nola ezin nintzen han gelditu, korrika etorri naiz, eta aurpegia zuri zuri neukala konturatu naiz hortzak garbitzera joan naizenean. Baina ez izutu naizelako, ez zen ikara, beste zerbait zen.

—Eta basurdeak eskua mihizkatzen al zioten?

—Bai Mariatxo!

—Baina zergatik jarri zara hain triste basurdeena... hori ikusi eta gero? Sebastian, oso triste zaude...

—Ez dakit, zerbait sartu zait hemen.

Eta Sebastianek bularra eta estamaguaren artekoa seinatu zion. Mariatxok, emakume gehienak izaten duten senari jarraituz, bere besoen artean hartu zuen.

Aitona Martinek basurdeei bezala hitzegin zien, hurrengo gauetan, erreka amorraiei eta herriko zakur eta katuei. Sebastianek bi gauza gogoratzen zituen zelata saio hoietatik: nola amorraiak saltoka ibili ziren ia bi orduz, eta nola zakurrak zotinka egiten zuten. Eta bi gauzak tristura ekarri zioten berak zergatik ez zekiela.

Irailaren hogeia egun berezia izan zen Obabarentzat: edurra egin zuen goialdetan, eta enarak —milaka— errezkan jarri ziren argi alanbretan. Antza zenez, negua behin ere baino goizago zetorren.

Gau hartan, Sebastianek kolpeak sentitu zituen bere gelako atean.

—Zu al zara, aitona?

—Bisita bat, bisita ttiki bat.

—Bai aitona.

Sebastian lotsatuta bezala sentitzen zen; bera baino zaharagoa den edonoren intimitatea jasotzen duten gazte guztiak bezala, bere bihotza erdibiturik zegoen: alde batera aitona-ekin hitzegitea desio zuen, bestera beldurra zion entzun zeza-keenari. Negar egiteko gogo arraro hark kilimakuak egiten zizkion eztarrian. Baina aitona-aren portaera normala zen, bere ilobaren gauzetaz arduratua zirudien:

—Eta Mariatxorekin dena ondo?

—Bai, oso ondo.

Ahal bezala, larritasunarekin borroka eginez, Sebastianek bere maitasun kontu batzuk esan zizkion. Nola ezagutu plazan, nola tomate ostroen usaina zeukan. Baina berak ere galdera bat egin nahi zion:

—Aitona, animaliena ez al didazu kontatu behar?

Aitona Martinek aurrez aurre begiratu zion.

—Ez al duk ikusi? —esan zuen aitona-ak.

—Bai —onartu zuen Sebastianek begiak bajatuz.

—Orduan... ezer kontatu beharrik ez zeok, ezta?

—Ez.

Ezin izan zuen areago agoantatu, eta negarrez hasi zen: Aitona Martin despeditzen ari zela konprenitu berria zuen. Despeditzen, basurde, amorrai zakur eta katuetatik bezala. Aitona-ak broma bat egin zion irteterakoan.

—Eta hik, zer egiten duk hemen? —eta far egin zuen Sebastiani animatzeko esanez bezala. Eta abotsa bajatuz:

—Ondo ibili Sebastian.

—Aio aitona.

Hurrengo egunean euri lanbroa ari izan zuen goizetik. Mundua erabat ixilik zegoen: lurrazpiko kilkerrak, alanbretako ena-

rak, ataritan katiatutako zakurrak, guztiak zeuden mutu. Arratsaldeko bostetan, iturri ondoan zeudela, Mariatxoak zerua seinalatu zion Sebastiani:

—Antzerrak, Sebastian.

Multzokadetan, antzerrak kostalde epeletara abiatzen dira negua usaitzen duten orduko, eta letrak osatzen dituzte bere bidaian. Horregatik esan liteke zeruak antzerren bitartez idazten duela. Mariatxok ba zekien hori.

—A bat egiten dute.

Bostak eta laurdenetan pasa zirenak *I* bat egin zuten; bosteterdietakoak, *O* bat. Hiruren artean despedida hitz bat: *AIO*.

—Hurrengoak *M* bat egingo dute.

Esan zuen Sebastianek. Baina hiru multzokada pasa ziren errezkan: *MAR*. Geroxeago *T* bat pasa zen hegaka. Zazpiak aldera, *IN* ipini zuten azkenekoak.

—*AIO MARTIN* idatzi dute antzerrak. Aitona Terranovara joana izan behar da.

Sebastianek ez zuen presarik hartu, eta pauso makalez abiatu zen bere izebaren etxera. Inguratu zenerako bertan zegoen zalapartaz ohartu zen. Herriko jende asko atarian pila-tuta zegoen, eta osabak paper bat erakusten zien. *Terranovara joan naiz*, zion paperak.

Handik gutxira, gizon batzuk Fangio ekarri zuten aitona inondik ez zela azaltzen esanez.

ark. aurrerantzatik gertatzen zuten. Hainbat
biztanleko bostean, iturri ondoan zegoela, Martiakoak zerru sei
naitu zion Sebastiani.

Sebastian lotzetan ez zegoen, eta hori
ez zela jakin, etorri zela eta gertatzen zela
gertatu zela. Hainbat biztanleko bostean,
iturri ondoan zegoela, Martiakoak zerru sei
naitu zion Sebastiani.

Bostak eta lau bostetan pasa zuten, eta
torturatu zituzten. Opatu bat, Hiru eta bost
biztanlekoak.

Hiru bostetan eta bost bostetan,
iturri ondoan zegoela, Martiakoak zerru sei
naitu zion Sebastiani. Baina hiru bostetan
pasa zuten. Opatu bat, Hiru eta bost
biztanlekoak.

—AIO MARTIN idazki dute. Aitona
aitona izan behar du. Aitona aitona.

Sebastianek ez zuen presarik hartu. Baina
aitona zela jakin, etorri zela eta gertatzen
zela. Hainbat biztanleko bostean, iturri
ondoan zegoela, Martiakoak zerru sei
naitu zion Sebastiani.

Handik gutxi gizon batzuk Fango elkartean
aitona zela jakin, etorri zela eta gertatzen
zela. Hainbat biztanleko bostean, iturri
ondoan zegoela, Martiakoak zerru sei
naitu zion Sebastiani.

—Eta hik zer egin du? —
Sebastiani animatzeko esanek zegoela. Eta
aitona aitona.

—Ondo ibili Sebastian.
—Aio aitona.

Hurrengo egunean curi labarra eta
aitona aitona. Hurrengo egunean curi
labarra eta aitona aitona.

GOTZONEN IRRATIA

Jesus Maria Olaizola

*(1983. urtean Zarauzko Udalak
haurrentzako ipuientzat eratu
zuen «Xabier Lizardi Saria»-n
aipamen berezia jaso zuen lan
honek).*

— I —

Istilu guztiak bukatu ondoren jende asko inguratu da Gotzonen etxera, jakinminez beterik eta gertatuaren aztarrenak beraien kabuz lotuz bakoitzak bere historiataxo osatzekotan. Hemengo hau horietako bat besterik ez da eta beharbada hau baino hobeagorik jakingo duzu: zeuk Gotzon ezagutzen duzulako edo bere gora-beheren berri eman dizutelako. Dena dela, horrek ez du gehiagi axola eta nik neuk dakidan eran kontatuko dizut gertakizuna.

Mutikoaren (Gotzonen) eskolakideekin eta bere gurasoekin maiz hitzegingiz dut eta diotenez, Gotzon beste edozein mutilen antzekoa zen, aitzak irratia ekarri zion arte behintzat... Inolaz ez behintzat ipuin fantasiosoa eguneko ordu guztietan asmatzen iharduten diren horietakoa. Geroztik asko aldatu dela esan didate. Egia esan, orain ere Gotzon hamabi urteko mutilito bizkor, alai, azkar eta irudimentsua dela esango nuke; eta ez duela

inongo arrarotasunik. Irudimen haundi samarra duela? Herri-
rira iristen diren beltz guztiek ekartzen dituzten irratiak no-
lakoak diren ondo begiratzen iharduten dela? ...Badu arrazoi-
rik hori eta gehiago egiteko berak diona egia bada...

Historia orain dela hiru bat hilabete hasi zen. Gotzon, Ane,
bere arreba, eta Joxepi, bien ama, afaltzeko irrikan zeuden. Izan
ere aita berandu samar zetorren eta elkarrekin afaltzekotan ge-
ratu ziren eguerdian. Ez zuen asko espero zetorkiena!

Jesus Maria Olasoain

— II —

Tris tras. Ate serralan giltza hotsa.

—Hemen datorkigu aita.

—Gabon denori.

—Bazen garaia! —Joxepik senarrari —Non ibili zara hain
berandu etortzeko?

—Negoziotxo bat egiten —Anttonek— Erregalotxo bat eka-
rri diot Gotzoni.

—Erregalo bat? Zer dela eta? —amak.

—Aita, erregalo bat? Zer? Erakutsi.

—Erregalo guztiak Gotzoni ekartzen dizkiozu, eta niri ezer
ez —Anek erdi muzinduta.

—Baina zer dela eta bururatu zaizu gaur erregalo bat eka-
rtzea.

—Ez dakit ba... urtebetetza dela edo...

—Urtebetetza? Zu ez zaude ondo burutik! Orain hiru hila-
bete izan zen mutikoaren urtebetetza. Baina, baina... ez zara
zu txoriburu makala...! zeurea noiz den ere ez duzu gogoratzen
eta...! Gure ezkontza-urtebetetza ahaztu zenuen joan zen ur-

tean, kaskarin horrek...! eta orain erregaloea dakarkizu aste burusoil batetan inongo arrazoirik gabe... Tira, tira..., afal dezagun pake santuan eta gerorako gerokoak...

Hasten dira afaltzen.

—Adizu Gotzon! —dio amak erdi haserre— Konturatzen al zara afaltzen ari zarela? Ahantzi zaizkizu plateran dituzun jakiak eta hor zaude begiak aitaren txamarrara ihes egiten dizutelarik. Horko kartoizko kaxa hori jan behar duzu, ala?

—Bai. Ezkerreko poltsikoan kartoizki kaxa urdin baten ertza ikusten da —Gotzonek erdi ametsetan bezala «Asma ezak zer naizen» esaten ari dela dirudit, bere zuloan ondo ezkutaturik dagoen bitartean.

—Zer ari zara hor marmarrean! Afaldu nahi duzu itxuraz? Edo akabo erregaloea!

—Jo, ama!, ez zaitetz horrelakoa izan!

—Tira! Buka afaria eta lagun iezaiazue mahaia jasotzen. Eta zuk ez iezaiozu mingaina atera zure anaiari Ane! Ero-etxe bat dela dirudi gaur etxe honek!

Batzuk mahaia jaso, besteak harraskan garbiketan hasi, denak ekiten diote lanari. Aitak keinu egiten dio Gotzoni harrakasta bazterretik.

—Gotzon!, hamar aldiz lehortu duk kutxare hori. Zapiarekin hainbat, buelta ematen badizkiok txorabiatuko duk gai-xoa. Zer dabilkik bueltaka buruan, nire erregaloea, ala?

Mahaia jasotzen dute eta ondoren esertzen dira laurak mahai inguruan eta Anttonek kartoizko kaxa mahai gainera ateratzen du. Joxepik erdi haserre erdi irrifarrezko begiratu botatzen dio. Ane enbidia aurpegia ezin ezkutaturik dago. Gotzon berriz bere galtzetan kabitu ezinik.

—Gaur arratsaldean, txikiteoan genbiltzala —dio Anttonek— beltz horietako bat inguratu zaigu. Badakizue, irrati, metxero eta erloju digital saltzen dabiltzan horietako bat. Fruta kaxa batetan zeuzkan denak pila pila eginda. Begira hasi naiz eta...

—Betikoa! —Joxepik— Zu ezin egon ezer erosi gabe! Gizon hauek! Burruntzali zuloduna saltzera etortzen bazaizkizue ere ezin ezetz esan! Tira, tira, atera ezazu ea zer bitxikeria sartu dizuten orain.

—Emakumea, ez zaitetz horrela jarri! , ezta etxeko ondasunak jorratu banitu ere! Bi mila pezeta kaxkar besterik ez zait kostatu. Zortzi eskatu dizkit haseran bainan... ni ona izan erregateoan..., eta tirabira luzearen ondoren, ba...

—Gaixoak gaur afaltzeko haina diru izango ote zuen nik hori erosi ez banio? Nolakoak pasatzen dituzten gizarajoe!

—Beno, beno, berriketa gutxiago, ea zer den delako traste hori. Zer ditu bi plastiko naranja horiek eta zer arraio da txisme hau?

—Irrati bat da, ama! —Anek.

—Irrati bat! Gauetan inor molestatu gabe entzuteko irratia. Ai aita! , hauxe bai dela erregalo ona!

—Gauetan entzuteko! Horixe bakarrik behar genian! —Joxepik semeari—. Lehen erraz jaikitzen haiz ba hi ikastolara joateko! Orain gauak belarria irratia pegatuta pasatzearen beharra besterik ez huen hik. Oraintxe bertatik debekaturik daukak ohera txisme hori eramatea!

—Jo, ama! , ez zaitetz horrelakoa izan! Musika pixkat entzuteko bakarrik da. Gauetan izaten dira programarik hobereenak, AC/DC eta horrelakoak, gauean jartzen dituztela uste dut.

—Bai. Arrazoi du amak, ez ezazula lorik galdu irratia entzuteagatik. Arratsaldetan ere nahiko denbora izango duzu eta mendira edo kalerakoan eraman nahi baduzu ere eraman dezakezu.

—Zurea ez da Ane! Utz ezazu pakean! , azkenean botako duzu eta oso delikatuak izaten dira irratia hauek.

—Ama. Gotzonek ez dit utzi nahi irratia berria. Xuhur bat da!

—Utz iezaiozu zure arrebatxoari ere. Ikus dezala.

—Baina txikia da oraindik eta puskatu egingo dit.

—Ea! Utz ezazue biok hementxe mahai gainean eta oraintxe bertan esango dizuet nola funtzionatzen duen: Hemengo botoi hau irratia pizteko da eta bolumena emateko. Beste hau berriz emisorak bilatzeko. Ikusten? Ziria sartuta..., horrela... aurikularretatik entzuten da. Begira, begira... entzuten duzue? Orain zuk, Ane... Zuk ere bai, jar itzazu ama, amorratzen zaude eta... Ziria ateraz berriz, normal, beste irratietan bezala. Hauxe da ba nire erregaloa. Torizu Gotzon, orain zuretzat.

— III —

Arraioak! Ze ordu ote duk? Honez gero lau bider esnatu nauk...! Eta nik lo egin behar diat... bestela bihar...

Irratia jarritako lekuan ote zegok?

Ezin diat lorik egin...

Ea emisoraren bat bilatzen dudan... Musika pixkat entzungo diat. Suerte pixkatekin AC/DCren musika jotzen ari diren emisorak aurkituko diat. Oso famosoak dituk horiek..., eta gainera nire faboritoak. Eta nolako martxa duten! Fenomenalak benetan. Mundialak.

...

Nire aita ere fenomenala duk. Ha(ra) zer nolako irratia eka-
rri didan! Mundiala duk benetan nire aita!

...

Bihar amari galdetu behar zioat ea irratia eskolara eraman al nezakeen. Lagunei erakusteko eta pixkat fardatzeko...

«Adizu ama!» —esango zioat— ... Ez, ez, horrela ez! ... «Begira ama, irratia ikastolara eraman nahi dut...», «badakizu, nire lagunek...», Ez, ez, horrela ere ez...

Segurasko ezetz esango zidak. Baina berdin zio, nire lagunak etortzen direnean etxera, orduan bai, horixe bai erakutsiko diedala. Eta denak harrituta geldituko dituk...

Mutil batzuri utzi egin beharko... Bainan denei ez, ez horixe. Mikeli ez zioat sekulan utziko. Mikel txotxolo eta abusoi bat besterik ez duk. Eta Iboni, horri ezta pentsatu ere. Harroko horri...?, ederki zegok? Eta neskei ere batere ez. Neska denak txotxola batzuk dituk eta...

Beno, igual Irati eta Mariari bai. Horiek oso jatorrak dituk eta gainera futboleak eta korrika oso ondo egiten diate eta... Besteak mielka batzuk dituk denak, zonzonga batzuk...

...

Beno, orain lo egin behar diat. Bestela bihar ama dei egitera datorrenean ni zeharo logureturik egongo nauk eta ezin jaikirik.

...

Pilak gastatu samarrak ote dauzka? Ez duk oso ondo ere entzuten. Argia piztu gabe ezin diat ireki eta nola dauzkan ikusteko... Eta argia pizten badiat ama enteratu egingo duk. Ama horrek begi bakarra itxita lo egiten duela ematen dik/(zirudik). Bihar goizean egin behar diadan lehenengo lana ea pilak ondo dauzkan ikustea duk. Pila zaharrak puztu egiten dituk eta... kitto gero!, makina guztia izorratu ondoren. Hori Jokinek esan ziak. Jokinek asko zekik gauza hauetaz. Berak ere bazeukak irrati bat, Andorratik ekarria. Hori suertea duena Jokinek! Erloju bat ere badik, musikadun horietakoa gainera. Eta argia ere bazeukak..., gauean argia piztu gabe ze ordu den jakiteko primerakoa. Hori txoltoa!

...

Beno, orain lo egin behar diat, bestela bihar goizean...

...

Egia esan behar bada, irratiak ez zuen aste bete baino gehiago iraun bere onean. Zortzi egun igaro baino lehen hasi zen fizz eta fuuzz babarrunak jan balitu bezala puzkerka eta istiluka.

Gotzonek berehala kontatu zizkion bere zalantzak aitari: irrati hura bere onetatik irtena zegoela eta ez zutela atarramentu onik ekarriko makinatxoaren haize bukaezin haiek.

Egin zizkioten egitekoak, bagiratu zizkioten begiratzekoak, sartu eta atera zioten ziria mila bider, jarri zizkioten pila berriak eta miatu zizkioten miatzeko zeuzkan bazter guztiak, baina dena dena alferrik, aurikular naranja haiek fizz fuuzz jarraitzen zuten.

Joxepi koitadak bazituen bi hitz bere senarrari esateko eta esan ere egin zizkion: «Apalik gabeko arasa ere erosiko duzu bai zuk, txatxu horrek... Auskalo nolako zerrikeria saldu dizuten. Eta zuk, zozzo horrek, bi mila pezeta ordaindu dizkiozu lapur beltz horri!». Eta «beltz» esaterakoan saltzailearen bihotzaz gehiago ari zela zirudien haren azalez baino.

Anttonek ez adituarena egin zuen. Zertarako hasi eztabai-detan! Bakeak ere balio duela eta... Horrela bada, istilurik ez zen izan bainan irratia ere ez zen bere kasara konpondu eta lehenean jarraitu zuen fizz eta fuuzz.

Gau oro, afalondoren eta ama alabak telebista ikustera joaten ziren bezain pronto, aita semeak han iharduten ziren irratia konpondu nahian. «Kontaktu txarren bat izango du» —esaten zion aitak Gotzoni eta aidean astintzen zuen irratia, sukaldeko haize koipatsuak barneko transistoreak eta kable koloredunak freskatuko balitu bezala. Gotzonek ere bere alde-tik, makinaren ezina eta haren barruko hesteetako haizeak joaten ziren ikusi nahiz, egin zizkion mila katramila, bainan dena alferrik.

Anttonek, azken intentu desesperatu batetan atzeko tapa ireki eta destorniladore txiki batekin barne erraiak ukitu ziz-

kion. Baina, kia! , ez zegoen gauza horretan zuzentzekotan. Gero eta kexatiago eta arrenkuratsuago irрати gaixoa!

Hamabost bat egunetan han egon zen erretiratua (eta gainera ezkutatua), Joxepik ikusten zuen bakoitzean amorru bizi batek hartzen baitzuen emakumea eta gaizki-esaka hasten baitzen.

Aita-semeak konplot isil bat egin zuten irратиaren sendakuntza nola edo hala lortzeko. «Bihar bertan eramango diat konpontzera» esazioen Anttonek bere semeari. Eta semeak egunero: «Aita, irratia...» «Bai, bai. Bihar bertan konponduko diagu...».

Anttonek bazuen berarekin batera soldadutza egindako lagun bat. Gutxitan elkartzen ziren baina lagun minak ziren. Elkar ikusten zuten bakoitzean afari bat antolatzen zuten eta goizaldeko ordu txikitik inguratzen ziren Anttonen etxera (kaletik bestearena baino hurreago zegoela eta). Gehienetan farrez, algaraz eta kopatxo bi sobran zituztelarik gainean. Lagun hau Almitzarro ezizenez ezaguna zen eta «hire lagun panpoxo hori» bezala izendatzen zuen beti Joxepik. Elektronika kontuetan oso entenditua zen, jantzia benetan, hala zioen berak behintzat... Beno, irрати konpontzen noizean behin aritzen zena gutxienez...

Arratsalde euritsu batetan, irратиaren osasuna etsipen gogorrenean zegoenean, bere laguna topatu zuen Anttonek. Afari bat zela bitarteko eta inork nola izan zen jakin gabe Gotzonen irratia bere eskuetan erori zen.

Bi egun barru Almitzarrok Gotzoni berriro itzuli zion: Lehen zituen soinu arraroak ez ziren entzuten eta bukatu ziren bitirako irратиaren puzkerrak eta fizza fuuzzak, baina tamalez... ai ene! beste ezer ere ez zen entzuten!

«Hong-Kong-en egiten dituzten irрати kaskar hauek ez dute inongo konfiantzarik eskeintzen —esaten zuen Almitzarrok sermoilari prestu batek bezala—. Honek adibidez, kondentsadoreak zeharo kaskarrak ditu. Diru gutxiagoz osatzeko irratia eta merkatua askoz merkeago ateratzearren, plastikozko kondentsadoreak jarri dizkiote, eta jakina... non ikusi da plastikozko

kondentsadore on bat...? Nik ahaleginak egin ditut eta zer-bait konpondu ere bai bainan dagoen bezala Herri Irratia bakarrik hartzen du eta hau ere hego haizea dagoenetan bakarrik... Nahi izanez gero konpon nezake, baina kondentsadore berriak, inpedantziak neurtu, gaizki lotuta dauzkan bi tornillo estutu eta abar... gutxienez hamar mila pezetako gastua izango luke eta hori esku lana kobratu gabe... Hori lagun bezala egingo nizueke, noski...».

«Etorkizun beltza beraz, irratitxo honentzat —esan zion Anttonek—. Berean jarri dezala utziko dugu orduan. Aditu duk seme! Aurreko etxeko oilarrak (haize orratzak) hego aldea markatzen duenean Herri Irratia entzun dezakek, eta AC/DC builoso horiek jartzen ez badituzte ere, Benito Lertxundi entzuteko aukera izango duk... eta ez duk txarra bera ere...».

«Zakurraren bioliñak» —pentsatu zuen Gotzonek— «Akabo nire irрати potxotxoa, akabo AC/DC eta akabo dena...». Jaso zuen naranja kolorezko aurikular dotoreak zituen irрати malapartatua eta txita bustia baino muzinago erretiratu zen bere gelara.

Irratiak ezer entzuteko balio ez bazuen ere, fardatzeko oso egokia zen eta Gotzonek maiz eramaten zuen ikastolara. Orain, ez aitak eta ez amak ez zioten ezer esaten, irratia beraien begi bistetan agertzen ez bazen behintzat. Egun zorionsuak izan ziren haiek Gotzontzat. Denak ikusi, ukitu, entzun, erabili... nahi zuten Gotzonen irratia; jantzi aurikular naranjak, ukitu botoiak, sartu eta atera klabija... Maisuak ere eskatu zion behin (oso kuriozosa zen maisu hura...).

Hego haize egunetan bakarrik uzten zien irratia bere lagun aukeratuenei. Gainera, Gotzon ardura handiz ibili zen irрати hura erdi izorraturik zegoela inork susma ez zezan. Bere galtzetan kabitu ezinik ibili zen aste hartan, gelako mutilik estimatuena zen..., denak bere lagun agertzen ziren...

Hego haize epeleko gau batetan hasi ziren istiluak. Aurikularrak belarrietan zituela hartu zuen loak eta goizaldera, esnatu edo ez esnatua zegoelarik, isileko hizketa hots marmarrek entzun zituen. Erdi lotan, beste ezer pentsatu gabe aurikularrak kendu eta berriro loari eman zion. «Eta uste gabean konpondu

egin zaiten irratia» —pentsatu zuen erdi ametsetan. Baina ez, ez zen hori, ez zen horrelakorik pasa. Gerorako zituen istiluen hasiera besterik ez zen hura. Geroztik gauza arraro franko gertatu zitzaion mutikoari.

— V —

Gotzon askotan joaten zen mendira. Gehienetan bere lagunekin, baina baita bakarrik ere. Egun hartan bakar bakarrik joan zen, eta bakardadea hain sakonki ez sentitzeko edo, irratixoa eraman zuen berarekin.

Bideari jarraitu zion bitartean ez zuen ezertarako piztu irratia, baina zelaitxo batetan eseri eta hamaiketaketat eraman zuen ogibitartekoari haginak erantsi zizkionean, musika pixkat entzutez ez legokeela gaizki pentsatu zuen. Orduan jarraitu zuten aurreko gauean hasitako istiluak.

Naranja kolorezko aurikularrak jantzi zituen momentutik entzun zituen makina zarata eta hitz hots. Musikarik ez baina irratia pizten zuen bakoitzean elkarrizketa eta abarrotsak!

—Irrati petral hau gero eta txoroago zebilek —pentsatu zuen— Oraintxe zeharo axfixiaturik zegok!

Halare hantxe utzi zituen belarrietan, kendu gabe, bokadiloren goxoa dastatzen zuen bitartean.

—Kaixo amigo! —entzun zuen halako batean.

Ingurura begira geratu zen. Ez alferrik! Han ez zen inor ageri. Bestalde, abotsa irratitik etorri zela ia seguru zegoen.

—Ametsetan hasi ote naiz? Ez diat ba nik lo hartu —esan zion bere buruari.

—Kaixo adiskide! —entzun zuen elkarrizketaren jarraipena— Eguraldi ederra diagu gaur.

—Bai, ez da gezurra!, eta baketsua gainera! Ez al da inor etorriko gaur gu ehizatzerara! Gizaki mukitsu horiek eman ohi dizkiguten tratua! Lehengoan hor ihardun zitzaidan denbora luzean lerdo bat belar izpi latz batez ni nola zirikatu asma ezinik. Beste lanik izan ez balu bezala ordu bat ni toriatzen! Gogo handia diat ba nik bizitzeko gelditzen zaidan denbora kaiola batetan kantari pasatzeko! Nik pasa nituanak! Ez diot nire etsai handienari ere hori opa!

Ehizatzea, gizaki mukitsuak, belar izpiak... Gotzon erabat harriturik zegoen. Bertaz ari ziren haiek eta nortzu ziren gainera gisa hartaz hitzegiteko? Txundigarria zen hura benetan.

Berriro ere begiratu zituen ondo inguruak ea norbait ageri zen ikusteko, baina kia!, han ez zegoen inor. Basamortuan ere han baino jende gehiago aurki zitekeen.

Gainera, abotsak irratitik zetozen eta ez menditik edo zelaitik. Frogatzekotan, kendu zituen aurikularrak eta kitto!, bake santua!, han ez zen inoren abotsik entzuten. Errekasto baten murmurioa eta kilker batzu kantari, besterik ez.

—Antzerkiren bat izango duk —pentsatu zuen—. Baina gauza harrigarria duk hau benetan! Edozein emisora jarrita ere beti gauza berdina entzutea ez duk ba gauza oso normala!

Jakinminak eta egonezinak ez zion bokadiloa bukatzeko denborarik ere eman. Berriro frogatu beharra zegoen: jantzi egingo zituen aurikularrak.

—...nire aitonak zioen bezala —entzun zuen haiek jarri bezain pronto.

—Zure aitonak ikustekoak ikusiko zituen horregatik! Entzun dudanez...

—Bai horregatik, ez diozu gezurrik, bereak eta bost pasa ditu gizarajoak...!

—Baina, baina zer duk hau —esaten zuen Gotzonek bere baitan— Irrati hau txoraturik zegok! Zer ote da entzuten diadan hau?

Burutik halako erokeria bat pasa zitzaion: «Kantari ari diren kilker horien elkarrizketa entzuten ari nauk aurikular hauen medioz. Baina ez, zen; hori ezinezkoa duk!».

Ezinezkoa edo ahalezkoa abotsak han jarraitzen zuten.

—Zuk ordea ez duzu jakingo nire aitona amerikarra denik.
—Entzun zuen.

—Amerikarra? Ez zaidazu horrelakorik esan!

—Bai, horixe esango dizudala! Amerikatik Afrikara zetozen milaka matxinsaltorekin batera etorritakoa. Gero bere kabuz etorri zen Afrikatik honera guretako beste batzurekin.

—Ea, ea, kontaiezadazu historiatxo hori, oso interesgarria dirudi eta.

Gotzon gero eta konbentzituagorik zegoen: Entzuten zituen abotsak kilkerrenak ziren. Otartekoa alde batera utzi eta arreta guztiarekin/z historia bitxi hura entzutera prestatu zen.

— VI —

«Nire aitona Idahon jaio omen zen. Hango zelaitxo batetan bizi zen eta ziur aski hantxe pasako zituen bere egunak eta urteak zori txarrak harri gorri-horixka txikitto bat bere bidean jarri ez balu. Gizaki petral horiek urre deitzen dioten harritxo horietako bat bilatu ez balu, alegia

Gaztaroa pozik pasa ondoren, ja(danik) kilker heldua zela eta, bere zulotxo egiten hastea erabaki zuenean leku egokia aukeratzen hasi zen. Zelai jori hartako lekurik ederrenetako bat. Inguruan nahiko belar zuena, goizetako ihintz goxoa jasotzeko babes ederrekoa eta eguzkiaren epeltasuna eguerdi oro patxadaz hartzeko moduko lekua.

Ekin zion lanari eta hasi zen bizilekua egiten. Zulo aurrea ondo garbitu lehenengo, zuloa egiten hasi ondoren. Dena primeran joan zitzaion harritxo malapartatu hura aurkitu bitartean. Hark ere, harriak diot, ez zion buruko min handirik eman hasieran: Arratsalde oso bateko lana, izerdi batzuk eta

han atera zuen kanpora. Oso bitxia zen. Disdira gorrihoriak kintzen zizkion arratseko eguzki gorriari. Oso polita zen bai, eta etxe aurrean jartzea erabaki zuen bere kalterako.

Jarri bazuen, jarri zuen! Hantxe bukatu zen betirako nire aitonaren bakea. Gizaki zantar horietako bat, madarikatua bedi betirako!, hurbildu zen aitonaren zulora hurrengo goizean eta urre pepita hura topatuz, deabru guztiak hartu balute bezala, erokeriak egiten hasi zen berehala: Saltoka, kantari, oiuhuka... Hura zarata, haiek iskanbilak eta burrunbak! Lurrikara zela edo izan zitekeela ere pentsatu omen zuen aitonak!

Baina ez zen hori izan okerrena. Ez horixe! Handik bi edo hiru egunetara han agertu zen berriro lehengo gizon berbera, astotxo batekin eta trepeta mordo itzelarekin. Nik ez dakit zer ez zuen ekarriko madarikatu hark! Pala bat, izugarrizko pala bat ekarri zuela, hori jakin badakit. Eta ze txikizio egin zuen!

Aurrenengo lur palakak aitonaren lurrezko jauregi aurrean bertan hartu zituen alprojatzar hark! Lurra pilatu eta metatu ondoren erre kara joaten zen lur huar guztia urez garbitzera ea urre bikorren bat topatzen zuen. Zertarako nahi ote zuen delako urre hori? Bertan behera irentsi balu lurrak instant be-rean! Halako zelai ederra era hartan dena izorratu! Madarikatua!

Aitona lehenengo egunetik hasi zen maldan gora ihes egin nahian. Baina dena alferrik. Bat gutxi izan balitz bezala, handik lau egunetarako baziren zelai hartan dozenerdi bat gizon. Astea osotu baino lehen hoge izango ziren lurra gorritu eta dena hankaz gora jartzen ari zirenak. Txabolatxo pare bat ere eraiki zituzten. Hortik aurrera hango berriak jakiteko gogoak joan zitzaizkion aitonari: Hanka egin zuen handik.

Matxinsalto multzo batekin elkartu zen eta beste gauza ho-beagorik ez zeukala egiteko eta Afrikaruntz abiatu zen, Hura bidaia! Egunak eta egunak, itsaso zabala behean eta zerua goian. Zer janik ez eta hegan jarraitu behar. Gazte izan —dio aitonak— eta indarrean egon, bestela hantxe bertan gelditu behar betirako. Zenbat amildu ote ziren uretara!

Pentsa nolako gosea ekarriko zuten! Afrikara iritsi eta zelai zabal batetan kokatu zirenean ezin zuten sinetsi halako zelai

belartsurik munduan egon zitekeenik. Baina belartsua bazen ere ez zuen denbora luzean horrela jarraitu. Makalagatik gorritu zuten dena, ez zen belar izpirik ere geratu!!

Ez omen dira lurralde egokiak Afrika aldeko horiek dio nire aitonak: Bero asko eta izugarritzko lehorsteak gainera. Bestalde, ez zegoen oso gustora matxinsalto haien artean, Badakizu nolako zabar, narrats eta astakirten diren matxinsalto horiek. Ez da ez harritzekoa haiek utzi eta beste nonbaitetara joateko gogoia izatea. Gainera, berak esan didanez andregai polit bat bilatzeko irrikaz zegoen gizagaxoa! (kilkergaxoa!).

Bila hemen eta bila han, azkenean aurkitu zituen kide batzuek (eta andregai bat ere bai). Denak honuntz etorri ziren hango beroei ihes eginez.

Gero ere izan ditu bere istiluak hemen ere, denok izan ditugun bezala edo handiagoak beharbada. Behin batean... baina... IXO...! Tira! Goazen azkar hemendik! Orain arte ez nuen ikusi bainan begira non degun gizaki zarpail horietako bat. Goazen azkar zulora, halakok ez digu onik ekarriko eta...».

— VII —

—Itxoin! Ez zaitetze joan! Zuen laguna naiz! —egin zien oihu Gotzonek. Bainan alferrik, kilkerak ez dute gizonen hizkuntza ulertzen eta (Beharbada naranja kolorezko aurikularrak jantziz gero bai, baina nik dakidala ez dute horrelakorik kilkerrek, nik behintzat ez dut behin ere aurikular naranjadun kilkerrik ikusi...).

Gaueko hamarretan oraindik etxeratu gabe zegoen Gotzon. Kuku bikote baten maitasun kankar entzun zituen, matxinsalto baten tripafesta nahia ezagutu zuen, bere amari deika zebilen birigarro baten txillioak, ehizean aritzen zen saguzar baten istiluak, nik ba al dakit ba zenbat gauza entzun zuen...

Hala ere ez zion inori ezer esan. Egia esan, giroa ere ez zegoen txantxetarako. Makala haserrea harrapatu zuen bere amak ordu haietan etxera iritsi zelako...!! Beraz, txintxo txintxo ohera joan zen.

Hurrengo egunean lehenengo gauza irratiazen bila hastea izan zen. Eta ezin aurkitu inolaz ere...! Bainan non arraio zegoen irрати miresgarri hura? Begiratu hemen, begiretu han eta dena alferrik...!

—Ama, ba al dakizu non den nire irratia? —galdetu zion amari.

—Irratia? Aitak eraman zuen atzo gauean. Berriro ere lehen-go beltz berbera txisme saltzen zebilela ikusi zuen eta hain gaizki nola zebilen zurea... Baina ez diozu aitari nik ezer esan dizudanik aipatu, zuretzat sorpresa bezala agertu nahi dizu gaur eguerdian eta. Nahiz eta... ez dakit, ez dakit... atzo portatu zinen bezala portatu ondoren hori merezi duzun ez dakit...

Ia hankaz gora erori zen Gotzon hantxe bertan, txorabioak emanda jota. Erabat mututrik geratu zen, zer esan jakin gabe.

—Tira tira, gaur bertan emango dizu aitak —esan zion amak mutilak zeukan aurpegi zurbilez errukiturik—. Eta orain joan zaitetz agudo ikastolara, nahiko berandu egin zaizu eta.

Eskola garaian ezin zuen bere burutik irratia kendu. Hura zen suerte txarra!! Halako irрати miresgarria! Zerbait egin beharko zuen eta berehala gainera, arratsalde baina lehen: Eguerdian bertan kontatuko zien etxekoei den dena, historia osoa eta suerte pixkatekin gaua baina lehen berriro lehenengo irratia eskuratuko zuen. Bai horixe egingo zuela!

Bazkaltzen ari ziren bitartean den dena kontatu zien etxekoei, baina ez alferrik...! Ez zioten ezer sinetsi eta gainera ea gaixorik zegoen galdetu zioten. Izan ere persona helduek ez dute nahiko imaginazio edo behintzat ez dakite umeena ulertzen...

Alferrikakoak izan ziren behin eta berriro gertakizun osoa kontatzea, negar egitea eta istiluak harmatzea. Dena alferrik...!

Irrati berria ere hilabete osorako bahiturik jarri zioten giltzapean. Ez animalien hizketarik, ezta AC/DCren musikarik ere.

Geroztik arraro samarra dabil mutila. Jende asko hurbiltzen zaio historiaren berri jakitera eta edonorri kontatzeko prest dago, baina berak dioen bezala gehienetan ez diote tutik ere sinesten. Dagoeneko herri guztiak badu gertatutakoaren berri eta behin eta berriro entzun nahi dute kondaira, baina ipuin bat entzuten den era berean, arduratu gabe eta arreta gehiegi-rik jarri gabe. Norbaitek sinesten badio ere ez dio kaso handirik egiten.

Nik neuk, egia esan, ez diot gehiegi sinesten bainan zer egingo diogu ba... badaespada ere hor gabiltza Gotzon eta biok herrira inguratzen diren beltz guztiei ea irratirik daukaten galdezka. Baietz esaten badigute azkar hasten gara aurikular naranjazko irradi guztiak frogatzen. Oraindik ez dugu suerterik izan baina badugu itxaropenik.

Eta zuek ere badakizue, saltzaile horietako bat hurrerutzen bazaizue begiratu ondo... altxor ezkutu bat dago irradi horien artean...

—Tira tira, gaur bertan emango diru nitak —esan xion
anik mutlak zuekin auzoegi xurpiles etxekiturik — Eta orain
joan zaitex gauda kastolara, nitako betandu egin xain eta.

Eskola garainan egin xuen bore bururik irratia kendu. Hura
xan suete txarrik! Halsko irtigi inbuesurial Xarbai egin
beharke xon eta berehala gabeik, aratxalder baino lehen:
Emandian bertan kontatzen xon etxekot den dena, historia
ona eta suete txarrik, xon baino lehen bertan lehenago
irratia espartuko xon. Bai dotze eginio xalrik.

—Baxkaxot, ari xon baxkaxot, den dena kontatu xon etxekot
kot baino ez altxerik. —Ez xon etxekot eta baxkaxot eta
gaxkaxot xon baxkaxot, xon etxekot baxkaxot eta
hute nabio imaginazio edo behinbat ez dakite untxen diru.

KIRTEN URDINETAKO ARMAIRU ROXA

Mertxe Ezeiza

(1983. urtean Zarauzko Udalak haurrentzako ipuientzat eratu zuen «Xabier Lizardi Saria»-n aipamen berezia jaso zuen lan honek).

Izeba Maurixiren opariak beti hartzen nituen pozik armairu txiki hura ekarri zidan arte behintzat! Izeba Maurixi nere amandrea zen eta berandu baino lehen nik eskatutako jostailuren batekin etxean azaltzen zen. Esan beharrik ez dago ni beti zain egoten nintzela hura noiz etorriko, batez ere armairua eskatu nionetik.

Armairu bat? —pentsatuko duzu—. Armairu bat zertarako? Ba, erropa sartzeko, hain zuzen ere!

Begira, etxekoek bazuten norberak bere armairua. Aitak eta amak armairu handi bana beren gelan, nere anaiek, Joxek eta Migelek, beste armairu bana, izeba Rosariok ere bazituen bi armairu bere logelan eta berak gordetzen zituen nire gauzak, soineko, galtza, jertsei, beroki eta zapatak.

Baina nik armairua euki nahi nuen neure gelan eta ez izeba Rosariorengana joan zerbait behar nuen bakoitzean.

Horregatik eskatu nion izeba Maurixiri niretzako armairua. Eta ailegatu zen izeba azkenean nik hainbeste espero nuen arratsalde hartan.

—Eta armairua, izeba, noiz ekarriko dute armairua?

—Nik dakart armairua, maitia, nik dakart hemen, beso azpian.

Ez dut behinere armairu bat besapean gordetzen duen pertsonik ezagutu eta horregatik, pakete hura hartu eta ireki baino lehen nere logelara sartu nintzen, bazterrean utzi, argia itzali, atea itxi eta egongelan geratu nintzen haserre. Ez nuen paketea irekitzeko gogorik, hura ezin zitekeen nire armairua izan. Hain txikia zen! Izeba Maurixi benetan zegoen triste, eta neri zer? ez nituen haren galderak erantzuten, zer uste zuen? Ez zegoen oso lasai eta geratu zen afaltzen, baina nik ez nuen amore emango, ezta pentsatu ere!

Afalondoan logelara joan nintzenean, ohera sartu eta pake-
teari begira geratu nintzaion. Zer ote zegoen? Ohetik jaiki eta irekitzea pentsatu nuen.

Lehendabizi soka askatu nuen, horrek eman zidan lanik gehiena; bazirudien haserre zegoela nirekin eta ez zuen nire esku artean eten nahi baina azkenerako pixkanaka eta poliki amore eman zuen.

Roxa, roxa zen, hura bai gustatu niri! Haundia izan balitz... Hiru, hiru ate zituen, hura bai armairua! Haundia izan balitz.

Eta erdiko atean, ispilua! Amaren armairuak ere bazuen ispilua. Haundia izan balitz...

Eskua ispiluaren aurrean jarri eta herekin keinuak egiten hasi nintzaion, andereñoa haserre dagoenean bezala behatza atera nuen eta esan nion:

—Txikiegia zarela, miniarmairu!

Eta eskua astinduz:

—Maurixi, Maurixi, a ze ipurdikoa eman behar dizudan, hau ekarri niri?

Lurrean etzan eta nire aurpegiaren haserrea ikusi nuen is-piluan, bekainak tinko, ezpainak zimur eta estu, farregurea eman zidan, baina to! Ispilukoak ez zuen farrik egiten...

Ezta nik ere luzaro, han agertzen zen hura ni ez nintzela konturatu nintzenezan.

Begiak zituen urdin urdinak, masailak berriz arroxak; eta ilea? Ilea ez dakit, pago hotoez jositako txano batek izkututzen zuen.

—Zergatik farre egin didazu? —esan zidan haserre bezala baino abots gozo batez.

—Farre nik zuri? Baina ni... nor...?

Ez zidan bukatzeko denborarik eman.

—Armairumari dut izena eta armairu honen intxisua naiz, badakizu armairu batzuk intxisua dutela, nolako armairua halako intxisua.

Harrituta nengoen eta nere buruan mila galdera hasi ziren borrokan zein jarriko lehenengo zerrendan eta zein lehen ahotik atera. Beti gertatzen zaidan bezala lotsagabeenak irabazi zuen orduan ere eta horrela atera zen korrika eta presaka:

—Ba, holako armairu txikimikia izanik nolako intxisua haiz hi?

—Ene! Txikia dela eta ez dela, haxe kezka makala...

—Zer gorde dezakezu zuk? —Galdetu nion irrifartsu eta honetan bai harrapatu nuela, ziur!

—Sekretuak... —Esan zidan isil-isilik.

—Se-kre-tu-ak?

—Bai, zuk ez al duzu sekreturik?

—Ba ez dakit... zer da sekretu bat?

—Sekretu bat, isilean gordetzen duzun zerbait da, gehienez bakarren bati kontatzen diozu astunegi egiten zaizunean. Baina kontuz! Beste baten sekretua ezin duzu inola ere kontatu, hori bere sekretua lapurtzea litzateke, horregatik da hain inportantea non gorde ahal izatea. Zer iruditzen zaizu?

—Uf! Ba nik sekretu pila daukat orduan, baina orain ez zaizkit gogora etortzen... Mmmmm...

Eta ahoa yogurra jaterakoan bezala okertu ondoren:

—Adizu, Armairumari, orain logure naiz eta ni banoa ohera.

Oheratu eta armairuan sartuko nituen sekretuez pentsatzen ia ia lo hartu behar nuenean salto batetan jaiki, armairuaren eskubiko atea ireki eta nere lehenbiziko sekretua sartzera nihoanean intxisuak honela esan zidan:

—Poliki, poliki, lehenbiziko sekretua niretzat izaten da eta.

—Zu-re-tzat?

—Bai, bai, niretzat. Ea, esaidazu zer gorde behar zenuen hemen.

—Ba, zu zeu zara, nire lehenbiziko sekretua, ez diot inori esan nahi hemen zaudenik, ez eta armairuan zer gordeko du-dan ere.

Negarrez hasi zen intxisua.

—Zergatik negar?

—Eskerrik asko, esker mila, mila esker, anitz esker mila...

Eta negarrari jarraitzen zitzaion. Pixka bat baretu zenean berriz galdetu nion jakinminez.

—Zergatik negar, baina?

—Hara! Askatasuna eman didazulako.

Eta parrez zotinka azaldu zidan bere bizitzaren kronika.

Bera, baso handi bateko pagadian jaio omen zen, intxisu-kumeak aspertuta zeuden batean basotik atera eta ea nor joan urrutiago egin omen zuten apustu, ibili-ibilian baserri handi bat ikusi omen zuen baso-mugan, ondo zekien arriskutsua zuela basotik baino besteen aurrean ausartago azaltzearren han abiatu omen zen korrika eta ahal zuen moduan bere burua izkutatzen. Horrela, baserrira iritsi eta atzeko aldetik ganbararaino igo zen, harritzekoa omen zen hango tresneria, kutxa eta golde, lapurren habia ote? Zoritxarrez, halaxe izan ere.

Halako batean ia hanka egin behar zuenean, jo, jo, jo, jo, farrez hasi omen zitzaion norbait atzean, itzuli eta gizon handi bat ikusi omen zuen atean.

—Ez zaitetz joan, intxisu gazte, non aurkituko dugu zu baino intxisu hoberik? Gurea izango zara hemendik aurrera, ja, ja, ja, ja... Gure kutxa eta armairuetako itxisuak zaharregiak dira gure lapurreten sekretuak gordetzeko.

Eta hau esanaz kutxa handi batean sartu omen zuen halabearrez.

Armairumarik negar egiten zuen gau eta egunez, intxisu zaharrak saiatzten ziren konsolatzen eta Armairumari izena jarri zioten, baina alferrik, ez zen baretzen.

Udaberri batez, baserriko teilatura habia egitera etorri ziren enarak Armairumariz errukitu eta horrela esan omen zioten:

—Guk ezin zaitugu eraman basora baina bai beste armairuetara joateko aukera eta entzun, entzun ezazu ondo!

Noizbait armairu berriaren jabeak gordetzen duen lehenbiziko sekretua zerori baldin bazara askatasuna izango duzu zure etxera joateko.

Armairumariren historiak liluratuta utzi ninduen, ez zitzaizkidan hitzak ateratzen.

—Orain joan naiteke nere pagadira, berriez ere lagunekin jolastu, gertatu zaidan gutzia kontatu eta gero azkar azkar ahaztu.

—Eta... ni ere ahaztu egingo al nauzu?

—Ez horixe, zu ezin zaitut ahaztu. Ezagutzen al duzu Adarra mendira joateko bidea?

—Bai, noski! Bide bat baino gehiago dago eta batzuk ezagutzen ditut, askotan joaten bait gara aitaixo eta amatxorekin igande goiza pasatzera.

—Ederki, orduan entzun arretaz... Ni joan eta gero ispiluan azalduko den bidea jarraitu behar duzu eta gurutze batez sei-

nalatuko dizudan lekuan, mendira joango zaren hurrengoan, pago bat bilatuko duzu.

—Ez, ni ez. Ni urrutiago bizi naiz. Han, esandako pagoa aurkitu behar duzu, baina oso pago berezia, ez nolamodukoa.

—Zergatik berezia?

—Badakizu pagoari, beste zuhaitz askori, bezala, hostoak udaberrian jaio eta udazkenean erori egiten zaizkiola; honi, ez zaio, bada, horrelakorik gertatuko. Hostoak jaioko zaizkio zuk armairuan sekretuak gordetzen dituzun neurrian; sekretu bat, hosto bat; sekretu bat, hosto bat, horrela jantziko da pagoa.

—Eta udazkenean?

—Udazkenean ere ez zaizkio eroriko, hori nire kontu. Baina alde egin baino lehen kontatuko al didazu zerbait?

—Nondik hasi ere ez dakit hainbeste sekretu dauzkat nik... Armairumari! ba al dakizu ohean pixa egiten dudala oraindik?

—Ene, ez larritu horregatik, nire herrian ohitura da hori.

—Orduan horrek ez du ajolarik?

—Horixe ezetz! Zu lasai, bustitzea ez bazaizu inportik...

—Eta muskerrarena? Horrek ematen dizkit lanak neri.

—Muskerrak lana ematen dizula? Nola da posible hori?

—Izkutatuta daukat izebaren gelan eta zaila da ezer gordetzea izeba Rosariori. Bere gelan jarri nuen nik, ez baitut armairurik.

—Baina eta non sartu duzu gixaixo hori?

—Udarako oinetakoen artean, izebaren armairu batean.

—Eta gustatzen al zaio lekua muskerrari?

—Hainbeste kezken artean ez dut izan hori pentsatzeko denborarik. Hobe ote da lekuz aldatzea?

—Nik ez dakit, zuri dagokizu hori pentsatzea.

—Hartu dut erabakia, mendian egingo diot etxea.

—Harri artean bilatu zenuen, ezta? Egiozu han etxea.

—Eta Iñakirena, kontatuko al dizut Iñakirena?

—Nahi baduzu, aurrera!

—Iñaki da nire lagunik maitiena eta elkarren ondoan jartzen gara eskolan; eskutik helduta ibili ginen behin atsedean orduan, lastima da zuk ez ezagutzea.

—Baina Eduardorena da hoberena, ba al dakizu gustatzen zaiola gonak eramatea?

—Hara bestea! Eta horregatik harritzen al zara? Mutil askori gustatzen zaio gonak jartzea, hemen ohiturarik ez bada ere.

—Bai? Eta posible da hori modan jarteza?

—Zergatik ez? Larrutsik jaiotzen gara, ezta? Gizartearen aukera da gonak ala galtzak jarteza.

—Badaiteke horrela izatea baina entzun ezazu, ba dut oraindik zer esan eta.

—Mirenen amak ostiralero zerbaitez estaltzen du burua, zapi bat jartzen du edo txapela, ba dakizu zergatia? Ruloz beteta ekartzen duelako burua. Egun batean banindoan bere atzetik, kendu nion zapia eta a ze kurrixkada bota zuen! Ezetz asmatu nolakoa zuen burua?

Eta horrela jardun genuen denbora luzean. Benetan agur tristea izan zen eta Armairumariren irudia betiko gorde nahian berriro sartu nintzen ohera.

Hurrengo goizean esnatu eta badaezpada ere ispilura begiratu nuen. Ezer ez, han ez zegoen ezer ez, ez eta Armairumarik agindutako bide hura ere. Amets egin ote nuen? Bai, seguru asko, amets egin nuen.

Armairu bat, armairu txiki bat, kirten urdinetako armairu roxa besterik ez zen.

—Gustatu al zaizu izebak ekarritako armairua?

—Zer???

—Ikaratu egin al zaitut? Zertan ari zinen pentsatzen, sartu naizenik ere ez zara konturatu eta. Armairu polita ekarri zizun izebak, ezta? Pozik al zaude orain?

—Bai...

—«Bai» besterik ez?

—Zerbait falta al da? Hori eskatu ez zenion ba?

—Bai...

—«Bai», «bai», gaur ez zaude ohi bezain berritsua gero! Tira, tira, zatoz gosaltzera.

Ezpainak hestutu eta gosaltzera joan nintzen; badaezbadaere, nik ez dut ezer kontatuko egiten nuen nere artean.

Ikastolan, Arantxak, zenbait gauza interesgarri jakin erazi zizkidan, ez inori esan gero esaten zidan, eta nik, ezetz, ezetz, zaude lasai mesedez.

Armairuan gordeko ditut Arantxak kontatutakoak eta horrela, frogatu ahal izango dut ea benetakoa den atzo gauekoa. Honela pentsatzen pasa nuen goiz osoa.

Etxera nindoala, Migel, nire neba, aurkitu nuen atari ondoan:

—Kosta zaizu etortzea —esan zidan larritu antzera—, zatoz azkar etxera.

—Baina, zer gertatzen da? Esaidazu hori aurren!

—Ixxxxo! Gauza bat erakutsi behar dizugu.

—Zer erakutsi behar didazue?, tira, esaidazu bidean.

—Isiltzeko, kontxo! Esan diot nik Joxeri hobe zela zurekin ez kontatzea!

—Horrela hasten bagara, zoazte biok pikutara! Ni utz nazazue pakean eta garaiz zaudete ezer erakutsi baino lehen egiteko atzera!

—Beno, beno, arrazoa duzu, ez du pena balio horrela jartzeak.

Joxe eta Migelekin ez nuen beste aukerarik, ez zegoen haiekin berdintasuna lortzerik borroka txiki bat ez banuen egiten aurretik. Hala ere, egun horretan ez nuen eztabaida luzatu nahi Joxek eta Mikelek ez bait zidaten bere sekretuen berri ematen maiz. Eta gainera zer ote zen, Armairumarirekin zerikusirik ba ote zuen?

Ettxera ailegatu eta inor agurtu baino lehen beren gelara sartu ginen. Zuhurtasun haundien artean han zedukatenaren berri eman eta gero, agindu erazi zidaten isilean gordetzeko, nik baietz eta baietz, eta haiek mesedez eta mesedez, ni baiezka eta haiek arrenka. Eta Armairumari? Armairumari salbu, bestelakoak ziren haien kezka.

Hura egun luzea! Banuen jadanik armairua frogatzen hastea!

Eta iritsi zen azkenik sekretuak gordetzeko unea.

Nola egin ez nekien, hura zen komeria! Ateak ireki, ispilu aurrean jarri eta horrela aritu nintzen nire buruarekin solasean.

«Arantxa oso triste dago bere aitaxo eta amatxo ez direlako elkarrekin gehiago biziko etxean, amatxok esan omen dio nahi duenean egongo dela aitaxorekin eta agian egun batean aitaxo berri bat biziko dela etxean, Arantxari ez zaio gustatu baina nik bihar esango diot ez dela hain txarra bi aitaxo izatea eta gero pozik jartzeko kontatuko diot Joxe eta Migelekin daukadan sekretua, baina Arantxari bakarrik, nire laguna da eta.

Joxe eta Migelek katu bat ekarri dute, katu bat zoratzekoa! Biberioia eman behar diogu, biberioia eta ogi apurrak. —Nora zoaz esne hori hartuta?— esan dit lehen izebak, —mutilaren gelara noa— erantzun diot larrituta, gelara sartu naiz eta bota dut krisketa, uf, ia ia harrapatu nau oraingoan izebak. Horrela ezin dugu segi denbora luzean baina Kai hil zenean amatxok esan zuen ez zuela gehiago animakiarik nahi etxean eta zaila izango da orain katu hori onartzea. Lan hori eman didate niri eta bihar goizetik hasi beharko dut katu bat nahi dudala eta katu bat eskatzen. Nori esango diot aurrena? Aitaxori ala amatxori? Agian, izeba Rosariori.

Nire ustez ikusiko balute ez legoke arazorik, hain polita da, hain txiki, ilea dauka txuri-txuri eta begiak ezin ditu oraindik guttiz ireki. Baina nagusiekin ezin da behin ere jakin, auskalo nola erantzuten duten, hobe izango da, bai, aurretik joatea giroa prestatzen...».

Eta horrela ari nintzela, hara non azaltzen den Armairumarik agindutakoa! Ispiluan zegoen Adarrako bidea, baita gurutzeta ere; pagoa non zegoen erakusten zuen gurutzeak. Ez zuen amets egin, dena izan zen egia!

Azaroaren azken igandean, bururatu zitzaizen gurasoei azkenik Adarrara joatea, bazen ordua!

Eginahalak egin ondoren lortu nuen, eskerrak!, nik nahi nuen bidea hartzea, eta hantxe zegoen nire pagoa... eta hantxe nire sekretuen hostoak.

Harri koxkor batean eserita geratu nintzen pagoari begira.

—Ikusi al duzue? Hau da hau pago ederra! —Esan zuen aitak lehendabizi.

—Honek ez ditu hostoak galdu! —Esan zuen amak atzetik.

—Harritzekoa da! Bihar maisuari esango diot nik —Migel beti bezala larri.

—Gainera, han goiko aldean ez al ditu zenbait hosto berri?

—Joxek azken hitza esan behar, noski!

Ez duzue ezer ulertzen, egiten nuen nere artean, nik.

—Eta zuk, ba al duzu sekretuak gordetzeko armairurik?

ZINEA GUSTATZEN ZITZAIEN TXITOEEN ISTORIA

Bernardo Atxaga

(1983. urtean Zarauzko Udalak
haurrentzako ipuientzat eratu
zuen «Xabier Lizardi Saria»-n
aipamen berezia jaso zuen lan
honek).

Behin batean ba ziren Londresen, Ingalaterrako kapitalean, bere amarekin bizi ziren hamar txito. Oso etxe ttikia zeukaten, txabola baten antzekoa, eta hantxe pasatzen zituzten txitoeak egunaren ordu gehienak. Bakar bakarrik pasa ere, zergatik ama arraultzeak saltzera joaten baitzitzairen, eta ez baitzen gaua arte itzultzen. Bere lanetik etorri eta segituan, halaxe galdetzen zien amak txitoei:

—Zer nahi duzue? Afaria ala zinera joatia?

—Afaria eta zinera joatia, biak! —erantzuten zuten hamar txitoak batera, hamar txitoak txioka.

—Ai ene ttikiak! —zion amak— hori ezinezkoa da! Ba dakizue oso pobreak garela eta ezin ditugula bi gauzak egin!

—Zergatik?

—Afaria dirua kostatzen da, zinea dirua kostatzen da, eta nik ez daukat hainbeste diru...

—Aukeratu egin beharra daukagu, orduan? —esaten zuten txitoek triste xamar.

—Aukeratu, bai... ia, zer nahiago duzue? Afaria ala zinera joatia?

—Zinera joatia! zinera joatia! —esaten zuten hamar txitoak txioka, hamar txitoak batera.

Zinea zen oiloaren famelia hari mundu honetan gehien gustatzen zitzaion gauza. Primerafilan eseritzen ziren beti, eta gosea bera ere ahaztu egiten zitzairen pantailako argiak piztearekin batera. Halakoxeak ziren txito haik: nahiago izaten zuten tripatxo hutsik edukitzea pelikula bat ikusi gabe geratzea baino.

Pelikula guztiak ez zituzten, jakina, berdin maitatzen: amodiozkoak baino gehio gustatzen zitzaizkien menturatakoak; eta menturatakoak baino gehio, oraindik, behizale edo bake-rotakoak. Bakarty James-en pelikula bakerotakoak, batez ere.

Bakarty James baitzen, beren ustez, sekula izan den mutilik zintzo eta balienteena. Hala galdetu zien behin amak:

—Zer izan nahi duzue haundi egitean?

—Bakarty James! Bakarty James izan nahi dugu! —erantzun zuten hamar txitoak batera, hamar txitoak txioka.

—Zergatik? —jakin nahi izan zuen amak.

—Sonbreilu beltz eta haundi bat daramakialako! —esplikatatu zuen lehenengo txitoak.

—Pistolero gaizto guztiei irabazten dielako! —bigarrenak.

—Zaldi txuri bat daukalako! —hirugarrenak.

—Gauzez kitarra jotzen duelako! —laugarrenak.

—Txitoekin ibiltzea gustatzen zaiolako! —boskarrenak.

—Guk ere horregaitik! —esan zuten ordurarte ixilik egondako beste bost txitoak.

Halako batean, ama-oiloak etxetik joan beharra izan zuen.

—Hilabete osoa egingo dut kanpoan —adierazi zien txitoei.

—Zergatik? —galdetu zioten hamar txitoak batera, hamar txitoak txioka.

—Lana egiteko, ttikiak! Pezta batzuk irabazteko! —suspiriatu zuen oiloak pena penatuta.

—Eta nork zainduko gaitu bitartean, zu etorri arte?

—Zuen izebak, ene ttiki maiteak!

—Eeez, eeez, gure izebak ez! —protestatu zuten txitoei purrustika.

—Baaai, zuen izebak baai! Bihar goizean etorriko da, eta ba dakizue... ondo portatu berarekin!

—Ez ama, gure izebarekin ez! —eskatu zioten hamar txitoak txioka, hamar txitoak negarka.

—Baina, baina... zergatik ez duzue izebarekin gelditu nahi! Izeba oso txintxo da!

—Bai —erantzun zioten txitoei— baina zinea ez zaio gus-tatzen!

—Eta zer? Ez zaizue ezer pasako hilabete bat zine gabe egoteagatik! Txitoei kejak ez zuten ezertarako balio izan, eta ama-oiloa joan egin zen kanpoko herri batean lan egitera. Izeba, berriz, etorri.

Eta hala esan zien izebak ailegatu orduko:

—Esan, ilobatxoak! Zer nahi duzue? Afaria ala zinera joatia?

—Afaria eta zinera joatia, biak! —erantzun zuten hamar txitoak batera, hamar txitoak txioka.

—Orduan afaldu egingo dugu aurrena, eta afaldu eta gero... ba zinera joango gara denok, behar bada joan egingo gara...

Hamar txitoei korrika eta presaka jan zituzten txitxareak. Bukatutakoan hala galdetu zioten izebari:

—Noiz joan behar dugu zinera, izeba! ?

—Baaa, gaur ez behintzat —esaten zuen izebak aho zabal-
ka— oso nekatuta nago ilobatxoak, eta ohera joateko desia-
tzen nago... eta zuek ere hobe duzue lo egitea!

—Ez izeba! —protestatzen zuten txitoek— ez daukagu lo-
galerik!

—Horixe daukazuela! Ala, ohera denok!

Egun hartan pelikularik gabe gelditu ziren hamar txitoek,
eta gauza berbera gertatu zitzaizen hurrengo guztitan ere. Ize-
bak ohera bialtzen zituen beti.

Hoietako batean, afariaren zai zeudela, kaletik zetorren
abots bat entzun zuten. Anuntzio bat zen, hauxe:

ENTZUN HAUNDI ETA TTIKIAK

TXITO ZAKUR ETA KATUAK

GAUR

GAUEKO HAMAR HAMARRETAN

URTEKO PELIKULARIK HOBERENA

«BAKARTY JAMES-EN ANAI GAZTEA»

—Bakarty Jamen-en pelikula bat!! —esan zuten txito tti-
kiek.

—Ni ez naiz-ba pelikula hori ikusi gabe geldituko! —adie-
razi zuen batek.

—Ezta ni ere! —besteak.

—Ezta gu ere —beste guztiak.

Afaria prestatzen ari zen izebaren deia entzun zuten
orduan:

—Ilobatxoak! etorri denok! Txitxare goxo goxoak dauz-
kazue afaltzeko!

—Oraintxe goaz, izeba! —egin zuten oiuhu hamar txitoak
batera, hamar txitoak txioka. Baina, agindutakoa bete orde-
z, leihotik saltatu eta zinera joan ziren korrika batean.

—Baina nola sartuko gara? —gogoratu zitzaion bati— ez daukagu txanponik!

—Andre-señora horren boltsan gordeta! —esplikatu zuen hamar txitoen arteko atrebituenak.

Konforme egon ziren denak, Bakarty James-en pelikula ikusteko irrikitan baitzeuden. Pentsatu eta egin, hamar txitoez zineko estraineko hileran zeuden pagatu gabe eserita, pagatu gabe sartuta.

Piztu ziren pantailako argiak, eta bapatean, han non azalzen den Bakarty James bere sonbreilu beltzarekin, Bakarty James bere zaldi zuriarekin. Ezin kabitu pozez, eta hamar txitoez txioka hasi ziren:

—Bakarty James! Bakarty James!

—Ixxxo, ixxxo! primerafilakoak ixil daitezela! —eskatzen zuen jendeak zarata hargatik kejaka.

—Bakarty James! Bakarty James! —txitoez ostera.

—Ixxxo! ixxxo! —jendeak atzetik.

Izeba txitoen faltaz konturatu zenean, dehiadarka hasi zen:

—Baina nora joan ote dira txitoez txitxareak probatu gabe utzita!

Eta batere tuntuna ez zenez, berehala asmatu zuen iloba-txoaren paradoeroarekin:

—Badakit! zinera joan zaizkit! Hoik dalefuertiak eman behar dizkietenak!

Izeba, makila bat hegopean zuela, burrunba batean abiatu zen hauzoko zinera. Ez zitzaion hara ailegatzea askorik kostatu.

—Ikusi al dituzu txito batzuk ate hontatik sartzen? —galdetu zion salako zaindariari.

—Nik ez! Ez dut txitorik ikusi! —erantzun zion gizonak.

—Pagatu gabe sartu dira, orduan!

—Pagatu gabee?! —haserretu zen zaindaria— Goazen beren bila!

—Goazen bai! Ai ze dalefuertiak eman behar dizkiedan!

Hartu zituzten bi linterna eta salako ilunpean murgildu ziren.

—Non dira pagatu gabe sartu diren txitoak! Non dira lapur hoik! —egiten zuen garraisi salako zaindaria.

—Karaka! karaka! Non daude karaka txitxareak jan gabe karaka etorri diren ilobatxoak!

Pelikula ikusten zegoen jende guztia atzera begira jarri zen. Estraineko hileran zeuden txitoek, berriz, dardar egiten zuten.

—Izeba datorrela makila batekin! —esan zuen batek.

—Salako zaindaria ere ba datorrela! —besteak.

—Ai ama! ai ama! —suspiriatu zuten beste txitoak txioka, beste txitoak batera.

Pixkanaka pixkanaka, izeba eta zineko zaindaria txitoen tokiraino iritxi ziren.

Egin dezagun ihes! —esan zuten txito ttikiek, eta aulkiz aulki eta pasiluz pasilu korritzeari ekin zioten. Andreseñoren magaletatik pasatzen ziren batzutan —ai! ai!— gizonen buru gainetik bestetan —ag! ag!—.

—Zer pasatzen da hemen? —galdetu zuen ordurarte lo egondako aiton burutxuri batek.

—Zer pasatzen den? —erantzun zioten—. Ba txito batzuk iheska izeba daukatela segika!

—Eta zarata guzti hau nondik dator? —jakin nahi izan zuen aitonak.

—Andreak aieneka ari dira —erantzun zioten— gizonak berriz oihuka, eta zakurrak zaunkaka, eta katuak miauka, akerra merruka, idia marruka, hoiek biak joka, oilarra kukurruka, eta hamar txitoek txioka!

—Hau buila! hau buila! —gomentatu zuen aiton burutxuriak.

Egia zen. Zineko salan izugarrizko buila eta zarata zegoen. Hamar txitoak larri larri zebiltzan: izeba zeukatzen alde bate-tik, salako zaindaria bestetik. Hala esan zien honek:

—Errenditzen al zarete?

Eta orduan, mementu hartan bertan, abots lodi bat etorri zen pantailatik:

—Utzi txitoak bakean! utzi txitoak libre!

Jende guztia abotsa zetorren aldera begira jarri zen. Eta hantxe ikusi zuten Bakarty James bere sonbreilu beltzarekin jantzita, Bakarty James bere zaldi zuriaren gainean jarrita.

—Hara! Bakarty James!! —zion jendeak harrituta.

—Bakarty James! Bakarty James! —zioten txitoek txioka, zioten txitoek batera.

—Bai, ni neu, Bakarty James!

Eta hori esan ondoren, sekula izan den mutilik txintxo eta balienteena zalditik jaitsi, pantailatik atera, eta zineko pasi-luaren barrena abiatu zen. Hala esan zion izebari:

—Zergatik ez diezu txitoei zinera etortzen uzten?

Eta izebak beldur beldurtuta:

—Ba... ba... ba... pobreak garelako.

—Tori urrezko txanpenez betetako poltsa hau! —esan zion Bakarty James-ek izebari boltsa boteaz— eta hemendik aurrera txito hoik afaldu egingo dute aurrena, eta zinera etorriko dira gero!

—Oles Bakarty James! Oles Bakarty James! —txalotu zuen txitoek.

—Eta zuk? —esan zion bakeroak salako zaindariari— Zergatik segitzen zenien txitoei?

—Paga... paga... pagatu gabe sartu direlako.

—Tori txanpon hoik eta alde hemendik, zekena!

—Ba... bai Bakarty James, ba noa...

—Eta orain, segi denok pelikula ikusten! Agur jendea!
Agur txito maiteak!

—Agur, agur! —jendeak.

—Agur Bakarty James! Agur Bakarty James!!! —despeditu
ziren hamar txitoez txioka, hamar txitoez batera.

Bakeroa pantaila barruan sartu zen berriro, eta zaldi zu-
riaren gainera igoz mendi batzuen atzean izkutatu zen.

Eta handik aurrera txitoez egunero afaldu zuten eta egu-
nero joan ziren zinera. Ama-oiloa lanetik itzuli zenean oso
pozik entzun zituen bere txito ttikiak kontatu zioten gertaki-
zuna. Eta harrezkero, askotan gogoratu ziren Bakarty James
bakero txintxo eta baliente hartaz.

GURE BANDERAREN ALEGIA

Mayie Elissagaray

Behin batez bazen emazte xahar bat; deitzen zen KATTALIN. Bizi zen mendi zola batean, Espainiako ezkinan, etxe txar txar batean. Han zegon nehor ikusi gabe, bere behi xerri, oilo, xitoekin. Batzuek zioten sorgina zela.

Ez zen segur hala gaixo Kattalin.

Gazte denboran, neskato lerden, loriosa zen; ezkondu zen herriko mutiko azkar propi batekin. Bozik bizi ziren, etxe on batean, gogotik lanean ariz. Izan zuten mutiko bat, PANPI, izarra bezain pullita.

—Nor da gu iduri Manex? Zion Kattalineak bere senarrari.

PANPI handitzen ari zen; Bazoan ttapa, aitarekin kanpo hetarat. Egun batez, landa luzeraino jarraiki zelarik, aditu zuen, bidez haindiko ur lasterraren erasia.

Ikusi zuenean aita bere lanaz hartua, urrundu zen ixil ixila, mintzo hari buruz.

Oi! zer gauza miresgarria! ...Ura, zilar bizia iduri, iguzkiak distiratzen zuela, joan zen firrindolan, burrunban.

PANPI, lilluratua, hurbildu zen, hunki nahiz, lasterka axolarik gabe zoon ur nasai hura.

Hegi, hegian konkortua eta jadanik eskua bustia, lerratu zen eta uraren barnerat erori.

Egin zuen oihua aditzearekin, Manex-en bihotzak jauzi egin zuen; ero bat bezala joan zen bere haurrari buruz.

Ikusi zuenean pulunpatua, itzuliz eta zafratuz urak eremaiten, sartu zen hura ere erreka madarikatuan, bere haurra atera nahiz. Bainan ura, hura baino azkarrago, nagusitu zitzaion, eta biak, aita eta semea itto ziren.

Nork erran KATTALIN-en bihotz mina, berri lazgarri hori aditzearekin. Egon zen, eritua biziaren eta hilaren artean, luzaz.

Sendatu zenean, joan zen, bidez-bide jender eta ur erreker ihes, mendiari buruz.

Kausitu zuenean etxexka hura, harroken artean, han jarri zen eta geroztik han zagon bakarrik, bere hilen oroitzapena lagun.

Egun batez, kixkaila keta, zabilarik mendian, iduritu zitzaion, haur nigar bat, borda batetarik.

Sartu zen eta ikusi zuen, emazte gazte bat etzana, zombait hilabeteko, haur ttipi bat sahetsean.

Hurbilzearekin, ohartu zen, zangoak odoletan, hatsa labur, eta doi doa bizi zela.

—Zer duzu gaixoa? Egiten ahal duta zerbait zuretzat. Ahal bezala, haurra erakutsiz, ihardetsi zion:

—Othoi, har zazu... eta... atxik .. ez utz... mugaz haindikoer.

—Zaude gostuan, nik altxatuko dut eta maitatuko enea baliz bezala. Bere eri mehean zuen eraztuna emanetz:

—Hau atxik... geroan haindian... froga dezan... nor den.

—Denak eginen ditut zure nahiaren arabera.

Orduan, deskantsu batean bezala, begiak zeruari buruz itzuli zituen, undar indar batean, erranez:

—Milesker Jauna, eta eman zuen azken hatsa.

KATTALIN-ek hartu zuen haurra, hoztua zena, bere lepo-koaren barnean inguratu, eta zalu, zalua, mendiari beheiti jautsi erranez:

—Hik, gizagaixoa, amarik ez, nik semea galdua; hi izanen haiz ene haurra eta ni hire ama.

Bereala piztu zuen, su eder bat, sekulan haren sukaldeak ikusi ez zuen bezalakoa, esnea erosarazi eta haurra untsa berotu eta ase.

Geroztik, KATTALIN-en bizia kanbiatu zen. Iduri zuen, iguzki ziztarri batek, argitzen zituela haren gogo eta barne, ilunak.

Ez jakinez haurraren izena eman zion PANPI, berearen oroi-tzapenetan. JAINKOAK igorria zaukan, egin bihotz min eta nigarren saritzat. Itsutuki maite zuen. Nahiago zuen gosea egon, hari eskasik egin baino. Biek goxo, goxoa eremaiten ziuzten elgarrekin, asteak, hilabeteak eta urteak.

KATTALIN-en solas guziak JAINKOAZ, sainduz eta zeruaz ziren.

Senarra eta haurra hilez geroz, han zauzkan bere gogo bihotzak.

PANPI-k bazakien bertze munduko berri, lur huntako baino hobeki. Uste zuen, bizi ziren tokitik landa, ez zela deusik gehiago. Xorien kantua haizeak zirinbolan eremaiten zituen hostoak, bidexketako loreak, ziren haren jostagailuak. Goizeko iguzki ederra eta arratseko izar distirantak ikusten zituenean zion KATTALIN-i.

—Beha amaño, zeruaren ifrentzua hoin ederra denaz geroz, nolakoa ditake bertze aldea.

Udan, mendirat heldu zen artzain gazte bat, JOSE. PANPI-ren loria haren artaldearen erdian, ardien segi, bildots ile kuxkulatuekin puttinka, xakurrarekin zoin lehenka.

JOSE mintzo zitzaion, bere ait'amez, haurridez eta berriaz.

—Errazu amaño, nik nun ditut ene ait'amak?

—Aitaren berri ez zakiat; aldiz ama, Jainkoaren ganat joana, hi eni eman ondoan.

—Hemengoak zirena?

—Ez, mugaz haindikoak.

—Noiz joanen gira harat?

—Ni, xahartua nuk. Hi, joanen haiz, ni hil eta. Orduan ezariko duk erian, pareta xiloan gordea dutan eraztuna.

—JOSE-k, aipatzen dituen jendeak eta herriak noiz ikusiko ditugu?

—Hemendik hurbil baduk herrixka bat; harat eginen diuk bihar itzuli bat.

Erran bezala joan ziren aipatu tokirat. Lehenik sartu ziren elizan.

Han zen jaun erretora haur multxo bat inguruan. Ama Birjinaren itxura haundi baten aitzinean.

—Zeruko Amaren festaren ohoretan —zioten erraiten— ekar kitzue bihar loreak haren aldarearen ederki apaintzeko.

PANPI xoratua zagon; egin zuen harek ere emanen ziola.

Etixerakoan bazter guzietarat beha zagon, nun ikus hain nahi zituen loreak; bainan bakar baten itzalik ere ez zen ageri.

—Nun dira bada amaño bidexetako lili pullit haiek?

—Gaixo haurra, idortek erreak ditik bazter guziak; aurten ez duk deusik baratze urstatuetan baizik».

PANPI nigarra begian etzan zen gau hartan.

Biharamunean jaiki zen, argi lehenka, gogoari emanik, behar zuela bait'ez bada, harek ere, hain maite zuen zeruko amari egin bere eskaintza.

Joan zen mendiari goiti, jo eskuin, jo ezker, xoko guziak ikertuz. Han zabilan berotua, hats hantua, zengoak kolpatuak, bainan nehun jeuserik ez.

Gibelerat heldu zen bihotza ilunik, noiz ere ikusi baitzuen xiloka batean, lore xuri eder bat, bi hosto ferde zabalaren artean.

Lorietan hurbildu zen; zorigaitzez elorritz zaindua zagon. Ahal bezala baeterturik, eskuratzearekin, eria ziztatu zuen eta

lore ezkina odolstatu. Tita gorri harekin, ez zitzaion ederrago baizik. Bozkarietan, bere neke guziak ahantzirik, joan zen zanpa, zanpa, elizari buruz.

Han, zer lore nasaiak...! Arrosa eta julufrei egundano PANPI-k ikusi ez zituen bezalakoak.

Herabez zagon, bere lili bakarre eskuan, haur heien irri maltzurrenpean.

Ezin mentura hurbiltzerat eta bizkitartean, hain bertze nekearen buruan, bildu lorea nahi eskaini.

Azkenean aitzinatzen da; aldarerat hurbiltzearekin ikusi zuten gauaz espantagarri hau: Ama Birjinaren itxura argi eder batez ingurikaturik, behako ezti eta irri goxo batekin lorea on hartzen.

Orduan PANPI-ren bihotza ezin erranezko bozkalentzia batek bete zuen. Etxerat izuli zen xoria bezain arin eta alegera.

Geroztik elizarat itzultzen zen artetan.

Ikusten zituen lore ederrak histen, bainan berea beti xuri, hostoak beti ferde, odol xorta beti gorri egoiten.

Egunez egun ari zen handitzen eta azkartzen zortzi urte beteak zituen; ez zen deuseren beldur. JOSE artzainak eman xakurra lagun eta mizpirazko makila batekin, bas-ihizi mota guziak benzutzen zituen.

Aldiz KATTALIN, gero eta ahulago z oan. Indarrak arrunt galduak zituen. PANPI-k tratatzen zuen ahalik eta hobekienik: sua piztuz, jana eginez, zabalak artatuz; bainan, horien guzien gatik, egun batez, ezti ezti pausatu zen sekulakotz.

PANPI-k bihotz min handia izan zuen bere amaño onaren galtzea. Kasurik ere ez zuen egiten xakurraren torrakoer, miliker eta buxtan higitzer.

Nigarrak xukatu ondoan, egin zuen mugaz haindirat joaiteko tenora jin zela.

KATTALIN-ek erran bezala erian ezarri zuen, paretan gordea zaukaten eraztuna, hartu bere xakurra, makila, xakuño batean talo'ta gasna eta mendiari gora abiatu.

Bidean kausitzen zituen artzainek ongi etorri egiten zitzaio-
ten eta denek, gisa bat edo bertze laguntzen.

Mendiz, mendi, ibili ondoan, ikusi zuen goiz batez, etxe
handi, biziki handi bat.

Eguna eman ondoan, harat ezin helduz, ilun-abarrean, jo
zuen atea. Fraile xahar batek ideki zion:

—Zer nahi duk haurra?

—Izanen duta hemen gaurko aterbea?

—Ba segur; sar hadi... eta nungoa hiz?

—Sortzez hemengoa, bainan, mugaz bertze aldean hazia.

—Nola deitzen haiz?

—PANPI

—Eta bertze izena?

—Ez dut bertzerik.

—Nun dituk ait-amak eta haurrideak?

—Ez dut nehor, amaño hil izan da eta bakar bakarrik naiz
munduan ene xakurrarekin.

—Norat ari haiz eta zer egin behar duk?

—Ez dakit, menturaz zuek erranen dautazue.

—Lehenik, jan eta pausa hadi, gero, ikusiko diagu»

Biharamunean, aita nagusiak eta bertze frailek jakin zute-
nean ume zurtza zela, munduan nehor ez, deusere gabe, egin
zuten beren artean atxikiko zutela.

Haurra hain zen jite pullitekoa eta hartze onekoa, nun, de-
nek maitatu baitzuten. Orai bazakien Espainian zela sortua eta
Frantzian hazi ondoan, berriz harat itzulia.

Aita ANTONIO mintzazen zitzaion Espainiako balentriez,
aldiz aita JAKES Frantziakoez. Batzuetan hizkatzen bazien ere,
undarrean beti elgar aditzen zuten, zeren bat eta bertzea ziren
eskualdunak.

Aita USEBIO-k erakusten zitzaion kantuak. Fraile MARTIN-ek berekin ibiltzen zuen kanpo haietan, bizitzeko behar ziren gauzen bila.

Egun batez biak heldu zirelarik urruneko benta batetarik kargatuak. Jarri ziren hatsaren hartzeko, harri xabal baten gainean. Ohartu zen mendiaren bertze aldean bazela haitzpean, jauregi bat, lau dorre, lau ezkinetan.

—Hauxe da jauregi ederra. Nor dago hor?

—Jaun zahar bortiz bat; jendek diote tartaroa dela eta hurbiltzen diren haurrak jaten dituela.

—Bera bizi da hor?

—Mutilekin; heiek ere bera bezain idorrak eta basak.

—Ez du bere jendekiarik?

—Nehor; denboran bazuen seme bat, gaztea, ederra eta ona. Ezkondu zen; urtearen buruan gerlako altxatu zuten eta sei hilabeteren buruan tiro batek erdiz erdi hatxemanik hil zen, sekulan besarkatu gabe, han zelarik sortu haurra.

—Oh; gaixo emazte eta haurra! Ez zituena aitak hartu bere jauregirat?

—Haurra nahi izan zuen, bainan ez ama. Ez baitzuen semearen ezkontza on hartu.

—Emaztea ez zen behar bezalakoa?

—Ezin gehiago hobea, gisa guziez: bai izaitetz eta bai sortzez.

—Zertako beraz ez zuen on hartu?

—Zeren zen Frantzesia.

—Ez zen Eskualduna?

—Eskualdun garbia.

—Beraz biak etorkitasun berekoak ziren.

—Ba, bainan hortaz aitak ez zuen axolarik.

—Ama, haurretik ez nahiz berexi, ihesari eman zen eta neherek ez daki zer bilakatu ziren.

Geroztik hor dago jaun zaharra, lehoina bere ziloan bezala herra bihotzean hurbiltzen diren guzier jazarritz.

Bazen bortz urte PAMPI frailekin zela. Mutiko ederra zen; Gorputz lerden, larru garbi, hortz xuri, begi beltz, batzuetan balusa iduri bertzetan su pinden pare.

Aita Nagusiak, ikusiz haren itxura, egiten zuen ez bide zela nor nahi.

Orai, bera ibiltzen zen kanpo heietan kurri, bere xakurra eta makila lagun.

Egun batez bere uratsek ekarri jaun zaharren jauregiaren aitzinerat. Hurbilzearekin, izigarriko zakur haundi bat ateratu zen, halako ihausietan, nun bazter guziak inharrosten baizituen.

Xakur ttipia ikustearekin, jauzi egiterat, zoan haren gainerat. PANPI-k, makil ukaldi batez kaskoa arraildu zion eta hil gogorra botatu.

Une berean, mutil basa bat, lotu zitzaion:

—Ha...! Hire balentria garrazki pagatuko duk; hireak egin dik, haugi hunat.

Barne, ziritu batez argitu batean, sar arazi zuen eta gako haundi bat itzuliz, krik, kral, ezarri preso.

PANPI-k bere baitan egiten zuen, izanen zela erre kixkaillia eta Tartaroa-k ezpainak milikatuz, haren hezurak kruxka, kruxka janen zituela. Halarik ere ez zen batere izitua.

Ez zakien xuxen noizez geroz zen han, aditu zuenean urats pisu bat. Atea idekitzearekin, ikusi zuen jaun zahar bat, kopeta zimur, begi ilun batzuekin, mato burdinazko bat eskuan.

PANPI aitzinerat hurbildu zizaion erranez: «Zer egingo dautazu?». Botz hura adizearekin eta beit'arte ikustearekin, bihotzean izan zuen ukaldi bat. Iduri zitzaion bere semea adin hartzen zuela aitzinean. Eskuan zuen burdina, utzi zuen eroterat:

—Nor hiz hi?

—Ni, Aitarik ez amarik gabeko ume zurtz bat.

—Nungoa hiz?

—Etixerik ez dut; Espainian sortua eta Frantzian hazia, beraz bi aldetakoa.

Hori erraitearekin altxatu zuen eskua eta Jaun zaharra ohartu zen eraztunari.

—Nun ebatzi duk hori?

—Ez dut nehun hartu; ene ontasun bakarra da, amak hiltzean utzia.

Orduan, Jaun zaharra ikara batek harturik erortzerat zoan; PANPI-k besoak zabaldurik etxiki zuen zutik.

Nigarra begian eta botz dardara batekin erran zion:

—Ah! ikusi orduko ene biotzak ezagutua hinduan. Orai arte harrizkoa zuan, bainan hik piztu duk, galdua zuen garra. Haugi hunat, ene seme bakarraren haurra hiz. Jauregi hau hire duk eta izanen hiz, ez erran dukan bezala bi alderdietakoa, bainan Española eta bakarrik Española.

—Ez dut, hazinuen eta amaren herria ukatuko.

—Zer kausitu duk han? Deusik ez, ez dukanaz geroz hemendik ereman eraztun hori baizik.

—Erromes banintzan ere, banuen ontasunetan haundiena: Ene amañoen amodioa. Amodio hari esker, bozik bizi nintzan; aldiz zu, zure ontasun guzien erdian ez zinuen zorigaitzik baizik, zeren ez baitzinuen, sosegua emaiten duen, bihotzeko lorea. Nik, atxikiko ditut bi alderdiak, biak, bat egiten baitute, etorkitasun berekoak direlaketz. Ez direa, bai, ene sor lekua, bai hazi nuen alderdia, biak Eskual Herrian. Beraz izanen naiz osoki Eskualdun.

—Egia duk haurra. Hori ez onartzeak, egin dik ene zorigaitza. Hemendik harat, jauregi hau izanen duk Eskualdunen, biltokia. Orai, haugi enekin aitzina.

—Lehenik banoa, bortz urtez altxatu nuten, Frailen uzterat. Jaun zaharrak oinu egin zuen mutilari:

—Errak Barbaro, ekar hunat, soineko ederrenak eta zaldi xuria bere apaimendura hoberenean. Laguntzak bere itzuliaren egiten eta zatozte egin ahal bezain laster.

Frailek jakin zutenean gertakari hori, bihotz minekin utzi zuten hain maitatu haurra.

Denak besarkatu ondoan, ikusi zuen Fraile Martin, ate ondoan, irriz eta nigarrez zagola.

—Zer duzu, Fraile ona?

—Deusik ez. Enetzat dut egiten nigar, eta zuretzat irri. Aratzean, jauregiko ohe gozoan etzan zenean, agertu zitzaion, azti eder bat: Zaia iguzki kolore luze bat herrestan, izar distirant bat kopetan, urrezko makila eskuan. Harekin hunkiz erranzion!

—Atxik beti hire baitan eta hire inguruan, gora Eskual Herria. Egun batez haren haur guziak elgarretaratuko dituk Ama Birginak bere irri goxoaz ferekatu koloren banderaren azpian.

Xuria: Xede garbiaren itxura.

Ferdea: Esperantzarena.
Azkar egoiteko beharko dutena.

Gorria: Amodio suharrarena,
Elgarrentzat izanen dutena.
Mundu huntako eta bertzeko, gauzarik hoberena.

Hori erran ondoan, aztia itzali zen, utziz PANPI fidantzia osoan, Eskualdunen geroaren gainean.

Beraz izanen naiz osoki Eskualdun.

Egillea: Mademoiselle Mayie Elissagaray

GIZONA ETA LURRA

(1983. urtean Baztango idatz sari-
keta irabazi zuen lana).

Igande guziz bezala meza ondotik aitaxi elizako dorretik jautsi da erlojuari martxa emanaz gero, eta etxeratekoan, zerrura begira erraten nau:

Gaur denbora ederra dago, bazkal ondoan Elixondoko bordarat joan behar dut osaba Jenaro bisitatzera.

Aitaxi, ni zurekin joanen naiz. Erraten diot.

Aitaxirekin mendian ibiltzea gauza polita da. Eta holaxe, bazkal ondoan, zere lo-kuluxka egin gabe, aitaxik du bere makila, xistu egiten dio «Kai» xuribeltz txakurrari eta martxan!

Herritik ateratzen gara Sansineko etxeko aintzinean barna, eta hemen atxematen dugu osaba Pedro.

—Zer Erramun, promene denbora ederra hunekin?

—Bai, bueltaxka bat eman behar dugu Elixondoko bordan barna, ean zer berri dugun han barna.

—Bon, goraintziak orduan han deneri nere partez.

—Ederki da, emanen diotet. Gero arte.

—Bai gero arte.

Eta aitatzik, «Kaiek» eta nik aintzina jotzen dugu. Orain, herria gure gibelean utziz hartzen dugu bidexka txar batetik. Aitatzik ibilki delarik ez du solasik egiten. Alde batera eta bertzera begiratzen du ikusi bezala gauzak bere lekuan izanen ote diren. «Kai» harat eta hunat ibilki da lasterka, batzuetan saingaka hasitzen da eta aire partitzen da gure bistatik gordetuz. Geroxago agertzen zaigu aspertua eta mingaina ahotik zitzilik. Holaxe aintzina goaz hiruak, eta huntan aitatzik gelditzen da eta alde batera, urrun, begiratzen du.

—Begira ezazu, hemendik ageri da aski ongi itsasoa. Eta makila altxatuarekin erakusten nau gure Kantaurikoa. Denbora garbiarekin barkuak eta denak ikusten dire; eta hunatxago, hortxe ezker, Sara; eta bertze herri hura Ainhoa dugu.

Gero, makila berriz ere lurtean pausatzen du bidea aintzina segitzeko. Orain, poliki poliki, malda goiti goaz mendi ton-tor batera, orduan nik galdetzen diot aitatzik ean nola izena duen mendi hunek.

—Mendi hunek «Azkar» izena du, eta gainera hau mendi fat-matua da. Beazu, bada kantu bat eta dena mendi hunen kontuz.

Eta hola, aitatzik apal apal kantatzen hasitzen da: «Neonek ikusi dut, nere begiekin «Azkar» egiko maldan, zazpi mila sorgin...

«Kaiek» ere lurtean jarrita begiratzen dio, iduri du ulertu duela. Eta berriz, ixil ixilik segitzen dugu bidexka.

Bainan gure bidexka tzartzen hasi zaigu. Iduri du larrak eta bertze belar zikinek jan nahi dutela. Handik eta hemendik ahal bezala pasten gara, «Kai» saltoka eta errestaka, aitatzik makilarekin bidea edekitzen eta ni aitatzin gibeletik. Nik erranen nuen ez ginuela biderik, bainan doike aitatzik bazakien non barna ibilki ginen, eta aintzina jotzen ginuen, ez ginen gelditzen, eta hola ondarrean bidea berriz aintzinean agertzen zaigu.

Bideak galtzen hari dire. Erraten nau aitatzik. Orain ez da nior oinez ibiltzen. Bakotzak bere kotxea badu, pistak edekitzen dire eta lehengo bide zaharrak larrendakoz. Gu gazteak ginelarik Elizondoko ferietara joateko goizeko bi orduetan jai-

kitzen ginen oinez gustura ailegatzeko. Eta zenbat igande Etxalarra joan animale salduak entregatzera eta itzuli hamar terdie-tako meza entzutera. Oroitzen naiz aldi batez bi orduz egin ginuela Etxalartik herrikoraino bidea.

Orain malda beiti goaz. Azpi hartan etxe txuri bat ageri da, Elixondoko borda dugu, ailagatu gara. Hemen gure bidea bukatzen da. Aitatxik uzten du bere makila ate ondoan eta hiruak barnerat sartzen gara.

Gero, iluntxean, etxerat itzuli beharko dugu, bainan ordukotz badugu kotxe bat eta pista eder bat... ez dire lehengo denborak.

—Onge zale-ere, Pideia oso aurreratu den zitzaldu. Oso ongi zitzalduko ziteke ere arek bat! Anon bestelakoa oska!

—Non aurreratu? Urrik ez diragut!

KORO IRATZOKI

—Orrer, arkarrak atzetik al zaito?

Zugarramurdikoa

—Esan gabe ik behin ere ez den ikasiko etxeko bearrak zer diran.

—Anai! Zer egin bearrak dit?

Esan gabe ez al dakin. Oso bearrak dituzte.

Errik, Pideia'k bearrak ez zuten ikurrira joan sai izaten. Su-
nak izaten zirela, eta urteak behar ziretik, bat aterako be-
rrak! Zer egin? Bi alkarrekin bearrak bearrak girona eta pora
bearrak! Ikurrak bearrak izaten eta pora bearrak girona.

Pideia'ren anai, Iñaki eta:

—Iñaki, eldu al zait?

—Oso aukerakoa.

—Nor unan?

—Iñaki, Iñaki.

—Beharrik ez ziteke, eta, orain-zuzk biok bearrak
er dagula. Zer bearrak izaten dituzte?

—Iñaki, izaten dituzte al da?

... eta hola, nikatik apal apal kantaren heritzen da: «Neonak ikusi dut, nere begiekin «Arkar» epiko malda, zozak mila sorgin...

«Kaiek» ere hurrean jarrita begiratzen die, iburi du neru duak. Eta bertiz, irri irilik segitzen dugu bidexka.

Bainan gure bidexka trartzeta hasi zaigu. Iduri du harrak eta bertze behar zikinek jan nahi dutela. Hantik eta hemendik ahal bezala pasten gara. «Kal» saltoka eta arestata, altatari makilarekin bidea odoakiten eta ni aitarra gibeletik. Ni erronen nuen ez ginuela biderik, bainan doke aintatik bazakien non barna ibilti ginen, eta aintana jotzen ginuen, ez ginon gelditzen, eta hola gogoratzen nuen bertiz aintanainan egertzen, alga.

Bideak gaitzen hasi zen. Ferreten nua aintatik. Orain ez da nior oinez ibiltzen. Bakarrean gery Arceyen badi, patak erdi-tzen dire eta lehengo bideak ez dira birrindakoz. Gu gasteak ginelarik Elizondoko ferreten aintanaino gogoko bi nerutan jai-

«Gero, hurrean, bereziki iruzi beharkeko, baina bide...

«Mendi hantek «Arkar» izena du eta gibeletik nua mendia...

Gero, makila bertiz ere hurrean pasatzen du bidexka...

BARATZURI-SALDA

Ume zala ere, Pidela oso aurr mardula azi zitzaien. Osasuna saltzeko aña ere arek bai! Ama beti alabari oska:

—Non aiz? Urik ez diñagu!

—Orren azkarr attu al zaio?

—Esan gabe ik bein ere ez den ikasiko etxeko bearrak zer diran.

—Ama! Zer egin bearr det?

Esan gabe ez al dakin. Oa berialaxe iturrira.

Ezik, Pidela'k bakarrik ez zuen iturrira ioan nai izaten. Su-beak izaten zirala... eta, ustekabean zulotik bat aterako ba'litz!! Zer egin? Bi elkarrekin izanez bestelako giroa eta poza biotzean! Izketarako laguna eta parra lasai egiteko eretia.

Pidela'ren amak izena Inaxi, eta:

—Iñor eldu al zain?

—Oso aukerakoa.

—Nor unan?

—Ixabel Langara.

—Nolabait sorrtu ziñaten; eta, orain zuek biok banatzerik ez dagola. Zer berriketa izaten dituzute?

—Laguna izatea txarra al da?

—Ez! Ua ona danean, txarrik ezer ez! Ezik Ixabel oso ire kidekoa denala: «Nolako eltzea, alako estalkia beti izaten».

—Lengoan ori bera bestela esan zenigun: «Nolako marmita, alako tapa, bein ere ez da palta».

—Itzak elkarren antzik ez dutela ere, esanaren mamia bat eta bera.

—Eskola-egunak datozkigunerako ura etxera ekarri bearr al digu, ama?

—Pidela! Oriden ori galdea! Ez al dakin langilerik iñondik ezin bildu degula?

—Amatxo! Langileari eman egin bearr zaio, eman! Gosari ttiki ederra: amarretan lukainka mutturra eta txurrutatxoa. Eguerdian bazkari ona, oparo-oparo. Azkenean akeita bero-bero eta txokorra...

—Neska! Itz oiek non ikasi ditun?

—Amatxo! Izen oriek eta beste asko orrtxe dabilta egunero alperren aoan eta ezpañetan. Belarritik sartzen zaizkigu.

—Bai! Bai! Oraingo zuen euskera ez zekiñat nik nondik datorrkizuen. Etxe ontan bein ere entzun gabeko izketa gaiztoa!

—Amatxo! Soñean beti gona gorria daramana oso atzera-tua omen degu. Gaurr egun bestelako era berriak datozkigu... Izketan ere alatsu... Donosti'ko Burubelarrean ere oso gaurrko euskera omen darabilte.

—Ez gaitun orrela oituak!!

—Amatxo; Biyarr eskolako ateak zabalduko dizkugute. Urik gabe etsiko ote-dezuten, ez dakit.

Itzultzen aizenean itturria lengo tokian egongo zain zai. Sukaldean, berriz, sulla ederra betiko apalean utsik eta errukarri.

—Amatxo! Itzak nastu egiten dituzu. Errukarria ni naiz, ez sulla. Sullak zer daki gu bion berri?

—Bai, maite! Bai!! Nere buruko miñak izango ba'ittuken, ez zekiñak ik ere itzak nasketa aundian ez ote-liraken izango. Noskiago, alde-erantziz.

—Amatxo! Alde erantzizkoak, soñeko eta maindire eta burko eta olakoak izaten ditugu.

—Ik, Pidela! Esatekoak beti dittun.

—Beste zerbait ere esango nizuke...

—Esatez lotsatu egiten al aiz?

—Amatxo! Buruko miñak izaten dituzula? Orixe! Bai izango ere... Osalarien esanik ez dezu egin nai izaten...

* * *

Biaramunea iritxi zan eta auzoko umeak alai eta pozik abittu ziran. Irakaslea berria izango zutela. Urretxu'tik zeto-rrela.

Beraz, oraingoan guztia berria: eskuduna, ikaslien soñekoak: ura odi polittetan ikastetxera sarritu zuten. Pidela oso arrittu zitzaigun. Etxera itzuli zanean, amari onela ekin zion:

—Gu bakarrik azkena eta eskale uts.

—Zer den, neska?

—Irakasle berriak esan: «urik gabeko etxean ez zala sarrituko» eta Ansa iaunak azken-azkenean izugarrizko lanez ura ekarri.

—Ansa iaunak erriko guztiak asko maite zetin.

—Gu ere maiteko al guñuzke?

—Galdetuko al dion?

—Ikaratu egiten naiz... Ta, ezetz esango ba'lit...!!

—Ama beti makal ibiltzen dala esan akion.

—Sinistuko al dit?

—Ez den, beintzat, gezurra izango...

Pidela ez zaigu erabakitzen.

Ikusi bai, ama beti beeraka doakiola ikusten du. Neskak berak adiñean urte bi edo iru geiago ba'litu... bañan ume muktizuekin eskolan dabilela amari zer esan lezaioke? Auzokoak askotan galdetzen:

—Ama bixkorrago al dezute?

—Oso lo gutxi egiten du. Gaur ere ollarra kukurrukuka asi baño len oska asi zaigu. Lanak biaramunerako uzten ditugula. Egiten ez dan lana beti antxe egoten eta iñorentzat ez izaten.

—Osalariai esaten al diozute?

—Aita beti beldurrez. Osagaiantzat ezin duela ezer bildu: zorrak gooraka.

—Utsean ezer ez bilduko.

—Amatxok, Zubimendi osalaria oso aintzakotzat digu. Noski: ori degu gizona! Iztun alaia. Ibiltari aundia. Bearrtsuen maitale. Adiñekoen adiskide. Eta, al dakit nik zer geiago...

—Ori guztia alaxe izango den. Bañan, ire amak osalari iau-narekin itz-egiten al din? Garbiago esanda, Zubimendi iauna ire ama ikustera agertzen al den?

—Gure amak, osalari bearrik ez omen du. Bestek ezer esan gabe ere, bere buruari eusteako aña ba-dala...

—Orixe den ba, izatekoaren izatea! Erriak osalaria zergatik arrtzen zigun zainpean? Urte osorako ari ematen dioguna ez al den ezer? Eta, erriak ez al din gu guztion onerako emen eukitzen?

—Urrengoan ori guztia amari esango diot. Agian, bigin-duko zaigu... Ai! Alakoxe bat!!!

—Ire ama ez danean, Pidela!, egun gorriak ikusi bearr dizkigun. Ez al den uste? Ezkondu aiten ere, oraindik gaztetxo aiz. Esna adi! Esna adi!! Neska!!

Auzoko amona berritzuek ori guztia eta geiago ere esan zioten biaramunean, Pidela'ri Ernani'ko izeba etorri zitzaion. Amaren aizpa zarrena. Atean deitu zuenean:

—Izeba! Etorri al zaigu? Nekatu gabe, ala? Ez dirudi batetxo izerditu zaigunik. Gañera bakarr-bakarrrik! Ageda'k ez al zuen etorri nai. Aspaldian ez det ikusi-ta...

—Ageda, iostun ikasten dabil. Ezer ikasi gage gaur-gero motz ibiliko dala, eta lekaiame saritzeko gogoa ba'letorrkio ere iostun ona izateak asko lagunduko diola.

—Izeba! Zer esan dit? Ageda'k etxetik alde-egingo duela?

—Zer uste dezu, ba? Amabi senide dira: sei mutil eta sei neska. Guztiak etxean pillan zer egin bearr dute?

—Ni ere norabait pozik ioango nintzake.

—Ez! Pidelatxo! Ez!! Ama bakarrik utziko zenduke. Len daraman bizitza latza asko txarrrtuko litzaioke.

—Guztiok ez gera elkarren antzeko.

—Oso egia, Pidela! Aita non dezute?

—Ez da urruti izango. Etorri zerala esango diot.

Pidela'ren aita, oso gizon isila. Ari itza atera nai dionak, lan ederra izango du! Emaztearen betiko makiak, itza asko gutxitu dio. Gizona mintzul biurtu dala esanliteke: ontatik bertatik, beraz, emaztearen makal izatea askoz iasangaitzago gertatzen: etxeko guztientzat. Ez-bearrak bakarrka etorrtzen ez diranekoa egia, noski. Iñaxi'ren semea txalkorra gertatu. Neskak, anai gaztetxoa min-utsa zalako eta atzeko eta aurreko konkorrak oso itsusitzen zuelako, ebaki-ebakitzen zuen: ostikoka lurrean zapaldu, iraiñez eta oñonka era bat astandu. Biziko ba'zan txalkorr gaixoa izebak eraman zuen.

—Nagusi iauna! Beti lanean, beraz?

—Egiten ez danean, lana attutzat izaten degu. Bestalde, biziko ba'gera eskuak antxumatuta ezin egon.

—Nere aizpa okerrago doala iduritzen zait.

—Iduritu bakarrik? Gure Iñasi oso gaizki dago. Zerbait egin bearr gendukela iduritzen zait. Zer?

—Galdezka ibili naiz. Askoren iritziz eta osalariek len ere bein baño geiagotan esan digutenez, azkeneko erabakia arрту bearrean gera. Ebakuntza obe ba'zaio... amorr-eman dezagun.

—Eralgibearrak osatuko al genituzke?

—Zubimendi iaunak legozkiokenak geroago iaso-ta ere, ez omen ginduzke ittoko. Baietzkoa eman al izateko, zuri zer iduritzen zaizun iakin nai nuke.

—Aizpa dezu. Gaixoaren ona besterik ez dezu naiko, nik uste...

* * *

Iñaxi Aldanondo osatetxe aundira daramate. Alabak ioan nai luke... ezik, ango mallak gora eta beera poliki-poliki zapaldu bearr... Ez etxean bezela: ipurr-iauzika eta birigarroaren antzera. Ua etxearen apaña!!!

—Pidela! Au egarria. Ur pixka bat ekarriko al didazu?

—Nori eskatu bearr diot?

—Neskatxa dotore irietakoren batek esango dizu.

—Ba-noa! Laister naiz emen...

Erabakitako egunean ama gaixoari esteak eta barreneko zati batzuk ez besteak kendu zizkioten. Ez zala min bizia bafian alakoxe ustelkeria edo antzekorik ba-zuela. Antxe amabost egunez asperr-asperrtu zala eta ama-alabak zelaiko eguratsa naiago zutela, eta beren etxetxora itzuli ziran.

Ain zuzen, iritxi ziranerako illuna, eta oso gutxik iakin zuten etxean zirala. Gauez, ordea, argia ba-zekusaten, eta etxeko iauna gauzale biurrtu zitzaiera esanez asi ziran.

Biamamunean, Pidela an asi zan olloei artalea purra-purra zabaltzen. Gaixoari iruditu zitzaion aitari aztu egin zitzaiola eta egaztiak goseak lirakela.

Ontan, Mienda'ko Martina etorri zitzaion:

—Ederr! Luze-iritzirik geunden. Asko pozten naiz zu emen ikusteaz. Amatxo nolatan dezute?

—Amari itza attu zaio. Zer nai luken, nik beintzat ezin asmatu. Goseak dagonik ez dit esaten. Ekarrten diodanaren erdia beti utzi egiten dit.

—Osalariai zer esaten dizue?

—Gutziz ustu ote-duten iduritzen zait. Ebakia egin ziotenean, atera eta atera ari izan zirala uste det. Beintzat, ontzi aundi-zabal batean odola eta naste askotxo osatu zitzaien.

—Olako gaitza nondik sorru izan zaio? Onik irtengo ba'litzake asko poztuko nintzake. Eta, ona emen Elizalde'ko Bixenta. Ez datorrkigu utsik.

—Pidela! Zure ama ikusi nai nuke! Gutxi dira, eta uskeri auek arrtu bearr dizkidazu.

—Auxe etxekeanderearen politta!! Iñaxi!: osatetxe orrtan eman dituzun egunetan, askoz ederragotu zazkigu. Izketarako gogorik ez al dezu? Ez naiz arritzen! Biotza, esteak eta urdailla utzi omen dizkizute bakarrik. Bai! Atxeter oriek ebaki eta ebaki asten diranean, ain dira beldurrgarriak...!! Eta Garagorri'ko Mañaxi ere ementxe degu. Ikusten? Gaixo omen genduen a bizirik ekarri digute, eta Jaungoikoari eskerrak eman dezazkion.

—Mañazi! Ez zerala, beraz, esku-utsik etorri...!

—Pidela! Ama orren txuri ikusiz malkoak ere aterako zaizkit.

—Asmatu didazu! Bixkorrtu dedin amari zerbait egin nai, eta iñola ezin asmatu. Ez dit itzik egiten! Alakoren batea «Ai au utsunea!» esaten dit, eta utsune ori zer lezaken nondik asma nezaioke?

—Pidela! Etzakizkit geiegi naigabetu. Auzoko guztiak zure ama ikustera ementxe atorriko zaizkizu. Datozenean, zerbait eskeiñi bearr diezu. Ona emen goxoki zenbait eta ardo-aundia, Utsik ez itzazu biali. Aiek esku-utsik ez zaizkizu etorriko. Ulertzen?

Pidela'k berekiko esaten: «Gero amak iakin dezan datozenen etxe-izenak orritxoan sarrru bearr ditut. Onela: «Mienda,

»Elizalde, Garagorri, Arrbitza, Bulano, Atinzabal, Elgorriaga, »Penai, «Aitzaga, Zinko, Allurralde, Iparragirre, Goenaga, Ato-rrasagasti, Bildain, Aristizabal, Ostape, Bekaixti, Urruxti, Age-»rre, Eguzkitza, Azalain... Bai! Bixenta au, etxe-oneko alaba »eta ama. Orrek ederrkitxo iakin lengoen esana: *artuak ema-»nakin du savoria*. Bestalde, guztia ekarri egiten didate, eta »eman al izateko orrelaxe osatzen zait...».

Ara! , ta atean deika ditut:

—Aurrera! Aurrera!! Matxine'tik zatoztela, beraz?

—Zure ama, aspaldiko adiskidea degu. Tamalez, sakabanatu giñanetik etxe ontara ez gerala agertu izan. Ama iakitzen al zaizue?

—Oraindik ez digu maindirepetik ateratzeko gogorik agertu. Osagilleak ere, azkeneko etorri zitzaigunean auxe esan zidan: «Amak berak esango dizu zer nai duen. Aren gogoko dana zuk »txintxo egin...».

—Ikusi al genezake?

—Bai. Gora eraman degu. Aizea dabillenean, leiotik aukera obean sarrrtuko zaiola. Poliki mallatan, erori gabe...

—Iñaxi! Nortzu geran gogoratzen al zera?

—Zuek Matxine'ko alabak. Orain ez zerate an bizi. Zer za-biltzate?

—Zu ikustera etorri gera. Bixkorr al zaitugu?

—Oso bixkorr. Aldizka, oraindik ere izugarrizko giroan izaten naiz. Atzo bertan, antxe umetako eskola-atarian albiraka ibili nintzan: ia arratsalde gutzian. Bai lerr-egin ere...

Are galdetzeko biotzik ez zuten izan. Gaixoari so eta so aldi-puska eman ondoren, itzulerakoan Pidela'ri:

—Zure ama Iñaxi, ikas-lagunen artean nexkarik ederrena genduen. Eta albiraka ibili dala... ikusi gaitunean ordukoa gogoratu zaio. Oraingorik aipatzen al dizu?

—Oean gaxo dagonik ere ez daki. Oraina zer dan ez daki. Gaur zer egun dan askoz gutxiago... Esan ere ez diot esaten. Zertarako?

—Maite! Zure ama ederra orren ederrki eta xamurrki zaintzen dezunean, osate-etxeetako lekaimerik gartsuenak egiten duena baño askoz lan ederragoa dagizu.

—Eskarrikasko! Ezer artu gabe al zoatze?

—Gogo guztiak ioan zaizkigu. Ba'zeneki zer zirrara egin digun «albiraka ibili naiz» esan digunean!!!! Iñaxi ederra! Nork esan bearr zigun???

—Pidela'ri ere malkoak zerizkion. Gaxotu zanetik, bein ere ez itzik egiten... eta gaurr entzun dizkionak entzun...

—Izebak etorriko zala agindu zion. Agian, laisterr atean deika izango... Koxk! Koxk!!

—Ez nuen uste! Olajaunanekoak datozkigula. Orien aitak aureskua ateratzen bai ederrki dakila...

—Auzoko gutziak emen izan dituzun ondoren gatoz. Ia lotsatu ere lotsatzen gera.

—Ongi etorri! Ongi etorri! Zuen etxe zabaletik, barrunbe kaxkarr ontara alde ederrik ba-dagola...

—Etxean bizi diranak barrunbeak ederrtzen. Zure amak ere bai ain osasun ederreko zanean. Bakarrik guztira ezin iritxiz ibiliko zerala, agirian dago.

—Artarakoak, txokorik itsusiena ere ederr-ederrtu egiten.

—Amari zer esango diogu?

—Etorri zeratenik ere ez daki. Aldi onak ain gutxi izan dizkigu!

—Onakoxe au arrtu zaiguzu...

—Eskarrikasko!

* * *

Igande artan Pidela'k atsedenaldia bearr zuela, eta aita ber-bera atosketarako. Ontan:

—Etorri al aiz?

—Bai! Zer nai dek? Bestek esanda, etxe ontan arria izan dezutela ikasi diat. Belarrietara iritxi zaidan guztia sinistek ere alakoxe kezka sorrtzen neri.

—Ederrki egin dek. Eta, eskarrikasko!!

—Ezer gutxi dek! Artu idak! Ongi dakik...! Ik, aitaren etxetik alde-egin bearr izan uken. Zarrena nintzala eta gurasoak beren zarrtzaroan norbait bearr zutela, eta Sagarrtzazu'n geldittu ninduken. Iretzat alakoxe errukia beti izan diat. Isilik egon zaigun zorra, noizpaitean ere kittatu bearr nian.

—Bost ontzako urre...!!! Anai! Anai! Lotsatu egiten nauk.

—Pilla ainbeste urteko irabaziena dek. Iñaxi'k zer zio?

—Beti ere itz gutxikoa izan diat; eta, orain erabat isildu zaiguk. Ikustera datozenei, aztuazkoan zerbait esaten omen ziek. Neronek, ordea, ezertxo ez ziot entzun. Ez miñaren-miñezko AI ENE ttiki bat ere!!!

—Arriya erori zaik! Arriya!

—Arriya neronek ekarri dedala iduritzen zaidak...

—Erorrek ekarri? Sinistu al nezake?

—Beranduko aitormenak zerbaiten laguntza ekarriko al zidak! Ona: Ezkongaietan genbiltzala amak neri esaten: «Seme! Seme! Iñasi Elizagarate ori nexka miliña dek, gero! Beste ezer ez zekiat... bañan, lana emango dik...!».

Nik, neronek, ikusi..., ez nian ezer ikusten. Nere emaztegaia oso esanekoa nueela iduritzen zitzaidaken. Gerora, berriz, bigarren aurr txalkorra gertatu zitzaigunean... gaxoa izugarrizko astiñaldia izan ba'zuen bezelaxe geldittu zitzaidaken. Esaten nitxioken: «—Iñaxi! Zure burua geiegi estutzen dezu. Olako aurrak beste geiagok ere izaten dituzte, eta maittiena uaxe gertatzen...».

—Lenbizikoa alaba diagu: orrek, bargastak alakoak, anai gorroto izan ziguk. Neskaren tuntuna!! Ezik, orain amari maitasun aundia zio. Orretzek pixka bat pozten natxiok...

—Eta, zorrak berdintzeko norbaitek lagundu al dik?

—Etxean txala ba'nian. Oso egokia zala eta zezenetarako eramán ziteken. Aragitarakoa baño ondotoz obeto ordaindu ziateken. Ala ere beti koxka gelditzen zitzaidaken Erretore iau-nak oso eskupeko ederra eskaiñi: Argendina'tik ango euskaldunek emen errikoei laguntzeko zillarketa politta bialdu ziotela, eta oraingoa beintzat, oso-osorik zemaidala!

—Asko maitte aue??

—Errenak eskuan urritz-makilla duela aruntza-onuntzak errexago egiten. Gero berriz, Elizondo'ko Balbinak izugarrizko laguntza. Geiena ikuttu niñuena.

—Ez al itzaban Balbina'kin ezkontzeko bezela ibili?

—Balbina mirabe argia eta eraginzale. Neretzat geiegi zala iduritzen zitzaidaken... eta, onela etorri zitzaidaban: «Aspal-diko! Orduan maite zindudan... Orain erruki zaitut. Bein baño »geiagotan ikusi zaitut begi biak gorri-gorri, eta malkoak iario-»iario! Orixe! Arri-iasa aundiak eraso dizu. Neroni, oraindik »ere lengoa nauzu. Beste zer-egiñik ez det, eta etxez-etxe ibili »naiz zuretzat eskean. Emallek oso biotz oneko gertatu zaiz-»kit, eta aiena besterik ez det zuri emateko. Arr zaidazu! Eta... iñori ere ezer ez esan...». Beraz, anai! Ba-dakik: iñori esan bearr ez niona iri esan diat.

—Auzo au ez dek ain zabala eta gizatsua, bañan emen bizi diranak biotza ona eta eskua zabala ditek. Alakoren batean. Iñasi bixkorrtuko ba'litz auzokideen pozerako...

* * *

—Non aiz?

—Ama! Zer nai du?

—Baratzuri-salda artuko niñake. Babarrun-eltze aundia bete egin akidan. Ez laiskerrka ibili. Baizik bearr aña beta artu.

Pidela'k sua piztu zuen eta amak esandako eltzean, ura borbor irakiten asi zanean, baratzuri-buru osoa koipetan erre-erre egin zuen, eta ua usaiaren ederra... amari eraman zion.

—Ama! Bein ere baño obeto eta ederragoa egin dizut; olako salda bikañak bizi berria ekarriko dizu.

—Ik, ala nai!!

—Ez al zera bein ere sendatuko?

Iñaxi'k baratzuri-salda oso gogoz arrtu zuen. Gero, Pidela sukaldera ioan zanean, adiskideak ekarritako ardo goxotik iru bonbilka oso-osorik edan zituen. Ua Iñaxi'ren lo aundia...!!

Oraindik ere, banaka-banaka ikustera zetozkionak izaten, eta esnatzen ez zala ikusiz guztiak etsipen gaiztoan itzultzen ziran, esanez:

—Orrenak egin din!

—Ez, ba! Oraindik ere arnas arrtzen du.

—Poxpolo piztua ere ez liñake itzaliko. Orri arnas-artzea esaten al diozute? Eskumuturrean ikusi zazute, biotzak tauparik egiten ote-dio.

—Biotza geldittu egin zaiola dirudi.

Eta orrelaxe bost egunez.

Seigarren egunean, Iñaxi iñori ezer esan gabe ber-bera iaiki zitzaien. Sukaldera ieitxi eta an iñor ez. Atarira irten zan, eta:

—Auxe eguraldiaren ederra! Etxekoak non ote-ditut?

—Ama! Ama! Zer zabilta?

—Oean asperr-asperr egiñik nitxionan eta ieiki egin naun. Aita non den?

—Orrtxe txabala-soro barrenean ari da. bizkarrka lurra gora iasotzen.

—Zertarako orrenbeste neke?

—Gure aita olakoa degu!

—Utzi akion! Neroni ioango natzaion...

—Oñez ez al zazu aztu? Erori egingo zera.

—Ik egindako baratzuri-saldak piztuk natxion.

—Orren luze lo-zorroan egin da?

—Ez akit arrittu! Ain luzaro nabaitzen nuen utsa olaxe bete zaidan. Baratzuri-saldaz eta ardotxoaz.

—Ardoa nondik atera zenduan?

—Zegon tokitik! Neretzat ainbeste bonbil ekarri zituztelarik, alperrik galtzen utzi bearr al nitxienan?

ETXEBERRIA'TARR P. s.j.

Ilo-Ilo 1982.8.5

IXTOAN BIURRI

Norbaitek alaxe esaten zion: IXTOAN BIURRI.

Ia muga-mugako seme zarrenari izen ori erantsi, beraz?

Mutiko txintxoagorik alderdi aietan, beste bat non? Sinistu nai ez zuenak Irun'go txauburu iaunari galdetu besterik ez zuen.

Izan ere lenbizikoz Gure Iauna arrtzerakoan, ikastekoetara, iñor zuzen eta esandako garaian Ixtoan besterik ez zitzaioan agertuko apaiz iaun euskal-maiteari.

—Orain ere goseak etorri al zazkit?

—Ez, ba: txauburu iauna.

—Gosari ona izan al dezute?

—Atzo, amak izoki aundia ekarri zigun. Gañera taloa eta esnea beti bezela. Gaur ez naiz gose.

—Eta, egunero zergatik ez dezute gaur bezelako gosari oparoa izaten?

—Nik ez dakit. Baiñan, etxean esaten digutenez, goseak ibiltzen ere gaztetatik ikasi bearr omen degu. Ume zala, gure Jesus'ek ere beti ez zuela aukerako gosaria izaten.

—Ori nork esan dik?

—Gure auzoko Joxe Joakin Errotazuri'k olako esanak erruz ditu.

—Aizak, aizak! Iñaki.

—Bai! Bai! Nere izena beti aztu egiten zaio.

—Aizak Ixtoan! Muga-zain oriek maite ez autena egi al dek?

—Olaorik ez dit iñori esan. Zertaz maite bearr ninduteke?

—Gizon batek bere kidekoa maite bearr duen aiñean, noski.

—Ezin gera bat etorri. Emendik dabiltzanak Cantalarana'koak'edo omen dira: beren erriko izkera besterik ez dakite. Beste alderdikoak, berriz, Issy-les-Moulineaux'koak. (Izena zuzen esan ote-dedan ere ez dakit). Oriek ere beren izkuntza dute eta beste aldekoak gorroto ote-dituzten ez dakit. Beintzat, elkarri maiteak egiten bein ere ez ditut ikusi.

—Ortarako aukerak bear ittuek.

—Gu, ordea, anai gera. Etxean euskeraz, eta Laburdi'ko lenengo baserrikoak ere euskeraz. Benetako anai.

—Izugarrria aiz!

—Esango diot: ikusten nauten bakoitzean betiko galdeak:

—«Emendik Larrun aldera iñor ioan al dek?».

Nik erantzuten: Ez ba! Gaur ez det iñor ikusi. Bestalde Larrun aldera doan ala ez, neri esango al zidan?, norbait ikusita ere...

—Oriei, galdeari dagokion erantzun laburra besterik ez eman. Onela: «Iñortxo ere ez dek ikusi», legorr-legorr: eraskin guztiak ire burua zuritzeko dittukela usteko ditek.

—Baiñan, apaiz iauna! Iru zazpiko zenbait diran ez dakiten ume zirtzil onek zer nere buru-zuritze egin nezake? Ongi, ala ere: mugazain oriek beren buruak aundi egiten dizkigute. Agintari ba'lira bezelaxe ibiltzen zaizkigu.

—Izan ere, erantzukizun aundia ditek. Uste-uste gabeen. baso itzal auetan zearr bizkarrka egoki ez dan zerbait sarrrtuko bailute, guztiok gaizki.

—Delako gezurr-mugak beste nonbaitera aldatu besterik ez luteke. Noizik beinka neroni ere ortxe ibiltzen naiz. Aitak-eta lan asko dutenean.

—Zer sarrtzen dezute?

—Neri lan ttikiak ematen dizkidate.

—Zer lan ttiki? Lan ariñak ala?

—Ain gazte naizenez belarriak erne izango ditudala, eta erbiaren antzera begi bakarra isten dedala lotarakoan, eta adi-adi ibiltzeko. Itzalean norbait ote-degun.

—Ilargirik ez danean, itzalari nondik antz-eman bearr diok?

—Olakoetan oin-urratsak entzun bearr izaten ditut.

—Eta, okerrik gertatu al zaizue?

—Ez, ba! Ni aiekin naizenetan, naibezela ibiltzen omen dira. Ikarakizunik gabe. Aingeru zaindari ona omen det. Arek neri sena geitzen.

—Ire gizonak olakoetan sinisten al ditek? Ez nian uste. Ixtoan! Apaiz egingo al itzake?

—Irungo errian apaiz-bearrean al zerate?

—Gu ez izan betiko, eta sen oneko edonor arrtuko likek gure Gotzai Iaunak: ume argi eta aizekeri gabeak gutxi. Bestalde, asi berritan Andoain'en etxe politta ba-ditek.

—Zotza esaten ziotena antxe ibili zan. Orain Gasteiz'en izaten da. Bañan, biurrikeri asko dakizkit, apaiz ona izan nadin. Naizen bezelakoa ikusiz, sinistunak ez al lirake zabarrtuko?

—Apaiz mokolorik iñork ez dik maite izaten.

—Zer ikasi bearrko nituzke?

—Orrtaz ez adi estutu. Baiñan bi aldetako mugazainak maite bearr dittuk.

—Zertazko ongi-naia agertu bearr nieke?

—Ijituak maitte al dittuk?

—Oriek bai izaten dituztela aurr polittak: neretzat txit imaitagarri.

—Mugazainek ez al ditek umerik?

—Nik ez dakit. Beintzat mendi-bazterr auetara ez dituzte ekartzen.

—Ez al aiz aiek bizi diran estalpera bein ere bertaratu?

—Oriek etxean non dituzte? Irabazten duten pizkarekin txabola ttikiak eraiki besterik ezingo dute.

—Irun'go kalera ainbeste bider ietxi izan aiz, eta ire izterbegiko orien etxea ez dekela ikusi?

—Galdezka ittoko ninduteke. Gutxi-asko ni ere aiek gertakeri deitzen dien lanean buruz bera sarrrurik nabilela uste didate. Eta, aien atarira urbilduko ba'nitz, kuz-kuzean nabilela esango didate. Euskeraz ere ez dakite.

—Aien umeak ikasten ditek, eta mendira datozenean amak alabatxoa aldamenean izaten dik menditarrekin itz-egiteko. Berriz ere esango diat: i mugazainen beldurr aut.

—Ez orixe! Zaindari ona dedan bitartean, nik bibotedun orien beldurrik ez.

—Eta, alakoxe okerrean arrapatuko autenean, zer?

—Oriek ni atxi? Ez, txauburu iauna! Ez. Orien usaia urrutitik nabaitzen det.

* * *

Latiñak eta Iakintza ikasketak bukatu zitueneko, *Ixtoan Biurri* izena ikas-lagunei aztu zitzairen. Ogei urteko gazte egokia genduan. Oso gizartekoa. Abeslari ederra. Iparragirre'renak ia geienak buruz zekizkian. Bertsolari izan ba'zan, plaza-gizona gendukean.

Uda-oporrak eldu zitazkielarik, Irun-Ondarribi-Oiartzun'go ikasleak elkarrru zitazkigun eta beiñolako. Gaiona-goterkikoak izan zirala-ta, iri artara agertutxoa egin bearr zutela erabaki zuten. Muga izeneko atakan beldurr gabe ibili zitezeen Ixtoan'en laguntza besterik ez zuten. Zilarrez erosi zuten soroz-

keta ederraren babesa gertatu zitzaieela oldez aitortuko zizuten. Arek garbi esan zien:

—Dakizutenez, neroni muga-mugako umea nauzute. Begiak itxita ere, gau ilunean bezela bidetxiurr birurrienean gaur arte beintzat ez nauk galdu izan. Orobat ilargi gabe eta lañorik lodienez ertza belz-beltz degularik.

—Ortarakoa aizela sinisten diagu. Ezik erantzunkizun garra-tza arrtzen dekela Guztiek gotzon zaindari bana diagu. Esku onetan gaudenik ezin ukatu.

Orrela, lenengo egunetan oskorri-oskorrian abitu oi ziran. Txandarmeak ordurako lotaratuak izaten, eta aien kideko txapelokerrak ere atsedena naiago izaten. Bestalde, aldean isilekor ezer ez zeramaten: egunero beste lanik gabe ibiltzen zaizkizunak ere, beldurra geiago izaten. Euskera besterik ezpañetan ez, eta usmo txarrik iñork ez zezaken egin. Baiona'ra oñez ioan bearr zutela... orixe! gazteak izan!! Ziburu'n amaiketakorik oparoena arrtu zuten. Ain zuzen ere, salda begiduna pil-pil zutenen etxera sarrru ziran... Gauerako Biarritz'era, eta Arrangoitz'en adiskidea zai zuten.Ua loaren ederra, adiskidea berri asko iakin naieko. Ixtoan'ek:

—Lerr-eginda gatzela ba-dakusak. Izketa luzeak beste baterako utzi ditzagun. Bakarrik, bakoitzaren zertzeladak entzun itzak. Ona emen iru oiartzuarr: mutil mardulak, gañera. I, Etxenike, isila urratuz lenbizi asi adi:

—Etxenike abizena nondik ote-degun iakin naiez sarri ibiltzen nauk. Esango didanik ezin aurrkittu. Neroni zortzi senidetan bigarrena. Aita perratzailea. Urte guztian ia egunero lana izaten ziguk. Batez ere burnia gezatzen oso ederrki zekik, eta idiei ipintzen dizkien perrak luzaro irauten. Gero, berriz, berriketalarari asko biltzen aren etxean. Aldamenean sargarrdotegia: bertsolari-naiekoak asten diranean ainbiribil ez diran zorrtzi-koak ere entzun oi dizkiagu. Ala ere, arian-arian batzuk poliki ikasten.

—Ezer ez al zaik gogoratzen?

—Entzundakoan bertan orrian ezarrtzen ez dedalarik, go-goan ezer gutxi gelditzen zaidak. Eta, bildu izan dedan guztia etxean diat...

—Ni, Alkain'dar Martin: etxeko guztiak elkarrekin bilduz aureskua ateratzeko aña gu, eta amona ez genikek azkenekoa izango.

—Ni, Aranburu: antxe ibarr ederraren guenean nere iaioete-txea. Oso toki aliekkoa neuzute. Txistuka asten naizenean, beste egaztiei birigarroa naizela iduritzen, eta guztiak neregana bil-tzen dizkiat.

—Orain, Irun'goak asi gaitezen. Neroni Ixtoan. Loitzun'en, Miarritz'en eta Baiona'n bertan ainbeste aldiz gertatua. Batek baño geiagok uste izaten zidatek, okerra maitetxo ote-dedan. Bañan, ez! Egunero estea bete-bearrak eragiten didana okerra danik ez diat uste. Orrela, lotsagabe-xamarr mintzo ba'naiz, ez zazkidate arrittu. Okerra, okerra dalako maite ba'nu, orain ez niñukek emen izango.

—Ni, Izeta Imanol: nere gurasoak ezkontzaz Irun'era eto-rriak. Iatorriz Iruritarrak eta gure euskera iñon dan eztieta. Esan ere, auzo ontan alaxe esaten zitutek.

—Ni Martikorena Iban: iaioetetxea Ondarrabi'ko muga-mu-gan. Zortzi bei, lau idi, bi asto eta beorra ere antxe dizkiagu. Beorrari irrintzika neronek irabazten ziot.

—Ni Etxepare Mikel: aita mikelete sarrru zitzaigun eta gaz-terik il: ama sei aurrekin alargun gelditu zitzaiguen. Gosea zer dan ederrki ikasia nauzute.

Ondarribitarrak atzenerako. Baiñan ez zaizkigu asarretuko:

—Ni, Berrotaran Martin. Arrittuko al zazkidate? Antxe, Ar-gentina'n Cordoba Lurreko alderdian izen bereko erria omen ditek.

—Ni, Sagarratzazu Serapin: abizen bereko olerkari iaioa ba-degu. Neronek, ordea, besterenak oiukatzeko gaitasunik ez. Erriko jaietan, Irailean izaten ditugun ospaketak ikusten izan al zerate?

—Ni Oiarrabal darr Nemesi: bi urte nitunean guraso gabe gelditua. Izeba zarrena, berriz anka-motza. Alegia, 1913-garre-neko uztailean *satorra* izeneko tximist-gurdiaren elkarr-muturr-katzean min arrotutakoa.

Orain amarrok erestaldia asmatuko diagu: ain maite arrtu gaituk eta eskerr-ona adirazteko egoki etorriko zaiguk. Len-bizi Borthian auzki, eta berialaxe au:

Txoriñuak kaloian,
Trixterik du kantatzen.
Dialarik an, zer ian zer edan,
Basua desiratzen:
Zeren? Zeren? Libertadia zeñen ederr den!

Orain beste auek: Anton Aizkorri; Goiko Mendian; Baxtixa Bazterretxe; Iztueta'ren Kontxexi; Iruten ari nuzu eta bukatzeko Boga, Boga!! Eta azkarr-azkarr lotara. Biar goizean Baiona'ra. Ikastegunetan eserita oiñak txingurritzeraño antxe agoten gaituk, eta orain anak luzatu apurrtxo bederen.

Bazterretan zer gertatzen dan iakitearren Baiona'n eguneroko izparrigia erosi zuten. Irakurrle Ixtoan bakarrik:

—Au dek au!!

—Zertaz larritzen aiz?

—Berri makurra.

—Oi-ezeko zerbait gabe eguneroko izparringiak ezin saldurik ibiltzen zaizkiguk.

—Erosi genduenean, azkeneko alea zuela esan ziguk. Beste egunetan iluntzean ere lau edo bost ieki izaten dituela saldu gabe.

—Zer makurr eta zer makurr-oste. Nekearen-nekeak eta ilengo gau oietako lo-ezak begiak gorri-gorritu dizkik. Zer irakurtzen deken ere bai al dakit?

—España'n, gudarozte-nagusietakoak ieiki dirala. Irun'en eta Beobi'n, baita beste atetxo guztiak ere itxi dizkigutela. Ikusitekoak ikusteko gatxeudak.

—Alkain onek etxeokokin aureskua ateratzen lanik ez dedala izango esango dikek. Adiñean ditudan anaiei deituko zitek, eta Solferino'ko itsu berriak geituko zaizkiguk. Seguru ñbaño segurugo.

—Martikorena onek beste zerbaitez kezka gindezkela esango nitek. Ikasleok unerik estuenean aurrkittuko gaituk. Ikaste-txeak itxiko zizkigutek eta gure ariketa garrantzitsuak non iarraitu?

—Ixtoan'ek ere ametsak egiten iakin, eta gure ikasketak Baiona'n iarra genezazkela uste. Alako tokikoak gaituk eta iri ontan gotzai iauna'ri baimena eskatu, eta bere babesean arr gaitzala. Iaun aundi orrengana gerok ioango al gaituk? Ondoren Arek baimena emango ligukela-ta, geron gurasoei ere gero-na asmoak adirazi bearr. Nondik-nora gabiltzan ez zekitek.

—Beintzat, iñora gudu-mutiltzan ez gaitzatela eraman: zion, Aranburu'k.

—Aginte-zigorra maitetxo duten gudu-nagusi oriek «Así bai eta bukatu ez» egingo ditek. Mendean dituzten amaren seme-rik ederrenak, berenak al dizkitek?

Ixtoan'ek Baiona'n tokia aurrez aukeratua zuen, eta arratsalde erdian antxe genitun atean izketan:

—Etxeko nagusi! Gu emen zortzi gizaseme gazte auntza adarr eta guzti iateko gosez.

—Ongi etorri! Arratsaldekorik arrtu gabe zaituztet, antza! Aurrera eta maiean eseri zaitetze. Euskaldunak oi dutenez ogia, gazta eta ardoa arrtu. Apari oparoagoa geroxeago. Sukaldelariak lanean asi gabe ditugu.

—Eskarrikasko!

—Guztiok zurbil eta min-zuri bezela zaituztet. Zer gertatzen zaizue?

* * *

Egaztiek ekaitzaren ots-izua txit urrutitik nabaitzen, eta Baiona'ko ollarrak beldurrez genituen, agian. Irian kukurruku-ots bat ez entzuten eta Iñaki'ren amets ilunak geroz eta zakarrago. Bai gau luzea!! «Gure aurraren aurr ona, balio luke Baiona...» zetorkion gogora. Bañan, ango etxe apañetako aberaskizunak estalirik zeuden. Begiek pozteko añean nonbait zerbait aurkittu-

ko zebilela zirudian. Bañan, zilarr-pillak zertarako zituzkean? Asarrea eta lipizta zorrozteko, ala?

Noizpateko batean egunaren zantzoa agertu zitzaion, eta gotzai Iaunaren iauregi ederraren aurrean gelditu zitzaigun. Bertantxe eta larriaren-larriz gotzai-atean deika asiko al zan? Lotsik ez izatea iduritzen zitzaion. Txadon aundiko atea orduantxe zabaldu zituzten, eta barrura sartu zan. Belauniko eta buruan irudipenak marmarrean: bañan ezpañetara ezer ezin iritxi: ziyatu egiten zitzaizkion. Ua lana. Bizitzak olako une garratzak izan zezazkenik ere, len beintzat ez zitzaion iduritzen. Eskean ere aztu zitzaiola esan zezakean, iya.

Geroxeago, ordea, otoitza bero irteten zitzaion: izan ere, uaxe zan ezbearraren-ezbearra. Guk euskaldunok, zertan sarturik ez izan, eta indarrean surtara eramango gaituztela. Izerdi otzez soñña dardarka asi zitzaion, eta norbaitek sorbaldan ikuttu zuen. Eta Iñaki'k:

—Egun on!, Azkarraga iauna! Emengo aldi, ala?

—Eta ik emen zer egiten dek?

—Iri ontan nor naizen dakitenak ba-ditut, eta aietakoren bat aurkitzea nai.

—Onera etorriko al zaizkik? Zer eskatu bearr diek?

—Emengo Gotzai iauna ikustera eraman nazaten nai nuke.

—Orren buruaundi itzanik ez nian uste. Ez zeukak Gotzai iaunak, irekin berriketan aritzea beste zer-egiñik. Zer uste dek?

—Don Emeterio: ez al dakizu ezer?

—Zerk izutzen au?

—Emengo izparringiek diotenez, beste aioka ortan guduza-lek piztu egin dirala. Ez dakigu zer naiko duten.

—Lendik zerbaiten usmoa ba-nian. Atzoko izparringirik ez diat ikusi. Bestalde onera etorri ba'naiz, emengo euskaldunak zer dioten iakiteko asmoz nabillek. Ik esan dittuken oriek nas-pila sorrteko zebiltzala ba-nekiken. Guretzat egun gogaikarriak

zetozek. Noskiago. Zuek ikasleok ez zekiak larri izango ote-zeratenentz.

—Orain emen ez naiz bakarrik. Amarr apaiz gai gazte bildu ditut. Eta lotan ere asma nitzazken bidetxiurretan aurrera beti... Atzo berria iakin gendunean, erabaki auxe arrtu guk: Baiona'ko Gotzai iaunari babesean arr gaitzala eskatzea.

—Goiz ontan orrtara al etorren?

—Zuzen-zuzenean.

—Izenak ikaizkidak eta eskea Gotzai Lunari neronek egingo zioat.

—Emengoen pantzera izkuntza ez galtzeko añean ba-dakik, ikaslagunak ere euskaldunak izango ditugu. Beldurrez ibilienik ez degu izango.

—Dana dala. Oraindik garai diagu. Zeron gurasoengana zoazte eta oien baitzik gabe ikasketen iarraian ezin asiko zerate.

—Don Emeterio; Zu guretzat!! Gure aldekorik emen beste ñor ez al digu ikusi?

—Batzuk bai. Oriek ere zerbaiten usaia izan ditek, eta emen zebiltzak aterpea billa bearr dutela. Zer gertatu ere, aurrez esnatzea ez dutela txarra izango.

—Beraz... elkarren berri iakingo degula?

—Al dedana biotz-biotzez eta pozik auundinaz egingo dizuet.

* * *

Arin bezin arin Ixtoan arazoan buruz aurrera sarrru zitzaigun. Lapurdi aldera ioan nai zutenak erruz... eta, alakoxe beldurrez ere bai.

Aitak Ixtoan'i esaten:

—Seme! Aurreratxo sarrru ote-aizen iruditzen zaidak.

—Aita! Ez al dezu ikusten? Ainbeste errukarri!! Il-agiñetik ozta-ozta iesi...

—Alaxen dek. Bañan, ire buruari ere so-egin bearr diok.

—Baiona'ko iaun batek, parentzetarr agiria eskuratu dit. Alegia, orain bi semetzakoa egin dezaket: parentzetarrena bai eta españatarrena orobat. Orrela, emengo txapelokerrei *angoa* naizela erakutsi dezaieket: Lapurdi eta iparreki euskalerrri osoan, iaioletzez dedan agiria erakutsiko: zure seme iatorra naizela.

—Beraz, beti gezurretan ibili bearrean aut. Orrek ez zidak poz aundirik ematen.

—Orr ez dago gezurrik. Askotan onerako izango zaidala iduritzen zait.

Eta, gezurretan abillela ikasten ditekenean, zer?

—Ango agiria darabildanean, emengoa lurrpean izkutatuko det. Emengoa nerekin dedanean, angoa garia gordetzeko degun lapikoan sarrituko.

—Goi-Goiko Aita Gurena, irekin dedin opa-diat.

Ondoren, berriz, aldioro bidetxiurr berrietatik ibiltzen zan: aruntzakoan estu-estutik ioaten zanean, onuntzarakoan agiri zabalagotik itzuli. Beti ere belarriak erbi zarrak baño erneago. Ortarako kurpil biko tartarra erabiltzeko orriak ere eskuratu zituen: alegia motozikleta erosi zuela. Beraz, aukera zuenean eta utsik ibili bearr zuenean kurpil biko ortan Endaia'ra: irte-terakoan zaintzalliei agurr beroak eta esakera tximenak eta naiz ikusten zitunei txokorrek ere ba-zemazkien. Oso izkutuan! Endaia'n sarrtzerakoan, geienetan euskaldun txandarmeak aurrkitzen zituen, eta aiek ondo zekiten izkuntza mintzatuz, kerr-beldurrik ez.

Bein neskatz euskal-zale aundiak auxe esan zion:

—Zure emazte-gai ba'nintza bezela tartarren Loitzun'era eram-
man bearr nauzu. Etxeko guztiak oraintxe zortzi egun aruntza
arixiak ditugu, eta ni bakarrik emen beti Ravel Maurice'n Bo-
llero-dantza ezin ikasiz.

—Bañan, ez nauzu salatu bearr. Apaiz-gai naiz eta nagusiek
iakiten ba'didate lan txarrak etorriko zaizkit.

—Apaiz-gai zerala, urkoa maitezatea ez dezula beraz, aizu?

—Ez det ori esan nai. Baizik alperrikako zabalkunderik ez dezula egin bearr.

—Ulertzen dizut, eta beste baterako ere eskuak garbi gelditzen zaizkizu, eta bularr-barrua lasai.

* * *

Naparrak beti aurrera egiten zuten, eta Irun ere arрту zuten. Gudumutilzan zebiltzanak Ixtoan nor zan ez iakin, eta agiriak ikusten zizkiotenean ezer ez esaten. Eta txandarmeak eskupekoak oldez arrtzen ba'zizkioten, gose aundiko naparrak oraindik are nai. Nolabait eskuetarutzen zitzaizkion txanponak, aientzat zerbait erosteko aña ere ez zituen izaten.

Ibili orietan Ixtoan'ek gizona zer dan ederrkitxo ikasi zigun. Alegia gizona beti bizi-maitea degula. Bai orixe! Biziari eustea-gatik zer ez-ote degu egingo? Larri-larri danean iaunik ospetsuena ere ezti-ezti iartzen zaigu. Nolabait beintzat etsaiei ies-egin eta goseak izango ba'da ere bizi izaten iarraitu.

Ixtoan'ez lagundurik Lapurdiratuak zenbait ote-ziran? Gure apaizgaiak ber-berak ere ez zekian.

Geroenean, etxian sartzeko garaia etorri zitzaion eta tartarlari alai apaizgaitegian ikasi eta ikasi. Eskupekoak arrtzen oitu ziran aiek mutilik ez ikustean arriturik genituen: eta, egun batez aren iaioletxera galdezko bikoa agertu:

—Semea non dezute?

—Irten-bearr estua izan digu.

—Nora, ordea?

—Apaiz-gai degunez, beti ezin atzera eta aurea ibili. Sarritan ziba ote-degun iduritzen zaigu.

—Apaizetarako zebilenik batetxo ez genekian.

Urteartako Eguerriz ere atzera eta aurea eten-gabe ibili zitzaigun. Noski beiñolako Ixtoan'en adiskideak pozik ziran.

Gero zer izango zan adiraztearren bezela, iristen zan toki guztietan alaitasun eta ongiak zabaltzen zizkigun. Ikastegun bitarteko oporrak, al zuen guztian, aruntza-onuntzetan ematen zituen: adiskideak geituz: egoaldetik ies-egindako asko ikertuz eta beroien berriak guraso zarrei eskeiñiz. Zer esanik ez, eta bere astotxo tartar ezin utzi. Bai lagun zintzoa egokitu zitzaio-la. Txandarme eta mugazain guztiak esaten zioten:

—Gizona! Gizona! Beti, erosi-berri-berri batean zabiltzala esango genizuke.

Ez, ba!! Ikastegunetan atsedendaldi izaten dit. Gañera koipez eta guriñez ere iurtzi oi det. Maiterik kuttunenari baño laztan geiago egiten dizkiot.

—Ortan, esku ona adirazten diguzu.

Urteen ioanean eta garai egokian apaizgora ere arrtu zuten. Gorago esandako amarr aietatik, Ixtoan'ekin lau lagun opamaira iritxi ziran. Eta Ixtoan'en umetako adiskide aundi Egino'ri ots-egin: azkoitiarr Gotzai iaun apalaren poza bai aundia izan zala. Egun zoragarriaren oroiz, Egino iaunak bere morroixoa elkarrekin bizi zitezen eraman zuan. Alegia, beste ifongo gotzaitegira ez zala ioango. Ala ere, iaotetxera txango luzeak egiten zituen. Lapurdi'n gipuzkoarr asko babesean bizi zirala eta aiek beti zerbaiten laguntza nai zutela. Lanak eta ezintxoak ere sorrtu zitazkion: bearrak beti geiago eta txanponak non-baitetik atera nai.

Ontan Baiona'n gurpilbiko tartar saltzalle batengana urbil-
du zan: obeto esan: saltzalleak Istoan'en buru argia eta lanera-
lko era txukunak uxtiatu nai.

—Bañan, Iturbe iauna! Nere lanetik atekin aundirik ez dezu aterako.

—Ori, geroak esango ziguk.

—Zureztat etorrkizuna beti urre...

—Len ere parantzetarr biztanle agiria neronek iritxi niken.
¿Gogoratzen al aiz?

—Ederrkitxo etorri ez ba'zait, gero!!!

—Astotxo polittean etorri al aiz?

—Bai! Oraindik ere berri-berria dirudi. Nere ibilietan salazalle nituzken oriek ere alaxe esaten didate. Arrittuta dauzkat.

—Eskuzabala aiz-ta. Ire tartar ori, giltzapean estu, toki izkuan sarrru zak. Zenbakia eta baimenak ekarri onera.

—Zertarako dituzu?

—Berriketa gutxi eta isilik ibili.

—Euskaldunok ortantxe gaituzu mutil!!

—Egile ber-beraren tartarr berriari zenbakia eta beste egoki zaizkionak erantsiko zizkiogu eta Bilbo'ra eramango dek. Esango dikadan etxera. Ondoren andik zortzi egunera, ire iaiotetxetik barrena, zenbakia eta beste puskatxoak ekarri itzak eta beste tartar berri bati ezarriko zizkiogu. Berriz ere Bilbo'ra... Ire berri ba-zekitek eta eragozpenik ez dek izango.

—Neroni ere alaxe iduritzen zait.

* * *

Nork esango?

Ixtoan'ek bai buru argia, eta ala bearr ere.

Txandarme eta mugazainak aldatzen dituztela, eta Ixtoan'i asmaketa berriak ondu bearrko zituela iduritzen zitzaion.

Baiona'ko Iturbe'k asko irabazten, eta orrtaz kezka geiegi-rik ez zezala izan iardetsi zion.

Ezeren okerrrik gabe, ogei taka tartar Bilbo'ra sarrru zituen. Ontan, apaiz gaztearen alde ederra ontantxe genduan: ezergatik ez zitzaigula arrotzen. Bere aldarte onari ondo eusten zion eta bein ere ez galtzen.

Bein, beti bezela ba-zetorren okerrean ba'lebilen bezelaxe, apal-apal, eta txapelokerr batek Irun'go sarreran.

—Apaiz iauna! Asko ibiltzen zera. Agiriak atera zaizkida-zu... Eta sudurr-azpiko ile beltza bai beldurragarri erakusten zuela... Ondo dauzkazu. Bai bakarrik ibiltzekoa dezu eta alaxe zabilta, lendik, ere. Ezer ordaindu bearrik ez dezu.

—Eskerrak, beti nere Gotzon zaindariaekin nabilenari.

—Zer? Zer esan didazu?

—Nere Gotzon Zaindaria beti nerekin izaten dedala.

—Baimena batentzat izan, eta bi ibiltzen zeratela? Zigorra eroriko zaizu. Ona txartel au, eta ortxe dezu izuna non ordaindua bear dezun. Bi zabilzatenaren aitorra zerorrek egin didazu...

ETXEBERRIA'TARR P. S.J.

Ilo-Ilo 1983.III.16

ADABAKIAK

—Apariz iaunak! Askok idulitzen zuten Agirik ataza zaitzidela. Eta sudur-azpiko ile beltza bai belaturgari erakusten zidela. Ondo dagoela. Bai barkante dituzteion dena eta elaxez ziduzte jendek, erretzen dituzte. Erretzen dituzte. Erretzen dituzte.

—Eskozak beti nare Gotxon zaindaria izan zidela. —Zer? Zer esan didazu? —Zer? Zer esan didazu?

—Nere Gotxon Zaindaria beti nerekin izan zidela. —Baina patentat izan eta bi idulitzen zaitela? Nigori eroriko zaitu. Onda txartel-are eta ortze dena izana non ordaindua beart dezun. Bi xabilzatenaren aitorre zerorrek egin zidazte. Eta akitzen jarri zidate. Erretzen dituzte. Erretzen dituzte.

—Egile berriak erantsi zidate eta ugokizko erantsi zidate. —Egile berriak erantsi zidate eta ugokizko erantsi zidate. —Egile berriak erantsi zidate eta ugokizko erantsi zidate. —Egile berriak erantsi zidate eta ugokizko erantsi zidate.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

—Neroni ere elaxez idulitzen zait. —Neroni ere elaxez idulitzen zait.

VASCONGADO.—Euskara plazaratuko bada «vascongado»-en beharra dugu, zenbaitentzat gezurra badirudi ere.

Maizegi edo geroago eta maizago ezabiltzen da euskaldunen artean «vascongado» (inoiz «baskongado» idatziz) mespretsuki, erdizkako euskaldun edo *aberriano* kutsuko «euzkotarra»-ren berdintsura parekaturik, edo gauza berdina balitz bezala. Baina irakurleak jakin beza Erdi-Arotik gure egunok arte «romanizado» eta «castellanizado» ez zenarentzat erabilia zela. Beraz, erdaldundu gabe zen euskalkin jatorrarentzat erabilia da «vascongado» izena. Vascongado = euskaldun, hori da bere zentzua.

Izen hori, euskalduna gutietan nahirik ere erabilia da, baina bere funtsean, erdaldunak euskalkinaz (euskara-dunci; hau da, euskaraz mintzatzen) mintzatzen diren herriak.

ADABAKIAK

Herri bakoitzak bere historia du, eta abertzale den edonork zerbait jakin behar du bere herriaren historiaz, edo gutienik ere historiaz zerbait dakitenei entzuten, maite duten herriarekin zentzuz jokatu nahi baldin badute. Esloganak eta esaldi luzeak barreiatzeak, ez dago dudarik, bere indarra dute, onerarako edo txarrerako. Eta, inoiz, ondo egin beharrez kalte egin gabe. Hori da arken aldi hontan zenbaiten partetik «vascongado» izenez jazotzen zaiguna ere, erabilerara bere senetik ateratzen on baino kalte gehiago egiteko eraz azaldu.

Ustekebez aldatze horrek ez ote digu euskaldunoi, eta bereziki euskaltzaleoi, kalte egiten? Zeren, «vascongado» euskaldunak erdaldunegandik bereizteko izenlagun kalifikatzailea da. Eta, «romanizado» edo «castellanizado» jirralakoek euskaldunentzat ezabiltzen duten adjeriboa denaz Euskal Herri guzira «vascongados» betz beharra dugu aberria euskaldunetako bereizteko.

ADABAKIAK

VASCONGADO.—Euskara plazaratuko bada «vascongado»-en beharra dugu, zenbaitentzat gezurra badirudi ere.

Maizegi edo geroago eta maizago erabiltzen da euskaldunon artean «vascongado» (inoiz «baskongado» idatziz) mespretsuki, erdizkako euskaldun edo *aberriano* kutsuko «euzkotarra»-ren berdintura parekatu-rik, edo gauza berdina balitz bezala. Baina, irakurleak jakin beza Erdi-Arotik gure egunok arte «romanzado» eta «castellanizado» ez zenarentzat erabilia dela. Beraz, erdaldundu gabe zen euskaldun jatorrarentzat erabilia da «vascongado» izena. Vascongado = euskaldun, hori du bere zentzua.

Izen hori, euskalduna gutietsi nahirik ere erabilia da, baina bere funtsean, erdaldunak euskaldunei (euskara-dunei; hau da, euskaraz mintzatzen zirenei) jarria da.

Herri bakoitzak bere historia du, eta abertzale den edonork zerbait jakin behar du bere herriaren historiaz, edo gutienik ere historiaz zerbait dakitenei entzuten, maite duten herriaren alde zentzuz jokatu nahi baldin badute. Esloganak eta esaldi hutsak barreiatzeak, ez dago dudarik, bere indarra dute, onerarako edo txarrerako. Eta, inoiz, ondo egin beharrez kalte egin genezake. Hori da azken aldi hontan zenbaiten partetik «vascongado» izenez jazotzen zaiguna ere, erabilkera bere senetik atereaz on baino kalte gehiago egiteko eraz azaldu.

Ustekabez aldatze horrek ez ote digu euskaldunoi, eta bereziki euskaltzaleoi, kalte egiten? Zeren, «vascongado» euskaldunok erdaldunegandik bereizteko izenlagun kalifikatzailea da. Eta, «romanzado» edo «castellanizado» direlakoek euskaldunontzat erabiltzen duten adjetiboa denez Euskal Herri guzian «vascongados» bete beharra dugu aberria euskaldunduko badugu.

* * *

MENDITAR BATEN KANTUA.—Duela urte bete auzi gogorra sortu zuten trikitilari eta kantaberri taldeek elkarren artean kanta zahar baten egile eskubideak zirela ta. Batzuk berena zala esaten zuten artean, besteak herri-kantatzat jotzen zuten, baina beraiek armonizatua. Sociedad de Autores-koek ordea, beti bezala, Pilatos-enak; eskuak garbitu eta kitto.

Kanta eta doinuen jabetasunez nork du aginpidea? Nork egin behar du nori berea emateko ikerketa? Zuzena al da kantak eta doinuak jotzaile eta interpretatzaileek bere izenera erregistratzea alde zuzenetik doinu eta letraren egileak nortsuk diren jakin gabe?

Trikitilari eta kantaberrikoen auzia «Menditar baten kantua»-ri buruzkoa zen, eta ez beste. Bi bertso hauekin hasten dena:

Urruti nere menditik

joan nintzan dirutu nahirik.

Urrutietan laster bihotza

nahigabez erdibiturik,

gelditu nintzan tristerik

bake santua galdurik.

Nere bihotza zegoen

Euskal Herrian pentsatzen:

egun guztian, gauaz orobat

beti zitzaidan oroitzen

zer gozo nintzan bizitzen

hautxo nintzanean hemen.

Gutziz hamar bertsoz osatzen da «Menditar baten kantua», eta bere egilea Karmelo Etxegarai zena. Zehaztasun gehiago emateko, esan beharrez gaude kanta horrek lehen saria irabazi zuela Urrietako Euskal Jaietan, 1886an. Urte berean Baionako La Maignère argitaletxeak azaldu zuen 27 zentimetroko orri batean, eta gero, urte berean, *Euskal Erria* aldizkariak, XV. tomoko 295-296 orrialdeetan.

Bakoitzari berea Jainkoan legea.

* * *

BAIGORRIKO BAXERAK.—Zeramikaz arduratzen den bantentzat bere garrantzia duen atsotitz bat bada Baigorri aldean, baxerak direnez medio. Oihenarten atsotitzetan agertzen da lehenik, baina guk gure zalantzak ditugu ondo jasoa ote denez.

Oihenarten *Atsotitzak eta neurritzak* liburua Larresororen edizioa baizik ez dugu eskuetan, 1971an Donostian argitaratua eta uste dugu zuzen jasoa ekarriko duela 66. atsotitza:

*Baigorrin baxera lurrez,
nik haragei nuenean urrez.*

Jean Elissalde «Zerbitzari»-ren bilduman, *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran-zahar* (1936) deritzaion hartan, 116. atsotitza bera dela dirudi, baiña zentzuz desberdina da:

*Baigorrin baxera urrez,
ni harat orduko lurrez.*

Honako era edo esan nahi hau ordea gipuzkoarren Urrutiko intxaurrak... bezalako da.

Oihenarten, lurrezko zena urrez bihurtzen du, eta Zerbitzariarenean alderantziz, urrezko zena lurrez. Beraz, bada diferentziarik.

Herria astekariaren zuzendari den Emile Larre baigorriarrai beste honako hauek jaso nizkion, Baigorri inguruetakoko populua erraten denez:

*Baigorrin baxerak urrez,
harat joan eta lurrez.*

Baina, baigorritarrek aldiz beste honako hau erabiltzen omen dute:

*Auzoan baxerak urrez,
harat joan eta lurrez.*

Zerbitzariren bildumakoaren zentzu berekoak dira horiek, atsotitz bezala, baina pluralez erabiltze horrek adibide zalan-tzagarri bat eskaintzen digu, baxera soilean nekezagoa deritzaguna, baxerakoa urrea beharrez lurra izatea edo baxerak heurak urrezkoak edo lurrezkoak. Zeramika zaleontzat hala baltitz hobe, zeramikagileen aztarna izan deitekeanez, baina zoritarrez bestera dela dirudi: ontzikoa eta ez ontzia.

* * *

LAPITZAREN ARAUAK?—Nork pentsa zezakean holakorik ikusterik eta irakurtzerik? Ba, *Argia* aldizkariaren 980. zenbakiaren 24. orrialdean honako hau irakurtzera iritsi ginen: «Haurrak ikusten duena lapitzaren arauera», J. L.-ek izenpetutako lan batean.

Baina, testu osoa irakurriz ohartu gara «lapitzaren bidez bere irudimenaren (edo irudimenezko) zentzua» edo holako zerbait esan nahi zuela.

Hortariko hutsak, egia esan, edonork noiznahi egiten ditugu, baina maisukeriz ari direnengandik ez genuen holakorik espero.

* * *

MANUELTXO.—Maiz entzuna dugu ijito jendeak eta Espainiako zenbait tokitan, bereziki hegoaldean, Jainkoari eta batez ere Jesus Haurrari, Manuel izena ematen diotela. Baina garai batean Euskal Herrian bertan ere hala ez ote? Adibidez, Bizkai-

-Gipuzkoa mugako herrietan, trumoi hotsa entzutean esan ohi da: «Han, goiko Manuel boletan». Baina Gipuzkoako Goierrri partean, oso ezaguna dugu Eguberrietako kanta hau:

*Artzai buru zuri bi
Antton eta Peru,
Belengo portalera
etorri zaizkigu;
sartu dira barrena
Manueltxo gana,
presente egin diote
arkumetxo bana.*

Bestalde, gure haurtzaroko Eibarren, Gabon inguruan kantatzen genuen beste hona hau:

*Astelena, martitzena,
eguztenian,
zozuak kantatzen dau
Manueltxonian.
Ogixa jan ta hil,
artua jan ta piztu,
biba Manuel, txistu!*

Guk zentzu guti aurkitzen genion, baina zerbait misteriotsu gordetzen zuelako edo gogozko zitzaigun Eguberrietan kalez kale edo non-nahi bertso hori errepikatzea.

Egia esan, zozo eta eper kanta, berriemaile bezala azaltzen dira eibartarron folklore zaharrean; zori oneko berri emaile gisa. «Zozuak kantatzen dau Arrate ballian...», eta «Eperrak kantatzen dau Arrate ballian...», esanaz hasten diren koplak lekuko. Ikus *Odon Apraizi Omenaldia* (1981) deritzan liburuko 336. orrialdean.

Zoriona, bere etimologiaren zentzuz, xori (txori) onetik datorrela dirudi. Honek bedonek ere erdarazko *pajaro de buen*

agero-rekin badu zer ikusirik. Gure herrian ohitura zaharrekoa da ezkongai bilatzeko Arrateko gurutzari hiru buelta ematea. Baina han bueltak eman eta begiak eta bihotza nora eroan ez dakitenentzat, erromeria egunetan maiz entzuten da panderojotzaileen ahoetatik koplak hura: «Eperrak kantatzen dau Arrate ballian, neskarik ederrena San Pedro aldian». Era hortara eskongaiaren bilaketaz adibiderik anitz bada gure folklore zahar hortan eta zenbait berri ematen da *Iker* — 2, Piarres Lafitte-ren omenezko liburuaren 854-857 orrialdeetan.



ETXEPAREN GARAICO POESIAK.—1980an, Patxi Altunak, *Linguae Vasconum Primitiae* (Edizio kritikoa) delako hartan, aintzin solasaren XX. orrialdean zion: «Etxeparek herria izan zuela bere zenbait bertsoen iturri». Eta ondorean jarraitzen zuen esanaz: «Beste puntu bat nahi nuke hemen hitz gutxiz agertu. Tradizio luze baten ondorengoa da, noski, gure poeta, ez batbatean sortu eta erpina jo duen bertsoegintza dotore eta bikainaren fruitua. Lehenagokorik ez dugu ezagutzen, baina izan zuen nahitaez. Horrelako poetarik eta batez ere horrelako bertsoegintzarik ez da sortzen, ezin daiteke sor goizetik gauera».

Azken urte hauetan euskararen ikerketak hartu duten abiadurari esker, Etxepare baino lehenagoko bertso idatzirik aurkitu ez bada ere, garai haietan bazirela euskaldun poetak erakusten digute Mondragoeko eresiak eta bestek, eta eritzi horren lagungarri datoz berriki egin diren aurkikuntzak. Hara hemen pare bat adibide:

Antonio Unzuetak Madrid-eko Biblioteca Nacional-ean aurkitu zuen Etxepareren garaiko Juan de Undiano nafar paderedo eremitak euskaraz jarritako *Miserere mei Deus* bertsoak. Lehenago Bernardo Estornés Lasak aipatu zituen *Fontes Lin-*

gua Vasconum-en 5. zenbakian, Goiñi Gaztambideren lan batean oinarriturik. Honek publikatu bai zuen «La vida eremitica en el Reino de Navarra» (*España Eremitica*. Actas de la VI Semana de Estudios Monásticos. Pamplona, 1970) deritzan lanean Obanos-ko Arnotegi ermitan pader zen Juan de Undiano eta bere lanen berri, 335. orrialdean euskarazko liburuxka aipatuz: «Un libro *Cancionero*, de mano, en vascuence», ondasunen inbentarioa egitean. XVI. mendearen erdi aldeko heme-retzi bertsoak osatzen dute. Aurkitzaileak *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 39. zenbakian (1982) argitaratu du sorta polit hori.

Baina, bestalde, 1554an Frantziako Tolosan inprimatutako liburuxka batean Nafarroako errege Henry Borbon-i zenbait hizkuntzaz eskainitako laudoriozko bertsoen artean euskarazkoa ere aurkitu da. Liburuxka horren ale bat British Museum-en gordetzen da, une berean jo dute Enrrike Knörr eta Jean Haritschelharren eskuetara eta elkarren berri jakin gabe, biek, *Iker-2*-rako lan bana prestatu zuten. Piarres Lafitteren omenezko liburuaren antolatzaileok, hori ikusteaz, jaun biokin mintzatu ginen eta bien artean hautatu zen Haritschelharrena argitaratzea.

Ez ginake batere harrituko besterik agertuko balitz ere, harrigarriagoa litzake eskuizkribu zaharretan besterik ez agertzea. Dena dela, guzi honek arrazoia ematen dio P. Altunaren usteari.

Etxeparen liburua baino zortzi urte lehenagokoa da Fr. Joan de Zumarragaren gutuna (ikus *Euskera*, XXVI, 5-14 orr.), baina hau hitz-lauz dago eta ezta poesiagintzaren exenplu haritzekoa, baina bai oraindik aurkikuntzak egingo direnaren adierazgarri.

* * *

BROUSSAIN APEZA?—Guztiok dakigu euskal literatura-
ren historian apaizik aski badela, Mitxelena *Historia de la Li-
teratura Vasca* (1960) liburuko 18. orrialdean agertzen zuen be-
zala, baina ez zenbaitzuk uste duten haina, obra beraren 33.
orrialdean aitortu zuenez (ikus 17. deia). Hara orain ere, urteak
igaroaren, ura bere bidetik. 1983ko uztailaren 10eko *Argia*
astekariak, 2. orrialdean, 1930eko *Eusker*a birargitaratzearen
aipamena egitean honako hau zion: «Broussain apaizaren iz-
kribuaz».

Baina, Broussain, izatekotaz ere, auzapez (alkate) izan zen
Hazpainen.

Azkenean, hori: Hemen ez dago kritika egiterik. Klaro
ba! Zeren, kritika egiteko ere burua eta erudizio apur bat behar
baitira. Buru hainbat aburu, baina aburu.

J. S. M.

Antonio Urcetari Madrideren Biblioteka Nazionalean aur-
kitu zuen Etxepareren garaiko Juno de Mediana nafar peder-
edo eremitar euskaraz jarritako *Miserere mei Deus* bertsoak.
Lehenago Berzalego *Evangelio* Lesak aipatu zituen *Novelas*...

AZKENEZ, HARA HEMEN, SUKALDARITZAKO HASTAPENAK EMATEN DIGUN PENA.—Edorta Agirrek argitaratu berria du *Sukaldaritzako hastapenak*. Sarrerako «Aurreproposamena edo» idaztean trunpatu da. Ez da harritzekoa, zeren «Aholkuren bat» en aintzitik datorrenez. Informaketa kaxkarra agertzeak ere ez gaitu harritzen, egilea bera zenez aldez aurretik informatu gabea. Edo, bestela, esan zaharrari lotuko natzaio: Lotsagabeak herria bere.

Hitz-joko arraroak egiten besteok ere aspaldi ikasi genuen eta delako egile, biltzaile, neurtzaile, ordenatzaile edo desordenatzailea aipatzen ez dakit bere mailara makurturik Edortaz edo «Edozertaz» ihardun behar dudan. Halakoa irten denez Edortaren torta. Liburuarekin zer ikusirik izan behar ez duen «Aurreproposamena edo» ez bait dakit zertara datorren, ez «Normalizazioa bai, hiztegi espezialduak ez...» esaldiak eta bere ondorengoak Euskaltzaindia saltsa hortan sartzez. Nik dakidanez, Euskaltzaindiak ez bai dio ez batari eta ez besteari ezetzik eman. Baina, liburuaren hitzaurrea irakurtzeaz, badirudi Edorta Agirrek badakiela euskaltzainok ez dakigun zerbait; ez dakiena, zera da, bere gaiaz euskaraz zer idatzi den. Argi dago gastronomia jakintzan erdal mundutik euskaldungotik baino hurbilago dabilela eta hitzaurre horren bidez, bere sukalde konpondu beharrean besterena konpontzen ari dela.

Txo: bakoitzak bereakin ere aski diagu.

Bere ustez, *Escualdun Cocinera* (1864) eta *Cocinan Icasteco liburua* (1889) dira euskaraz gai hortaz idatzi diren bakarrak: «Harez gero, jai». Bapo mutil; ederki! Jai? Bai noski hire mundu tipian, liburu horren bibliografiatxo hortan erakusten denez. Baina ez zen horrela izango euskarazko lanak irakurri balitu.

Euskaldunontzat, mahain ingurua, otortu onaren ondoren solaserako aukerakoa bada, baita ere jakite hegoez abiatu irakurketaren bidez jakituria hornitzeko ere. Baina, ageri denez, E. Agirrek lehenengoaz baizik ez daki.

Hemeretzigarren mendeko modak iragan eta gainditu zirenez, Euskaltzaindiak, erakundearen sorreran bertan eratu zuen lehen literatura saria sukaldaritzaz izan zen eta handik sortu eta argitaratu zen Julene Azpeitiaren *Osasuna, merketza eta yanaritz* (1920) deritzan liburua, E. Agirrerentzat sineskaitza bada ere, euskara hutsean idatzia eta Euskaltzaindiak berak argitaratua.

Txo: sinestu behar duk, zeren izena badik eta gure mitologian izena duen guztia omen zegok. Gainera, neronek begiz ikusi eta eskuz ikutua diat.

Egilea bera ote da bere burua hemeretzigarren mendean kokatua duena? A!, euskaldun gastronomiaz erdarazkoa haina baleki.

Txo: huts hori ez duk hirea bakarrik, baina hire hutsez errua besteen lepora ez bota.

Jakin beza Donostiako Gordailu argitaletxeak ere *Edariak* eta *Janariak* deritzaien liburuxkak argitaratu zituela 1975ean ikastoletako andereño eta maisuei hortaz zerbait irakatsi nahirik.

Txo: ordurako jaioa izango hintzen ba.

Baina, besteak beste, gai hortaz ezer esan genezake *Egan* aldizkari honen orrialdeetatik ere, gutienez hor zehar aurkitu dituen bitxikeri tipi hoietakoa lanaren haina. 1954tik 1976ra bitartean, hamazortzi urteren buruan, Antonio Arrue euskaltzain zenak «Jan-edanak» zeritzan saila etenik gabe eraman zuen. Behar bada, orainarte sukaldaritzaz euskaraz idatzi den lanik mamitsuena eta hoberena, bai ugaritasunez, bai jakiak maniatzez eta baita ere literaturaren aldetik. 1977ko abuztuaren batean Donostiako *Hoja del Lunes*-ean idatzi nuen artikulu bat Arrueren gastronomi lana adieraziz (gero, 1981ean, *Bidez* liburuen 234-238. orrialdeetan datorren ber-bera).

Ez harritu, irakurle, *Egan* aldizkari honen izenean eskerrik ematen ez badiogu. Zeren, Arrue zena, hortaz, bazen nor. Herbesteetan ere hitzaldiak emana zen. *Egan*-eko lan haiek, *Jan-edanak* izenburutzat daroan liburu batean argitaratuak dira 1979an. Lehen 212 orrialdeak euskaraz (*Egan*-en argitaratutakoak osatzen dutena hain zuzen) eta ondorengo 131 gazteleraz, herbesteetan emandako hitzaldiak dira gehienak, eta Gipuzkoako Aurrezki Kuntza Probintziala izan zuen argitaratzaile.

Txo: *Egan*-en, A. Arruek utzi zuen plaza hutsik zegok. Hire lanekin bete ahal bahuke, orrialde honen ateak idekirik zeudek. Lehengoengandik pizturik datorkigun zuzia gerokoeri eskaintzia bai duk kultur bideetatik herrigintzan jarraitzea. Gainerontzean, hitzaurre petral hori ezik (informaketaren garaian informatzeke egotearren edo), liburu ona duk, hirea euskal literaturaren alorretan hain bakana ez baduk ere, eta lan ona egingo huke gai horri jarraituz. Tokirik ez diagu ukatuko. Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu. Hire fruitu onen zain diagu *Egan* aldizkari hau.

LIBURUAK

J. S. M.

MAIATZ.—Hiru liburuak, edito per l'Association Helzig, M. J. O. de
Belgikon responsibile de subscritcion, Maza levard, Imp. Mueyde
(Herdoye) et Imprimerie (Belgikon) 45, Pontroyal karrakoa, 64100
Bacina. Tel. (59) 37855. 1. — Aldizkariak, 2. — Aldizkariak
73 — 83. eta martxo.

Egia da liburuak ez diren, ba bere tokiak Herbetotekak
eta honek bereziki, aldizkariak aldizkaria denon
eta hala da Maiatz. Aldizkariak, aldizkariak bereziki
bezan ongi etortzeko agurak eta aldizkariak zodik eta den
aldizkari zahar honen parteak, aldizkariak eta aldizkari den
aldizkari gasteak.

Pozgarria zaigu eta kalitatezko aldizkariak hasi agurak,
Sorketarako literaturgintza da helburu eta aldizkariak
suskara prentziatik baldin bada sorketarako sorketara
baldin du. Literatura baldin du hizkuntzak bere ukitzeak
erantzizkoena, eta horren beharra dugu eskaldetarako kalitate
behar bezala jantziak bagara. Berez, behin eta berri agur
kide zatorren Maiatz. Ongi etortzeko aldizkariak sorketarako
prentziatik, aldizkariak.

LIBURUAK

Hastapenak 1. Aldizkariak, aldizkariak bezala
igazko etselekin hasi eta Maiatzek jantziak berriz eta dituzte
aldizkariak. Hala ere, gure agurak eta aldizkariak, bere ukitzeak
hastapenak eskaldetarako genitoke. Bere asmo berriz prentziatik
baldin du aldizkariak aldizkariak, Aldizkari berriz honek
bere lehen aldizkariaren aldizkariak agurak aldizkariak eta
aldizkariak zer diren.

«Aldizkariak baldin, gurek aldizkariak, aldizkariak
aldizkariak aldizkariak. Gure literatura.

Literatura, zer da? Gure aldizkariak aldizkariak
ten bakarrik pona baldin baldin aldizkariak, aldizkariak
lana, aldizkariak eta aldizkariak, aldizkariak eta aldizkariak
aldizkariak, aldizkariak. Gurek aldizkariak aldizkariak.

Literatura gurek. Ez gurek hiltzen, aldizkariak
aldizkariak eta aldizkariak, aldizkariak aldizkariak.

2. Aldizkariak aldizkariak.

MAIATZ.—Hiru hilabetekaria. Edité par l'Association *Maiatz*. M. J. C. de Balichon responsable de publication. Maya bovard. Imp. Mugalde (Hendaye) et Impriminute (Bayonne). 15, Pontrique karrikan. 64100 Baiona. Tel. (59) 59 86 33. 1 — 1982.ko otsaila. 2 — 82.ko agorrila. 3 — 83. eko martxoa.

Egan-eko liburuen sailean merezi du bere tokia Hemeroteka gai honek, bereziki euskarazko literatur aldizkaria denean eta hala da *Maiatz*. Tokia ez ezik, gure zorionik beroenakin batean ongi etorrizko agurra ere bai literaturaz soilik ari den aldizkari zahar honen partetik igazko udaberriz sortzen den aldizkari gazteari.

Pozgarria zaigu euskal literaturazko aldizkari hau agurtzea. Sorketazko literaturgintza du helburu eta gaur egun ezerk euskaraz premiarik baldin badu sorketazko literatura horret bai du. Literatura bai du hizkuntzak bere ondasunetarik garrantzizkoena, eta horren beharra dugu euskaldunok kulturaz behar bezala jantziko bagara. Beraz, behin eta berriz agur anai-kide zatozen *Maiatz*. Ongi etorri euskara idatziaren sorketazko eremuetara, zure premiarik badugu eta.

Hastapenak beti dira nekezak eta hiru hilabetekari bezala igazko otsailean hasi zen *Maiatz*-ek hiru zenbaki baizik ez ditu argitaratu. Hala ere, gure agurrarekin batean, bere ahaleginean jarraitzea eskatuko genioke. Bere asmo horien premia handia bai du euskaldungoaren esperantzak. Aldizkari berri honek bere lehen zenbakiaren atarikoan agertu zituen bere asmo eta helburuak zer diren:

«Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, denetarik, euskaraz, lantuak. Gure literatura.

Literatura, zertarako? Gure sendimenduak ez dituen bakarrik pasa bainan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan.

Literatura guretako. Ez gauza hil batzu, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez bete erakustokietarakoak.

Literatura bizirako».

Azalpen horrek argi jartzen du *Maiatz*-en egitekoa zer den. Guk, epe luzeko iraupena opa diogu. Gaztetasunik etzaio falta, baina gure egungo egoeran gazte kemena bakarrik ez da aski, lana ere behar da, bereziki buru lana. Hortarakotz, *Maiatz*, zahar eta gazteen lumaz baliatzen da. Gazteak badu zer ikasi, Zaharrak badu zer erakutsi. Biek, esku esku eta buruz buru osatzen dute gure herriaren hizkuntza, euskaldungoa, eta lehen zenbakiaren idazle andana honako hauek osatzen dute: Etien Salaberri, Itxaro Borda, Auxtin Zamora, Beltza, Eñaut Etxamendi, Mayi Pelot, Lucien Etxezaharreta, Manex Pagola, Manex Erdozaintzi-Etxart, Aurelia Arkotxa, Txomin Peillen, Ladix Arrosagarai, Jon Cazenave, Jean-Louis Davant eta Daniel Landart idazleek. J. Prevert Marek Halter eta Xavier Grall-en itzulpenak ere badakarzki.

Badu lan bizi eta garrantzitsurik, baina hemen ez gara sartuko xehetasunetan. Aldizkariak berez dituzten beren gora-beherak eta iraupenean beren ahalegina jar dezatela eskatuko genioke ezer eskatzekotan. Luma ederrik bildu dute beren orri-aldeetara eta horrek ziurtatzen du lanen kalitatea. Lehengo izeneri, geroko 2 eta 3 zenbakietan beste honako hauek gehitu behar zaizkie: Mari Amestoy, Mikel Hiribarren, Piarres Xarriton, Pantxoia Etxegoin, Beñat Bidegorri, Beñat Oihartzabal, Mikel Dupak, Piarres Duny-Petre (Piarres Hegitza izen ordez ere agertzen da), Zigor, Txipi Arbelbide, Xan Igos ta Mikel Duvert.

Lehenengotik hasita kalitatez gora joan dela esango genuke. Ezeren faltarik baldin badu, harpidetza eta laguntzarena. Euskaldungoarentzako hor-dagoa jo du, eta laudorioak baino bizitza bera maiteago baldin badugu enbidia ere izanen du.

Sorketazko literatura beharrezkoa dugu eta gure ahaleginak eta inguruko euskaltzaleen laguntzak beharrezkoak ditugu. Gure aberriak, bere nortasunerako, bandera gutiago eta euskara behiago behar du. Hortarakotz errepika dezagun Etxeparerekin: Euskaldun den gizon orok altxa beza buruia.

J. S. M.

Fernando Artolak, autobiografiazko aurkezpenez hasten du, sarrera gisa, *Bakoitzak berea* deritzan obra, hitz-lauz edo hitz-laxoz datorren lehen tomoa. Nor den adierazteko asmoz, nolakoa den besteen baitara utziaz. Liburu alaia gehienbat, inoiz kontakizun tristerik biltzen badu ere. Bere bizitzaren zertzeladak agertze hortan ere, humoretsu dator, idazlanaren jarraipenean maizenik agertzen den bezala.

«Urratsak» deritzan saila, euskal doinu eta dantzen arabeko irudietan oinarriturik, Manuel Lekuonaren Aureskuz hasten da eta Martin Iturberen Atzeskuz bukatu. Bitartean Bordariren ipui dantza dakar: Erreberentzia, Kaxarranka, Zortzikoa, Espatadantza, Ariñ-ariñ eta Fandangoa. Sail guziak du gaiarekin edo doinu motaren erritmoarekin zer ikusirik. Idazkeraz ordea, nork ager Lekuonak berak baino hobeto: «Estilo arin, irudimen bizi, txirrixtalaria, alde batetik; baiñan baita kontraste garratz-zalea ere bestetik. Artea —Izti-arte— bere barrunbean sakonki sentitu izan bait du beti. Besterenik irakurri ere egin bide du, baiñan bere izaera jatorrik, bere estilorik galdu gabe. Maite izan du beti Erretaulika-apur, Erretaulikaren itz-joku bitxia; baiñan bere ametsik aundiena bezela, estiloaren barrengo muña maite izan du batez ere. Eta orrela, Artearen kurpil ederra ederki du osotu».

Baliapen horiek gogoan izan behar ditugu liburu osoaren zehar. Baina baita ere bere ikuspegi eta oharmenaren doain bereziak ere, Atzeskuan Iturbek gogoratuko digun bezala: «Asko ikusitako gizona, asko bizitutako gizona. Inguruan gertatzen diranetatik ezer ez du zokorako. Ezur-mamiak alkarri josiak dauden bezelaxe daramazki Bordarik bere eta bere erriko ametsak».

Bai. Fernandori ez zaio gertatzen beste norbaitegatik eibartar adiskide batek maiz esaten zuena: asko ibiliak diren batzuk, harropuztasuna ugari, baina jakinduria guti; ibili bai, asko ibili, baina itsasontzian aingura bezala, asko ibili eta ezer ikusi ez. Zeren, mundu hontan badira, gezurra badirudi ere, burua txapela erabiltzeko dela uste dutenak.

«Kukuxo» deritzan partea da liburuko bigarren sail handia. Antonio Maria Labayenen hitzaurrez dator, erudizio gisa. Kukuso edo arkakusoen bidez edo beren ibileraz, gizonarengan gerta ditzazkeen gora-behera guztiak ez ezik bere barrukotasuna ere lotsagarri uzteaz eta kukusuen erakundeen antolakizunez irrialdi ederra eskaintzen digu kapitulu hortan.

Baina «Ipui eskutada» sailean ere bada holako humorerik. Euskararentzat hain urte larriak eta ilunak ziren garaian egiten genituen erdi-isilkako bilera haietan, biltzarkideen erdiak baino gehiago beti eliz-gizonak zirenez, amaika aldiz eskatzen genion Bordariri kontu ezala «Lokarria gora ta lokarria bera» zeritzan ipui polita edo «Bada, bada, bada», biak predikuetan oinarrituak. Broma polita iduritzen zitzaigun, baina parrerik gehien egiten zutenak apezak ziren eta «Lokarria...»renagatik fraide karmeldarrak. Eta, hortik zetorren guretzat desiluzioa, haiek ez amorraraztetik. Egia esan, ondo pentsatzen badugu, Bordarik beti, bere idazkieri, hain lotura berezia ematen dakienez, inor iraindu gabe agertzen ditu adarjotzerik handienak ere. Holakoa bait da bere lumatik lortzen duen artea. Kontalari trebea benetan.

«Kontu ondarrak» deritzaion sailekoak ere badute era hortakorik. Baina, haiek berekiko asmamenetik ekarriaz eta sortuaz datoz. Gehienak, landuagoak.

Esaldiz, ateraldiz, zirtoz eta hitz-jokoz baliatzea maite du Fernandok. Hor du aberastasuna eta halako gatz berezia, hor bere euskararen bizitasuna, herri xehegandikoa egoki jasoz eta apaindurik jarriz eskaintzeko. Euskararekin motel dabilzantzat, behar bada, zailegia izanen da eta muzin eginen diote, baina hizkuntzak berez dituen baliabideaz ongi hornitua denez euskaldun jatorrak hortik aurkituko dituzte literatur balioak Bordariren prosan, eta atseginez irakurriko. Izan ere, holako hitz-lauzko lanen aurrean nor esan dezake zalantzarik euskararen ahalmenez?

Ez pentsa lan guztiak alaiak denik. Ikuspegi zabalekoa da Bordari gure belaunaldiko gizarteari begira eta gertakari tristerik ere jasoko digu. Munduarekiko ikuspegi zabala, bere anai Raraekin elkarlanean burutu zuen *Aritz beraren adarrak* deritzan liburuan erakutsi zigunez.

Ditxolaria eta zirtolaria denez, grazia berezia ematen daki bere idazkieri. Euskara berriz, ortografiatzeko diferentzi batzuk gora-behera, batua darabil. Hondarribiako hitz eta esaera eta esaldi berezi batzuk erantsiz, batuaren aberasgarri. Euskara ahuleziarik gabea, jostakorra eta jostagarria, herri jakiturian errotua, egileak bere baitara jantzia eta aberastua; landuz bigunki heldua, baina ez umeldua, taxuz heldua baizik. Hargatik, probetxu ederra atera diezaioke bere liburu honi Hondarribia eta inguruetakoko ikastetxeetan euskarazko irakurgaitzat hartuko baluteke. Herri literaturatik ikasien literaturara loturak lortzeko bidezko bai deritzagu.

Gauza berezien artean, arrantzale ohiturak eta hauen janiariak tarteka marteka jasotzen dira, gertakari umoretsuekin batean.

Azken partean zortzi hitzaldi biltzen ditu, gehienak euskal literaturaz, mintzairaz edo zenbait pertsonaiaren inguruan. Hoiere arteko ditugu Aita Roman Bera, Joan Baxurko, Fernando Ametzetarra eta abar; zenbait oroitzapenez bukatzeko: Xal-bador, Oteiza, e.a. Hondarribiko hizkeraren azterketa bat ere badakar, bertako berriak kontatuz Euskaltzaindikoko bilera batean irakurri ziguna eta lehenago *Eusker*a aldizkarian argitaratua.

Lehen tomo honek 572 orrialde ditu eta, gezurra badirudi ere, bertako lanik gehienak, inoiz argitara gabeak dira.

Bukaeran «Tomax'en buruaustek» deritzan bakarrizketa umoretsua dakar.

Liburu honek ez du une aspergarririk, ez horixe. Gairik gehienak laburrak direnez, eta kapituluz sailkatuak, noiz-nahi non-nahitik ekitzeko aukera ematen digu. Lan batzuk literaturazko lehen sariak irabaziak dira; gehienak inoiz inon aurkeztu gabeak. Liburu mardulari hasiera nondik eman ez dakienari kontseilurik ematekotan, batez ere euskaraz guti dakiena edo euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duena baldin bada, erdialdeko ipui laburretatik hastea gomendatuko nioke. Baina, otoi, behin eskuetan harturik lerro batzuk irakurten dituenak ezingo du utzi liburu guzira irakurri arte.

Iragan urtean euskaraz argitaratu diren lanen artean ongi etorri berezia merezi du Fernando Artola «Bordari»-ren *Bakoi*-

tzak berea deritzan obrak. Izenburu horrekin bi tomo marduletan biltzen bai ditu hondarribiar idazle jatorraren hizlaxoz eta hitz-neurtuzko lanak.

Bigarren tomoan, olerkiz ari delarik, erraz eta jolaskor iritetzen zaio bertsoa, ekarriaren nekerik gabe, etorriari leihoa idekiz, sentipenen uholdean etenik gabe:

*Nere sentipenak
Oler-mindegian
Nituen erein
Beazunezko ongarri
Metaren gainean.*

Hori duela bere lanaren lematzat. Jostalari eta jostakin, hertsitasunik gabe, irudimenari amain emanik, hegaz doan ainara lez.

*Asmoa arat-unat'ka
kulunka-ka,
iñolaz ezin dut
tinkatu gogoa.
Ezta nai ere!
Bego bere ortan
arat-unat'ka
opor-lasaiean
orbel igar antzo
aize-epelaren seaskan.*

Juan Mari Lekuonaren eskutik plazaratzen da, bere hitzaurre jakintsua irakurlearen gidari delarik. Gai nagusien artekotzat markatuko ditu honako hauek: «Bilduma onetako olerki laburrak naiko ugariak direnez, xeetasun lagungarria izan daitekeela uste dut gaiak finkatzea, eta auek kopuruz neurtzea. Jainkoa da geienik aipatzen dena, eta beste gaietan ere oiñarrizko ikuspegi gertatu oi dena. Gero, maitasuna dator, emazte, aitama eta billobaren inguru. Eriotza ere or dabil, «Bordari»-ren baitan gai onek duen garrantziarekin. Geroko bizitza ere aipatuko nuke, konfiantzaren itxurapean. Ezin-utzizkoa derizkiot erri-jakinduriaren erabilkerari. Eta neurri ez ain ugarian, aberria eta egunerokotasunaren zenbait anekdota».

Izan ere, instant bakoitzeko sentipen eta kezka olerkiz onzen ditu. Bertso neurtuan, bertso librean edo gogoak ematen dionean, Egitura ugariak ditu. Bere ahalmenen neurriaz badaiki, eta goragoko gurariak utziz, bere baitara lotzen da. Baina, hori bai, emozio eraginez jardungo da bere olerki bizkor eta erraz guzietan. Horregatik, irakurle, bere olerkien zehar maiz aurkituko dituzu era berriak.

Juan Mariren ustez, inpresionismotik asko dute poemok, influentzia nabaria duelarik Bidasoako arte-girotik. *Collage*-ak eginaz ere baliatzen da. Baina nik are gehiago esango nuke, *dadá* joerak ere maiz nabari dituela, bere hitzeri plastika zentzu era eman nahi hortan; intentziosko axolakabetasuna agertuz:

9 *O! lan, eguneroko lana*

8 *I aut bearreko lagun*

7 *Oporrez aspertu nauk*

6 *Arat-unat egan*

5 *Aideko txori*

4 *Ator akit*

3 *Bearra*

2 *O! lan*

1 *O!*

1 *Jez!*

2 *Zer dan*

3 *Nagia*

4 *Zer alperren*

5 *Erabekeri*

6 *Ta zabarkeria*

7 *Zato lan, zato arta*

8 *Bizia bizitzeko din*

9 *Langiroan noski ta baiki*

Hala ere, maizenik, hitzekin jolaskor nabarituko dugu, esaldiz eta hitz hotsez, doinu bereziak lortuz eta noiznahi trazu abilez ebakiz. Baina, ber-berak aitortuko digunez: «Batuetan esalari nabil, bestetan itz neurtuz bertsolari. Bertsoak, kantatu ta askoz ere gustagarriagoak dira. Bertso maitale bazera errex billatuko dituzu aukerako doiñuak». Hala dira izan ere «Iparragirre» sailekoak, 239. orrialdetik 256ra doazenak.

Lehenago emazte hilari eskaini zion *Goraintzi* deritzan liburukoak ere hor datoz, eresi tristeok.

«Olaxta» sailekoek, itsas-herriaren poema epikoak dira, naiz ere bere izakeraz Bordari lirikotasunez kutsatua izan. Hauek, euskal literaturan toki berezia merezi dute, zeren gure lurraldeen ifarraldetik itsasoa hain zabal idekitzen delarik ere, guti, oso guti idatzi bai da itsasoko gaiez. Horietan, Bordari, bere arrantzale herriarekin buruabat eginik aurkituko dugu, itsasominez, alaitasunean, nekeetan, eta ekaitz ezbeharren oina-zeetan.

«So! banatorkizue», sailekoek, hiru eledun (L.L.L.) olerkari-iei eskainiak ere interesgarriak iduritzen zaizkigu, Loramendi, Lizardi eta Lauaxetari eskainiak. Etxe-baratzeko landareri begiratuz oso solas politak lortzen bai ditu.

Gizonki eginak dira Arestiri eskaintzen dizkion aitortza zintzoak. Baina, hortaz esan beharrez aurkitzen naiz, batak ez duela bestea kentzen eta gure literaturak bai dira euskaldunon literaturgintzan. *Bakoitzak berea*, hori da gure legea.

Orotarik bada liburu hortan eta irakurleak ez du izango aspertzeko betarik. Gainera, azkenaldera datozen alegi erakoak umore jarioz datoz.

Bere herriko euskara motatik ere probetxu ederrik atera du bere idazkerari gatza eta ozpina ematen diona. Herriarentzako begirapena eta bere gogo oso lasaitzen duen fede zintzoa, egitan, inbidigarriak dira. Horrek egiten du egile maitatia hain maitatua. Juan Mariren hitzetan: «Bere bertsoa askea da eta gaurkoa. Bidasoa itsaso biurtzen deneko ur-golkoak dituen kolore eta diseinu fiñak nabari, Ondarribiko izkera kiristal labratua egiñik, mugako ondartzan euskal poetikaren lekuko garatua».

Bordariren gogoan ordea:

*Ondarribi, itxas errri
Lamiaren amets kabi
Mariñelen bizi-toki
Maitietan maitagarri.*

Juan SAN MARTIN

PETER FREY - GUNTER BRETTSCHEIDER.—*Baskische Legenden*. (Wie man den Teufel und andere Menschen überlistet. Baskische Legenden). Herausgegeben von Peter Frey und Gunter Brettschneider. Pendo-euskariana. Baskische Literatur im Pendo-verlag. Zürich, 1982.

Gure hizkuntzak, bere bitxitasunagatik, oihartzuna ez ezik ospe handia du herbestean, baina gure literaturak ez du behar haina oihartzun. Horregatik, bere zabalkundez egiten dena lan txalogarria zaigu eta alemanera itzuli berri den lan batek ondo merezia du gure aipamena.

Baskische Legenden, gizon batzuri esker, izan daiteke gure literatura munduan zehar zabaltzeko hasiera on bat «Pendo-euskariana» sailaren bidez. Gutienez ere, bere asmo ona ukatu ezinezkoa zaio sail hortako lehen liburu honi. Bere bultzatzaierik bizkorrenak P. Frey, G. Brettschneider eta Eduardo Txillida ditugu. Hirugarren honek, azalerako marrazkiaz gainera diru laguntza ere eman bai du. Bertan biltzen diren ipui eta kondairak euskaraz eta alemanez datoz. Lehen partean, Mayi Ariztiaren *Amattoren uzta* (1934) deritzan liburuko sei ixtorio; bigarren partean, Jean Barbierren *Légendes du Pays Basque* (1931) liburuko zortzi kondaira, liburu hau frantsez eta euskaraz dagoenez, euskarazkotik zuzenean hartuak dira; eta, hirugarren partean, Gregorio Mujikaren *Pernando amezketarra* (1927) deritzan bildumako hamabost ipui. Horiek osatzen dute liburua, baina azkenean badu eraskin bat, aleman hutsean, euskal hizkuntzari buruzko oharrez eta L.L. Bonaparte printzearen mapa alemanez jarria.

Liburuak Peter Frey-ren hitzaurre bat daroa eta Gunter Brettschneider-en sarrera. Itzulpena bera Brettschneider-ek egina da. Alemanez ez dakigu gure aburua emateko, baina bai bada-kigu Gunter-ek zein ongi dakien euskaraz gure hizkuntzatik bere jatorrizkora behar bezala itzuli ahal izateko. Hiru liburuetatik hautatu dituen ixtorio, kondaira eta ipuiak ere, gure eritziz, oso ongi hautatuak daude. Inprimaketaz zer esanik ere ez, txukun egina dela, Suizako inprimatzaileek ohi duten bezala.

Gure tradiziozko literatura herbestetan ezagutarazteko liburu eredugarria iduritzen zaigu eta horrek bedorrek merezi luke gaztelerara eta frantsezera itzultzea. Gure zorionik kartsuenak argitalpen hortan partaide izan direnei.

J. S. M.

ARANTXA URRETAVIZCAYA.—*Maitasunaren magalean*. Gipuzkoako Auzirrezki Kutxa Probintziala. Donostia, 1982.

Izenburuak berak garbi adierazten duen bideetatik doa 1981-ean euskarazko poesiaz Irun saria irabazi zuen liburu honen mamia. Bertako kontakizun ezetsuak igarri gabe eroaten gaitu orrialdeen zurrunbilo gozo horren biran, sentipenak miakatuz doan irakurgaiaren zehar.

Aintzina faunoak izaten ziren gehienbat hor egiten diren bezalako deiak egiten zituztenak, lamiaren bat edo beste ezik; baina, orain agiri denez, era berriko maitagarriak. Holako eskari eta eskaintza dabil orrialdeak zehar, sorgin-haize giroz:

*nerekin bazatuz
nerekin eta nere lagunekin*

diolarik, akelarrerako deia iduritzen zaigu, edo behintzak holako susmoak hartzen ditugu Arantxaren poema hortan. Baina, bere heinean ez da hainbesteraino, irakurketa jarraituaz ohartuko garenez. Behar bada, eskaintzen dituen ilusioak handiagoak dira, eta ilusio horiek arin eroaten gaitu liburuaren barna.

Hasieratik azkeneraino oharpentsua da, kolore eta usaiak ere nabari direla. Lan polita, euskara goxo eta klaru batean idatzia, aisa irakurtzekoa eta behar bada hizkuntzaren erabilkera hortan dago bere graziaz gehiena eta magia zerbait:

*Gurekin bazatuz
hondamendiaren bila
borrokazko banderen negar berderaino*

eta borrokazko banderak ere, ez dakit negar berdez ala negar gorritz, baina gero ezagutu ditugu gure gizarte setati eta ero hontan, bandera guziak errespetatu ezinez. Baina, banderok, guziak batean ez dute balio gizon bakar baten bizitzak haina. Banderen borroka baino ez ote da hobe maitasunaren magala?

Zuk, Arantxa, segi poesiaz gizarte honi arantzak kentzen.

Ots.

ION GOIKOETXEA MAIZA.—*Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo* (Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII-XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkaria. (1696-1773). A modo de introducción. Poesías castellanas. Bizitza olerkiak. Euskal olerkiez saiakera. Diputación Foral de Alava —Arabako Foru Aldundia. Academia de la Lengua Vasca—Euskaltzaindia. Vitoria-Gasteiz, 1983.

Liburu honek badu bere garrantzia. Espainiako Euskal Herrian euskarazko literatura, literatur mugimendu bezala, oso berandu hasi zen, Frantziako Euskal Herrian baino bi mende geroago. Han XVI.ean eta hemen XVIII.ean. Larramendi izan zen lehenburtzua eman ziona eta nonbait ikustekorik izango zuen bere garai eta bere ordenako zen Gamiz-engan ere. Baina, garai hartakoa izateaz aparte Araban euskara galzorian zegoen toki batekoa genuen Gamiz eta horrek ere bere balioa ematen dio historiari eta linguistikari.

Euskarazko bertsoak, liburu hortan, zoritxarrez guti dira, erdaraz agertzen duen ugaritasunaren ondorioz. Euskarazko hohiek sei sailetan banatzen dira eta beren berri eman zigun Goikoetxea Maizak *Egan* aldizkari hontan (1968. urteko alearen 3-5 orrialdeetan). Geroago ordea, euskarazko parte guzirik hori agertu zuten J. Goikoetxea Maiza eta E. Knörr-ek *Euskera* aldizkarian (XIX, 1974, 167-230 orr.).

Agiri denez, Gamizek erdaraz idazten zituen bertsoak, baina norbaitek tentatu zuen euskaraz ezinez eta orduan paratu zituen «Dabilcenchoac» hamazazpi bertsoz osatzen dena, honako biokin hasiaz:

*Erderaz eztuzu nay
ene viotza
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza
ycuzco deugu
albadaygu eguin zerbait
nola beardegu.*

*Gaizqui ba doaz ere
orra euzqueraz
ifin naiz au eguiten
neure bildurraz
egizu farre
gaizqui mintzacenbadut
lotzaric bague.*

Mitxelenaren hitzaurrea daroa, Gamiz sabandoarraren euskarari buruz zenbait ohar eginaz. Gamizen bertsorik gehienak jostakorrak dira, behar bada horregatik erabiltzen zituen irudi eta letra-jokoak. Era horrek Ferdinand de Saussure gogorazten dio Mitxelenari, neri ordea Athanasius Kircher bere *Oedipus Aegyptiacus* (Roma, 1652-1654), *Musurgia Universalis* (Roma, 1650) eta *Turris Babel* (Amsterdam, 1679) obretan, zeren garaigatik baliteke Gamizek lan horietakoren baten berri jakitea.

Historiaz, toki-izenez, ez-izenez eta abar, erdarazko partean ere berri interesgarri asko ematen ditu. Zer esanik ere ez bere sorterri Sabando eta ingurukoak eta bera bizitu zen Nafarroa partekoak, Iruñea, Lizarra, Tafalla eta abar.

Liburu atsegina da eta Jon Goikoetxea Maizak oso ondo estudiatzen du, liburuan zehar irakurleari adierazpenak eta argibideak emanaz.

J. S. M.

KOLDO IZAGIRRE.—*Gauzetan*. Ustela saila. Zabalkundea: Hordago. Donostia, 1979.

Gure literaturaren etorkizuna, ez dago esan beharrik, gazteagoen ekintzetatik behar du eta esperantza berririk bada gazteriaren aldetik azken urte hauetan, asmo berriak bide berri idekitzaile. Beto zorionean.

Horiatariko bat dugu Koldo Izagirre, egungo idazle berrien artetik berezietako bat gure literaturaren zori hoherako.

Koldo, besteak beste, ekologia arazoak ere kezkatzen du eta *gauzetan* zehar dabil gai hori bere errotik hartuaz:

«Xiberuko mendi sakaratura joan ginen, Orhiko arbola zaharrek lo etzanda egiten zutelakoa egia ote zen. Oihan beltzean barrena abiatu ginen bertako artzainek gorrotoz begiratzen zigutelarik. Oso gerora konturatuko ginen geure profanazioaz».

Egia esan, Zuberoatik landa ezer guti gelditzen zaigu Natura zaintze hortan.

Gure idazle gazte honek irudimen bizkorra eta aberatsa du, euskeraren erabileraz ostera, zer esanik ere ez: idazle heldu baten luma nabari du, *Gauzetan* zehar. Eta gauzak beren barretik dituzten mila sekretu kontatzen dizkigu: arboletan, elurretan, teilatuetan, izarretan, uretan, burdinetan, zer gertatzen den nik ezin dizut kontatu, are gutiago egileak bezala, irakurle. Zerorrek begiratu eta antza eman beharko diozu uste berritzerik, kontseilurik eta mezurik aurkitu nahi baldin baduzu, zerorrek aurkitu edo susmatu, *gauzetan* eta *gauzen* inguruetan biltzen den mundu guzia, zeren mundua mundu eta gizona gizon denetik oharmen zolitasunaren arakera jokatu behar duenez holako irakurgai batean. Egileak berak, erarik naturalenean aitortuko dizu: «Zer kontatuko dizut. Ilargi laurdenak enbarazoa dagit eta izarrek gezurra besterik ez diostate. Ene bihotza ere gautu duenean. Zure gogotan. *Gauzen* izenek baliorik ez dutenean. Eta begia burdin artetik ezin zabaldurik...».

Zalantzarik gabe, egileak, doain eta ahalmen bereziak ditu literaturagintzarako eta beragan itxaropenik badugu.

Liburua erraz eta gogoz irakurtzekoa da. Edonorrentzat gomendagarri.

Gure herri industrializatu hontan, nahi dena ezina denez ahaldena egitea ez da guti. Horregatik, Natura zaintzeak bere graduak ditu, eta horregatik behar bada, Ki. Izagirrek adierazten digu beste honako hau ere: «Eta mundu berri bat jaso nahi dutenek salba daitezela leize zuloetan izkutatuz edo itsas zabalera ihes eginez».

Otsalar

Historiazko eta berriak dituen liburu bat da. Gure herriaren eta naturaren inguruan idatzitako liburu bat da. Gure herriaren eta naturaren inguruan idatzitako liburu bat da. Gure herriaren eta naturaren inguruan idatzitako liburu bat da.

BAI ala EZ

David LANDART

ANTZERKIA, HIRU ZATTIAN

OKALARIAK:

ANTZERKIA

— AMA	50 urte
— PÉTAN	23 urte
— MARITXU	20 urte
— ANTON	18 urte
— APEZA	45 urte
— AUZAPEZA	65 urte
— ARMADUNA	40 urte
— JEAN PIERRE	20 urte
— SERORA	Ed. ospa

Liburua emaz eta goxoz irakurtzekoa da. Edonorrentzat gomendagarri.

Gure herri industrializatu honetan, nahi dena ezina denez aitaidema egitea ez da guti. Horregatik, Natura zaintzeak bere graduak ditu, eta horregatik behar bada, K. Izagirrek arlotzatzen digu beste honako hau ere: «Eta munda berri bat jaso nahi dutenek salba daitzela leize zuloetan irkutatuaz edo itsas zabalera ihes eginez».

Otzalar

ANTZERKIA

J. P.—Maritxu-ren laguna? BAI eta EZ? (Maritxu-aren laguna? BAI eta EZ?)
 AMA—Bai, Maritxu-aren laguna da. (Bai, Maritxu-aren laguna da.)
 J. P.—Maritxu-aren laguna? BAI eta EZ? (Maritxu-aren laguna? BAI eta EZ?)
 AMA—Bai, Maritxu-aren laguna da. (Bai, Maritxu-aren laguna da.)

BAI ala EZ

J. P.—Bai ala ez? (Bai ala ez?)
 AMA—Bai, Maritxu-aren laguna da. (Bai, Maritxu-aren laguna da.)
 Daniel LANDART
 Nor da hor? (Nor da hor?)
 Nor da hor? (Nor da hor?)
 Nor da hor? (Nor da hor?)

ANTZERKIA, HIRU ZATITAN:

JOKALARIAK:

- AMA 50 urte
- PETTAN 23 urte
- MARITXU 20 urte
- ANTTON 18 urte
- APEZA 45 urte
- AUZAPEZA 65 urte
- ARMADUNA 40 urte
- JEAN PIERRE 20 urte
- SERORA Edozoin

LEHEN ZATIA

Oihala altxatzean; joka-lekua beltz beltza dago. Entzuten da kadera bat erortzen. Segidan urrunetik emazte bat oihuz.

Denbora: Bizi giren egun hautan.

AMA — JEAN-PIERRE

AMA.—Ohoiak? Ohoiak etxean? (mintzoa hobeki aditzen da). Nor da hor? (eta ilunpean ama sartzen da sakelako argi bat eskuan (lampe électrique) eta argia harat eta hunat ibiltzen du, xekatuz norbait ba den barne hortan). Badea norbait? Nor da hor? (eta orduan gizon boz ezti bat aditzen da).

JEAN-PIERRE.—Ni! (Amaren argiak erakusterat emaiten du gizon ixter bat).

AMA.—Nor ni?

J. P.—Jean-Pierre.

AMA.—Nungo Jean-Pierre?

J. P.—Iholdi Urberokoa.

AMA.—Iholdi zointakoa?

J. P.—Urberokoa.

(Argia beti mugitzen da. Batean ikus ditake mutikoaren ixterra gero zangoak, atorra, arpegia, besoa; beti argiak hetsiak daudelarik. Ageri da garbiki ohetik ateratu bat dela, atorra du bakarrik soinean, galtzak beso gainean eta oinetakoak bi eskuetako erhie z atxikitzen ditu).

AMA.—Eta zer ari haiz tenore huntan gure jateko salan?

J. P.—Etixerat nindoan.

AMA.—Galdatzen diat zer ari hintzan...

J. P.—Ez dut deus gaizkirik egin!

AMA.—Hori gero ikusiko! Hirugarren aldikotz, galdatzen diat zer ari haizen barne huntan?

J. P.—Maritxu-ren lagun bat naiz. (Argi haundia pizten da. Jateko-sala bat, ongi apaindua. Mutikoa ikaraz dago; amak aldiz mokoia zorrotx).

AMA.—Maritxuren laguna haizela eta, gero zer? Ez duk hori arrazoin bat goizeko lauak eta erditan gure jateko salaren erdian izaiteko, eta oraino, erdi buluzirik... Ala zer? Maritxuren ganbaran ote hintzan?

J. P.—Ez... ba...

AMA.—Bai ala ez?

J. P.—Bai.

AMA.—Eta zer haiz Maritxurekin etzan?

J. P.—Ez!

AMA.—Zendako haiz beraz erdi buluzia?

J. P.—Berotua nintzan!

AMA.—Berotua delarik atorra kentzen duk eta ez galtzak!

J. P.—Hola gertatu da...

AMA.—Bai, hola gertatu duk... Bainan jakin-zak, puttil, ez zaukala berriz holakorik gertatuko, gure etxean segurik!

J. P.—Ongi da.

AMA.—Zer ongi dela? Hik egin dukana segurik ez duk ongi. Eta ez zakala uste izan hola pasatuko dela gertakari hau!

J. P.—Presatua naiz. Nere ait'amek goizik iratzartzeko usaia dute. Ez banute ohean atxemaiten, asaldatuko dira... Joan behar dut.

AMA.—Nere etxean holakorik gerta zitaikela! Nere alabarekin; ezagutzen ere ez dutan mutiko bat bazagola... ni Santa Katalina-ri otoiitzean ari mintzelarik... Izan ote ditake holakorik? Ez duk deus erraiten... Mintza hadi...

J. P.—Ez dakit zer erran...

AMA.—Zer adin duk?

- J. P.—Hogoi urte...
- AMA.—Hogoi urteko mutikoak ez dituk armadan?
- J. P.—Erreformatua naiz.
- AMA.—Eta erreformatuak ez zirela nexkatxentzat on... Ez haiz naski hetarik...
- J. P.—Ez dut uste ez...
- AMA.—Aspaldian elgar ezagutzen duzue bederen...
- J. P.—Sei hilabete...
- AMA.—Zer? Sei hilabete? Eta jada... Laster dituzue zuek harat hunatak! Sei hilabeteren buruko etxe sartzea! Biba zuek... ez duk gaizki. Eta... ezkontzeko xedetan haiz?
- J. P.—Noiz nola...
- AMA.—Nere alaba desohoratu ondoan zer huke ihes egin nahi?
- J. P.—Ez dut holakorik erraiten...
- AMA.—Beharrik. Bertzenaz, ikus hitzazke asto beltxarenak! Beztu hadi... Sarri, bezperak ondoan, joanen nuk hire ait'amen solastatzerat.
- J. P.—Hori ez! Otoi ez! Xehatuko naute. Aitak bereziki, bere zintura larruzkoarekin sekulakoak emaiten dauzkit; nere lanetik landa, behiak ez baditut jeitzi nahi. Ez naiz berriz hasiko! (belaunikatzen da amaren aintzinean), bainan otoi ez deus erran etzekoeri...
- AMA.—Xuti hadi! Habil hemendik. Eta hire onetan utz-zak nere alaba bakean... (Galtzak soinean ditu, bainan jalitzean oinetako bat ahanzken du jateko-salan).
- J. P.—Bera da-ta, nere ondotik ibilki... (eta jalitzen da).

AMA

AMA.—Oraiko gazteak, zerbait badira bai! Nun dute burhasoen errespetua? Nun dute Jainkoaren beldurra? Denak larre johanki ote diren?

(Kanpoan, Jean-Pierre-k ez du bere autoa pizten ahal. Bi zalditako autoa intzirinka ari da, pitz et hil).

AMA.—Piztuko ote du bere autoa? Ala, auzo guziak behar ditu iratzar arazi bere auto ozpinarekin?

(Jean-Pierre berriz agertuz).

AMA — JEAN-PIERRE

J. P.—Barkatu bainan autoa ez dezaket nihundik ere pitz. Esku ukaldi bat emaiten ahal ote dautazu? ...aski zinuke gibeletik pusatzea...

AMA.—Nitaz trufatu nahi huke? Zer erranen ditek auzoez, ikusten balin bagituzte? Habil oinez! Eta bakea emak gure etxe inguru hotan!

J. P.—Bi minutaren afera litake...

AMA.—Errana daiat ezetz...!

J. P.—Beraz banoa. Barkatu.

AMA.—Eta ez zakala azantzik egin kanpo hortan!

(Jean-Pierre badoa).

AMA

AMA.—Ikusiak ikusi, zerk atxeman behar nituen orai! Zer kopeta! Eta Maritxu; bere aingeru begiarekin... seroretan eskolan izankita, zer julufria dutan nik hori etxen! Nork erranen zuen... Adituko ditu bereak, geroxago...

BOZ BATZU KANPOAN

ANTTON.—Deusetaz... Sarri arte... Bai, Lapitxuri-n! Seiak irian. Agur! (eta autoa badoa; Antton sartzen da).

AMA — ANTON

ANTTON.—Ez zira ohean (hop), zu?

AMA.—Eta hik Antton, orai duk etxerat sartzeko tenorea? Goizeko bortz orenetan? Nun egona haiz orai arte?

ANTTON.—Besteri jarraiki behar delarik (hop) ez da nahi dena egiten... (hop) Nik nahiko nuen gauerdiko sartu, bainan bertzek... (hop).

AMA.—Xotina ere bildu duk hor gaindi. Ez haiz barurik egona naski...

ANTTON.—Zendako jeikia zira hoin (hop) goizik?

AMA.—Batzu, igandetan berant egoiten direla ohean; ez duk holakorik gertatuko gure etxean! Hemen, goizik hasten dituk harat hunatak. Goizik! Batzu joan, bertzeak heldu... Ba; hola segituz, gustian lo egiten ahalko diuk...

ANTTON.—Zer zen; Jean-Pierre gure etxen?

AMA.—Ezagutzen duk mutiko hori?

ANTTON.—Ba araz. Maritxu-ren eta (hop) ene laguna da.

AMA.—Puttiko ona!

ANTTON.—Nexka guziak (hop) ondotik ditu!

AMA.—Eta hi, nun egona haiz orai arte?

ANTTON.—Oherat banoa! (hop) Ixtantean erranen dauzkitzut gaurko berriak. Bazinaki (hop) zer itzuliak egin ditugun...

AMA.—Hortaz segur nuk. Eta ostatu horietan ere izan haiz?

ANTTON.—Norat nahi duzu joan nadin (hop) ostatuez kanpo? Jantzatzerat? Bai. Bainan jantzategiak bi orenetan hesten dira. Bi orenetan goizeki da sartzeko (hop). Orduan da ta, gaua hasten... pesta hasten. Gero, gero, fiesta, edan ta kantu... kantu ta (hop) ...edan.

AMA.—Beraz moltsak eta gibelak hartu ditek ukaldi bat, gaur ere.

ANTTON.—Gibelak, sarri erranen (hop). Moltsa, orai berean mintzatuko da. Ori. Hutsa da. Arrunt hutsa! (hop). Nintuen guziak xahutu ditut, denak; eta ukan banu gehiago, jakin zazu (hop) bainan guk, beti xuhurki behar baitugu arizan (hop)...

AMA.—Xuhurki? Baduka kopeta? Hiru mila libera eman, eta hori deitzen duka xuhurki artzea gau batentzat? Zer nahi huzke hamar mila libera larunbat arrats guziz?

ANTTON.—Ez nuzke sobera!

AMA.—Ago ixilik otoi, zentzu gabea! Gu, hire adinean, urtean aldi bat jalitzen gintian, eta oraino herriko besta zelarik. Eta orai, jo hunat, jo harat, larunbat, igande, asteart, ortzegun... eta zendako ez egun guziz? Utz eskola bazterrat, utz lana bazterrerat, eta josta eta jantza eta besta egin eta mozkort! Jo aintzina, jo! Zihaurrek geldituko zirezte!

ANTTON.—Zer nahi zinuke (hop) beti etxen egon nadin?

AMA.—Batzu hala egoiten dituk. Bainan badakiat hi, ez haizela hetarik. Hail oherat orai. Lo egizak. Hamar orenetan iratzar araziko haut mezarat joaiteko.

ANTTON.—Ez du balio. Ez naiz bardin mezarat joanen!

AMA.—Mezarat joanen haiz!

ANTTON.—Ez!

AMA.—Erraiten deat baietz!

ANTTON.—Ez du balio kexa zaiten ez naiz mezarat joanen!

AMA.—Debrua nagusitzen hasia duk etxe huntan! (Antton ba-
doa)

AMA

AMA.—Alaba, mutiko tzar batekin galdua... Semea, gauetz gau, ostatuz ostatu, mozkortua... Seme zaharrena, hiruetarik ho-berena, politika urratsetan sartua. Eta ni, gerla dela medio, goizik alargundua... Nola ukan etxe huntan, denek nahi dugun, bake saindua? (Maritxu agertzen da).

AMA — MARITXU

MARITXU.—Jes, zer dira oihu hok barne huntan... Zendako jei-
kia zira hoin goizik ama? Egin duzu lo?

- AMA.—Bai. Milesker. Eta hik?
- MARITXU.—Nik ere bai, Jainkoari esker. Ez dakit zendako, ez dut aments gaixto bat ere egin... Bizkitartean, usaian... Bainan gaur...
- AMA.—Gaixo aingerua...
- MARITXU.—O bai ama, erraiten ahal duzu... Ohean sartu orduko lokartu naiz eta geroztik bazinaki zer lo goxoa egin dutan...
- AMA.—Eta barda zer tenoretan sartu hintzan? Jantzatzerat joan hintzala erran hatan...
- MARITXU.—Jantzatzerat joana nintzan, bainan ez zen nehor kasik eta segidan etorri naiz etxerat... Antoinette eta Jeanine han utzi ditut... bainan ni, haia, haia, gibelera jin naiz...
- AMA.—Bakarrik?
- MARITXU.—Norekin nahi duzu bada jin nadin?
- AMA.—Nik dakita? Mutiko batekin edo...
- MARITXU.—Bainan ama; zer diozu... ez naiz gero ni Marie-France, nor nahirekin ibiltzeko...
- AMA.—Beraz ongi lo egin dun?
- MARITXU.—Errana dautzut baietz... Bainan zer duzu? Zendako jeikia zira hoin goizik?
- AMA.—Goiztiarra nun ni beti...
- MARITXU.—Badakit. Bainan halere hoin goizik...
- AMA.—Hi ere usaian zortziak arte egoiten haiz ohean. Zer dun egun?
- MARITXU.—Goiz mezarat joan beharra naiz. Gero, lagunduko zaitut bazkariaren apailatzeko nahi baduzu bederen...
- AMA.—Bixtan dun baietz. Segurki, ez dun lana eskas gure etxen, igande goizetan. Mutiko horien oinetakoak ere hor ditun argitzeko.

MARITXU.—Eginen ditut nik.

AMA.—Hementxetako oinetako hau, ez dinat nihundik ere hatxemaiten ahal norena den... Pettan-ena edo Antton-ena... Haugi... hunarat... Hik behar bada erranen datan... Zoinena da? Gure mutiko horiek oinetako beltzak ditine, bainan hunek, hori aire bat badin...

MARITXU.—Antton-ena ditake. Kominione haundikoak, horiak zituen...

AMA.—Kominione haundikoak bai... Bainan hek, Ttotte buhamiari eman ginazkonan... Ez duna hik ezagutzen...?

MARITXU.—Zuk ezagutzen ez duzuna nola ezagut nezake?

AMA.—Bainan hau... ez dun ezagutzen?

MARITXU.—Ez...

AMA.—Matelak gorritu zauzkin... Zendako ote?

MARITXU.—Matelak gorritu, eni? Gaizki ikusten duzu...

AMA.—Norena da oinetako hau?

MARITXU.—Ez dakit!

AMA.—Nun du hunek laguna?

MARITXU.—Ez dakit!

AMA.—Eta ez dun dudatzen norena ditaken?

MARITXU.—Batere...

AMA.—Nik erranen denat.

MARITXU.—Errazu!

AMA.—Oinetako hau Jean-Pierre-ena dun. Ukatuko ote daitan ez dunala ezagutzen Jean-Pierre?

MARITXU.—Jakitea da zoin...

AMA.—Aski erranik badinagu. Mintza gaiten garbiki! Oxtian mutiko bat ikusi dinat hire ganberatik jalitzen... Hortxetako kadera hori ere aurdiki din pasatzean! Horra haren

oinetako bat. Ez haizela nornahirekin jalitzen, nahi dinat... Bainan nahiago niken, ez bahu nehor hire ganberarat sar-arazten! Nun dun amari zor dunan errespetua? Nun dun nexkato gazte batek behar duen zuhurtzia? Aita bizi izan balitz, bi zaflako onak emanen zaizkinan... Ahalgingarria hi!

MARITXU.—Ez nuen ez lehen aldia!

AMA.—Zer? Hemezortzi urte baizik ez izanki eta... jada hola ohartua gauza horiei... Gure ama zenari holako zerbait egin banio, preso ezarriko nintinan edo komenturat igorriko! Jainko maitea! Ez bada nigar egingarri holako bizia...

MARITXU.—Lehenago gorderik egiten ziren gauzak, orai agerianago egiten dira...

AMA.—Ago ixilik. Burua nahasten ari zaitan! Balio zinan bai, zer nahi pagatuz igortzea hiri eskola girixtinorat. Eta ez dun deus erraiten? Ez daitan barkamendu galdatzen ere?

MARITXU.—Barkatu ama!

AMA.—Ez dinat holako barkamendurik eskatzen. Barkamendu galdatzekotz, barkamendu galda zaitan behar den bezala eta ez airerat. Berriz ez hasteko xedearekin .. Zeren, hire onetan mintzo nun gero: sekulan haur bat heldu bazaun, ikusiko dun... Hik, eta nik ere zorigaitzez...

MARITXU.—Pilula ere hor da...!

AMA.—Ez dinat onhartzan nere aintzinean holakorik erran dezanan! Hogoi ta bat urte arte, ez haiz gehiago gauaz jalliko. Hire ganberako ateari behar bezala kasu eginen diot. Eta erraion Iholdi Urberoko Jean-Pierre'i ez dadin gure etxe ondorat sobera hurbil... asunek xixta bailezaketete!

MARITXU.—Zer bilakatuko naiz Jean-Pierre gabe?

AMA.—Jean-Pierre ezagutu aintzin hintzan neska onest bat!

MARITXU.—Onestasuna bardin zaut neri! Jean-Pierre dut maite!

AMA.—Nexka batek, bere eta familiaren ohorea xekatzen din eta ez bere nahia.

MARITXU.—Ohoreaz; mihi gaixtoak baizik ez dira baliatzen! Ni, Jean-Pierre-n musuek nute asetzen!

AMA.—Ixil hadi; eta bezi goiz mezarat joaiteko! Aski badinat aditurik! Mezatik landa solastatuko gitun...

MARITXU.—Galtzak... ala zaia ezartzen dut?

AMA.—Galtzetan mezarat? Zer erran lezake andere-serorak? Ezarzan zaia urdin bat eta mantalina ez ahantz!

MARITXU.—Kattalin mutzurdinaren ondoan emaiten ahalko naiz... Jendek usteko dute bi ahizpak girela...

AMA.—Erna hadi. Ni ere banian aldatzerat. (Ama jalitzen da eta segidan Pettan sartzen bertze ate batetarik).

MARITXU — PETTAN

PETTAN.—Maritxu, zer du amak hoin kexu...?

MARITXU.—Ez dik balio hiri erraitea; bardin, amaren aldea hartuko duk!

PETTAN.—Ez nun alderdikaria! Mintzatu aintzin gauzen behar bezala pizatzeko usaia badinat. Bainan halere bitxi zaitan ama hoin kexu izaitea. Zer du bada?

MARITXU.—Goizeki jeikitzeak ez dik deus onik!

PETTAN.—Ez dun erran nahi? Bego hortan. Halere pentsatzen dinat zertaz den auzia...

MARITXU.—Jainko ttipi bat bezala mintzo haiz... Ahoz baka-rrik... Bihotza ez duk hunkia...

PETTAN.—Egia dun Maritxu; ez gitun gehiago lehen bezala mintzaten ahal... Gu bien arteko irriak agortu ditun. Bainan hire buru-hausteak ulertzen ditinat. Hik aldiz; erho barentzat hartzen nun...

MARITXU.—Ez Pettan. Maite hut bihotz guziaz. Bainan konprenitzen ez dutana duk, zendako beti etxetik kanpo haizen, biltzarrez biltzarre, diokalarik Euskal Herriaren ongia dukala xekutzen, hire familia ahantziz.

- PETTAN.—Ez dinat nere familia ahanzten. Bainan populuaren ongia dinat xekasten... Hi, adin gaixtoan haizelakotz, biotzaren goiti-beheitieri haiz plegatzen. Ni, adimenduaren urratsari nun jarraikitzen.
- MARITXU.—Herrian bakarra haiz holakoa. Jende guzia hitaz trufatzen duk.
- PETTAN.—Jendea nitaz trufa dadin berdin zaitan. Galdatzen dutana dun jende horiek zentzu gehiagorekin so egin dezaten beren herriko harat hunateri eta orduan behar bada irri trufak sartuko zaizkoten.
- MARITXU.—Hik senditzen dukana nik ere senditzen diat. Euskal-Herria galtzerat eta hiltzerat doala, ehin aldiz errana daitak. Badakiat hori. Bainan zer egin? Amentsetan ez bizitzekotz?
- PETTAN.—Ez nun amentsetan bizi... Egun oroz hobekiago ikusten dinat Eskual Herriak salbamendu bat baduela...! Bainan hik Maritxu, zerbait egiteko orde nahiago dun geldirik egon eta hi bezala beste askok: horrek din galarazten gure Herria. Hola segituz, ez din balio mugitzea... Galduak gaitun betikotz.
- MARITXU.—Hik eta nik ez diuk bizia bardin ikusten...
- PETTAN.—Hi, bizi molde bati jada lotua haiz. Ni, bizi molde baten xeka nabilan...
- MARITXU.—Ez duk gehiago hirekin mintzatzea ahal. Gainez gain ikusten dituk gure urustasun eta zorigaitzak.
- PETTAN.—Pena hartzen dinat hik hori erraitean... Zueri hurbilago izaiteko nun euskal politikari lotu.
- MARITXU.—Politikan sartuz, gutarik urruntzen haiz. Ez ditek eriek baizik politikarik egiten...
- PETTAN.—Milesker hire erranez. Behar-bada arrazoin dun. Bainan ez nun hire gogo bereko!
- MARITXU.—Ez diat ikusten zer egiten ahal dugun. Nahi balin baduk mugitu, mugi hadi. Nik badakiat aintzinetik, ez dugula deus egiten ahal!

MARITXU.—Beraz hire ustez beti hola izanen gitun... Gure herrietako nexkatoak joanen ditun sehi, sasoin egiterat, edo munduko ofizio zaharrenaren segitzerat... Mutikoak aldiz: betarrabetarat, baxera ikusterat Lurde edo itsas hegi horietako ostatuetarat; Pariserat edo Ameriketarat... Gure eskal lurrez, emeki, emeki kanpotiarrak jabetuko ditun, gu, gure etxen, arrotz bilakatzuz... Hori onartzen ote dun?

MARITXU.—Errana deat ezetz! Nihauerek ere eskolak bukatu eta, ez diat jakinen zeri lot. Bainan hola duk eta zorigaitzez hola izanen...

PETTAN.—Eta ez dun uste Euskaldun seme alaba eskolatu eta zintzoak ez direla ohartuko gure zauri ikaragarriari? Uste ote dun, beti burua apalduko dugula gure kaltetan ari diren jaun-andereen aintzinean?

MARITXU.—Ez duk nehor gosez hiltzen Euskal Herrian! Nik Jean-Pierre diat maite eta beste guziak bardin zaiztak!

(Ama sartuz).

AMA.—Maritxu! Ernatu nahi dun hortik! Mezarat beranta ukanen diun!

(Eta Maritxu ateratzen da).

PETTAN — AMA

AMA.—Norapeit abian haiz Pettan?

PETTAN.—Bai, ama. Ezpeletarat.

AMA.—Eguerditan gurekin bazkalduko haiz?

PETTAN.—Ez dut uste. Egun guziarentzat banoa.

AMA.—Bainan mutikoa, zer mila sorgin ari haiz hor gaindi? Beti kurri... Ixtantean ez haitugu etxen ikusiko ere... Zer duk bada Ezpeletan?

PETTAN.—Biltzarre bat.

- AMA.—Pentsatzen nian bai, ez hintzala pottoka feiriarat joan.
- PETTAN.— Preseski harat noa.
- AMA.—Eta zer dik hire ofizioak ikusteko Ezpeletako feiria-
rekin?
- PETTAN.—Aldi guziz behar ote dautazu galde bera egin? Ez naiz
tratularia. Ez dut pottokarik saltzeko, ez eta dirurik ba-
ten erosteko. Mintzaldi bat behar dut egin...
- AMA.—Horra. Pilota punperat jin duk! Politika! Bainan ez ote
duk debruatarat igortzen ahal hire politika tzar hori!
- PETTAN.—Politika tzar baten peko balin bagira ere, horrek
ez du erran nahi politika guziak tzarrak direla...
- AMA.—Bainan konprenitzen ez dutana duk zendako haizen hi
saltsa horietan sartzen. Bertzek egin dezaten politika edo
nahi duten guzia, eni bardin zaitak. Bainan hik, zer duk?
Zer duk eskas? Ongi irabazten duk, ofizio garbia, astean
berrogei oren; autoa ere baduk... Orroit hadi seme, fran-
gotan, sobera galdatzen duenek denak galtzen dituela!
- PETTAN.—Egia erran, ez naiz hain gaizki diren hetarik. Bainan
gaizki diren horiek frangotan ez dakite zer egin beren
enegutarik jalitzeko. Eni da beraz horien laguntzea.
- AMA.—Apezari lana kentzen diok.
- PETTAN.—Apezak baditu bere egitekoak. Nik ere nereak. Gizo-
nari behar zaio konpreniarazi behar duela gizon bezala
bizi, eta ez beti, arrotz eta ctsai batzuen zerbitzari izan,
beldurraz, ahuleziaz edo ezazolkeriaz.
- AMA.—Bainan berriz ere erraiten deat, azkarrenaren legea de-
la hoberena. Hi ez haiz azkarren horren aldekoa... Beldur
nuk. Beldur zerbait gerta zezaikan...!
- PETTAN.—Ni ere beldur naiz, zombait aldiz. Bainan Ansaldi-k
dio «sekulan beldurrik ukan ez duen gizona, ez dela gi-
zona».

AMA.—Jendea ez duk gaizki bizi... Ez duk ezagutu hik gure gaztetasuna! Orduan bai, baginian guk zerbaiten erraiteko dretxoa... Orai etxetan argia baduk, ura ere, radioa, telebixta, behi jeizteko tresnak, bokhetaria. Arnoa egun guziz. Gu, urean eta artoan haziak izanak gaituk! Bainan orai ontsa bizi gaituk. Ontsa!

PETTAN.—Arrazoina duzu ama. Zuretzat ez da nehor urusago izaiten ahal. Zuretzat urus ote dira Euskal Herritik, urte baktotxean, joan diren 2.000 gazteak? Urus ote dira lanik ez dutenak? Urus ote dira 150.000 libera zahar baizik irabazten ez duten aita familiakoak? Urus ote dira gure herrietako bortxaz karlos gelditzen direnak? Urus ote dira, gure laborari, ostaler eta komertsantak? Urus ote dira Euskal-Herritik urrundu diren guziak? Eta urus ote dira Euskal Herri beraren maitez preso eta desterruan dagotzinak? Bai ala ez?

AMA.—Buru bero bat haiz?

PETTAN.—Milesker, ama!

AMA.—Bakea behar diuk xekatu. Eta hi eta hire lagunak, bazterren nahasten hasten balin bazirezte, xahu gaituk! Gerla denbora ezagutu bazinute, orainko zuen oiuhu eta furfuriak ixilduko zinituzten!

PETTAN.—Jenerazione baktotxak baditu bere zorigaitzak. Zuen atzoko zauria sendotua balin bada ere; gaurko gure minak ez daki nun aurki bere sendatzailea. Edo izaitekotz: badaki zer behar duen egin sendatzeko, mementoan dituen sendotzaileek ez dezakete gure mina sendo, berak, gero, eri bailitaizke...

AMA.—Ez diat ongi konprenitzen zer erraiten dukan...

PETTAN.—Ez holakorik erran ama. Ontsa konprenitua duzu. Bainan nahiago zinueke ez konprenitu. Ez da bardin...

AMA.—Hire onetan mintzo nuk... Ez nitek nahi haurkeria bantentzat gure ohorea gal dezakan. Eta sekulan preso sartzen baihituzte... Zer erran lezakete jendek...? Hago gel-

dirik otoi. Ezkon hadi... Marie-France Harrxilokoa hire ondotik badabilak omen... Bainan uzki biltzarre debru horiek bere gisa.

PETTAN.—Zu orai mezarat bai zoatzi; zer galdatzen dautzu fedeak? Zer galdatzen dautzu karitateak?

AMA.—Otoitza.

PETTAN.—Otoitza behar dela nahi dut. Bainan ez dugu otoitza-rekin bakarrik salbatuko Euskal Herria. Harmak ere behar-ko dira.

AMA.—Ago ixilik Pettan. Burua galtzen ari duk. Uste nuen baino eroagoa haiz oraino! Hemengo jendeak nahiago ditik, norat nahi lekuak hustu, ezinez-eta pixtola eskuan hartu.

PETTAN.—Eta beraz, gure Herria, gure mintzaira, gure odola, gure ohidurak, gure etxeak hil ditzen onartzen duzu?

AMA.—Ez dakiat.

PETTAN.—Bai ala ez?

AMA.—Ez dakiat. Beldurrak beretzen hasia nik. Aski ikusirik badiat. Eta badakit zer gatik. Antton eta Maritxu-k ere mentsarazten nitek. Hik otoi ez zaitakala oraino bertze bi horiek baino gehiago buru-hauste eman araz!

PETTAN.—Nere hautua egina dut. Eta ez zure nigarrek eta ez jende batzuen trufa zozok ez naute geldi araziko! Monzon-ek diona: «egungo egunean erho behar baita izan, erho ez izaiteko!».

AMA.—Geldi hadi etxen... Oilaxkoa diuk eguerdiko. Goxoki egonen gituk.

PETTAN.—Ez naiz egun eta bazkari goxoen ondotik ibilki... Nik hautatu eta hartu bidea ez da gozokerien bidea. Egun ez bada, bihar, oren latzek idurikatzen naute...

AMA.—Hortakotz bada, behar huke orai berean gelditu. Ordu duk oraino. Emak amor buru berokeria horieri... Politikan galduko haiz. Beldur nuk... Xahu gaituk... Tribunalerat eremanen haute. Gero berriz preso. Gosez hilen haiz...

PETTAN.—Pasionearen ondotik heldu da beti Bazko!

AMA.—Badakiat hori ere. Bainan auzoek lagundu hute? Eta bihar auzoen beharra balin baduk segur haiz lagunduko hutela? Ez! Beraz zendako lagundu nahi dituk? Utz-kik bere gisa...

PETTAN.—Ez ditut bakarrik lagundu nahi. Askatu nahi ditut. Libratu!

AMA.—Erraiok ta Panpalle Haundiari ez denez libro!

PETTAN.—Zoin bitxia ziren. Zure eta nere ikusteko moldeak ez dira gehiago elgarrekin uztartzen ahal. Zurekin solastatzea iduritzen zait denbora galtzea dela. Halere apur bat konprenitzen zaitut eta zuk ni?

AMA.—Apur bat nik ere. (Boza alxatuz). Maritxu! Mezako tenorea diun! (Pettan-i) Beraz bihar arte... Ibil hadi polliki...

PETTAN.—Pasa zazue egun on bat. (Eta jalitzen da). (Maritxu agertzen).

AMA — MARITXU

AMA.—Errana nainan zaia urdina ezartzeko. Ez dinat nahi zaia hori ezar dezanan, goiz mezarat joaiteko. Iduri liken asteart ihauteriko behi lasterretarat abian haizela. Erna hadi, hire beha nagon. (Eta Maritxu jalitzen da). (Ama doa ganberako ate ondoraino. Bertze aldetik Jean-Pierre agertzen da, zango bat intutsik eta xingilika).

AMA — JEAN-PIERRE

JEAN PIERRE.—Zango eskuineko oinetakoa hemen utzi ote dut? (Ama bizkarrez zagon; bet-betan itzultzen da).

AMA.—Hi berriz hemen? Zer duk eskas?

JEAN PIERRE.—Zango eskurineko oinetakoa hemen utzi ote dut?

AMA.—A... oinetakoaren ondotik heldu haiz...

JEAN PIERRE.—Etxeratekoan ohartu naiz... Ez duzu ikusi?

AMA.—Hemen duk bai!

JEAN PIERRE.—Hobe... Pare bat baizik ukanki-ta, lastima izanzen zen... Horrela, denak ontsa pasatzen dira! (Maritxu sartuz).

AMA — JEAN-PIERRE — MARITXU

MARITXU.—Zu jada berriz hemen?

JEAN PIERRE.—Zapetaren ondotik... Zapetaren ondotik bakarrik... (eta erdi lasterka ateratzen da).

MARITXU.—Jean-Pierre (erdi lasterka badoa Jean-Pierre-i buruz).

OIALA

BIGARREN ZATIA

Oihala zabaltzen delarik, Maritxu xoko batean jarririk, irakurtzen ari da. Laster sartzen da Jean Pierre.

Lehen zatiaren joka barne bera.

MARITXU — JEAN-PIERRE

MARITXU.—Zer ari zira hemen?

JEAN PIERRE.—Ama etxen duzu?

MARITXU.—Ez. Auzoan da.

JEAN PIERRE.—Hobe. Banuen beldur bat hura hemen kausi.

MARITXU.—Bainan zer duzu beti erdi beldurrez... Bakar bakarrik naiz. Ez nauzu besarkatzen? (besarkatzen dira).

JEAN PIERRE.—Maritxu, berri txar batekin heldu niz.

MARITXU.—Zer nuzu uzten?

JEAN PIERRE.—Uzten... Ez alderat, bainan...

MARITXU.—Ez nuzu gehiago maite?

JEAN PIERRE.—Ez da hori. Banoa hemendik.

MARITXU.—Eta norat zoaz? Ez ote zira hemen ongi?

JEAN PIERRE.—Sobera ongi, zorigaitzez... Atzo goizean, nagusiak jakinarazi daut, gure lantegian lana eskastu dela eta azkenik sartua bainintzan, erran daut bertze zerbait xekatzeko...

MARITXU.—Nagusi kakola! Eta zer bilakatuko zira orai?

JEAN PIERRE.—Nihaurrek ere ez dakit!

MARITXU.—Eta laborantzan geldituz...

JEAN PIERRE.—Anaia zaharrena da etxeko...

MARITXU.—Beraz...

JEAN PIERRE.—Ez da ehun aterabiderik! Gelditzen zautana da: hemendik joaitea!

MARITXU.—Norat joan gogo duzu?

JEAN PIERRE.—Nik dakita... Urruntzekotz, hobe da aski urrun joaitea...

MARITXU.—Pariserat ote?

JEAN PIERRE.—Uste dut baietz.

MARITXU.—Beraz neretzat galdua zira!

JEAN PIERRE.—Nolaz?

MARITXU.—Zu Parisen eta ni hemen, nola nahi duzu gure amodioak iraun dezan?

JEAN PIERRE.—Usu idatziko dautzut...

MARITXU.—Idatzi ala tirrit bardin da... Gaixo Jean Pierre! Gaixo ni! Zendako mila sorgin ez da lantegirik gure eskualde hotan... Behar bada hobeki xekatzuz... Bokale edo Tarnosen, .. Paue ere ez da hain urrun azkenian.

JEAN PIERRE.—Beti lan eskasiaren beldurrean bizitzeko? Nahia-go dut, joan behar eta, lana den tokira joan!

MARITXU.—Nitarik urrundu nahi duzu... Ez ahal nauzu sekulan maitatu... bertzenaz hemen nunbait geldi zintazke...

JEAN PIERRE.—Zer uste duzu, nere nahitarat banoala? Otoi, ez holakorik pentsa! Bortxatua naiz bortxatua. Aditzen duzu: Bortxatua!

MARITXU.—Eta noiz abiatuko zira?

JEAN PIERRE.—Laster.

MARITXU.—Joan aintzin ikusten ahalko zaitut bederen?

JEAN PIERRE.—Azken agurraren egitera etorria nintzan...

MARITXU.—Zer? jada. Azken aldikotz ikusten ote zaitut? Jean Pierre. Nere bihotza punpeka ari zait, ene ezpainak zimurtzen ari zaizkit. Hatsa ez dezaket gehiago har! Jean Pierre nere maitea... Bakarrik utziko ahal nuzu?

JEAN PIERRE.—Ez nautzun holako minik egin nahi... Bainan bizitzako legeak bortitzak dira.

MARITXU.—Eta etzira nagusiaren kontra asarretzen?

JEAN PIERRE.—Ez du balio... Zeren egiteko?

MARITXU.—Ez dakit. Bainan hola segituz gazteria guzia hemen-dik joanen da, ezin biziz...

JEAN PIERRE.—Jinen naiz berriz.

MARITXU.—Bai, erretreta hartu ta, azken egunen iragaitera.

JEAN PIERRE.—Eta zu heldu bazine Pariserat?

MARITXU.—Zer du bada Parisek, denak bere ganat biltzeko? Lanik ez delarik, jo Pariserat. Besta egiteko, jo Pariserat. Teatro ederraren ikusteko, jo Pariserat. Denak Pariseri buruz gaude, ustez eta Parisetik etorriko zaukula salbamendua! Bizkitartean, Parise da aspaldian gure lehen engantzailea! Ni segurik ez nu Parisek bere aztaparretarat bilduko!

JEAN PIERRE.—Uzten zaitut Maritxu... Parisetik idatziko dautzut karta ttipiño bat nere helbidearekin...

MARITXU.—Parisen galduko zira! Emazteek bilduko zaituzte. Nagusiak zutaz baliatuko dira. Irabazi bezenbat xahutuko duzu. Hiri ustelduak kalte egingen dautzu. Parisen esklabo bilakatuko zira. Parise madarikatua da! Eta zuk halere erranen duzu ongi bizi zirela eta hemengo jende ez jakinek sinetsiko zaituzte!

JEAN PIERRE.—Banoa Maritxu. Zure begitartearen poza ni baitan sartua dago. Ez zaitut sekulan ahantziko...

MARITXU.—Nik segurik ez zaitut ahantziko. Zu izan baitzira nere biziko lehen amodioa.

JEAN PIERRE.—Egian, lehena eta bakarra!

(Besarkatzen dira eta Jean-Pierre badoa, Maritxuk ondotik segitzen duela. Atean geldik gelditzen da apur bat. Antton jalitzen da, ganbara aldetik, txixtua joz, Maritxu aldiz nigarrez ari).

ANTTON — MARITXU

ANTTON.—Zer dun nigarrez?

MARITXU.—Jean Pierre joan zaitak.

ANTTON.—Norat?

MARITXU.—Pariserat.

ANTTON.—Zendako?

MARITXU.—Nagusiak kanpora igorri dik, lanik ez zuelakotz.

ANTTON.—Heren gaindi, ez din bertze zer bait harrapatzen ahal?

MARITXU.—Alabainan, lantegiak ihaurri izanez...

ANTTON.—Eta, noiz joan gogo din?

MARITXU.—Segidan. Azken agurren egitera etorria zian. Bakarrik gelditzen nauk, Antton... bakarrik. Zer bilakatuko nuk?

MARITXU.—Igandetan zer eginen diat? Dantzatzerat ere ez nuk joaiten ahalko...

ANTTON.—Hatzemanen dun bai, bertze norbait!

MARITXU.—Zer derasak? Nik, Jean-Pierre diat maite eta maitatuko...

ANTTON.—Nik ere uste ninan lehen hura izanen zela bakarra... Geroztik ba ditinat hiru pasatuak... Ago... zoin ziren? A, bai... Josette... gaixoa. Ezagutu nintuen lehen egunean berean ikusten zinan bere burua arropa xuritan... Gero... Maite... Eta azkena Patricia, Urruñarra. Eta orai gabe nun... Eta bizi.

MARITXU.—Holakoak zirezte zuek, mutikoak. Bat utz eta bertze bat har!

ANTTON.—Ez balin badun gustukoa...

MARITXU.—Uste diat arras delikatuak zirezten...

ANTTON.—Egia nahi badun jakin, Maritxu, nexkatoak, eni, bardin zaiztan gero. Ez balin bazirezte urus, zoazte antzara

ferratzerat. Okaztagarriak zirezte... Batian, zuen xeka jin behar... gero heltzerat, bardin bestaren erdian. Edo besta batean enoatzen, edo gu enoatzen girelarik zuek gustatzen. Eta beti hola. Orai xedea hartua dinat. Bakarrik naizeno behar dutala poxi bat baliatu!

MARITXU.—Balia hadi, balia, denak bardinak zirezte, debru zikoitzak zuek!

ANTTON.—Gu ez gitun zikoitzak, zuek zirezte eta...

MARITXU.—Ago ixilik. Nardatzen nuk, baniak, hemendik. (Norbaitek aten joiten du). Uste diat norbaitek atea jo duela!

(Eta Maritxu badoa. Antton xutituz, atearen ideokitzera doa; apeza sartzen da).

ANTTON — APEZA

ANTTON.—Zu zira jaun ertorra?

APEZA.—Hire ikusterat heldu nintian to!

ANTTON.—Zer zira ardi galduen ondotik ibilki?

APEZA.—Ardi galdua; hitz handia duk, Antton. Erran dezagun: errebelatua.

ANTTON.—Bardin du bai!

APEZA.—Ez arras.

ANTTON.—Jar zaite, jaun ertorra.

(Apeza jartzen da).

APEZA.—Azken lau igande hotan mezan ez haizelakotz izan, ez diat erraiten ahal galdua haizela... Behar bada poxi bat errebelatua. Bainan, deneri gertatzen zaiena duk hori...

ANTTON.—Nola egiten duzue zuek apezek ikusteko xuxen, nor den mezan eta nor ez?

APEZA.—Jainkoaren dohaina Antton. Jainkoaren dohaina...

ANTTON.—Beraz nahi zinuke jakin zendako ez noan mezarat.

APEZA.—Erran nahi ote huke ez dukala gehiago igandetako mezarat etorri nahi?

ANTTON.—Mintzatuko naiz garbiki jaun ertorra. Batzu; mezak bozkarioz betetzen ditu. Ni, mezatik landa ilun eta trixte nago.

APEZA.—Jaunaren Hitza ez duk entzuten.

ANTTON.—Eta nere ondoan erdi lo daudenek entzuten ote dute?

APEZA.—Bakotxak bere egitekoa dik...

ANTTON.—Beraz, zendako zabiltz nere ondotik?

APEZA.—Hire ikusterat etortzeak, ez dik erran nahi hire ondotik nabilala. Arimen artzainak, arima guzien oiharzuna behar dik entzun.

ANTTON.—Mezarat joaitea neri, denbora galtzea zait.

APEZA.—Hori erraitean, Antton, bahaki zer pena egiten dau-takan! Meza duk...

ANTTON.—Ba dakit zer den Meza. Bainan...

APEZA.—Bainan zer? Gure Eliza Ama sainduak...

ANTTON.—Ba ahal dakizu zer dion *Sartre* aipatuak zuen Eliza Ama sainduaz?

APEZA.—Hu! Hik baino lehenago irakurtuak ditiat Jean-Paul Sartre-n liburu bitziak. Hik baino barnagotik ere ikertuak ditiat Kristoren erranak. Bainan zendako diok: «zuen Eliza Ama saindua»? Ez ote haiz urus, Jainko bat da delakoan eta Jainko hortan sinesteko ahala eman daukatelakoan?

ANTTON.—Aitortuko dautzut, jaun ertorra, aspaldi huntan xeka ari naizela heian zinez Jainkorik ba denez, bai ala ez. Oraino dudan nago. Bainan nahiago nuke Jainkorik ez balitz.

APEZA.—Zer derasak Antton errotzen ari ote haiz?

ANTTON.—Ez jaun ertorra. Ba dakit zer diotan.

APEZA.—Jainkoa amodio iturri bat bezala duk...

ANTTON.—Jainkoaren beldurrean bizi naiz eta ez Jainkoaren amodio gosean.

APEZA.—Jainkoaren beldurra ukan dezakan ongi duk, baina beldur horrek ez dik haren alderako amodioa tapatu edo trabatu behar!

ANTTON.—Berriz ere diot nahiago nukeela Jainkorik ez balitz!

APEZA.—Zendako ote?

ANTTON.—Aspaldian nere buruaz beste egina bainuke!

APEZA.—Antton? Zer duk bada? Harritzen nauk. Ez haiz urus?

ANTTON.—Ez, jaun ertorra.

APEZA.—Zer duk eskas? Zeren ondotik habil? Funtsean, nola urus izan ditake Jainkoaren ganik urrun dagona?

ANTTON.—Akitzen nauzu zure Jainkoarekin!

APEZA.—Jainkoa baitan sinesteak dik indarra emaiten gure bizi dohakabe hunen ahal bezain ongi iragaiteko.

ANTTON.—Jainkoan sinesten dutelakotz direa gizonak hoin ustel eta gezurtiak? Ttipi ttipitik sinetsarazi daukute, Jesus-Haurak ekartzen zituela Eguberriko eskaintzak, eta, ez da egia. Eskolan abiatu orduko erakatsi daukate Frantzezak girela, eta ez da egia!

APEZA.—Eguberri aipatzen duk eta arrazoinekin mintzatzen haiz. Bigarren ponduan hargatik ez diat gauza haundirik erraiten ahal: ez baitiat nik politikarik egiten!

ANTTON.—Horra apez guzien eskapa-bidea! Ez duzuela politikarik egiten! Eta gaurko frantzez politika giroa onartzen duzu?

APEZA.—Ez dakiat...

ANTTON.—Bai ala ez?

APEZA.—Zer egiten ahal dugu bertzerik?

ANTTON.—Beraz kapitalixta kolonizatzaileen politikaren alde zira?

APEZA.—Eliza gizon bat nuk. Elizaren ongia xekatzan duen gizon xume bat.

ANTTON.—Bainan halere, boz egunetan, zure boza norat doa eskuin ala ezker?

APEZA.—Erdia ere hor duk!

ANTTON.—Ez dakit nik, zer den erdia. Hautu bat egitekotz behar dugu hautatu: langileen alde edo heien kontra. Ber-tze bide guziak ez dira ahulen ihes-leku batzu baizik!

APEZA.—Eta ez duk uste ez dutala nere hautua aski garbi egina? Denak utzi ditiat, etxea, familia, lagunak, auzoak, Kristori segitzeko eta Kristori segituz, pobreen zerbitzari izaiteko.

ANTTON.—Pobreen zerbitzari jarri zira, aberatsen mutil bila-katuz!

APEZA.—Nolaz dezakek hori erran?

ANTTON.—Ez baita usu ikusten pobreen etxe batean, zure so-toan bezenbat xanpaña botoila!

(Apeza oihuz).

APEZA.—Ez nuk ni, zuen bizi-gordean sartzen.

ANTTON.—Gu ere ez zurean. Bainan duela hiru urte Mendekos-te-kari arratsaldeko bezperetan, «Tantum ergo»-ren partez «Pater Noster» hasi ziruelarik, denek konprenitu zuten zu-re bizi-gordean ez zinela beti uretik ari!

APEZA.—(marrumaz) Nun duk Antton, herriko apezari zor dio-kan errespetua?

ANTTON.—Errespetua, jaun ertorra, irabazten da eta ez mana-tzen!

APEZA.—Hemen sartzean, ez nian asmatzen gure solas aldia hoin behera eroriko zela. Ba nakian gazte kezkatu bat hintzela eta maite diat hi bezalako gaztekin hitz egitea, bai-nan ohartzen nuk pozoina uste baino barnago sartua du-kala.

ANTTON.—Erranak erran dira jaun ertorra. Bainan ni ere ohar-
tzen naiz, etxe huntarik jaliko zirela nitaz deus konpre-
nitu gabe!

APEZA.—Ez holakorik erran Antton. Konpreni errega duk hire
mina. Sobera gauza edo irakurgai eman daukaie; hik denak
harrapaka hartzen hintuela eta orai ez dezazkek irets. Gol-
katua haiz. Eta ez dakik zer jo... Hori duk gaurko gazte-
riaren buru-haustea. Bainan ni ere hire adinean berdintsu
nintian, geroztik adinarekin eta adimenduarekin bertzela
ikusten ditiat gauzak. Hire ikus-moldea ere Antton, hemen-
dik zenbait urte barne, bertzerik izanen duk!

ANTTON.—Erran nahi duzu; zu bezala, ni ere, burges bat bila-
katuko naizela?

APEZA.—Entzun zak Antton, nik erranik ordrearen bidetik
bartzertzeak hirrisku haundiak ditik!

(Pettan sartzen da).

ANTTON — APEZA — PETTAN

APEZA.—Etxea hartua duk, Pettan!

PETTAN.—Ohartzten naiz. Nola ez zaitudan ardura ikusten atse-
gin dut zure hemen kausitzeaz. Bainan zer? Idorrean zau-
dezte? Antton, ez duk deus eskaini jaun ertorrari?

ANTTON.—Arrunt ahantzi diat. Zer gustu zinuke: arno xorta bat
ala whisky?

APEZA.—Whisky bat bardin...

(Antton-ek zerbitzatzen ditu hiru whisky).

APEZA.—Zuen osagarriari!

ANTTON ETA PETTAN.—On dagizula!

ANTTON.—Errak Pettan, Jaun ertorra ardi errebelatuen ondolik
dabilak. Hi ere hetarik haiz naski...

PETTAN.—Ardi errebelatuak? Zer erran nahi duk?

ANTON.—Apez batentzat, ardi errebelatuak dituk, mezarat joaiten ez direnak, edo erlijione katolikotik baztertzen ari edo baztertuak direnak...

APEZA.—Ez diat uste Antton, hire anaia, erlijione katolikotik baztertzen ari den...

PETTAN.—Euskal Herriko apezzen joka bideak, bi gogoeta egin arazten dauzkit. Apezetan bada denetarik; eta hori zuhaurek ere ba dakizu.

APEZA.—Ez duk aise gizon guzior zerbitzuko izaitea. Batzuk, hori nahi ditek, bertzek hura... Ez duk gure bizia, zonbaitek uste duten bezain errea. Egun guziez karreatzen diuk gure kurutzea.

PETTAN.—Zinez libro bazinezte, urrunago joan behar zinukete!

APEZA.—Libro? Ez ote gaituk libro? Zer erran nahi duk? Lur huntako ontasun guziori uko egin diuk libro izaiteko eta nahi huke erran norbaiten meneko girela?

PETTAN.—Ba dakizu nik bezain ongi, nehor ez dela zinez libro, ez zu, ez ni, eta ez Aita Saindua ere!

APEZA.—Jakiten duk zer deitzen dukan libro izaitea.

PETTAN.—Zuretzat libro izaitea ote da: Ebanjelioren irakurtzea? Herriko auzapezarekin ongi izaitea? Apezpikuari obedientzia itsu baten ekartzea? Biafra-rentzat otoitz egin eta kitto izaitea? edo bakea behar dugula erraitea!

APEZA.—Hori ere ez duk guti!

PETTAN.—Egia. Bainan horrek ez ditu biziki gure buru-haustek aintzina arazten. Uste dut, nahitarat egiten duzula, herriko problemen axaletik bakarrik ikertzea eta hunkitzea. Aipatzen ote dituzu aldare gainetik, herriko jendekin ototzean ari zirelarik: Karlos edo donadoak? laborantza bortxaz utzi behar dutenak, lanik gabe diren gazteak; Parisen karrika egiten duten Euskaldun nexkatoak; aipatzen ote dituzu, Franco-ren pean preso dauden zure Euskal anai-apezak? Ez bakarrik aipatzen, bainan laguntzen ote dituzu?

APEZA.—Ahal dutana egiten diat. Eta bazakiat hire barne kez-
katsuaren berri. Ehunka behar litazkek hi bezalakoak.
Bainan halere ez ditiagu gauzak hik ikusten dituzkan be-
zain ilun ikusi behar (Montrari so eginez) Denbora doak...
Utzi behar zaituztet. Zerbait nahi balin baduzue, zuen zerbi-
tzari nagok. Ondoko egunak arte... Ez adiorik...

ANTTON ETA PETTAN.—Agur jaun ertorra.

(*Eta Apeza badoa.*)

ANTTON — PETTAN

ANTTON.—Eta zer diok gure ertorraz?

PETTAN.—Zer nahi duk erran dezatan... Adin batetako jendeta-
rik ez ditakek gauza haundirik idurika... Bereziki ikusi-ta;
auzapeza, apeza eta jendarme buruzagia astean aldi bat
elgarrekin bazkaltzen direla...

ANTTON.—Jendarme buruzagia ere?

PETTAN.—Adminiztrazionea adminiztrazionearekin.

ANTTON.—Bainan apez horrek ezagutzen ditik Euskal Herriko
goiti beheitiak; zendako ez duk mintzaten, zendako ez
duk mugitzen.

PETTAN.—Apeza delakotz!

ANTTON.—Eta gero zer?

PETTAN.—Hortan duk guzia! Bainan iduritzen zaitak frango
aise mintzo haizela bertzetaz. Hihaurrek; zer egiten duk
Euskal Herriaren alde? Bertzek egiten ez dutenaren ikus-
tea, hori gauza errexa duk! Bainan hire aldetik...

ANTTON.—Mao Tsé Tung-en erranen irakurtzen ari nuk.

PETTAN.—Bai badakiat teorian azkar haizela. Mao Tsé Tung-ek
diok hau. Lénine-k hori, Marcuse-k hura... Che Guevara-k
bertze zerbait eta Fidel Castro ere ez duk ixilik egona...
Teoria, teoria, beti teoria. Eta egintzak? Nun dituk egin-
tzak?

ANTTON.—Idazlan horiek irakurtu ondoan, ez diat zerbaiten egiteko gutziarik. Ez diat deusetan sinesten... Gauza guziek baditek eskualde bat ona eta bertze bat zarra. Eta uste diat zarra nagusi den! Beraz...

PETTAN.—Beraz zer? Bi eskuak kurutzaturik behar ote diagu iragan bizia...

ANTTON.—Ez diat hori erraiten... Bainan...

PETTAN.—Bardin dik. Horrek ez ote dik erran nahi: egizue nahi duzuen eta utz nezazue bakean. Tripustelkeria duk hori, Antton! Eta gero nahi huke apeza mugi dadin...

ANTTON.—Nahi duk whisky gehiago?

PETTAN.—Ez.

ANTTON.—Nik bai.

PETTAN.—Ongi bizi nahi duk, ez dea hala? Etxen eskuindar baten bizia deramak eta kanpoan edo lagunekin ezkertiarra haizela diok... Jainkorik ez dela eta gizonak ustel gezurtiak direla errepikatzen duk egunero eta hihaur, nor haiz?

ANTTON.—Hire anaia!

PETTAN.—Nere anaia haizela nahi diat. Bainan hori ez duk arrastu bat.

ANTTON.—Bai eta ez! Zenbat denbora pasatzen duk midailaren aintzinean, hire mintzaldien muntatzen ari haizelarik? Ahoa idek, gero hets, irri bat egin, kopeta zimur, esku bat altxa, bertzea gorde, biak altxa, oiuhu bat egin, begiak hets, gorputza xut ezar; eta orai galde hau Pettan: nor duk maite, Herritarak ala hire burua?

PETTAN.—Nork ez du bere burua maite? Bainan nere eginbidea duk bertzenen ere maitatzea nere burua bazenbat. Eta nola nahi baitut nere burun urus izan dadin, bertzeenak ere hala izan ditin...

ANTTON.—Ongi da jaun ertorra... A... Barkatu... Pettan. Uste nian apeza zela mintzo.

PETTAN.—Ergelkeria sartzen duk behar ez delarik.

ANTTON.—Hiri so egin eta iduri likek beti ehorzketa batetarik heldu haizela!

(Antton-ek bertze whisky bat hartzen du).

PETTAN.—Polliki Antton!

ANTTON.—Edatea maite diat. Ameslari bat nuk. Eta iluntze batez, ontsa mozkortu ondoan, itsasorat botako diat nere burua...

PETTAN.—Ago ixilik, Antton! Biziri diuk bai erran behar eta ez herioari. Eta BAI erranen diuk, lan eginez gure Aberriarentzat. Ez diuk dretxorik gure biziaren pasatzeko, beti galde bere gogoan eta mugitu gabe: hobe ote den bizi ala hil. Edo hiltzekotan, behar diuk gure burua eskaini arrazoi zuzen batentzat eta ez buruberokeriaz...

ANTTON.—Barkatu geldi arazten bahut, bainan joan behar diat... zigarretarik ez zaitak gelditzen. Segidan heldu nuk.

PETTAN.—Nahi dukan bezala... Bainan jakin zak gauza hau ere: hik egiten dukana ez duela bertze norbaitek egiten... Bakotxak gurea behar baitugu egin!

ANTTON.—Baietz, mutil, baietz. Gero arte. (Oihuz) Maritxu, ekar zan nere moltsa, gabardinean, eskuineko sakelan dinat! Maritxu, aditu dun?

(Barnetik Maritxu-k)

MARITXU.—Ez ote haiz hihaur aski haundi? Ekarriko daiat bai!

(Maritxu jalitzen da).

MARITXU.—Horra!

ANTTON.—Milesker!

(Eta Antton badoa).

PETTAN.—Zer ditun begi gorri horiek, Maritxu?

MARITXU.—Eta hi ere deneri ohartzen haiz...

PETTAN.—Zer haiz, nigarrez arizan?

MARITXU.—Jean-Pierre Pariserat johan zaitak. Bakarrik gelditzen nuk! Bakarrik. Ez nian asmatzen ahal holakorik gerta zitaikela...

PETTAN.—Nik duela zonbait aste aipatzen nuelarik barne hontan berean, eskualde hotako lan-gabezia, ba dakin zer errau hautan?

MARITXU.—Ez nuk orroitzen...

PETTAN.—«Euskal Herrian ez duk nehor gosez hiltzen. Nik Jean Pierre diat maite eta beste guziak bardin zaitak!». Eta orai zer dion?

MARITXU.—Iduri likek, leku zaurituan kanitaren igitzeak atsegin egiten daukala...

PETTAN.—Ez, Maritxu. Bainan ohartzen nun bakotxak beha duela bere bizi hartan zinez hunkitua izan, egiaren den bezala ikusteko eta sinesteko bertzenaz bakotxa beretako bizi dun eta bertzek egin dezatela, nahi dutena!

MARITXU.—Ez duk bertze zerbait hatxemaiten ahal nere konisolatzeko?

PETTAN.—Kontsolatzearen beharra badun? Maritxu, ez dun ni garrekin azkatzen Herri bat.

MARITXU.—Ba dakiat. Bainan orai, denetako prest nuk. Arratsalde huntan ikusi eta senditu diat zer heinetan giren: ez gaituk gera! Aintzinean baino hobeki konprenitzen ditia nire erranak. Egiaz mintzo haiz! Euskal Herria hiltzerat doak! Behar diuk zerbait egin! Galda zaitak nahi dukana Lagunduko hut... Egun arte nere burua baizik ez nian ikusten eta orai senditzen diat ba direla gazte asko nere kasu berean. Zer nahi duk egin dezatan?

PETTAN.—Zer nahi dun egin?

MARITXU.—Hik nahi dukana.

PETTAN.—Ez dun neri erraitea. Behar dun ikusi, zer nahi duten Herritarrek.

MARITXU.—Herritarrek zer nahi duten? Edan, jan, maitasuna egin eta lo. Bainan lo kuluxka hortatik behar ditiaguk iratzar-arazi. Eta hori gure lana duk.

PETTAN.—Ederki mintzo haiz. Kontzientzia hartu dun azkenean... Abertzaletasun hori izan dadila iraunkorra eta ez burukolpekeri bat...

(Antton sartzen da).

PETTAN — MARITXU — ANTON

ANTTON.—Nork nahi du erre? Gitane filtre?

PETTAN.—Ez.

MARITXU.—Ez. Izaitekotz dizka bat aditzen baginu?

PETTAN.—Ederki. Hauta zan, Maritxu...

(Maritxuk ezartzen du Enaut Etchamendy-ren «Aitatxi-ri duk galdegin». Hiru gazteak jarririk daude, gogoeta, argiak emeki emeki estaltzen dira. Erdi ilunpean, ama sartzen da, eta geldu geldia, xutik, dizka bururatu arte egoiten).

OIALA

HIRUGARREN ZATIA

Beti barne bera da gure aintzinean. Serora bat haskariten ari da. Ama ondoan du, xutik, oilaxko bat eskuetan...

SERORA — AMA

SERORA.—Sobera ona zira... Haskari-egiterat gomitatzen nauzu eta gainera, oilaxko bat eman nahi dautazu... Ez dira herritar guziak zu bezalakoak.

AMA.—Aspaldian eman nahia nautzun... Zaude, zaku baten xeka banoa. (Oilaxkoa serorari emaiten dio).

SERORA.—Zer oilaxko ederra... (eskuetan hartzen du). Eta zer hazta... hunekin, bi egunen janaria bederen ukanen dugu... Nola du izena...? Chantecler...? (Amak, oilaxkoa zakuan sartzen du). Funtsean, beharrik badira zu bezalako bihotz oneko jendeak, bertzenaz, goseak hila gintuzken. Badakizu jateko, hiru bagira gero egun guziz. Eta bereziki Soeur Alphonsine-k zernahi behar du.

AMA.—Eta zure osagarria, soeur Marie de l'Assomption, nola doa? Lehen buruko min ikaragarri batzu ukaiten zinituen. Eta orai?

SERORA.—Ez. Eztitu zaizkit. Eskerrak Jainkoari!

AMA.—Eta eskola libroa ere ongi johan?

SERORA.—Bai, baj. Hamar bat familia komunixtek salbu, bertze guziek gure ganat igortzen dituzte beren haurrak. Orai arte ginuan beldurra, eztitzen ari zauku.

AMA.—Eta zeren beldur zinezten?

SERORA.—Luzegi litake erraiteko. Bainan guk ukan ditugun buru hausteak bazinazki... Bego hortan... Iduri-ta eskola girixtinoak ez duen laikoa balio! Zuen Maritxu ere eskola girixtinotik ateratzen da eta ba ote du zerbait erraiteko?

AMA.—Ez segurki... Biziki planttakoa da.

SERORA.—Danzing horietarat ere abitua dela aditua dut. Egia ote da? Agian ez! Debrukeria nagusi da gero toki horietan... Ez luke hoin gazterik galdu behar...

AMA.—Zaude gustian, soeur Marie de l'Assomption, danzing horietarat zonbait itzuli eginik ere, goizik etxeratzeko usaia du...

SERORA.—Hobe segurki! Badakizu, hoinbertze itsuskeria ikusten eta entzuten da bazterretan...

AMA.—Egia diozu. Ni ere harritua nago...

SERORA.—Eta artetik erraiteko, ikusi dituzu, buru bero batzuek, gaur egin dituzten tindu zikin horiek? Balio du behatzea... Zauri... (leihoari hurbiltzen da, ama besotik hartuz). Beha... Zaude; kaderaren gainetik hobeki ikusiko duzu! —Beha, tindu beltzez, hortxet: «*Gora Euskadi*» «*Zazpiak bat*» «*Lana gaztentzat*». Eta elizako murru gainean ere badakizu zer ezarri duten?

AMA.—Ez...

SERORA.—«*Eliza aberatsen mutil!*» Harritzekoa ere bada. Ahalgingarriak ez bertzeak! Eta orenen buru; aberatsik ez nagusirik ez balitz, nun gintazke? «*Eliza aberatsen mutil*» holakorik pentsatzea ere! Eliza pobrea da. Eta beha-zazu hementxet: «*Lau eta hiru = bat!*». Burutik harrotuak dire... Zaude, beste leihotik hobekiago ikusiko dugu, «*Xo-tildaiko*» murru parretean ezarri dutena (eta biak, kaderak hartuz, doatzi barnearen bertze ezkinarat!) «*Lantegiak langileri*» «*Kapitalixten joka-bidea ez dugu onartzen*» «*Gureak gure*» «*Eskuara bat, Euskadi bat...*». Zer diozu zuk?

AMA.—Ba dakizu, Soeur Marie de l'Assomption, aski aparka ibiltzen dugu etxen berean. Eta orenen buru ez ditut nik ere gauzak duela zonbait denbora bezala ikusten... Gazteak ginelarik baginituen gure buru-hausteak eta gure ait'amek ez zuten deus jakin nahi... Gaurko gazteriak ere baditu bere buru-austeak eta ez da guri oiharzun eta nahigabe horien aintzinean begien hestea eta beharrien tapatzea.

SERORA.—Baina halere, uste ote duzu bide eta murruak zikinduz helduko direla zerbaiterarat?

AMA.—Zerbaitetarat heltzeko behar da mugitu. Gero ikusiko zer etorriko den...

SERORA.—Zer etorriko den? Saltsa, saltsa bazter guzietan!

AMA.—Jainkoaren semeak ere, denbora hartan, saltsa muntatu zuen.

(Maritxu sartzen da lasterka).

AMA — SERORA — MARITXU

MARITXU.—Ama, ama, jaun auzapeza gure etxerat heldu da, harmadun batekin.

AMA.—Jaun auzapeza, harmadun batekin?

MARITXU.—Bai ama. Urratsa luzatuz heldu dira.

SERORA.—Beraz banoa hemendik. Milesker zuen ongi etorriaz eta oilazkoaz. Otoitz eginen dut zuentzat.

AMA.—Ukan ginezake bardin beharra...

(Eta serora badoa sahetseko atetik. Auzapeza eta harmaduna sartzen dire bertze ate batetarik).

AMA — MARITXU — AUZAPEZA — HARMADUNA

AUZAPEZA.—Egun on!

AMA.—Bai zueri ere jaunak!

AUZAPEZA.—Berri hits betekin heldu naiz.

AMA.—Zer gertatzen da?

AUZAPEZA.—Ez dakit so egin duzun kanpo horietarat; bada segur pollitik! Herri guzietako murre eta bideak tinduz bete dituzte. Nere etxea bera funditu daute. Eta tindatzaile errabiatu horietarik bat: Pettan.

AMA.—Pettan?

AUZAPEZA.—Zuen Pettan bai. Ez dut komprenitzen ahal zer pasatzen zaioten burutik gazte horiei, hola jokatzeko!

MARITXU.—Eta nun da orai?

AUZAPEZA.—Preso.

AMA.—Preso?

AUZAPEZA.—Bai. Goizalderat harmadunek harrapatu dute murrutik zikintzen ari zela...

MARITXU.—Eta gero?

AUZAPEZA.—Ikusirik haren tinduek kalte ekartzen dutela Frantziako ordreari eta bakeari, arrastatu dute.

AMA.—Arrastatu. Eta zer bilakatuko da orai?

AUZAPEZA.—Lehenik, auzitegian pasatu behar du... Gero ikusiko zenbat denbora beharko duen preso egon...

AMA.—Eta gauza ttipi horrentzat hoinbertze ixtorio... Nere semea preso!

AUZAPEZA.—Gauza ttipia... Ez da arras ttipia... Frantzia gure ama maitearen kontra joaitea ez zaizu hori zerbait ba zuri? Nun da Frantzian bezainbat libertate? Nun? Txekoz-lobakian ote?

AMA.—Eta zurekin den harmadun horrek zer nahi du?

AUZAPEZA.—Zuen etxea miatu.

AMA.—Etxea miatu? Eta zendako ote?

AUZAPEZA.—Ikusteko heian, ba denez etxe huntan, harma, plaztika, bomba edo zerbait gauza hirriskudun.

AMA.—Nere etxean harmarik badenez? Nere etxean plaztikarik badenez? Nere etxean, bonbarik ba denez? Zer diozu? Terrorixta batzuentzat hartzen ote gaituzue? Ttipiak ginelarik, elgarrekin eskolan ibiliak izanki-ta ez ote nauzu eza-gutzen? Ez ote dakizu nundik ateratzen naizen?

HARDUMADUNAK.—Que dit-elle donc? Ne pouvez-vous pas parler français, comme tout le monde? Nous sommes en France tout de même.

- AMA.—Lehen aldikotz orai, senditzen dut ez naizela Frantzeza!
Eta gizon arrotz horrek nahi luke nere etxea miatu? Ho-
rren meneko ote dira?
- HARMADUNAK.—Elle proteste? Elle n'accepte pas? Est-elle com-
plice?
- AMA.—Erraiozu, nere etxea nahi balin badu miatu, mia dezan!
- AUZAPEZA.—Vous pouvez y aller!
- AMA.—Maritxu, segi hadi ondotik... Ez dakigun batere gero, nor
den gizon hori...
- AUZAPEZA.—Harmadun buruzagi bat da... Gizon argitu eta se-
rioz bat.
- AMA.—Frantzia Alemanen meneko zelarik ere gauza bera gerta-
tzen zen. Alemanek Frantzezen etxeak miazten zituzten.
Eta orai zer? Frantzezek Euskaldunenak?
- AUZAPEZA.—Ez da bardin...
- AMA.—Zer ez dela bardin? Ezagutzen ez dutan Frantzez gizon
batek nahi du nere etxea miatu, eta nola deitzen duzu hori?
Guretz jabetzea ez?
- AUZAPEZA.—Ez da luzaz egonen...
- AMA.—Funtsean, gure etxea nahi badu miatu, ganer horietan,
ez ditu frantzez gerla orroitzapen batzu baizik harrapa-
tuko. Nere aita zenak, hamalaueko gerlan irabazi lau me-
dailak ikusiko ditu. Eta zurezko zango bat ere bai. Nere
senarra berrogei-ta bertzeko gerlatik, zango motz etorri
baitzen! Eta gerlaren ondorioetarik hil!
- AUZAPEZA.—Ohore Frantziarentzat odola ixuri duten gazte zin-
tzoeri! Zer ez dugu guk ikusi Frantziari leial egoiteko! Bi-
ba Frantzia! Zenbatek ez dute beren bizia eskaini, egungo
gazteak urus izan ditena... Eta bizkitartean ez luke biziki
ageri, estimatzen dutela Frantzia maitearen onezia...
- AMA.—Diozu zer nahi ikusi duzuela Frantziari leial egoiteko...
Nun zinen gerla denboran? Ez ote zira Bordelen egona, hi-
rrisku haundirik hartu gabe?

AUZAPEZA.—Gerla ari delarik, denetan hirriskua bada.

AMA.—Bai, Bainan zu et zure kidekoen joka bidea da, lanjerra delarik ontsa gorderik egoitea eta gero bertzek gerla irabazi ondoan heien egintzetaz baliatzea! Orduan bai: Biba Frantzia! Bainan haren alde bermatu behar delarik, nahia-go dituzue halere bertzeak igorri.

AUZAPEZA.—Zer duzu ene kontra? Ez ote ditut herriko aferak behar bezala eremaiten?

AMA.—Oxtian erraiten zinuen: «Zenbatek ez dute beren bizia eskaini egungo gazteak urus izan ditene?». Eta uste duzu aras urus direla?

AUZAPEZA.—Zer dute eskas? Auzapez jarriz geroz, ezar arazi ditut herri huntan ura eta elektrika. Etxe guzietarat auto bidea bada. Eskolako haurrak ere ez dira gehiago oinez ibilki... Arrabotea berri arazi dut. Pizina bat ere muntatu. Eta aurten izigarriko lanak hasi beharrak ditugu «lac» haundi baten egiteko. Horiek hola, zer dute eskas oraiko gaztek?

AMA.—Eta «lac» edo putzu horrek zenbat gazteri emanen du lana?

AUZAPEZA.—Turixtak ekar araziko ditu.

AMA.—Uste duzu turixtekin bizi araziko dugula gure herria?

AUZAPEZA.—Dena ere on...

AMA.—Eta lantegirik ez ditake munta? Zer bilakatuko dira gure gazteak?

AUZAPEZA.—Gazte batek maite du kurritzea...

AMA.—Zuk hola diozu. Bainan ez da denentzat egia. Ezagutzen ditut frango, berriz gogotik itzul litaizkenak. Bainan hunat itzuli eta zer eginen dute? Lanik ez da. Ez dira urte guziaz zangoak urean egoiten ahal, putzu bat badela-ta...

AUZAPEZA.—Eskualde hotan lanik ez izanik ere bertze nunbait balin bada...

AMA.—Zendako ez da gure herrian lantegirik? Ala udan turixtak hemen ditugulakotz behar ditugu gero bederatzi hilabete eskuak kurutzaturik pasatu? Zu aise ari zira. Otel bat dauka-zu... eta ondoan laborantza. Zuhaurek dakizu nola bildua, bainan gauden hortan... Beraz zuri beharrezkoa zautzu putzu baten egitea. Zure otelean jende gehiago ukanen duzu, eta oraiko zure aberastasuna ez da ttipituz joanen. Bainan bertzek zer egingen dute?

AUZAPEZA.—Ahal dutena! Hemen egoiteko ez badira on, joan ditela bertze norapeit!

AMA.—Eta hori erraitean ez duzu bihotza hunkitua?

AUZAPEZA.—Bihotza hunkia? Ttipikeria horientzat behar balitz odol gaixtoa egin, nun gintake? Frantzia guziaren beharri behatu eta deus ez da hori. Ez dugu sobera berezkorra izan behar bizian. Behar da so egin du baino gaizkiago direneri... eta orduan ikusiko duzu biziki ontsa girela eta ez gitaizkela hobekiago izan!

AMA.—Zu bai, ongi bizi zira. Bainan nere aldetik ez dezaket hoinbertze erran! Senarra galdu ondoan, lehenik, funtsean saltzen hasi behar izan dut. Gero behiak eta zaldia. Gero ardiak eta zerriak. Denak... Ihardokitzeke eta nere haureri behar bezalako erakaspén baten emaiteko!

AUZAPEZA.—Pettan segurik ez dakit zein eskoletan atxikia duzun...

AMA.—Pettan... Egia... Gaixo Pettan. Ahanzterat nindoan. Pettan preso... eta ni hemen zurekin solasean. Harmadun bat etxearen miatzen ari... Zu zira jaun auzapeza, nere semearen preso altzaraztailea zure gatik da nere semea preso.

AUZAPEZA.—Nere gatik? Zer egin dut nik?

AMA.—Erran dezagun, izaitekotz, zuk egin ez duzunaren gatik dela preso.

AUZAPEZA.—Eta zer da, nik egin ez dutena?

AMA.—Zure boza bortizki altxatzen ote duzu biltzarre horietan, gure herrietako lan eskasiaren jakin arazteko frantzez manatzaileri? Zerbait egiten ote duzu ezin bizian direnentzat? Erraiten ote duzu ez gitaizkela turixmoarekin bakarrik bizi? Erraiten ote duzu laborantxa etxeak husten ari direla? Erraiten ote duzu urte bakoitz 2.000 gazte badoatzila? Bai ala ez?

AUZAPEZA.—Azken urte hautako auzi haundiena ginuen gure deituraren hautatzea!

AMA.—Zer deitura?

AUZAPEZA.—Gure departamendua nola izenda: Basses-Pyrénées edo Pyrénées-Atlantiques. Zazpi urte iraun du auzi horrek. Ikusten duzuen bezala, ez dezazkegu denak betan egin! Eta nahi baduzu egia jakin, nere boza bortizki altxatu dut Pyrénées-Atlantiques-en alde! Ez naiz gero auzapez bakarrik. Kontseilu jeneralean ere barne naiz! Eta nork daki, bihar bardin deputatu...

MARITXU sartuz

MARITXU.—Ama harmadun hunek galdatzen du zure ganberako harmairuaren gainean den ferlankazko untzi ttipiak zer duen barnean...

AMA.—Zer ari da zirtzil hori nere ganberako gauzen harrotzen... Ala zer ditu, gelditzen zauzkan azken diruak ere berekin ereman nahi?

(Maritxu berriz kanporat doa).

AMA.—Eta zuk, jaun auzapez ohoragarria, onartzen duzu hori? Ez da bederen zuk manaturik etorria? Nere semea preso altxatu duzue bide tindatzen ari zelakoan. Preso, ohoin bat bezala, gaixtagin bat bezala! Eta nere etxearen miaztea ongi hatxemaiten duzu! Behar bada, zure etxea mia balezate, kontrabandako gauza gehiago harrapa lezakete zurean, nerean baino. Bainan zu Jauna, azkarrenaren alde zira. Nork hunki zu? Indarra zurekin duzu! Tapa gaurko

Euskal Herriko zauriak. Mintza ordrearen alde... Ez erran lanik ez dela gaztentzat. Sal euskal lurrak arrotzeri. Sal gazteria, sal ditugun guziak! Diruarentzat zure ama sal zinio!

(*Maritxu agertuz*).

MARITXU.—Untziaren gakoa galdatzen du...

AMA.—Erraion jali dadin nere ganberatik. (Maritxu berriz doa). Orai ohartzen naiz sobera laster idoki dautzuetala atea! Kanpoan uztekoak zirezte zuek! Nere semea preso altxatzen duzue eta hunat heldu zirezte haundi haundia denetan nagusi bazinezte bezala, ahalgerik gabe. Ala, zueri, zinezko etsai batzueri bezala, behar ote dut mintzatu?

AUZAPEZA.—Zaude zure mihiaren jabe!

AMA.—Nere mihiaren jabe? Hala ez denik erraiten ote dut? Ala egiak zaitu izitzen... Eta ororen buru nere semearen alde zer egingo duzu?

AUZAPEZA.—Ez dut gauza haundirik egiten ahal...

AMA.—Nahiago duzu beraz, harmadun eta juje Frantzezekin ontsa izan, giren Euskaldun familia ohoragarri batekin baino. Milesker jaun auzapeza. Badakit zer balio duzun...

AUZAPEZA.—Ez zinuke nahi bada, Frantzia-ren kontra mugitzen den mutiko bati laguntza ekar diozetan... zure semea izanikan ere...

AMA.—Nere semea ez da norbaiten kontra ari. Euskal Herria du salbatu nahi.

AUZAPEZA.—Ni ere Euskalduna naiz. Nik ere Euskal-Herria maite dut eta horren alde bermatzen naiz.

AMA.—Bai putzuak ezarriz nun nahi. Lana behar da eman gazteri, eta ez zango-mainuak eskaini!

AUZAPEZA.—Jarraiki behar dut jaun profetaren erraneri.

AMA.—Baia emana duzu beraz Euskal-Herriaren herioari!

HARMADUNA — MARITXU (*sartzen dira*)

HARMADUNA.—Ma fouille est terminée. Mesdames, je vous demande de bien vouloir me suivre au Commissariat. Vous n'y voyez pas d'inconvénient M. le Maire?

AUZAPEZA.—Absolument pas! Mais ce serait a quel sujet?

HARMADUNA.—Vérification d'identités...

AUZAPEZA.—Bien, bien. Jaun horri segi zaitezte...

AMA.—Ez dut uste zu bezalako Euskaldun Frantzez zikitatuekin salbatuko dugula gure Euskal-Herria!

AUZAPEZA.—Les paroles qu'elle vient de prononcer portent atteinte à la Sécurité de l'Etat!

MARITXU.—Vous êtes un menteur et un traître M. le Maire! Gora Euskadi!

(*Eta hiruk jakitzen dira*).

AUZAPEZA *bakarrik*

AUZAPEZA.—Lau jenerazione hotan gure etxetik jalgi dira herri huntako auzapezak! Eta adin huntarat heldu behar izan dut holako eñulkerien aditzeko... Euskal-Herria salbatu... Gazte buru bero batzuek hori erran dezatan, paso... bainan adin hortako emazte batek... Ez, Halakoez arrastatu behar dute! Nun nintazke ni, ez banu Frantzez gobernamentutik zubbazionerik hunkitzen? Gerla denboran Bordelen nintzela eta gero zer? Frantziaren amodioa hor daukat (bihotza hunkiz) et hor! (moltsa hunkiz eta luzaz jos).

APEZA *sartzen da*

APEZA.—Ez dut onartzen... Ez dut onartzen...

AUZAPEZA.—Zer ez duzu onartzen?

APEZA.—Ez dut onartzen, etxe huntako ama-alabak eta Pettan arrasta dezazten. Familia hau ohoragarria da Ez dut onartzen...

AUZAPEZA.—Familia ohoragarria deitzen duzu, arrazoinik gabe, murru zikintzen ari dena, Frantziaren eta nagusien kontra mintzatuz.

APEZA.—Ez da hor norbaiten arrastatzekorik...

AUZAPEZA.—Fermu behar da agertu karia hotan!

APEZA.—Bainan zuk ere ezagutzen duzu familia hau. Jende serioz batzu dira.

AUZAPEZA.—Nik aditu dituztenak entzun bazinitu ez zintazke hola mintza! Komunixtekin eskuz-esku ari dira...

APEZA.—Komunixtekin?

AUZAPEZA.—Bai jaun ertorra. Komunixtekin. Zuharek ere ikusi ahal izan duzu eliza murruan zer ezarri duten...

APEZA.—Bai. Bainan halere... ez dira gauzak samindu behar...

AUZAPEZA.—Elizako murruen garbitzea nork pagatuko du? Herriak ala zuk?

APEZA.—Agian herriak.

AUZAPEZA.—Aste huntako budjetean dugu ere elizako teilatua-
ren itzultzea. Nahi duzu egina izan dadin, bai ala ez?

APEZA.—Bai!

AUZAPEZA.—Nere bi alabak eskola girixtinoan ditut... Nahi du-
zu han utz ditzadan, bai ala ez?

APEZA.—Bai!

AUZAPEZA.—Beraz... hobe duzu ixil ixila egoitea! Jaun ertorra bertzenaz, jaun apezpikuak Biarnorat igorriko zaitu, puni-
menduz... Aditu duzu: ixilik zaude!

APEZA.—Ongi da, jaun auzapeza!

ANTTON.—Denak entzun ditut. Biba zuek! Gezurra eta saldukeria dario zuen ahotik! Ez nuen uste jaun ertorra elizako teilatuan truk salduko zinuela gure familia. Ez zuen balio, joan den egunean artzea libro zinela erraiten! Eta zu jaun auzapeza, komunixmoren beldurra sar-araziz. apez eta jende ez-ikasiak izi arazten dituzu eta ooren buru ez zira faxixta bat baizik. Eta faxixtak hil behar dira!

APEZA.—Antton!

ANTTON.—Zaude ixilik. Egun arte, dudan nindagon ni ere. Bainan orai ikusten dut garbiki nun den nere egitekoa.

(Harmaduna berriz heldu da eta eskua tinkatzen du apezari) Hiruak elgarrekin dagotzi; eta hiruen begitaratean irria ageri da. Eman ditela besos beso).

ANTTON.—Zuek, ordrearen alde zireztenak, apez, auzapez edo harmadun, zuek, zuen EZA emana duzue **Euskal-Herriari**. Ordrea eta indarraz ezarri bakea hautatu duzue bainan ez egia! Egia, hautatuz, irabazia eta bizia hurriskatu behar baitira! Zuek, diruaren mutil batzu zirezte, hiruak! Bainan, diruak ez dakar salbamendurik! Eta egun, gure lurretan errege bazirezte ere, zuek, Euskaldun jendea, bere-hartaz desjabeturik balin badaukazue ere; azken hitza ez da errana! Guk gaztek, Euskaldun gaztek, dugu erranen Euskal Herriari: **BAI ALA EZ!**

D. LANDART

Donoztirin - Mugerren
1969-an idatzia

OHARRA

Lan hau umeentzat izanik,
edozeinek egileen baimena du
euskalkietara itzulita emateko.

EUSKAL IKASTOLA

(jaialdia osotzeko antzerki laburra)

Egilea: Xabier Gereño

Abestiaren egilea: Sabin Gereño

Hizkuntzaren zuzenketak:

Imanol Berriatua

LEHENENGO EKITALDIA

I

(Ikastola bat. Horman, letra haunditan: «Euskal Ikastola». Behean,
andereñoaren mahaia ta umeenak).

ANDEREÑOIA, UMEAK ETA GIZONA

(Andereñoa, bizia, alaia, jatorra. Zutik dago).

AND.—Ea, Iñaki. Zenbat dira 17 ta 15?

IÑA.—Ba... ba... 33.

(Beste umeak barre. Batzuek eskua jasotzen dute).

AND.—Txarto esan duzu. Ea, zuk, Aitor.

AIT.—32.

AND.—Ondo. Orain, zuk, Oier. Zenbat dira 24 eta...

(Atean buru bat agertzen da. Ikastolakoak haruntz begiratzen dute. Gizon gazte bat da, eskuan kartera bat dakarrela. Oso berritsua ta alai).

GIZ.—Egun on, andereño ta umeak. Kontxo! Zelako ikastola polita daukazuen! Kontxo, kontxo!

AND.—Hori esateko besterik etorri ez bazara, esan duzu ta orain ospa, ospa hemendik, lanean gauda ta.

GIZ.—Ba, ni neu be, lanean nago.

AND.—Ez dirudi, ba, lanean zaudenik.

GIZ.—Ea, umeak. Erakutsi zelako boligrafoak dituzuen.

(Erakusten diote).

GIZ.—Horrelakorik! Kaka, kaka hutsa!

AND.—(Haserre antzean). Kontxo ta kaka ta... zer da hizketa hori? Zer uste duzu dala hau? Tabernaren bat ala? Hau ikastola bat da, kultura etxe bat. Eta ez hemen horrelako hitzik erabili.

GIZ.—(Koipetsu). Barkatu, andereño. Baina nire denporetan ez zegoen euskal ikastolarik eta, beraz, nire kultura eskasa da.

AND.—Ea, amaitu arin. Esan behin betiko zer nahi duzun.

GIZ.—(Kartera zabaltzen du). Boligrafoak. Daudenik onenak. Berez idazten dute, berez, ortografiatzko falta barik.

AND.—Ba ditugu boligrafoak, eta sobran euki be.

GIZ.—Ez diot ezetz, baina ez hauetarikoak. Ikusten duzu hau zein polita dan? Gorri gorria, zure espain ederren antzekoa. Eta zu zeu zarela, erregalu moduan eskaintzen dautzut.

AND.—Erosi nahi nauzu? Ez dut nik zure erregaluen beharrik. Ale, batu guztia ta ospa, ospa hemendik!

GIZ.—Itxaron apur baten! Ez zaitez hain prisatia izan.

AND.—Hemen lanean geunden.

GIZ.—Lanean zeundeten eta lanean gaude. Nork esan du berterik? (Karteratik paper batzuk ateraten ditu). Eta honelako blokerik? Ikusi dituzue inoiz honelako blokerik? «Txistulari» markakoak. Ikusi hemen txistulari bat.

AND.—Ez dugu ezer behar. Hemen, «konpleto» gaude. «Konpleto», ta zu sobran zaude. Beraz...

(Atean neska bat agertzen da).

NES.—Andereño: zuzendariaren partez, etortzeko.

AND.—Bai, ba noa.

II

GIZONA TA UMEAK

(Andereñoa joanda, umeen artean dana da zalaparta ta zarata. Batzuk, elkar joka. Beste batzuk paperez egindako bolak jaurtikitzen).

GIZ.—(Eskuekin txalo eginez). Ea, mutilak. Danok isilik, ikastolan gaude ta.

(Umeak ez diote kasurik egiten. Karteratik karameloak ateratzen ditu).

GIZ.—Txarrean ez bada, onean. Ea, hemen ditut karameloak. Hauek jaten dituzuen bitartean, behintzat, isilik egongo zarete.

(Karameloak zabaltzen ditu. Umeak baretzen dira).

GIZ.—Eta orain, ea. Ikusten duzue blok hau? «Txistulari» markakoa da. Galdera bat egingo dautzuet, eta zuek erantzun. Ea, zein da blokerik onena?

UMEAK.—«Txistulari» markakoa!!!

GIZ.—Ederto. Orain boligrafoekin.

III

GIZONA, UMEAK ETA ANDEREÑOA

(Atean andereñoa agertzen da. Han geratzen da, begira. Besteak ez dira konturatzen).

GIZ.—Nire izena Ander da. Ea, zeintzuk dira boligraforik onenak?

UMEAK.—Ander-enak!!!

(Andereñoa sartzen da).

AND.—Ederto. Ederto dakizu zuk denpora aprobetxatzen.

GIZ.—Lanean nago. Esan dautzut lehen be lanean nengoena. (Neskari urreratuz). Ni, oso langilea naiz, eta zu (neskari begira), zu...

AND.—(Atxeruntz doa). Kontuan hartu non gauden.

GIZ.—Bai, bai. Ta, zer (atea seinalatuz), zuzendariarekin ondo? Bronkaren bat euki duzu?

AND.—Hau da hau gizona! Oraintxe bertan hemen presentatu, ta ikastolako gora-behera guztiak jakin nahi.

GIZ.—Barkatu. Ta... boligraforik?

AND.—(Hasperen bat eginik). Zer erremedio! Zu bistatik kentzeagaitik, erosi beharko! Ekarri egizuz dozena bat!

GIZ.—Eta, blokerik?

AND.—Blokeak be? Tira, atara daukazun guztia, ea amaitzen dugun.

GIZ.—Zenbat bloke?

AND.—Beste dozena bat. Eta mesedez, zoaz orain.

GIZ.—Bueno, gaurko nahikoa da, ta banoa.

AND.—Zoaz, zoaz ordu onean.

GIZ.—(Guztia batzen du). Bueno, andereño. Bueno, umeak. (Eskuak eraginik). Agur, agur. (Atean buelta ematen du). Eskarrik asko ta... gora euskal ikastolak!

ANDERENOA TA UMEAK

AND.—Hau bai izan dela pelmadea. Horrelakorik! Aurpegi gogorragorik! Zemento, zementoa saltzen ipini behar lituzkete horrelako gizonak. (Jezarten da). Ea. umeak, goazen gurearekin. Baina aurretik, gauza bat esan behar dautzuet. Zuzendariak deitu daust eta esan datorren astean esaminak direla. Ea, ba, zelan ikasten duzuen. Euskal ikastolen izena gora jaso behar dugu. Ea ihazko legez aurten be lehenengoak geratzen garen. Ikasiko duzue asko?

UMEAK.—Bai, denreño!!!

AND.—(Erlojua begiratzen du). Ordua da. Amaitu dezagun gaurkoa abesti batekin. Ea, abestu dezagun «Ikusi mendizaleak».

(Istrumendutik badago, txistu, akordeoia, kitarra, barrutik lagundu, umeak abestuten duten bitartean).

(Bigarren estrofan, «hain ederra, hain polita da ta» abestu baino lehen, andereñoak ikusleei begira...).

AND.—Ea, zuek be gurekin!

(Abestia amaitzen danean...).

TELOIA

BIGARREN EKITALDIA

I

(Lehengo ikastola berean).

ANDEREÑO A TA GIZONA

(Andereñoa jezarrita dago, paper batzuk aztertzen. Gizonak burua agertzen du).

GIZ.—Idoia?

(Andereñoa zutik ipintzen da).

AND.—Ola! Nire izena be ikasi duzu?

GIZ.—Hori da nire ofizioa, jendeari ematea, erosi dezaten: klienteen izenak eta gustuak ezagutu, gero eurekin zertaz hitz egin jakiteko.

AND.—Klienteen gustuak esan duzu? Horrek esan nahi du nire «bizitza pribada» be aztertzen ibili zarela.

GIZ.—Jakina ba!

AND.—Horrelakorik! (Zirikalari). Eta... niri buruz, zelako informazioa hartu duzu?

GIZ.—Hori, «sekreto profesionala» da.

II

ANDEREÑO A, GIZONA TA SEÑORITA

(Atean, andra bat agertzen da. «Señorita estúpida» delako bat).

SEÑ.—Buenos días.

AND.—Egun on. Zer nahi duzu?

SEÑ.—Hau, kolejio bat da, ezta?

- GIZ.—(Señoritari goitik behera nabarmenki begira). Bai.
- SEÑ.—Ba, nik, alaba bat daukat eta...
- GIZ.—Zure alaba horrentzat hau baino leku hobeagorik ez duzu bilatuko.
- SEÑ.—Hori nahi dut nik bat. Nire alabarentzat leku hoberena. Gu, jende inportante gara.
- GIZ.—(Burlaz). Bai. Hori bistan dago.
- AND.—Zenbat urte dauka zure alaba horrek?
- SEÑ.—Sei urte.
- AND.—Ederto. Etorri leiteke. Eta, euskeraz ba dakit?
- SEÑ.—Euskeraz? Qué pregunta!
- GIZ.—Horrek, baietz esan nahi du.
- SEÑ.—(Gizona despresioz begiraturik). Horrek ezetz esan nahi zuen.
- GIZ.—Bueno, ba hemen ikasiko du.
- SEÑ.—Hemen euskera ikasiko duela?
- GIZ.—Bai.
- SEÑ.—Qué atraso!
- GIZ.—Atraso? Atrasoak gero... ez dira beti txarrak izaten. «Cobrar los atrasos» gauza ederra izaten da. Eta, zeruan be, azkenak lehenengoak izango direla dinoe.
- AND.—Euskera ikastea gauza ona da.
- SEÑ.—Uf! Pa qué sirve eso!
- GIZ.—«Pa qué sirve» esan duzu? Horrelakorik!
- SEÑ.—Bai. Ni andra praktikua naiz. Nik, zeozetarako balio duena bakarrik egiten dut. Balio ez duena, tontoentzat.
- GIZ.—Orduan, zuk dirua irabazteko balio duena bakarrik nahi duzu.
- SEÑ.—Bai. Dirua da gaur nagusi.

GIZ.—(Andrari urreratzen jako). Eta, zertarako balio dute hor belarrietan dituzun arrakadak? Zer probetxu ematen dautzute dirutan hor eroatearekin?

SEÑ.—Dirutan... dirutan ez. Hori apainduri bat da.

GIZ.—Eta... neguko egun gogorretan, zergaitik agurtzen duzu jendea «egun on» esanda? «Egun on» esan eta hotzez dardarka! Dirurik lortzen ete duzu hortik?

SEÑ.—Ez, hori esatea kortesia bat da.

GIZ.—Ikusten duzu? Munduan ez da guztia diruarekin neurtu behar. Ba daude zuk aitatu dituzun APAINKETA, KORTESIA... ta beste asko.

SEÑ.—Ez pentsa zure hitzekin nahastuko nauzunik.

GIZ.—Hori, ba nekian zu ikusi orduko.

SEÑ.—(Haserre). Zer esan nahi duzu horrekin? Astoa naizela?

AND.—(Bakea ekarri nahian). Parkatu. Baina zeozer esan nahi dut. (Andrari). Hara. Guk hemen ahal dugun ondoen erakusten dugu. Gure ikastola hau da gure herrian dagoen kolejiorik onena. Joan dan urteko esamintetan, gure umeak danen artean lehenengoak geratu ziren. Beraz, kolejio on bat nahi baduzu, hemen daukazu gurea.

SEÑ.—Baina... euskera...

AND.—(Bizi). Euskera ez da eragozpenik, laguntza baino. Hara. Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobe. Burua, adimena, hainbat eta argiagoa.

SEÑ.—Frantzeza izango balitz...

AND.—Ikasiko dute frantzeza be. Baina hasi, hasi euskeratik.

SEÑ.—Eta zergaitik euskeratik?

AND.—Geurea dalako.

GIZ.—Euskera da munduko hizkuntzarik zaharrena, ederrena.

AND.—Ez horregaitik. Nik ez dakit munduko zaharrena ala ederrena dan, ezta jakin beharrik be. Euskera maite behar dugu geurea dalako, eta akabo.

SEÑ.—Eta zertarako...

AND.—Zertarako balio duen galdetu nahi zenuen?

SEÑ.—(Lotsati). Bai.

AND.—Hara. Lehen ikusi duzu munduan, diruz gainera, beste gauza batzuk be kontuan hartu behar direla Euretari­ko bat, herri baten nortasuna. Hizkuntza bat, ez da bakarrik hitz egiteko tresna bat. Hori baino besterik ez balitz, one­na hartu ta besteak kendu, ta kito. Baina ez, hizkuntza bat hori baino gehiago da: herri bateri bere nortasuna ematen dio. Gu euskaldunak gara euskera dugulako. Eus­kera galduko bagendu, ez ginateke gehiago euskaldunak izango. Baina ba dago gehiago. Hizkuntza batek kultura berezi bat sortzen du, ta biak, hizkuntzak eta kulturak ho­rrek, herria moldatzen dute. Gu gara garen lakoak euske­rari eskerrak. Hizkuntza batek, gure adimenean, gure ba­rruan, guk uste dugun baino lan gehiago egiten du.

GIZ.—Brabo, andereño! Uste nuena baino gehiago zara.

SEÑ.—Bueno, ba. Horrelan bada...

AND.—Ez, ez dut zure alaba hona indarrez ekarri nahi. Proba bat egin zenezake. Bialdu ezazu hona, ta gauzak zelan doazen atsegin bazaizu...

SEÑ.—Bai, hori egingo dut. Eta noiz ekarri behar dut?

AND.—Gaur berton, nahi baduzu.

SEÑ.—Agur ba. Arratsaldean ekarriko dut.

AND.—Agur.

III

ANDEREÑO A TA GIZONA

GIZ.—Harrituta utzi nauzu. Ez nuen uste hain balientea zi­nenik.

- AND.—Zer uste zenuen ba? Ikastoletako andereñoak edozer ginela?
- GIZ.—Eta oraintxe hasarretu behar zara? Oraintxe, beste begi batzuekin ikusten zaitudanean?
- AND.—Beste begi batzuekin ikusten nauzula? Zenbat begi dituzu ba?
- GIZ.—Ez zaitetz txatxarra izan. Ba dakizu zer esan nahi dudan.
- AND.—Bueno, hemen gaude alferrikako berriketean. Zertarako etorri zara gaur? Boligrafoak saltzera?
- GIZ.—Ikusten duzu? Zu ikustean, boligrafoak saldu behar ditudala be ahaztu egiten zait.
- AND.—Horretarako zentozan?
- GIZ.—Horretarako... eta zu ikustera.
- AND.—Bueno. Ba ikusi nauzu, ta boligrafoak ez dugu behar.
- GIZ.—Ai, neska hau zein gogorra dan! (Neskarengana urrerratu). Baina, gogorra baizen polita! (Eskua bihotz gainean jarriarik). Ai!!!
- AND.—Tripetako minik daukazu?
- GIZ.—Ez, apur bat goratxuago.
- AND.—Tunante hori!
- GIZ.—Ta, boligrafoak?
- AND.—(Hasperen batekin). Zer erremedio! Ekarri dozena bat.
- GIZ.—Eta blokerik?
- AND.—Kontxo, kontxo ta errekontxo. Ekarri beste dozena bat.

III

TELOIA

I

(Ikastolan)

ANDERENOA TA UMEAK

AND.—Bueno, umeak. Berri pozgarri bat daukat zuentzat. (Paper batzuk hartzen ditu). Esaminak ederto egin zenituzten.

UMEAK.—(Umeak txaloka hasten dira).

AND.—Ixilik, ixilik. Oraindino gehiago dago. Aurten be, geure ikastola lehenengoa geratu da.

UMEAK.—(Txalo haundiagoak).

AND.—Asko ikasi duzuelako, onak izan zaretelako, geure eskul ikastolaren izena goi goian ipini duzue. Eskerrik asko. Bihotzetik, eskerrik asko.

(Atean, gizonak burua agertzen du).

II

ANDERENOA, UMEAK ETA GIZONA

GIZ.—Sartu leiteke?

AND.—Berriro zu hemen? Etxekoa zarela ematen duzu?

GIZ.—Kontuz! Ez nator orain boligraforik saltzera.

AND.—Ez duzu pentsatuko hori sinestuko dudanik!

GIZ.—Ba, sinestu beharko.

AND.—Ea, bota arin botatzekoa.

GIZ.—Zer ba! Gaur be prisaz?

AND.—Munduan gaur horrelan gabilta. Beti prisaz.

GIZ.—Ba, sinestu nahiz ez sinestu, gaur zuei zorionak ematera etorri naiz, eta ez besterik. Herri guztiak daki esamintan lehenengoak geratu zaretela.

AND.—Eskerrik asko.

GIZ.—(Umeai begira). Baina, zergatik urten duzue lehenengoak? Ba dakizue zergatik?

UMEAK.—Ez!!

GIZ.—Ezetz? Ez dakizuela zergatik? «Suspenso», guztiei «suspenso». (Andereñoari). Eta zuk bez, ez dakizu zergatik geratu diren lehenengoak?

AND.—Santa Rita-ri kandela bat ipini diozulako?

GIZ.—Ez, andrea! Nire boligrafoakaitik! Hori, nire boligrafoakaitik. (Umeai). Zeintzukin egin zenduen esamina?

UMEAK.—Ander-en boligrafoekin!!

GIZ.—Ikusten duzue? Ikusten duzue zein onak diren Ander eta bere boligrafoak?

AND.—Gaurko honek ospatzea merezi du. Beraz, orain ikastolako ume guztiak merienda bat duzue.

UMEAK.—Brabo!!!

GIZ.—(Andereñoari). Eta gero, zuk eta biok, afari on bat egingo dugu elkarrekin. Konforme?

AND.—Konforme!

UMEAK.—(Abestuten dute).

GOAZEN, GOAZEN

Goa-zen, goa-zen guz-Ti-ok goa-zen os-pa- Tze-ra, i-kas-To-len
Be-re. u-ga- ri-Tze-a hain da poz-ga- rri-a,
i-ze-na go-ra ja-so- Tze-ra. eus-kal i-kas-To-le-kin go-ra geu-re-eus
ke-ra

I


Goazen, goazen guztiok
goazen ospatzera,
ikastolen izena
gora jasotzera.

II

Bere ugaritzea
hain da pozgarria,
euskal ikastolekin
gora geure euskera!

TELOIA
AZKENA

Bilbaon, 1970 abuztua 7



PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones
Científicas en Gulpúzcoa)

REVISTAS

**BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País)**

España

Suscripción anual	1.500 ptas.
Número suelto	800 »
Número atrasado	1.000 »

Extranjero

Suscripción anual	1.800 »
Número suelto	1.000 »
Número atrasado	1.200 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500 ptas.
Número suelto	300 »

Extranjero

Suscripción anual	600 »
Número suelto	400 »

**MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales
«Aranzadi»)**

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 »
Años 1962 y siguientes ...	300 »

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de
Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN

